



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# EKONOMIA GARAIKIDEA

Asier García Lupiola

**EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN  
SARE ARGITALPENA**

ISBN: 978-84-9860-922-6

Liburu honek UPV/EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

# AURKIBIDEA

## I. ZATIA. INDUSTRIAURREKO EKONOMIA ETA INDUSTRIALIZAZIOA

I. gaia. Industriaurreko munduaren ekonomia.....	3
II. gaia. Industrializazioa.....	8

## II. ZATIA. LEHENENGO INDUSTRIA IRAULTZATIK BIGARREN MUNDU GERRARA

III. gaia. Industrializazio-ereduak Europan.....	16
IV. gaia. Industrializazio-ereduak Europatik at.....	37
V. gaia. Bigarren industria-iraultza (1870-1940).....	54

## III. ZATIA. HIRUGARREN INDUSTRIA IRAULTZA

VI. gaia. Nazioarteko ekonomia kapitalista Gerra Hotzean (1945-1990).....	69
VII. gaia. Ekonomia sozialisten garapena.....	88
VIII. gaia. Garapen-bidean dauden ekonomien historia garaikidea.....	100

## IV. ZATIA. GLOBALIZAZIOA

IX. gaia. Globalizazioa eta XXI. mendeko erronkak.....	117
X. gaia. Europar Batasuna eta beste ekonomia-lankidetzak/bateratze prozesuak.....	141

## V. ZATIA. INDUSTRIALIZAZIOA ESPAINIAN ETA EUSKADIN

XI. gaia. Espainiako garapen ekonomikoaren eboluzioa.....	159
XII. gaia. Euskadiko industrializazioa.....	180
BIBLIOGRAFIA.....	184

# I. gaia. INDUSTRIAURREKO MUNDUAREN EKONOMIA

## 1. Erregimen Zaharreko biztanleria

Industriaurreko munduaren biztanle kopuruaren garapena aztertzeko orduan, akats egiteko aukera ugari dago. Maiz, estimazio oso orokorrak besterik ez dakizkigu gai horri buruz.

Berant Erdi Aroko Italia iparraldeko hirietan (Venezian, Genovan, Florentzian), ordea, nabaria izan zen populazio-errolden modernotasun- eta fidagarritasun-maila. Kasu batzuetan, gainera, jarduera profesionalaren arabera sailkatzen zituzten biztanleak erroldak. Europako gainerako lurraldeetan, ordea, iturri egokiak urriagoak dira, eta ziurtasun gutxiko datuak eskaintzen dizkigute.

Nahiz eta akats asko izan, aintzat hartu behar ditugu Elizaren iturriak ere.

Baina, eskuarki, erregistro eta dokumentazio galera ugari izan dira industriaurreko munduan. Askotariko arrazoiak izan dira: saguak, lapurretak, uholdeak, suteak, eta abar (hots, arreta eza).

Gainera, nabaria da Aro Modernoko estatistikaren zentzurik eza. Horren truke, esamolde hagitz orokorrak eta zehaztasun gutxikoak erabiltzen dira; esate baterako, «jendetza», «jende pila», «jende mordo», zehatz-mehatz kuantifikatu barik, alegia.

Europako biztanle kopurua baxua zen industriaurreko aroan. Horrela:

- 1340. urtean: 73,5 milioi biztanle (1348an izurrite beltza zabaldu zen)
- 1450.ean: 50 milioi biztanle
- 1500.ean: 82 milioi biztanle
- 1600.ean: 105 milioi biztanle
- 1700.ean: 115 milioi biztanle

Hala eta guztiz ere, aipa daitezke Antzinako Erregimenaren demografiaren ezaugarri batzuk:

- Hazkunde-erritmo geldoa, zenbait hondamendi bazirelako, artean (izurriteak, uzta txarrak, goseteak, gerrak, lehorteak...).
- Jaiotza- eta heriotza-tasa oso altuak (% 3 edo % 4 urtero).
- Are altuagoa haurren heriotza-tasa.
- Bizi-itxaropen oso baxua.
- Gazte-populazioaren ugaritasuna.
- Biztanleria oso gaizki elikatzen zen eta, horren ondorioz, biologia-defentsa gutxi zituzten; edozein gaixotasunen aurrean, biktima errazak.

- Edozein biztanleria-hazkunderik oso erraz hauts lezake populazioaren eta baliabideen arteko oreka. Arazo horren aurrean, aukerak: 1) emigrazioa; 2) lursail berriak lantzea; 3) ekoizkortasuna intentsiboki gehitzea. Hala ere, azken irtenbide hori ez zen bideragarria izan Industria Iraultzaren bezpera arte.

- Ezkontzak eta jaiotzak, askotan, faktore batzuen mendean zeuden; hala nola, nekazaritza-zikloaren, erlijio-ohituren edo klimatologiaren mende.

Biztanleriaren banaketari dagokionez (lurraldearen eta herrialdearen arabera ezberdintasun handiak dira, jakina):

- Populazio hiritarra: % 5 baino gutxiago. Hiri handienak hauek ziren: Milan, Venezia, Paris, Londres, Napoli, Florentzia, Kordoba, Bartzelona, Konstantinopla, Alexandria, Antiokia, eta abar.

- Landa-eremuko populazioa: % 95.

Italia iparraldea eta Ipar Itsasoko ertzak ziren lurralderik jendetsuenak eta urbanizatuenak.

## **2. Nekazaritza**

Industriaurreko ekonomia-egituran nekazaritza-sektorea zen nagusi.

Nekazaritzan erabilitako tresneriari dagokionez, egurrez egindakoa zen nagusi; burdinazko tresnak oso urriak ziren. Askotan, golde belarriduna erabiltzen zen. Bestetik, goldea mugitzeko, ohikoa zen bai zaldia bai idia erabiltzea.

Ekoizkortasun aldetik, esan beharra dago urritasuna nabaria zela. Mozkin edo etekin eza agerian zegoen gehienetan, zeren, azken batean, atzeratuak baitziren erabilitako teknikak. Gainera, oso urria zen ongarriaren erabilera, hagitz txikia baitzen nekazaritzaren eta abeltzaintzaren artean izandako lotura.

Industriaurreko nekazaritza-esparruaz hitz egitean, ezin dugu ahaztu basoaren garrantzia: baserritarren ekonomiarentzat munta handiko osagarria zen, bai lastoa eta egurra lortzeko, bai ehizan aritzeko.

Amaitzeko, lur-jabetzaren egiturari dagokionez, nahitaezkoa da jaurerriaren garrantzia aipatzea. Lurraren jabetasuna batez ere nobleen, Elizaren eta udalaren esku zegoen; urriak ziren *alodio* edo baserritar libreen lurak.

## **3. Manufakturak**

Industriaurreko munduan, leku askotara zabaldu zen artisau-lana —hau da, eskuz, teknika apala erabiliz, egindako produkzioa—.

Ekoizpen gehiena kontsumo-ondasunak egitera bideratzen zen; hots, elikagaiak (ogia, esnekiak, edariak), oihalak eta burdinazko tresnak ekoiztera.

Oihalgintzari zegokionez, *domestic system* (baita *verlagge system* ere) nagusitu zen; batez ere artilezko oihalak lantzeko, eta askoz gutxiago lihozko eta zetazkoak ekoizteko.

Burdingintza-arloan, ekoizpen-unitate gisa burdinolak hedatu ziren, mendietan eta haranetan zehar.

Erakunde moduan, gremioa nabarmen finkatu zen industriaurreko ekonomian. Arautegi batzuen arabera lanbide batean aritzeko pribilegioa zeukaten erakundeak ziren gremioak. Erakunde horren aiurria oso hertsia eta zurruna zen, eskusibista, arautuegia, oso berrikuntza urriak onartzeko prest zegoena. Haren barneko egitura ere oso zurruna zen: *ikastuna – ofiziala – maisua*.

#### **4. Merkataritza**

##### **4.1 Europako merkataritza**

Barne-eskariaren egiturari zegokionez, nabaria zen urritasuna. Askotan erabatekoak ziren autokontsumoa edo buruaskitasuna. Produkzioa gehienetan familian bertan kontsumitzen zen, merkatuetara bideratu gabe. Geroago, hiriak garatzean, eskaria handitu eta dibertsifikatu egin zen. Ezberdintasun sozioekonomikoak finkatzeko orduan, oso adierazgarri oinarritzkoa zen elikagaien eta arroparen eskaria. Halaber, eliza-erakundearen eskariaren munta behinena zen, adibidez,.

Barne-merkataritza garatzeko orduan, oztopo ugari agertzen ziren. Alde batetik, nabariak ziren garraioaren zailtasunak (segurtasun eza, lehorbideen egoera traketsa, antzinako erromatarren galtzada-sare erdi suntsitua, eta abar). Beste aldetik, oztopo juridiko-administratibo ugari izan ziren, bidesari edo barne-mugen oparotasunaren erruz lehorbideak garestitzen zituztenak.

Industriaurreko merkataritza-esparruan, ospe handiko erakundeak izan ziren feriak edo azokak. Aldiro merkataria biltzen zituzten, zeinek, arruntean, kredituak eta merkataritzarako teknika aurreratuak (truke-letra, adibidez) erabiltzen baitzituzten. Nagusiak Lyonekoak, Piacenzakoak, Genevakoak eta Xanpainakoak izan ziren; hau da, Italia iparraldearen eta Herbehereen artean kokatuak.

Hiru bide erabili izan ziren gehien Europako merkataritzan: I) aipaturiko azoken lehorbidea; II) Mediterraneoko itsasbidea (batez ere, luxuzko produktuetarako); III) Ipar Itsasoko eta Baltikoko itsasbidea, Hansa delako erakundea aritu zena, Lübeck, Hanburgo, Dantzig eta kostaldeko beste hiri batzuen artean, non pisu handiko eta

erlatiboki balio gutxiko merkantziak garraiatzen baitziren (adibidez, zerealak, arrainak, artilea, egurra, azalak, eta abar).

#### **4.2. Merkataritza kolonialaren ondorioak**

XV. eta XVI. mendeetatik aurrera, aurkikunde geografikoei esker, merkataritza koloniala garatu zen. Inguru hartan, Afrikako eta Asiako itsasertzaren okupazio partziala gertatu zen; Amerikan, ordea, askoz sakonagoa izan zen kolonizazioa.

Europako ekonomiarentzat oso aukera egokia sortu zen, eta, horrenbestez, merkatuak zabaldu eta etekinak hazi egin ziren haren manufakturentzat.

Europako merkatuetara ugari iritsi ziren metal preziatua eta produktu berriak. Adibidez, Afrikatik eta Asiatik urrea, bolia, espeziak, eta beste; eta Ameriketatik urrea, zilarra eta nekazaritza-produktuak. Era berean, Europatik emigrazio-jario handia izan zen; munduaren europartze prozesua hasi zen.

Aldi berean, ekonomia- eta merkataritza-nagusigoari zegokionez, oso aldaketa garrantzitsua gertatu zen. XVI. mendea igaro ahala, nazioarteko ardatz ekonomikoa aldatuz joan zen Mediterraneoetik Atlantikora.

#### **4.3. Merkataritza-kapitalismoaren agerpena**

Aro Modernoan, aurrerapauso asko eman ziren finantza- eta merkataritza-tekniken arloetan: kontu biko kontabilitatea agertzea; edo truke-letren, paper-diruaren eta kreditu-tresnen erabilera hedatzea. Aldaketa horiek Italia iparraldean sortu ziren.

Beste mota batzuetako merkataritza-sozietateak ere agertu ziren; besteak beste, komandita, eta baita akzioen bidez osaturiko konpainiak ere. Hain zuzen ere, merkataritza-kapitalismoaren erakunde bereizgarri bihurtu zen azken konpainia mota hori. Konpainia era horren adibide argienak Ekialdeko edo Mendebaldeko Indietako konpainiak izan ziren, holandarrak, britainiarrak eta frantziarrak. Haien helburua izan zen kolonietako merkataritza –monopolio eran– kontrolatzea. XVII. mendean garatu ziren batez ere, eta gehienak XVIII. mendean krisian sartu eta desagertu egin ziren.

#### **4.4. Aro Modernoaren doktrina ekonomikoa: merkantilismoa**

Doktrina horren arabera, ekonomiaren esparruan, oso handiak izan behar zuten estatuaren babesak eta esku-hartzeak.

Agerian zegoen estatu bakoitzaren aberastasuna handitzeko gogoia. Espainiako eta Portugalgo erresumetan, metal preziatuak pilatzen saiatu ziren;

Ingalaterrak eta Herbehereek kanpo-merkataritza sustatu zuten; eta Frantzian – *kolbertismo*arekin batera– industria-sektorea bultzatu zen.

Inguru hartan, tirabira eta iskanbila ugari sortu izan ziren estatuen artean, hala arlo ekonomikoan, nola politiko eta militarrean. Are gehiago, egoera ezegonkor hori areagotu egin zen, estatu bakoitzaren asmoa izan baitzen bere kolonien ustiapen eskusiboa lortzea. Horrela, *itun kolonial*aren bidez, metropoli bakoitzak bere onurarako ustiatu ohi zituen koloniak.

Merkantilismoaren goraldia XVII. mendean heldu zen batik bat. XVIII. mendean, ordea, hasieran fisiokraziaren eta geroago librekanbismoaren eragina zabaltzen hasi ahala, merkantilismoarekiko kritika zorrotzak agertu ziren, eta, azkenean, haren amaiera iragarri zuten.

## **5. Finantzak**

Industriaurreko esparruan, artean ez zegoen banku modernoek sarerik garatuta. Horren ordez, mailegu-beharrak asetzeko asmoz, merkataritza-bankariak (familien nahiz banakoen) jarduera garatu zen.

Kreditu-metodoen konplexutasun-maila handia izan zen Aro Modernorako; besteak beste, truke-letrak, konpentsazioak eta halako tresnak naro erabiltzen ziren.

Hauek izan ziren, besteak beste, banku-tresna horien erabileraren zergatiak: txanponen garraioan izandako arrisku eta oztopoak (segurtasun gabezia, txanponen pisua bera, lapurreten arriskua, eta abar), eta diru moten aniztasuna.

Aro Modernoan, Italia iparraldean (Genova, Venezia, Pisa, Florentzia), Herbehereetan (Brujas, Anberes, Amsterdam), eta geroago Londres hirian egon ziren finantza-merkatu garrantzitsuenak.

## II. gaia. INDUSTRIALIZAZIOA

### 1. Industrializazioaren ezaugarriak

Historia ekonomikoaren gaurko ikerketek zehaztu dituzte industrializazio-prozesua agertzearen eta garatzearen zenbait ezaugarri.

Artisautza-prozeduretatik ekoizpen industrialaren metodo berrietara nola igaro ziren azaltzeko orduan, gaur egun alboratu egin da bat-bateko aldaketa baten azalpena, hots, baztertu egin da iraultza baten existentzia. Gaur egun, askoz egokiagotzat hartzen da aldakuntza geldo bati buruz hitz egitea. Aldakuntza hori aurreko mendeetan prestatu zen, eta XVIII. mendearen azkenaldian Ingalaterran azkartu egin zen; hurrengo hamarkadetan, Europako herrialdeetara eta Europatik kanpoko beste lurralde batzuetara zabaldu zen.

Iraultza bati buruz hitz egin beharrean, egokiagoa da ekoizpen-baliabideen mailaz mailako eraldaketa bati buruz mintzatzea.

Industrializazioaz aritzeko orduan, ezin ditugu soilik aldaketa teknikoak izan kontuan. Berrikuntza teknikoak erabakigarriak izan ziren, noski, baina aldez aurreko beste baldintza batzuk beharrezkoak suertatu ziren. Horrela, adibidez, funtsezkoak izan ziren biztanleriaren hazkundera, nekazaritzaren garapena, eta merkataritza eta garraioa zabaltzea industrializazioa bultzatzeko orduan. Aldi berean, ezinbestekoa suertatu zen esparru politiko-instituzional bat eskura edukitzea.

Jatorriz, Ingalaterrako fenomenoak dugu Industria Iraultza. XVIII. mendearen azken hamarkadetan eta XIX. mendearen hasieran, oso aldaketa nabarmenak gertatu ziren herrialde hartan. Nekazaritza-arloan oinarritutako gizarte batetik industrian oinarrituriko gizarte batera igaro ziren; ingurua askoz dinamikoago bihurtu zen. Ingalaterra, beraz, ezinbesteko ereduak dugu Industria Iraultza ikertzeko.

Industria Iraultzaren hasierako data finkatzeak arazoak sortu ditu, ikertzaile guztiak ez baitaude ados. Hala ere, azaletik behaturik, kronologia hau onar liteke: 1770etik 1800era bitartean kokatzen da Ingalaterraren industrializazioaren hasiera. Beste herrialdeetan, berantiarragoa izan zen industrializazioaren kronologia. Horrela, Frantziarentzat, Belgikarentzat, Suitzarentzat eta Alemaniarentzat XIX. mendearen erdialdean has zitekeen. Hamarkada batzuk geroago, Estatu Batuen eta Japoniaren unea heldu zen, eta, are geroago, Europako periferiako herrialdeena: Italia, Austria-Hungaria, Errusia, Espainia, eta abar. XX. mendea hasi zelarik, munduan herrialde asko industrializatzeko zeuden artean.



Aurkezpen honen beste alderdi bat zera da: industria-garapenerako eredu unibertsalak ezartzeko izandako saio ugariak. Horrela, Rostow-ek (*Ekonomia Hazkunderako Urratsak*, 1960) aldeztu du ekonomia-garapenean fase sorta bat dagoela. Rostowen urratsak hauek dira: gizarte tradizionala, aireeratzeo aurrebaldintzak, aireeratzea (*take-off*), heldutasunerako bidea, eta kontsumo masiboaren aroa.

Bestalde, A. Gerschenkron-ek atzerapen erlatiboaren tesia aurkeztu zuen. Haren arabera, XIX. mendean Europako ekonomia bakoitzean garapen- eta atzerapen-mailak oso ezberdinak zirenez, ezaugarriak era batekoak edo bestekoak ziren herrialde bakoitzaren mailaren arabera. Esaterako, herrialde baten ekonomia zenbat eta atzeratuago egon, estatuak ekonomian zuen esku-hartzeak orduan eta erabakigarriagoa izan behar zuen eta, aldi berean, tinkoagoak izan behar zuten ekoizpen-ondasunak lortzeko bideraturiko ahaleginek.

Edozein herrialderen garapen-erritmoa ezagutzeko orduan, lorturiko ekonomia-hazkunderaren maila analizatzeaz gain, beste sailkapen konbentzional bat dago, agian egokiagoa: lehen, bigarren eta hirugarren industrializazioak, hain zuzen ere.

## **2. Lehenengo industria-iraultza**

### **2.1. Kronologia eta kokagunea**

- Ingalaterran hasi zen, XVIII. mendearen bigarren zatian.
- Geroago, XIX. mendearen erdialdean, Europa kontinentaleko zenbait herrialdetan hedatu zen (Belgika, Frantzia, Alemania, Suitza).
- Hurrena, XIX. mendearen azkenaldian eta XX. mendearen hasieran, Europako periferiako herrialdeetara zabaldu zen (Eskandinavia, Italia, Espainia, Errusia).
- Lehenago, XIX. mendearen bigarren zatian, Europatik kanpora ere iritsi zen (AEB eta Japonia).

### **2.2. Aldaketa teknikoak**

- Energia: lurrin-makina egokitu egin zuten (aurretik, Thomas Newcomen-ek garaturikoa, eta, gero, 1769an, James Watt-ek, eskoziar asmatzaileak).
- Erregaia: harrikatzaren erabilera.
- Industria-alorrean sektore garrantzitsuenak: oihalgintza (kotoigintza) eta burdingintza. Kotoigintzaren sektorea berrikuntza teknologiko sorta bati esker garatu

zen: John Kay-ek anezka hegalaria asmatu zuen; James Hargreaves-ek, *Spinning-Jenny* irute-makina; Richard Arkwright-ek, *Water Frame* irute-makina; Samuel Crompton-ek, *Mule Jenny* irute-makina, eta Edmond Cartwright-ek, ehungailu mekanikoa.

### **2.3. Garraiobide berritzaileak (ingeniaritza zibilak garaturikoak)**

- Bidesariko errepideak.
- Ubideak.
- Trenbidea; hots, lurrun-lokomotorra (Stephenson, 1825).

### **2.4. Enpresa egituraren ezaugarriak**

- Enpresa txiki eta ertainen nagusigoa.
- Enpresaren jabetasuna eta kudeaketa esku berberetan, gehienetan.
- Industria-enpresen nagusigoa —hots, bigarren sektorearena—.

### **2.5. Gizarte-aldaketak**

- Ohiko gizarte-hierarkia apurtzea eta gizarte-mugikortasunaren hasiera.
- Klase-gatazka garatzea, eta gizarte-klase berri bat agertzea: proletario industrialia (errenta eta ongizate minimo batera heltzeko zailtasun handiak zituen).

## **3. Bigarren industria-iraultza**

### **3.1. Data eta kokagunea**

XIX. mendearen azken zatian eta XX.aren lehenengo aldiak kokatzen da. Alemania izan zen aitzindarietakoa, baina berehala zabaldu zen Mendebaldeko Europako gainerako herrialdeetara, AEBra eta Japoniara.

### **3.2. Aldaketa teknikoak**

#### **3.2.1. Energia**

- Energia-iturriei dagokienez, aipatzekoa da elektrizitatearen agerpena. Michel Faraday-ren ikerketetan oinarriturik, 1831. urtean garatu zen. Energiaren garraioari eta banaketari dagokienez, abantaila asko ekarri zuen argindarrak.

- Bestetik, barne-eztandako motorra sortu zen. Hasieran, 1860. urtean, Etienne Lenoir belgikarrak asmatu zuen sistema hau. Geroago, 1876an, Nikolaus Otto germaniar ingeniariak hobetu zuen. Azkenean, XIX. mendearen amaieran, Benz-ek, Porsche-ek eta beste batzuek lortu zuten barne-eztandako motorra automobilerako moldatzea; horrenbestez, pertsonen mugikortasuna erabat areagotu zen.

### 3.2.2. Erregaia

Harrikatzen erabilera eta petrolioaren ustiapena. (Petrolio, lehenengoz Pennsylvanian ustiatu zuten, AEBn, 1859. urtean. Geroztik, erregai hori ustiatzeko asmoz, zenbait prozedura garatu ziren; adibidez: *krakinga* edo krakeo analitiko).

### 3.2.3. Puntako sektoreak

- *Altzairua*. XIX. mendearen bigarren zatian eginiko berrikuntza batzuek garatu zuten sektore hau. Hauek izan ziren berrikuntza tekniko horiek: Bessemer, Siemens-Martin eta Thomas-Gilchrist ekoizpen-prozedurak.

- *Hidroelektzitate eta elektronika*.

- *Kimikagintza*. Sektore honek garapen nabarmena izan zuen XIX. mendearen bigarren aldian. Hala ere, aurretik garatzen hasiak ziren haren aplikazioetako batzuk.

Eskala handian lorturiko lehen produktu kimikoa sosa (karbonato sodikoa) izan zen. XVIII. mendearen azkenaldian hasi zen produktu horren ekoizpena, Nicolas Leblanc frantziar kimikariaren eskutik. Beira eta xaboia ekoizteko garrantzi handiko osagaia zen. Geroxeago, agente zuritzaile eta desinfektatzaileen ekoizpena hasi zen, eta 1850. urtetik aurrera tindagai sintetikoarena.

Orobat, kimikagintzaren aurrerapenaren helburua zen ongarri artifiziala lortzea, nekazaritza-sektorearentzat nitrogenoa, potasioa eta fosforoa ekoizteko.

Kautxuaren bulkanizazioaren bidez (XIX. mendearen erdialdean, Charles Goodyear estatubatuarrak lorturikoa), latexa erabiltzen hasi ziren. Haren aplikazio-eremuak askotarikoak izan ziren, baina, batez ere, automobilen pneumatikoak egiteko erabiltzen zen. XIX. mendearen azkenaldian, pneumatikoak ekoizteari ekin zioten Frantzian (*Michelin*), Ingalaterran (*Dunlop*) eta AEBn (*Goodrich*).

Orduan beste produktu bat erabiltzen hasi ziren: plastikoa (polimerizazio-prozesu kimikoaren bidez lorturiko gai artifiziala). Hain zuzen ere, zeluloidea dugu lehenengo plastiko mota, 1860an Estatu Batuetan ekoizten hasia. Gero, 1930eko hamarkadan, beste plastiko mota batzuk agertu ziren, esaterako polietilenoa eta poliestirenoa; eta geroago, 1950eko hamarkadan, polipropilenoa, oso egokia poltsak eta plastikozko botilak egiteko.

Aldi berean, 1930eko hamarkadan, lehenengo zuntz artifiziala ekoizten hasi ziren: nylona, hain zuzen ere. *Du Pont de Nemours* estatubatuar enpresa hasi zen fabrikatzen.

- *Botikagintza*.

- *Irudia eta soinua (telekomunikazioak)*. Irudiaren arloan, garai hartan izandako aurrerapen teknologikoen artean, linotipia aipa daiteke (Estatu Batuetan garaturikoa, 1880ko hamarkadan), zeina erabilera handikoa baitzen grafikagintzan, egunkarien inprimatzea azkartzen zuelako.

Lehenago, XIX. mendearen hasieratik, saio ugari egin ziren errealitatearen irudi gero eta zehatzagoak lortzeko. Aitzindarien artean, Nicephore Niepce frantses asmatzaileak egin zituen argazkigintzaren lehen urratsak, 1826. urtean; izan ere, beharbada, historiako lehenengo argazkia ateratzea lortu zuen. Geroago, 1839. urtean, Louis Daguerrek dagerrotipo delakoa asmatu zuen, ageriko abantaila teknikoak zituena. Azkenean, Lumier anaiek zinematografoa asmatu zuten.

Hala eta guztiz ere, emankorrak izan ziren telekomunikazioen eta soinuen arloan izandako abantaila teknikoak. Hauek aipa genitzake: a) fonografoa (Thomas Edison, AEB, 1887), grabatutako soinua erreproduzitzea ahalbidetu zuena; b) Morse alfabetoa (Samuel Morse, AEB, 1838) (lehenago britainiarrek patentatu zuten telegrafo elektrikoa, distantzia luzean mezu kodetuak bidaltzeko modua ematen zuena); c) telefonoa (Alexander Graham Bell, Eskozia, 1876), zeinak mikrofono eta hargailu baten bidez giza ahotsaren soinua bidaltzea ahalbidetu baitzuen; d) irratia (Guglielmo Marconi, Italia, 1894), zeinak uhin elektromagnetikoen bidez soinua transmititu baitzuen.

### 3.3. Garraiobide berritzaileak

- Trenbidea: garraiobide horretan, trakzio elektrikoa eta diesela erabiltzen hasi ziren, apurka-apurka, lurrunaren ordeztu (kostu apalagoan, abiadura handiagoa lortzen zuten).

- Lurrun-nabigazioa: arlo honetan aurrerapen teknikoak egin ziren, bai lurruna erabiliz (pixkanaka, bela-nabigazioa baztertu egin zen), bai itsasontziak eraikitzean burdina baliatuz (egurra bazterturik), bai helizea moldatuz.

- Automobilgintza: sektore honetan, barne-eztandako motorra moldatu zen (Karl Benz germaniarraren *motorwagen* delakoa, 1885).

- Hegazkintza. Aire-nabigazioaren esparruan, zaharturik geratzen hasi ziren ohiko baloi gidatuak eta dirigibleak, lehenengo hegazkinak eraiki zirenean. Sektore horretako aitzindariak Wright estatubatuar anaiak izan ziren. 1903an, airea baino

astunagoa zen hegazkin mekaniko batekin egin zuten lehenengo hegaldia, oso segundo gutxi iraun bazuen ere. Abiaduran eta fidagarritasunean lorturiko hobekuntzek erraztu egin zuten hegaldi komertzialen eta bidaiarien trafikoa.

### **3.4. Enpresa-egiturako aldaketak**

Esparru horretan izandako berrikuntza nagusiak hauek izan ziren:

- Enpresa handien goraldia, askotan integrazio bertikalaren bidezkoa. Modu horretan, eskala-ekonomien onura handitu zen eta, gainera, transakzio-kostuak murriztu egin ziren.

- Hainbat lege-izaera zituzten konglomeratu eta enpresa-elkarteak agertu ziren (*cartel, trust, holding*, eta abar).

- Nazioarteko korporazio handiak agertu ziren.

- Enpresaren jabetza eta kudeaketa banandu egin ziren, eta kudeatzaile profesionalen esku utzi zituzten kudeaketa-lanak.

- Lan-antolaketa mota berriak garatu ziren, hots, kate-lana edo serie-lana. Horren ondorioz, lanaren espezializazioa asko garatu zen (taylorismoa eta fordismoa).

### **3.5. Gizarte-aldaketak**

Arlo horretan, hauek izan ziren aldaketa garrantzitsuenak:

- Gizarte-mugikortasun handiagoa.

- Lan-eskuaren gero eta espezializazio handiagoa.

- Estatuaren kontura, gutxieneko gizarte-babesa lortzeko lehenengo urratsak.

- Sindikatu eta alderdi politiko modernoek garapena, ideologikoki langileengandik oso hurbilak.

## **4. Hirugarren industria-iraultza**

### **4.1. Data eta kokagunea**

Bigarren Mundu Gerraren ondoren gertatu zen, XX. mendearen bigarren aldian, batez ere Lehenengo Munduko herrialdeetan (Mendebaldeko Europan, Ipar Amerikan, Japonian, eta abarretan).

## 4.2. Aldaketa teknikoak

### 4.2.1. Energia eta erregaia

Harrikatza, petrolio, elektrizitatea eta gasa erabiltzen zituzten. Energia nuklearra (uranioa erregai gisa baliatzen duena) erabiltzen hasi ziren (Calder Hall-en, Ingalaterran, 1956an). Bien bitartean, barne-eztandako motorren erabilera are gehiago zabaldu zen automobiletan. Hegazkintzan, bestetik, erreazio-motorra agertu zen.

### 4.2.2. Puntako sektoreak

Bigarren Mundu Gerraren ondoko hamarkadetan, berrikuntza handiak egin ziren ohiko sektore batzuetan. Besteak beste, burdingintzan, hobekuntza teknologikoek altzairutegi trinkoak edo minialtzairutegiak agertzea ahalbidetu zuten. Horietan labe elektrikoak erabiltzen ziren energia-iturri gisa, eta txatarra lehengai gisa. Gainera, labe mota horiek ohiko labe garaiek baino kontrol zehatzagoa ahalbidetu zuten amaierako produktuaren gainean; horrenbestez, oso egokiak ziren aleazio eta altzairu konplexuak ekoizteko.

Ohiko sektoreen artean, sektore kimikoak ere teknologia-aurrerapen garrantzitsuak izan zituen. Horren ondorioz, adibidez, plastiko mota batzuen erabilera hedatu zen, hala nola polietileno, polipropileno, tefloi, poliestireno eta poliuretanoarena. Beste horrenbeste gertatu zen zuntz artifizialarekin; horietariko batzuk lehendik ezagunak ziren.

Baina, aldaketarik nabarmenenak puntako sektoreek izan zituzten; hala nola informatikak, robotikak, telekomunikazioak eta irudiak eta soinuak. Horrela:

i) *Irudiaren eta soinuaren arloan*, zaharturik geratu zen ohiko uhin elektromagnetikoen bidez lorturiko transmisio traketsa, kable eta satelite bidezko telebistak direla eta (antena paraboliko berezi batek hartzen ditu sateliteen bidez emititutako seinaleak). Era berean, kontsumoko elektronikaren alorrean izandako berrikuntzek ekarri zituzten etxeko bideo-aparatuak eta goi-fidelitateko soinua. Bigarren Mundu Gerra ondotik, agerian geratu zen kontsumo-ondasun iraunkorren eskaria, inoiz ez bezalakoa.

ii) *Telekomunikazioaren arloan*, bide batez, esparru teknologiko berriak agertu, hedatu eta modernizatu ziren; esate baterako, telefonoa (sakelakoak, hariarik gabekoak, irrati-zelularrak), telexa, faxa, posta elektronikoa, Interneta, satelitea eta zuntz optikoa (zuntz optikoaren hariak kobrezko ohiko hariak baino ahalmen nabarmen handiagoa du, informazioa garraiatzean kalitatea galdu gabe).

iii) Era berean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, *sektore berriak* agertu ziren; esate baterako, informatika eta robotika. Garapen-maila azkarra izan zen.

#### 4.3. Garraiobide berritzaileak

- *Itsas nabigazioa*. Pertsonen garraioari dagokionez, itsas nabigazioa erabat gainbehera etorri zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, hegazkintzak sorturiko lehia zela-eta (azken batean, azkarragoa eta merkeagoa zen garraiobide hori).

Hala ere, merkantzien garraioari zegoenez, itsas nabigazioak nagusigoari eutsi zion. Munta handiko berrikuntzak egin ziren; esate baterako, *roll-on/roll-off* sistema, eta nazioarteko tamaina estandarizatuko edukiontzien erabilera.

- *Trenbidea*. 60ko hamarkadatik aurrera berrikuntza sorta bat ezartzen hasi zen, herabeki hasieran, baina trinkoago gero. Testuinguru hartan agertu zen, adibidez, abiadura handiko trena (Japonian, 1964; TGV Frantzian, 1981).

- *Automobilgintza*. Garraio mota hau teknologia hobetzen aritu zen etengabe, beste zerbitzuen artean fidagarritasun handiagoa eta erregaien kontsumo baxuagoa lortzeko asmoz.

- *Hegazkintza*. Sektore honetan, berrikuntza tekniko nabarmenena turboerreaktoreen eta turbhelizeen erabilera izan zen, eta apurka-apurka baztertu egin ziren pistoi-motorrez hornituriko ohiko hegazkinak. Bigarren Mundu Gerraren ondoren lorturiko segurtasunari, azkartasunari, erosotasunari eta prezioen murrizteari esker, bidaia luzeetan aire-nabigazioa izan zen garraio mota behinena.

#### 4.4. Enpresa-egituraren aldaketak

- Orduko hartan, areagotu egin zen bigarren industria-iraultzan hasitako prozesua: esate baterako, nazioarteko enpresen goraldia izan zen, kudeaketa profesionalen esku geratu zen, eta abar.

- Hirugarren sektorea eta teknologia garbia nagusitu ziren: zerbitzuak, finantzak, aisia, telekomunikazioak, informatika, eta abar.

#### 4.5. Gizarte-aldaketak

Ezaugarri nagusi hauek izan ziren arlo horretan:

- Giza kapitalaren eta prestakuntza handiko lan-eskuaren garrantzia.
- Kontsumo masiboaren garapena.
- Aisiaren eta kulturaren garrantzia.

### **III. gaia. INDUSTRIALIZAZIO-EREDUAK EUROPAN**

#### **1. BRITAINIAR EREDUA**

##### **1.1. Biztanleriaren hazkundera**

XVIII. mendetik aurrera, hazkunde demografikoa eta tasen modernizazioa oso nabarmenak izan ziren Britainia Handian.

Hona hemen britainiar biztanleriaren garapena:

- 1701ean: 6.860.000 biztanle.
- 1801ean: 10.686.000 biztanle.
- 1910ean: 42.000.000 biztanle.

Hauek izan ziren hazkunde horren arrazoiak, besteak beste:

- Lehenengo zikloan: heriotza-indizea jaitea eta jaiotza-tasa sostengatzea.
- Bigarren zikloan: jaiotza-tasa jaitea; hala eta guztiz ere, biztanleriaren hazkundera mantendu egin zen artean.

Heriotza-tasa jaistearen arrazoiak hauek izan ziren, besteak beste: medikuntza izandako hobekuntzak (ezaguera eta garbitasuna); izurriteak murriztea; elikagaiak garraiatzeko baldintzak hobetzea, eta goseteen ondorioak arintzea (funtsean, aurreko balazta ekonomikoak gutxitu egin ziren).

Ondoren jaiotza-tasa jaistek, berriz, arrazoi soziologikoak izan ditzake; hain zuzen ere, familiak bizi-maila altuari eutsi nahi izatearekin loturik zeuden arrazoi horiek.

Biztanleriaren eta ekoizpenaren arteko harremana begi-bistakoa da: biztanleriaren hazkundera industrializaziora lagundu zion, bai industria-produktuen eskaria handituz, bai lan-eskuaren eskaintza gehituz.

##### **1.2. Nekazaritzaren modernizazioa**

Britainia Handian, nekazaritza-sektorearen modernizazioa XVIII. mendearen erdialdean izan zen.

Prozesu horren ezaugarri nagusiak hauek izan ziren:

- Nekazaritza-teknika berriak agertzea.
- Nekazaritzako tresneriaren erabileran izandako hobekuntzak (garia jotzeko makina, sega-makina, eta abar).
- Zientziaren aplikazioa nekazaritzan (haziak hautatzea, adibidez).



- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arteko harremana sendotzea (albaitaritzea, arrazak hobetzea, hazkuntza selektiboa, eta abar).

- Finantza-kapitalaren inbertsioak (tresneriarako, ikerketarako, eta abarrerako).

- Nekazaritza-ekoizpen unitateetan aiurri kapitalista bultzatu zen, merkatura ekoizpena bideratuz eta, aldi berean, buruaskitasuna murriztuz. Era berean, areagotu egin ziren ekoizpenaren espezializazioa eta lanaren banaketa.

- Lursail handiak zabaltzea. Inbertsioa errentabilizatzeko nahitaezkoa zen ekoizpen handia lortzea eta teknika berriak erabiltzea. Horrela, agerian geratu zen soro handien beharra, eta *enclosures* edo lursail handi eta hertsia hedatu ziren (jabea *gentry* delakoa izan zen –britainiar nobleziako kidea–).

Nekazaritzaren modernizazioaren ondorioen artean, hauek aipa daitezke:

- Nekazaritzaren ekoizkortasuna gehitzea.

- Eskulana murriztea.

- Jaurerriaren amaieraren hasiera (handik aurrera, soldata baten truke egingo ziren lur-jabeen eta nekazari langileen arteko lan-harremanak).

Nekazaritzaren eta industrializazioaren arteko harremana oso estua zen. Horrela, nekazaritzaren garapenak hau eman zion industrializazio-prozesuari:

- Industriarentzat eskulan ugaria.

- Industrian inbertitzeko finantza-kapitalen baliabideak.

- Industriaren eskaria gehitzea.

### **1.3. Teknologiaren berrikuntza oihalgintzan eta burdingintzan**

XVIII. mendean zehar, Britainia Handian bizkortu egin zen aldaketa teknologikoen eta berrikuntzen erritmoa. Horren arrazoiak hauek ziren:

- Finantza-kapitalaren etekinak eskura izatea (koloniak ustiatzeari esker).

- Finantza-baldintza oso egokiak (kreditu-sare garatua, interes-tasa baxua, Ingalaterrako Bankuaren eta Londresko Burtsaren existentzia, eta abar).

- Arreta eta esperientzia handia merkataritzaren arloan.

- Merkatu zabalkorrak (barneko eta kolonietako eskari gehikorrek).

- Soldatak igotzea (lana aurrezteko berrikuntza teknikoak gauzatzeko pizgarria izan zen).

- Lehengaiak eta energia eskura izatea (batez ere, harrikatza).

- Garraio-sare egokia.

Funtsean, oso egoera onean zeuden britainiar enpresaburuak, eta prest zeuden edozein berrikuntzak dakarren arriskuari aurre egiteko.

Patenteen estatistiken arabera, teknologia-aldaketak bizkortu egin ziren 1760ko eta 1770eko hamarkadetatik aurrera.

Watt-en lurrun-makina garrantzi handiko berrikuntza izan zen, energia-iturriaren erabilera deszentralizatzea ahalbidetu baitzuen. Era horretan, ur- eta haize-energiekiko ohiko mendekotasuna amaitu zen, eta lantegietako instalazioak eta energia autonomoa erabiltzea ahalbidetu zen (adibidez, lantegiak itsas portuetatik eta kontsumoguneetatik hurbil kokatzea).

Aldaketa teknologiko behinenak kotoigintzan eta burdingintzan gertatu ziren.

#### a) Oihalgintza

Kotoigintza izan zen sektore aitzindaria. Artilearen sektorea, ordea, mekanizazio zailagoa baitzuen, ordukoz baztertua geratu zen.

Oro har, oihalgintzak oinarrizko bi prozesu zituen: *irutea* eta *ehundura* (horiez gain, *gabikotzea*, *tindatzea*, eta abar aipa daitezke).

Prozesu osoan desoreka bat zegoen: irutearen fasea ehuntzearena baino garestiagoa eta geldoagoa zen. Desoreka hori larritu egin zen John Kay-k *anezka hegalaria* asmatu zuenean, ehulearen ekoizkortasuna bizkortu egin zen eta.

Geroago, irutearen fasea arintzeko asmoz, makina sorta bat agertzen hasi zen, hala nola *Spinning-Jenny*, *Water Frame* eta *Mule-Jenny*. Bakoitzak aurrerapen tekniko bat zekarren. Horrela, azkenean, irutea ehuntzea baino azkarrago egin zitekeen, eta, ondorioz, desoreka hura desagertu egin zen.

Bestetik, ehuntzearen fasea arintzeko asmoz, 1785ean ehungailu mekanikoa asmatu zen. Hala ere, praktikan, geroago iritsi zen.

Hauek izan ziren kotoigintzaren arloko berrikuntzen ondorioak:

- Ekoizkortasuna gehitzea.
- Eskulan gutxiago enplegatzea.
- Amaierako produktua merkatzea.

Geroago, beste azpisektore batzuetara ere iritsi ziren berrikuntza teknologiko horiek: artilearen, zetaren eta lihoaren sektoreetara, esate baterako.

#### b) Burdingintza

XVIII. mendetik aurrera, burdingintza-sektorea erabat eraldatu zen.

Burdinaren industrian, beste bat izan zen teknologia aldatzearen arrazoia. Kotoigintzaren arloan, berrikuntzaren oinarrizko motibazioa eskulana aurrezteak izan zen. Burdingintzaren arloan, ordea, lehengaien aurrezkiek bilatu zen batez ere.

Burdingintzaren sektorean bi ziren oztopo handienak: alde batetik, erregaiaren eta energiaren ahulezia; beste alde batetik, ezaguera teknikoen ahultasuna. Sektore

horrek egurrarekiko (erregaia) eta ibaien indarrarekiko (energia) mendekotasun handia zuen. Mendekotasun horrek ekoizpen-unitateak gero eta urrunago kokatzera behartu zuen. Irizpide batzuen arabera, ekoizpenaren kostua igo egin zen burdina-meategien inguruko basoak agortu zirelako.

XVIII. mendearen hasieran, Abraham Darby ingelesak harrikatzez burdina galdatzea lortu zuenean, harrikatza egur-ikatzaren ordez hasi zen galdaketa-lanetan. Hala ere, harrikatza eskala handian erabiltzera iritsi arte, urte batzuek igaro behar izan zuten. Hain zuzen ere, harrikatzaren erabilera ez zen orokortu lurren-makinaren bidez haize-korronte iraunkorra eta sendoa (galdategiko tresneria eragiteko eta egur-ikatzaren erretzea ahalbidetzeko) sortzeko gauza izan arte.

Berrikuntza horiek moldatzeko orduan, John Wilkinson britainiarra izan zen aitzindari, 1775 inguruan; Watten lurren-makina egokitu zuen galdaketa-lanetarako. Berehala, berrikuntza hori beste galdategi batzuetarako egokitu zen eta, horrela, ekoizpen-kostuak murriztea lortu zuten.

Funtsean, harrikatzaren erabilera ahalbidetu zuen horrek; alde batetik, lantegiak kokatzeko orduan malgutasun handiagoa eta, bestetik, etengabe ekoizteko aukera, natura-baliabideen mendean izan gabe.

Hala eta guztiz ere, harrikatzaren erabilerak beste oztopo tekniko bat sortu zuen: harrikatzak hondakinak sartu zituen galdaketa-prozesuan eta, ondorioz, amaierako produktua kalitate baxuagokoa zen. Oztopo horri 1784an eman zitzaion irtenbidea, Henry Cort-ek *pudetaketa* prozedura patentatu zuenean. Sistema horretan, erreberberazio-labe baten bitartez ez zen hondakinik sortzen, burdina harrikatza ukitu barik berotzen zelako.

Nolanahi ere, aurrerapen horiek egur-ikatzez landuriko burdingintzaren amaiera aurreratu zuten. Azken batean, lortu zen burdingintzak pairatutako erregaiaren eta energiaren murriztasunarekin amaitzea.

Gainera, ekoizpen-kostuak murriztu ahala, burdinak egurra eta metal batzuk ordeztu zituen progresiboki. Eskaria oso malgua izan zen, eta etxeko eta industriako jardueretan burdina merkea erabili zen, oro har. Ingeniaritza mekanikoari ekin zioten eta metala produktu askotan erabiltzen hasi ziren: zubiak, hoditeriak, makinak, goldeak, eta abar egiteko.

Hurrengo aurrerapenak altzairu merkea lortzeko egin ziren. Metal hori gauza zen makina berriek eragiten zituzten kolpeak, tentsioak eta indarrak jasateko. Era horretan, altzairuaren ekoizpen-sistema modernoak garatu ziren: Bessemer (1856), Siemens-Martin (1867) eta Thomas Gilchrist (1879) direlako sistemak.

Funtsean, industria-sektorearen kalitate eta kantitateari dagokienez, Britainia Handiak nagusigoari eutsi zion XVIII. eta XIX. mendeetan. 1870. urtean, artean,

herrialde horrek harrikatzaren eta oihalaren bi heren ekoizten zituen mundu-mailan, baita burdinaren eta altzairuaren munduko produkzioaren erdia ere. Dena dela, Alemaniak eta AEBk sorturiko lehia handitzen joan zen apurka.

#### 1.4. Garraioaren iraultza

Aldez aurretik, garraioaren modernizazioari ekiteko, ezinbestekoa zen balazta teknologikoa gainditzea eta ezaguera zientifikoa eta teknikoa premia berrietara egokitzea eta horietarako garatzea, ingeniartzarazko larriei aurre egiteko.

Horrez gain, ezinbestekoa zen kapitalen inbertsio masiboa (adibidez, akzioen eta obligazioen bitartez sozietate anonimoak eratuz). Ez dugu ahaztu behar ez zegoela aukera handirik irabazpide berri horietan inbertituriko kapitalak errekuiperatzeko.

##### a) Bidesariko errepideak eta ubideak

Garraio-bide-sare berriak eraikitzeak eta hobetzeak erantzuna eman zioten hazten ari ziren hiriak hornitzeko beharrari (Londres, Liverpool, Manchester edo Birminghameko kasuak, adibidez). Aldi berean, garatzen hasi ziren industriak lehengaiz eta erregaiz hornitzeko asmoz, garraio-bide berriei ekin zioten. Azken batean, garraio-bide modernoek helburua izan zen erantzuna ematea pisu handiko eta balio gutxi merkantzien garraioari. Xede horrekin, bidesariko errepideak eta ubideak, gehienetan, ekimen pribatuak bultzatu zituen.

Bidesariko errepideen eraikuntzan teknika berriak erabili zituzten, aurreko errepideen eta bideen mugak gainditu eta, trafiko astuna jasateko gai izan zitezten. Eraikuntza-gastu handiei aurre egiteko, errepide horiek erabiltzean *canon*, zerga edo bidesaria ordaindu behar zen nahitaez.

Ingalaterran, kanalen edo ubideen eraikuntzari ibai askoren izaerak lagundu zion. Ubidez loturiko ibai horiek nabarmen gehitu zituzten ibai-sarearen baliabideak. Azken batean, aro hori *kanalen mania* edo *kanalen sukarra* izendatu zuten garaikideek.

##### b) Trenbidearen aroa

Lurrunezko lokomotorra (Stephenson-ek garatua) esperimentazio faseko garapen komertzialaren fasea heldu arte, belaunaldi bat igaro zen.

Stockton-Darlington linea irekitzeak (1825) hasiera eman zion trenbidearen garaiari. Hala ere, 1830eko hamarkada heldu arte, britainiarrek ez zuten konfiantzarik lokomotorrarekin. Lehenengo arrakasta komertziala Liverpool-Manchester linea izan zen, 1830ean inauguratua.

Britainiar trenbidearen aroa 1830eko hamarkadan hasi zen, eta 1840ko hamarkadan izan zuen goraldia (aldi hartan, trenbideen inbertsioa BPGren % 8 edo % 9 izan ohi zen Britainia Handian). 1850eko hamarkadan bukatu zen britainiar trenbidearen goraldia. Aldi berean, trenbide-sareei ekin zieten kontinenteko herrialdeetan, eta errailen eta material mugikorren eskaria britainiar ekoizpenaren bidez hornitu zuten.

Trenbidearen garapenak arazo sorta bati egin behar zion aurre, hala nola:

- Finantza-kapital handien erabilgarritasuna; gainera, trenbidea ezbaiko emaitzen negozio bat izan zen (are gehiago, lehenengo trenbidearen sasoia finantza-krisi gogor batekin amaitu zen, hain zuzen ere, 1836-1837 urteetan).

- Ingeniaritzaren eta teknikaren arazo eta eragozpen handiak gainditzea.

- Garraio berri horren aurrean, jendeak zuen hasierako beldurra eta etsaitasuna.

Britainia Handiko trenbide-eraikuntzaren ereduaren ezaugarri izan zen estatuak finantziazioan urri parte hartzea. Kontinentean, berriz, kapital pribatua estatuen dirulaguntzaz osatuko zen, askotan.

Industrializazioa aurrera eramateko orduan, trenbidearen garapenak ekarpen oso aberatsa egin zuen; adibidez:

- Trukearen alorrean, azkartasunaren ekarpena nabaria zen; abiadura handitzeaz gain, konfiantza-maila eta segurtasuna areagotu ziren.

- Kostuak nabarmen jaitsi ziren.

- Nazioaren aurrezkiak gehitu ziren (hots, trenbidea erabiliz lorturiko hazkundera BPGn; ohiko garraiobideekin jarraituz gero, ordea, BPG askoz motelago haziko zen).

- Eskulana askatzea beste sektore batzuetan erabiltzeko, garraiotik at.

- Merkatuen eragin-esparruak hedatzea.

- Industriarentzako eskaria handitzea. Bi arlotan: a) material tinkoaren arloan: errailak —hasieran burdinazkoak; gero altzairuzkoak, gogorragoak—, geltokiak, zubiak, eta abar; b) material mugikorraren arloan: lokomotorrak, autoak, bagoiak eta *tendersak*.

- Gainera, obra handien eraikuntzak —kanalak eta trenbideak— inbertitzaile pribatuen aldetik akzioen eta obligazioen jaulkipen handiak kolokatzeko eskatzen zuen. Egoera horrek aurrezkiak eta inbertsioak garatzen eta balioen merkatuak hedatzen lagundu zuen.

#### d) Lurrun-nabigazioa

Itsas nabigazioak lagundu zion Britainia Handiari munduko *lantegi* bihurtzen: lehengai merkeen sarrera ahalbidetu zen eta, era berean, herrialdean bertan landuriko produktuen esportazioa areagotu zen.

XIX. mendearen bigarren zatiaz geroztik, aurrerapen teknologiko sorta bat gauzatu zen: bai ohiko oihal-nabigazioa bai lurrun-nabigazio berria garatu ziren. Bi nabigazio mota horien artean, norgehiagoka izan zen.

Belaontzi-nabigazioan gertaturiko hobekuntzek abiadura handitzea eta merkantzien eta pertsonen garraioa merkatzea ahalbidetu zuten. Aldi berean, lurruna erabiltzearen ondorioz —eta, era berean, helizea eta altzairua erabiltzearen ondorioz— lorturiko hobekuntzek itsasontzien segurtasuna eta abiadura hobetu zuten.

Hasiera batean, alderik ez zegoen bi nabigazio mota horien prezioen artean. Arazo teknikoengatik, lurrun-nabigazioa ibaietan eta barneko itsasoetan erabili zen; ozeaniar nabigazio-alorrean, ordea, arazoak ekarri zituen bere erabilerak. Azken batean, lurrun-nabigazioan hainbeste erregai behar zenez gero, bidaiaria luzeetan nabaria zen itsasontzien sotoetako espazioaren falta. Lurrun-makinak, geroago egindako hobekuntza teknikoei esker, erregai gutxiago erabiltzen hasi ziren. Era berean, burdina eta altzairua erabiltzeak itsasontzien tamaina nabarmen handitzea ahalbidetu zuen, eta, ondorioz, sotoetan espazio gehiago utzi zen merkantziarentzat eta bidaiariarentzat. Funtsean, belaontzien eta lurrunontzien arteko lehia azken horrek gainditu zuen, apurka-apurka, XIX. mendearen azken aldera.

Lurrun-nabigazioaren garaipenak garraioa bizkortzea eta merkatzea ekarri zituen. Aldi berean, hozkailu teknikoaren arloan hobekuntzak izan ziren. Horren guztiaren ondorioz, *herrialde berri* delakoetatik (Kanada, Argentina, Australia, Zeelanda Berria, Errusia, AEB) Europara nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuen (zerealak eta haragiak) esportazio masiboa hasi zen.

Ekoizle berri horien oldarkortasunaren aurrean, Europako ohiko nekazaritza, lehia aritu ezinean, krisian sartu zen mendearen azken aldean. Krisiari aurre egiteko asmotan, Europako nekazaritza-enpresaburuak euren gobernuei presioa egiten hasi ziren langa babesleak edo protekzionistak ezartzeko, *herrialde berrietatik* etorritako lehia gutxitzeko asmoz. Horren ondorioz, babes-aro baten hasiera heldu zen.

### 1.5. Kanpo-merkataritzaren garapena

XVIII. mendetik aurrera, Britainia Handiak kanpo-merkataritzaren zabalkunde handiari ekin zion. XIX. mende osoan zehar, herrialde horrek nazioarteko merkatuen

goraldiari eta nagusigoari eutsi zion. Lehen Mundu Gerraren bezperan, artean, Britainia Handiaren nazioarteko merkataritza mundu-mailakoaren bosten bat izan zen.

Gailur horren azalpenen artean, hauek aipa genitzake:

- Giza kapital egokia (marinelak, finantza-esperientzia, merkatarien talde sendoa eta antolatua, eta abar).
- Arriskuei aurre egiteko ahalbide handia (bai itsas garraiorako aseguru mota modernoa, bai munduko gune gehienetan ordezkari diploma diplomatikoa, bai metodo gogorragoen bidez —hala nola, itsas armadaren erabilera, arriskurik izanez gero—).

Hauek izan ziren Britainia Handiko kanpo-merkataritzaren ekarpen garrantzitsuenetakoak:

- Esportazio aldetik: teknologia, makineria eta tresneria, burdinazko eta altzairuzko produktu siderometalurgikoak, harrikatza, finantza-kapitalak, eta abar.
- Inportazio aldetik: lehengaiak (kotoia, burdingaia), elikagaiak (zerealak, haragia, esnekiak).

Nahiz eta zenbaitetan britainiar merkataritza-balantza defizitarioa izan, defizita, izatekotan, sarreren eta transferentzien bitartez orekatu ohi zen. Sarreren jatorria askotarikoa izaten zen; esaterako:

- Merkataritza-ontziteriaren espartzu-zerrendak. Adibidez, XX. mendearen hasieran, Britainia Handian artean munduko itsasontzien tonen bi heren eraikitzen zen.
- Kanpoan inbertituko finantza-kapitalen onurak. XIX. mendean, Britainia Handia izan zen atzerrian inbertitzaile handiena. Inbertsioen helmuga nagusiak Britainia Handiko inperioaren lurraldeak ziren: India, Kanada, Australia edo Zeelanda Berria. Inbertsio horien beste helmuga garrantzitsu batzuk AEB, Argentina eta Europako zenbait herrialde ziren.

Britainiako kanpo-merkataritzaren sektoreak, industrializazioari laguntzeko orduan, arlo jakin batzuetara jo zuen; besteak beste:

- Merkatuak gehitzea eta industriarako eskaria areagotzea ahalbidetu zuen.
- Lehengai merkeak lortzeko aukerak ugaltu zituen (adibidez, Hego AEBko kotoi gordina, edo Bizkaiko burdingaia).
- Finantza-kapital ugari pilatzen lagundu zuen; hain zuzen ere, industriagintzan inbertitzeko oso kapital egokia ekarri zuen.

## 1.6. Politika ekonomikoa

Britainia Handian, XIX. mendean zehar, oso eztabaida zorrotza izan zen, librekanbisten eta babesle edo protekzionisten artean.

Hasieran, protekzionismoaren partaideen alde kokatu zen ekimena. Aro merkantilistatik sorturiko Nabigaziorako Aktei eutsi zieten. Era berean, 1815ean, *Corn Laws* (Zerealen Legeak) delakoak onartu ziren parlamentuan (lege horien arabera, aurretik finkaturiko maila batean gariaren salneurria jaisten baldin bazen, urte hartan debekatu egiten zen gariaren inportazioa).

Hala ere, 1840ko hamarkadan amore eman zuten babesle edo protekzionisten aldeko horiek; Nabigaziorako Aktak eta *Corn Laws*ak indargabetu egin ziren, eta aro librekanbista ausart bati ekin zioten.

1860ko hamarkadan, ildo librekanbista horri indar handiagoa eman zioten, hain zuzen ere, *Cobden-Chevalier* anglo-frantses merkataritza-ituna sinatu zenean. Nabaria zen itun horrek muga-zerga urriak ezartzeari emandako lehentasuna. Horrez gain, hasiera eman zioten *herrialde mesedetuenaren* klausulari eta *ad valorem* kontzeptuari. Argi eta garbi zegoen, ordurako, Britainia Handiak librekanbismoari emandako lehentasuna.

Hurrengo hamarkadan, 1873. urteaz gerotzik, Depresio Handiarekin eta mendearen azkenaldiko krisiarekin batera, babesaren aldeko politika ekonomikoa itzuli zen Europara. Orduko hartan, arrazoia izan zen *herrialde berrietatik* etorritako zerealen eta haragien lehiari aurre egitea.

### **1.7. Finantza- eta banku-sistema**

Barneko edo tokiko ikuspegi batetik, britainiar enpresek berezko baliabideak erabiliz ekin zieten industrializazioaren lehenengo urratsei —hots, autofinantziazioa arrunta zen, hasiera batean—. Hala eta guztiz ere, Ingalaterrako Bankua eta herrialdean zehar hedaturik zegoen banku-sarea onuragarriak ziren industriaren garapena lortzeko orduan.

Baina, batez ere, nazioarte-mailan nabaritu zen britainiar finantza-arloaren munta. Hain zuzen ere, mundu-mailan, bistakoa izan zen Londresko *City* delakoaren nagusigoa finantza-, banku- eta inbertitzaile-merkatuetan; nagusigo horri eutsi zion XVIII. eta XIX. mendeetan, eta baita XX. mendearen hasieran ere. Bien bitartean, Britainia Handiko diruaren —libera esterlina— prestigioa zela-eta, erreferentzia-diru eta dibisa-gako gisa erabili zen nazioarteko esparruan.



## **2. FRANTZIAKO EREDUA**

### **2.1. Industrializazioaren kronologia**

- 1760-1789. Prozesuaren hasiera. Tresneria eta teknologia britainiarren inportazio eta erabilera goiztiarrak.

- 1790-1815. Prozesuaren etendura. Ezegonkortasuna, segurtasunik eza. Nabaria zen 1789ko iraultzak, gerra iraultzaileek eta Napoleonen Inperioak arlo askotan sorturiko deuseztapena. Horrela, prozesu industrialia eten egin zen. Inbertitzaileek sektore produktiboa laga zuten, eta beren inbertsioak ondasun higiezinetara bideratu zituzten.

- 1816-1850. Bakea heltzean, industrializazio-prozesua berriz hasi zen.

- 1850etik aurrera. Industrializazio-prozesua hedatu eta finkatu zen. Trenbideari esker, barne-merkatuaren batasuna lortu zuten (hala ere, Frantziako industrializazio-prozesuan beste eten larri bat izan zen —nahiz eta laburra izan—, 1870ean, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerran izandako porrotaren ondorioz. Orduko hartan, Frantziak Alemania behartu zuen Alsaziako eta Lorrenako lurraldeak eta kalte-ordain handiak ematera).

### **2.2. 1789ko iraultza aurreko ekonomiaren egoera**

Ezaugarri hauek nabarmen daitezke:

- Populazio ugaria.

- Herrialdean zehar manufakturak sakabanatzea. Familia izaerako enpresa txikiak ziren, artean, erregaitzat egur-ikatzak erabiltzen zutenak.

- Garrantzitsuak ziren Colbert-en garaian sorturiko tamaina handiko lantegiak, luxuzko manufakturak ekoizteko, aristokraziaren eskaria ase asmoz.

- Britainia Handiko teknologiaren erabilera; bai tresneria inportatuz, bai patenteak eskuratuz, bai espioitza industrialean arituz.

- Merkataritza koloniala garatu zen Bordele, Nantes, Rouen, Marseilla eta beste itsas portu batzuetatik, batez ere, Karibeko koloniek.

Funtsean, Frantzia oso egoera mesedegarrian zegoen bere industrializazioari ekiteko. Ikusi berri dugunez, prozesu hori goiz hasi bazen ere, moteltzen joan zen XIX. mendean zehar.

### 2.3. Zergatik zegoen Frantzia Britainia Handia baino atzeratuago

- Gerra eta iraultza gehiegi (1789tik 1815era).

- Hazkunde demografiko ahula. Nahiz eta, lehen esan bezala, Frantziak biztanle ugari izan Industria Iraultzaren aurretik, kopurua ozta-ozta gehitu zen. Hainbeste iraultza eta gerraren erruz, jaiotza-tasa moteldu eta heriotza-tasa igo egin zen. Era horretan, biztanleria murrizten eta zaharkitzen joan zen. Funtsean, presio demografiko ahul hori oztopo handia izango zen industriaren eskarirako eta eskulanaren eskaintzarako.

- Nekazaritza-jabegoaren egitura. Dakigunez, Ingalaterrako kasuan nabariak ziren lursail handiak; Frantzian, aldiz, halakorik ez zen izan; izan ere, Frantziako Iraultza politikoak lursail txikia bultzatu zuen. Era horretan, ez zen sortu hirietara emigratutako eskulan soberakinik, ezta inbertsio kapitalistarik ere; oro har, ez zegoen lursail handirik eta errentagarririk.

- Natura-baliabideen ahulezia. Harrikatzaren urritasunak (nahiz eta Loiraren eta Rodanoren arroetan zerbait izan) inportatzeko beharra sortu zuen, hain zuzen ere, Britainia Handitik eta Belgikatik (azken kasu horretan, ubideen bidez). Burdingaiaren beharra ere agerian zegoen. Frantziakoa kalitate baxuko minerala zen. Gainera, geroago ustiatu zen, fosforo ugari baitzuen (azkenean, bere erabilera teknikoki ahalbidetu zenean, Lorrena eskualdea —burdinaren ekoizle garrantzitsua— Alemaniaren esku geratu zen).

- Kapital handirik ez eta aurrezkiak trakets bideratuta. Horren arrazoiak honako hauek izan ziren: a) Finantza publikoen desoreka eta defizita; b) inbertsio pribatua ondasun higiezinetara bideratzea, eta ez hainbeste industria-jarduerara; c) aurretik izandako espekulazioen oroitzapen txarra (hamarkada batzuk lehenago, finantza-krisia gertatu zen zenbait finantza- eta merkataritza-enpresak porrot egitean); d) *assignats* delakoen jaulkipenaren porrota (hori izan zen gobernu iraultzaileek jaulkitako zor publikoa; jaulkipen gehiegirengatik balioa galdu zuten).

### 2.4. Sektoreen arteko analisisa

#### a) Nekazaritza

Gobernu iraultzaileek egindako lur-banaketek ahalbidetu zuten landa-eremuan biztanle ugari izatea Frantzian.

Nekazarien kopurua hain handia izateak, azken batean, industrializaziorako oztopo handia sortu zuen.

Nahiz eta etengabekoa izan, landa-eremutik hirietarako emigrazioa ahula zen.

Politika ekonomikoaren arloan, Frantziako nekazaritza-sektoreak oso protekzionismo sakona eraman zuen aurrera. Muga-zerga handiak ezarrita, kanpo-nekazaritzaren lehia murriztu egin zen; baina, era berean, ekimen ezagatik atzeratua geratu zen Frantziako nekazaritza, zaharturiko ekoizpen-baliabideak erabiliz.

Geroago, trenbidearen garapenak ahalbidetu egingo zituen, azkenean, landa-eremuko ekonomia irekitzea eta barne-merkataritza bateratzea.

XIX. mendearen bigarren zatian, jatorri bikoitzeko krisi batek hartu zuen Frantziako landa-eremua:

- Mendearen azken aldera, filoxera gaixotasunak mahastiak deuseztatu zituen Frantzian. Inguru hartan, Frantziako ardoaren ekoizpenak Espainiako, Italiako eta Kaliforniako mahastien lehia jasan behar izan zuen.
- Europako toki askotan gertatu zen gisan, *herrialde berrien* zerealen eta haragiaren ekoizpen masiboen lehia oso kaltegarria izan zen Frantziako nekazariarentzat.

#### b) Industria

Frantziako industrializazioak Britainia Handiko eredia eta teknikak hartu zituen.

Industrializazio-prozesua partziala izan zen. Industriak ez zuen nekazaritza erabat baztertu; bi sektore horien arteko orekari eutsi zitzaion.

Burdingintzak berandu erabili zuen harrikatza. Mota horretako lehenengo labeak *Le Creusot* enpresan erabili ziren, 1785ean. Baina sistema hori geroago zabaldu zen. Muturreko teknologia hori hartzerakoan, honako hauek izan ziren atzeratzeko zergatiak:

- Frantziako enpresaburuen pentsamoldeak atxikimendu eskasa zion teknologia-berrikuntzari.
- Frantziako enpresaburuek egur-ikatz erabiltzeari eman zioten lehentasuna, eta harrikatza baztertu egin zuten.
- Finantza-kapitala urria zen, produkzio-unitate tradizionalak birmoldatzeko eta lantegi modernoak eraikitzeko.

Aipatu den moduan, bistakoa zen harrikatzaren eta burdingaiaren gabezia. Gainera, Lorrenako lurraldea galdu zenean, arazoa handitu egin zen. Horrez gain, Alsazia lurraldea galtzea kaltegarria izan zen oihalgintzarako. Izan ere, dakigunez, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerra amaitutakoan, Alemaniaren esku geratu ziren bi lurralde horiek.

Enpresa-egiturari dagokionez, lehenengo fasean, familia-enpresa izan zen mota hedatuena. Ezaugarri hauek zituen: tamaina txikia, bankuarekiko finantza-independentzia (autofinantziazioa, alegia) eta sakabanaketa geografikoa. Bigarren fasean, 1870. urte inguruan, Frantziako industriak, burdingintzak batez ere, enpresa

moderno baten ezaugarriak izan zituen: finantza-kontzentrazioa, eskulan eta kapital kopuru handien enplegua, eta abar.

#### d) Garraiobideak

Hasieran, ibai nabigagarriak erabili ziren (Loira eta Garona, adibidez). Epe laburrean, ibai horiek ubide-sare moderno baten bidez osatu ziren. Ubide horiek, batez ere, Belgikatik harrikatza ekartzeko erabili ohi ziren. Orduan, mugaturik bazegoen ere, garraio-sare egokia eskuratu zen.

Kontinenteko gainerako herrialdeen antzera, 1850eko eta 1860ko hamarkadetan garatu zen trenbidea batik bat, eta herrialdearentzat komunikazio mota moderno ahalbidetu zuen. Trenbide-sarea egitura erradialaren bidez eratu zen, eta erdigunea Parisen zuen.

Frantziako trenbidearen ereduari, koordinazio-maila altua zegoen estatuaren eta trenbide-konpainia pribatuen artean. Honako hauek ziren alde bakoitzaren beharrak:

- Estatuari zegokion konpainia pribatuei emakidak eta finantza-abantailak ematea eta, era berean, sarearen norabideak diseinatzea.
- Konpainiei zegokien sarea eraikitzea, ustiatzea eta haren mantentze-lanez arduratzea.

Kasu hartan ere, trenbidea onuragarria izan zen ekonomiarentzat; adibidez, herrialdearen barne-merkatuaren integrazioa eta bateratzea ahalbidetu zuen, azkenean.

#### e) Kanpo-merkataritza

1789ko iraultzak eta Napoleonen Inperioak oso egoera larrian utzi zuten Frantziako kanpo-merkataritza. Gainera, gerrateek kolonien eta merkatuen galera ugari sortu zituzten eta, era berean, zailtasun ugari sorrarazi zituzten lehengaien horniduran ere.

Horrela, nazioarteko merkataritzan frantziar kopurua murrizten joan zen (XIX. mendea igaro ahala, Britainia Handiaren, Alemaniaren eta Estatu Batuen atzetik kokatu zen). Hala eta guztiz ere, atzerrian gero eta handiagoa zen Frantziako kapitalen inbertsioa. Hasiera batean, European bertan sartzen ziren Frantziako kapitalak; adibidez, Espainian, Italian eta Belgikan; geroago, Errusian eta Balkanetan; eta, azkenean, Ekialde Hurbilean eta Amerikan. Era horretan, Frantzia munduko bigarren kapital esportatzaile bilakatu zen, Britainia Handiaren atzetik.

XIX. mendearen azken aldian, berriro ere Europan hedatu zen giro inperialista hartan murgilduta, Frantziak gogor ekin zion beste inperio kolonial bat eskuratzeari, Asian (Indotxina) eta Afrika iparraldean (Maroko, Aljeria eta Tunisia) hedaturik.

#### f) Politika ekonomikoa

XIX. mendean, Frantzian ere ezaguna zen librekanbismoaren eta protekzionismoaren artean sorturiko eztabaida zorrotza.

1860an, Cobden-Chevalier merkataritza-itunaren sinadurak hasiera eman zion ildo librekanbista bati.

1870eko hamarkadaz geroztik, protekzionismoaren nagusigoa itzuli zen. Horren arrazoiak beste herrialdeetako berdinak izan ziren: *herrialde berrien* nekazaritza-produkzioaren lehia gogorra, eta horren ondorioz sorturiko krisialdi ekonomikoa.

#### g) Banku-sektorea

Aipatu den gisan, Frantzian hainbat arazo eragin zituen banku modernoa eratzeak eta garatzeak; esaterako, zenbait bankuren porrotak eragindako oroitzapen txarra, edota *assignatsen* jaulkipenaren porrota.

Banku-egitura modernoa eratzeko orduan, Napoleonen munta aipatu behar da, berak sortu baitzuen Frantziako Bankua, banketxe zentral gisa. Egitura hori apurka-apurka osatu zen, banku pribatu batzuk eratzearekin batera; haien itzaropena, era berean, komertziala eta industrialia izango zen. Hain zuzen ere, *Rothschild* bankuari, higigarrien kredituari (Pereire anaiena) edota *Credit Lyonnaisi* buruz ari gara.

### **3. ALEMANIAKO EREDUA**

#### **3.1. Lurraldearen bateratze ekonomikoa eta politikoa**

1871. urtera arte, bateratze politikoa lortu arte, hain zuzen ere, erabat zatitua ageri zen gaurko Alemaniaren lurraldea. Tamaina txiki eta ertaineko entitate politiko ugari ziren; hala nola, Maguntzia, Saxonia, Palatinatua, Westfalia, Silesia, Renania, Prusia, eta abar. Haien artean, historia, arraza eta hizkuntza bera izatearen kontzientzia kolektiboa nabari zen; ikuspegi politiko batetik, ordea, batasun eza agerian zegoen.

Jakina denez, zenbait gerraren ondoren —Frantziaren eta Prusiaren arteko gerra, besteak beste— lurraldea batzea lortu zuten, 1871. urtean. Bateratze-mugimendu horren bultzatzaile nagusia oso estatu gerrazalea izan zen: Prusia, hain zuzen ere.

Hala ere, batasun politikoa eskuratu aurretik, *Zollverein* izeneko batasun ekonomikoari ekin zioten —zenbait estaturen artean egindako merkatu komun baten bidez—.

*Zollverein* eratu aurretik, Alemaniako kanpo-merkataritzaren egitura oinarritzen zen lehengaien esportazioan eta kolonietako eta erdi landuriko produktuen inportazioan. Britainia Handiko produktuen lehia zela-eta, Alemaniako produktu landuen esportazioak oso urriak ziren hasieran. Geroago, XIX. mendearen erdialdean edo, egoera aldatzen hasi zen.

Azken batean, bateratze ekonomikoaren aurretik, eragozpen asko izan ziren ekonomia-garapena bideratzeko orduan; besteak beste: estaturen arteko hainbat langa eta muga eta, era berean, diru-, administrazio- eta fiskal-bateratzerik eza. Horrek esan nahi du nola alderdi ekonomikoak hala politikoak aurki genitzakeela lurraldea bateratzeko arrazoiaren artean.

Azkenean, 1834. urtean *Zollverein* eratu zen, Prusiako estatuaren eraginpean eta oso prozesu luze baten ondoren —prozesu horren bidez, akordio partzialak gauzatu ziren merkataritzari eta mugei buruzko estaturen artean—. Akordio berri horrek kanporako muga-zerba komun bat ezarri zuen Alemaniako estatuetan.

Dirua bateratzea, ordea, geroago heldu zen. Hain zuzen ere, 1871. urtean, bateratze politikoa lortu orduko, antzinako txanponak desagertu egin ziren, eta beste diru bat sortu: urre-markoa. Frantziaren eta Prusiaren arteko gerra amaitutakoan sortu ahal izan zen diru berria. Dakigunez, gerra horretan, Prusiak lorturiko garaipenari esker, Alsazia eta Lorrena —betiko Frantziako lurraldeak— Prusiako estatuaren mendeko izatera igaro ziren. Horrez gain, Frantziak urre-libera kopuru izugarria (Prusiako urre-erreserbak handitzeko modukoa) ordaindu behar izan zion Prusiari.

### 3.2. Industrializazioa

a) Herrialde berriaren ekonomia bultzatzean, onuragarriak izan ziren zenbait ezaugarri. Adibidez, biztanle kopuru handia eta goranzkoa eskura izatea. 1800. urte inguruan, lurraldearen populazioa 25 milioi biztanlekoa zen; Lehen Mundu Gerraren bezperarako, ordea, 67 milioikoa zen. Are gehiago, Alemaniatik AEBra bideraturiko emigratio-prozesu tinkoa gertatu ezean, askoz biztanle gehiago izango zen Alemanian.

b) Nekazaritza-sektoreari dagokionez, bi lurralde bereizi behar ditugu. Ekialdeko lurraldean, lur-jabe aristokrata handien (*junkers* delakoen) latifundioak zeuden. Ere horretan, garrantzi handikoa zen zerealen ekoizpena; gehienetan, gainera, kanpo-merkatura bideratzen zen. Anakronikoa bazen ere, XIX. mendearen

erdialdera arte joputza-erakundeak iraun zuen inguru hartan; nekazarien egoera, gizarte-ikuspegitik, oso zorrotza zen. Neurri batean, britainiar ereduaren antza zuen Alemaniako ekialde hartako nekazaritzak; hau da, agerian ziren lursail handien nagusigoa, ekoizkortasun-maila handia eta nobleziaren nagusigoa.

Mendebaldeko lurraldean, berriz, nekazaritza-ereduaren beste ezaugarri batzuk zituzten. Han, oro har, nabaria zen Frantziako nekazaritza-ereduaren eragina; adibidez, lursail txikiak ziren, nekazarien egoera soziala libreagoa zen eta, bide batez, ekoizkortasun askoz baxuagoa lortzen zen, buruaskitasunezko nekazaritzari ekinez eta kanpo-merkatuetara esportatu gabe.

d) Natura-baliabideei zegokienez, herrialdearen ahalmena onuragarria zen. Batez ere harriatzaren ekoizpena nabarmendu zen, oso mesedegarria Alemaniako industrializazioari laguntzeko. Oro har, Silesia, Sarre eta, batik bat, Ruhr eskualdeak bihurtu ziren harriatzaren eta burdinaren garrantzi handiko produktore. Leku horietan, gainera, garapen handia izan zuen etorkizun handiko burdingintza industrialak. Horrez gain, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerraren ondoren, Alsaziako eta Lorrenako baliabideak gehitu egin ziren, Frantziaren kontura.

e) Garraiobide aldetik, Alemaniako baliabideak ez ziren makalak. Rhin, Elba, Oder eta gainerako ibai handietan naro ziren nabigaziorako aukerak. Baina trenbidea sartzeak aukera askoz gehiago ireki zizkion garraiobidearen azpiegiturari, batez ere, 1840ko, 1850eko eta 1860ko hamarkadetan. Hasieran, 1840ko hamarkadan, Prusiako estatua eta enpresaburu atzerritarrak —britainiarrak eta belgikarrak, batik bat— izan ziren Alemaniako trenbide-sarearen bultzatzaile. Bigarren urratsean, 1850eko hamarkadan, teknologia alemaniarra modernizatu ahala, tokiko enpresaburuek parte-hartze handiagoa izan zuten trenbidearen sektorean. Hala eta guztiz ere, eta gainerako herrialdeetan gertatu zen gisan, azkenean, estatuen esku geratu ziren trenbide-konpainiak.

f) Teknologiari zegokionez, hasieran, Alemaniako industria Europako gainerakoen antzera aritu zen; hau da, britainiar teknologia inportatzeari ekin zioten. Dena den, geroago, jarduera hori albo batera utziko zuten Alemanian. Hain zuzen ere, XIX. mendearen erdialdeaz geroztik, Alemania gauza izan zen bere kabuz teknologia propioa garatzeko, batez ere puntako sektoreetan: kimikagintzan, botikagintzan, elektrizitatean eta elektronikan. Hain zuzen ere, zientzian eta teknologian Alemaniak Ingalaterrarekiko lorturiko independentzia izan zen Alemaniako industria-ereduaren ezaugarri nabarmenatariko bat.

g) Enpresa-egiturari zegokionez, hasieran enpresa txikiak ziren nagusi. XIX. mendearen erditik aurrera, ordea, bistan geratu zen enpresa handien munta. Enpresa handi horien eragina, ekonomia-arloraz ez ezik, politikaren esparrura ere zabaldu zen.

Besteak beste, *Krupp* burdingintzaren kasua izan zen hori; bere eragin-eremua harrikatz- eta burdina-meatzaritzan, burdingintzan eta itsasontzigintzan nabarmendu zen. Aldi berean, *cartelak* osatu ziren enpresa handien artean eraturako behin-behineko akordioen bidez. Haien helburuak ziren: mozkinak gehitzea, merkatuak banatzea, eskaria eta merkatua kontrolpean izatea, gainprodukzioa ekiditea eta salneurrien gaineko kontrola edukitzea. Testuinguru hartan, Renania-Westfalian *cartel* bat eratu zen harrikatzaren sektorean; beste bat Düsseldorf-en, altzairuaren arloan; eta beste bat Harz aldean, potasarena. Bitartean, elektrizitatearen sektorean, XX. mendearen hasieran, bi enpresa handi soilik ari ziren merkatuan: *Siemens* eta *AEG*. Estatuaren legeria ez zegoen praktikan oligopolio bihurtutako *cartel* horien kontra (aipatzekoa da, Britainia Handian eta batez ere AEBn, juridikoki oligopolio mota horien aurka jarri zirela estatuak, tinko).

h) Alemaniako industria-ereduaren beste ezaugarri behinena izan zen bankuaren eta industriaren arteko harreman estua. Bateratze politikoa lortu bezain laster, banku-azpiegitura modernoa eta sendoa eratzen hasi zen. Batetik, 1875. urtean, banku zentral bat eratu zen Berlinen, *Reichsbank* hain zuzen ere; banku horrek, apurka-apurka, diru-jaulkipenaren monopolioa eskuratu zuen. Bestetik, banku pribatuaren sare modernoa osatzen ari ziren, zenbait kasutan bateratze politikoaren aurretik. Arlo horretan, aipatu beharra dago *Lau D* delako bankuen garrantzia; horien artean ziren, ospe handiko etorkizunarekin, *Deutschebank* eta *Dresdnerbank*.

Aurretik aipatu den moduan, industria- eta banku-sektoreen arteko hurbiltasuna izan zen Alemaniako industrializazio-ereduaren ezaugarri adierazgarrietako bat. Hain zuzen ere, bankuaren eraginpean askotan gauzatu zen zenbait industriaren bilakaera. Bankari handiek sarritan parte hartzen zuten enpresen administrazio-kontseiluetan, gehienez, enpresen kontzentrazioari biziki ekinez. Testuinguru hartan garatu zen banku mistoa; hain zuzen ere, bi erako bankua zen: a) banku komertziala edo gordailutarakoa (epe laburreko eragiketetan espezializatua: gordailuak, letren eta efektuen deskontua, maileguen emakida bermearen bidez, eta abar); b) banku industrialak edo inbertsiotarakoa (epe ertaineko eragiketetan berezitua, bai enpresen maileguen emakiden bidez, bai zuzenean enpresen akzioak eta obligazioak erosiz). Dena den, banku-sistema hori eratzerakoan, Alemania ez zen aitzindari bakarra. Ordurako, Frantzia eta Belgikan ere ezaguna zen banku mota moderno hori. Alemaniak, hala ere, askoz gehiago garatu eta zabaldu zuen banku-sistema hori.

Aipaturako ezaugarri horien guztien ondorioz, herrialdeak oso ekonomia-hazkunde azkarra eta bat-batekoa izan zuen, batez ere 1880tik 1913ra. Egoera hartan, gainera, Alemaniako esportazioak gero eta oldarkorragoak eta gogorragoak izan ohi



ziren kanpo-merkataritzaren arloan, bai Europako bertako merkatuetan, bai Europatik kanpoko merkatuetan.

i) Bestalde, kanpo-jarduera munta handikoa izan zen Alemaniako industrializazioan. Inportazioari zegokionez, garrantzitsuenak lehengaiak izan ziren (kotoi gordina eta elikagaiak). Esportazioari zegokionez, berriz, hauek izan ziren sorta nagusiak: botikak eta produktu kimikoak, manufaktura orokorrak, eta zerealak. Kanpo-jarduera horren merkatuak leku askotan zeuden: bai Amerikan (AEBn, Argentinan, Venezuelan, Mexikon), bai European bertan (Austria-Hungarian, Errusian, Turkian, Espainian), bai oso berandu lorturiko Afrikako eta Asiako kolonietan.

Ezaguna denez, hasieran Alemaniak ez zeukan koloniarik. Horrexegatik, XIX. mendearen azken aldera, Afrikako eta Asiako norgehiagoka kolonialean sartzeari ekin zion, bat-batean eta abiadura handiz; eta, horrela eragin zuen Britainia Handiaren eta Frantziaren oposizioa. Are gehiago, Latinoamerikako merkatuetan maiz aritu zen Alemania *dumping* delakoan, eta ezinegona sortu zuen nazioartean.

Finantza-kapitalen esportazioaren esparruan, Alemania hirugarrena izan zen, Britainia Handiaren eta Frantziaren atzetik. Dena den, Lehen Mundu Gerraren bezperan, alemaniarrek izan ziren munduko kapital-inbertsioen bosten bat.

j) Politika ekonomikoaren arloan, XIX. mendearen hasieran librekanbismora jo zuten, baina apurka-apurka. 1860ko hamarkadan, *Cobden-Chevalier* merkataritza-itunaren eraginpean sartu zen eta, modu horretan, are gehiago eutsi zioten librekanbismoaren ildoari. Gainera, Prusiako lur-jabe handiek, zerealen esportazioan jardundakoek, lagundu egin zioten librekanbismo gehikor horri. Europako beste herrialde batzuetan gertatu zen bezala, 1870eko hamarkadan aldaketa ugari heldu zen Alemaniara ere. Egoera hartan, *herrialde berrietatik* iritsitako zerealen lehiak izan zuen eragina Alemanian: politika ekonomikoa erabat aldatu zen eta protekzionismora jo zen.

Era berean, Bismarck kantzelariak gizarte-segurantza sistema erdi modernoaren hastapenak ezarri zituen Alemanian, eta erantzuna eman zien zenbait estaldurari (lan-istripuei, zahartzaroari, eta abarri).

Orain arte esandakoaren arabera, Lehen Mundu Gerraren bezperan, Alemaniako ekonomiaren garapena Britainia Handikoaren mailara iristeko zorian zegoen. Are gehiago, sektore batzuetan —altzairugintzan, kimikan (ongarri artifizialak, botikak, tinteak), elektrizitatean, eta abarretan—, Alemaniak ordurako gainditu egin zuen Britainia Handia.

Hala eta guztiz ere, laster etengo zen geldiezina zirudien Alemaniako ekonomia-hazkunde hura, Lehen Mundu Gerran, hain zuzen ere. Gerra amaitutakoan, hurrengo lider ekonomikoa ez zen Britainia Handia izan, ezta Alemania ere, Europatik kanpoko beste herrialde bat baizik: Amerikako Estatu Batuak.

## **4. ERRUSIAKO EREDUA**

### **4.1. 1917ko iraultzaren aurretik, Errusiaren berezko ezaugarriak**

XIX. mendearen bigarren zatian, Mendebaldeko Europako herrialdeen parean, nahiko berezia eta ezberdina zen Errusiako egoera. Ekialdeko Europako herrialde horren ezaugarriak ziren, besteak beste:

- Ekonomia-atzerapen oso nabaria.
- Pentsamolde eta gizarte-egitura oso atzeratuak (aristokrazia lur-jabea zen; agerian zegoen burgesiaren eta klase ertainen gabezia; nekazari gehienak lurraren jopu ziren; lur-jabe txikiak —*kulak* delakoak— gutxiengoa ziren).
- Geografiaren handitasuna. Horren jatorria hasia zen XVII. menderako; Mosku hiria zuen erdigunean eta, geroago, mendeetan zehar, Ukrainara, Poloniara, Kaukasora, Siberiara eta abarretara hedatu zen.
- Demografiaren ahalmen itzela. 1900. urtean 111 milioi biztanle izan ziren. Dena dela, oro har, euren eros-ahalmena zen baxuena.
- Garraiobideari zegokionez, murrizketa bistan zegoen.
- Lantegien ahulezia ere nabaria zen.

### **4.2. Nekazaritzaren egoera eta nekazaritza-erreformarako saioak**

Errusian, nekazaritza-sektorearen egoerak oztopatu zuen industriaren garapena. Nekazaritza-erreforma baten beharra agerian zegoen.

Beste eragozpen handi bat lurrarekiko joputzak irautea zen. Egoera hori, gainera, oso gerora eten zuten, hain zuzen 1861ean, Alejandro II.a tsarrak dekretuz hura indargabetzea agindu zuenean.

Aldi berean, azkenean, hasiera eman zioten nekazaritza-erreformari (*Nekazaritzako Erreforma Handia* izena izango zuen), tsarren gobernuak bultzaturik. Erreforma horretan, prozedura berezia jarraitu zen:

- Estatuak lurak erosi zizkien lur-jabe handiei, estatuaren zor publikoaren truke.
- Lurak ez ziren nekazarien artean banatu; tokiko komunei —*mir* delakoei— eman zizkien. Tokiko erakunde horiek, beren aldetik, *berrerosketa-ordainketak* ordaindu behar zizkioten estatuari, 49 urtean zehar.
- *Mir* bakoitzak zuen bere ordainketen erantzukizuna eta, era berean, familien artean lurak banatzearena ere bai. Teorian, familien beharizanaren arabera egin behar zen banaketa hura. Aldizka, ordea, lurak birbanatzeari ekingo zioten. Hori zela-eta, nekazaria ez zegoen motibaturik nekazaritza-ustiapenaren egoera hobetzeko. Horren

guztiaren ondorioz, ekoizkortasun-maila oso baxua zen eta nekazaritzan berrikuntza tekniko oso gutxi egin zen. Eta, horren ondorioz, baserritarrek ezinegona azaldu zuten sistema politikoarekiko. Azken batean, nekazaritza-erreformak porrot egin zuen.

Gizarteari zegokionez, XIX. mendearen azkenaldian eta XX.aren hasieran, orokortu egin ziren iskanbilak eta gatazkak (1905eko iraultza, adibidez). Agerian zegoen nekazaritza-erreforma baten beharra.

Testuinguru hartan, 1906. urtean, beste nekazaritza-erreforma bati ekin zioten, *Stolypinen* erreforma izenekoa, hain zuzen ere. Helburu bat baino gehiago zituen:

- Lursailen jabetza pribatua piztea eta *mir* sistema baztertzea (*kulaken* garapena izan zen testuinguru hartan).
- Estatuarekiko zorrak amaitzea (*berrerosketa-ordainketak* amaitzea, alegia).
- Siberiako kolonizazioari ekitea.
- Funtsean, nekazari-klase sendoa eta egonkorra sortzea.

Erreforma horren emaitza, dena den, nahiko mugatua izan zen. Horren arrazoiak izan ziren, besteak beste: a) Stolypin ministroaren erailketa; b) Lehen Mundu Gerraren hasiera, 1914. urtean; eta c) 1917ko boltxebikeen iraultzaren eztanda.

Nahiz eta lursail-banaketaren egitura traketsa izan eta nekazaritza-ekoizkortasuna eskasa izan, boltxebikeen iraultzaren bezperan, Errusia izan zen mundu-mailan gariaren lehengo esportatzailea. Jarduera horri esker, eta nekazaritzaren lepora garaturiko fiskal-sistema zamatsuaren bitartez, atzeritar maileguak ordaintzea ahalbidetu zen. Era horretan —eta egitura aldetik atzerapen nabaria bazuen ere—, diru-sarrera nagusi bihurtu zen Errusiako nekazaritza.

### 4.3. Industriagintza

Errusian, XIX. mendearen azkenaldian izan zuen hasiera industrializazioak. Are zehatzago, 1880ko eta 1890eko hamarkadetan, urtero % 8 inguru hasi zen gehitzen industria-hazkundearen indizea.

Hasiera batean, 1880 eta 1905 bitartean, estatua izan zen industrializazioaren protagonista. Estatuak eskari ugaria sortu zuen industrientzat, eta ekonomia-politika erabat protekzionista bultzatu.

Errusiako burgesiaren gabezia agerian geratu zen egoera hartan.

Mendebaldeko Europatik ekarri zuten teknologia. Hala ere, atzerapen handiz iritsi zen; esaterako, 1860ko hamarkada arte, burdingintzan ez zen orokortu harrikatzaren erabilera, ezta lurrun-makina ere.

Hasieran, gainera, anakronikoki, jopuen eskulana enplegatu zen industrietan (hain zuzen ere, joputzaren abolizioa arte, 1861. urtean).

Tamaina handiko enpresa nagusia zen, finantza-kapitalaren eta eskulanaren aldetik kontzentrazio handikoa, eta, gehienetan, industria astunaren alorrean aritu zen.

Ezaugarri mesedegarria natura-baliabideen narotasunean zetzan; esate baterako, ugariak ziren harrikatza, petrolioia, burdina eta oihalgintzarako lehengaiak.

Beste ezaugarri onuragarri bat trenbidea eraikitzea izan zen. Errusiako trenbidearen eredia aurrera eramateko orduan, nabaria zen estatuaren protagonismo ekonomikoa, atzerriko inbertsio pribatuekin batera. Errusiaren trenbide-sarea ez zen oso tinkoa —eta, neurri handi batean, atzerriko materialez baliatu zuten—, baina garraio-bide horren eraikuntzari esker sortu zen barneko burdingintzarako eskaria.

Hain zuzen ere, Lehen Mundu Gerraren bezperan, Errusia munduko laugarren ekoizle bihurtu zen burdingintzaren alorrean. Abiapuntuko egoera oso kaskarra bazen ere, nabarmena izan zen XIX. mendearen azkenaldiko eta XX.aren hasierako Errusiako industria-hazkundeak.

Hala eta guztiz ere, Mendebaldeko Europarekin erkatuz, artean oso baxua zen bere per capita errenta. Bestalde, agerian zegoen ekonomia-sektoreen arteko desoreka handia. Hots, alde batetik, industriagintza modernizazio-prozesuan murgilduta zegoen; beste aldetik, ordea, nekazaritzaren sektoreak artean gogor eusten zion atzerapenari.

Funtsean, Lehen Mundu Gerraren aurretik, Errusia ez zegoen industrializatutako herrialdeen artean. Sorturiko errentari eta lan-eskuei zegokienez, bistan zegoen nekazaritza-sektorearen nagusigoa. Hain zuzen ere, orduko industriak populazio aktiboaren % 5ari bakarrik ematen zion enplegua eta errenta nazionalaren bosten bat soilik sortzen zuen.

#### **4.4. Industrializazioaren finantziakzioa**

Errusian, bi bidetatik eskuratu zen, batez ere, industrializazioaren finantziakzioa:

- Nekazaritza-sektorearen ekarpenaren bitartez: bai fiskal-sistema gogor baten bidez, bai zerealen esportazioari esker.

- Mendebaldeko finantza-kapitalen eta tekniko-kualifikatuen ekarpenaren bidez; Errusiako burgesiaren eta enpresaburuen ahulezia ordeztzea zen asmoa. Testuinguru hartan, Sergei Witte Ogasuneko ministroak —*Colbert errusiarra* esaten zioten— dirua egonkortzea lortu zuen; urre-errubloa sortu zuen, eta urre-patroian sartu. Horri esker, nazioarte-mailan errubloaren prestigio erlatiboari eutsi zion, eta atzerriko inbertitzaileak erakarri zituen (batez ere, Frantziako inbertitzaileak). Hain zuzen ere, Lehen Mundu Gerraren bezperan, atzerritarrak % 41 ziren sozietate anonimo industrialen kapitala osoan; meatzaritza eta burdingintza sektore estrategikoak kontrolatzen zituzten.

## IV. gaia. INDUSTRIALIZAZIO-EREDUAK EUROPATIK AT

### 1. AMERIKAKO ESTATU BATUEN EREDUA

#### 1.1. Estatu Batuetako garapenaren berezitasuna

Mende eta erdi baino denbora gutxiagoan, zehatz-mehatz 1776tik 1914ra, britainiarren kolonia sorta bat izatetik munduko lehenengo potentzia izatera pasatu zen AEB. Besteak beste, hauek izan ziren garapen horren arrazoiak:

- egonkortze politikoa
- historiaren zama oso ahula
- gizarte-konposaketa
- biztanleriaren ahalmena
- geografiaren tamaina itzela
- natura-baliabideen ahalmen izugarria

#### a) Egonkortze politikoa

XVIII. menderako, kolonia-sasoian, nahiko oparoa zen Ipar Amerikako gizartea. Erakundeak egonkorak ziren kolonia horietan, hezkuntzaren aldetik garapen-maila altua zuten, eta merkataritza-jarduera ere ohikoa zen. Horren guztiaren arrazoa Europaren kolonizazioan zetzan. Gainera, Britainia Handiko industrializazioaren eragina nabaritu zen Ipar Amerikan; batez ere, hegoaldeko estatuetan, ugaria baitzen handik Britainia Handira esportaturiko kotoi gordina.

Hala ere, hainbat oztopok geldiarazi egin zuen ekonomiaren garapena: mendebaldeko mugaren erakarpen-indarra zela-eta, eskulana garestitu egin zen; era berean, banketxeen eta finantza-bitartekarien gabeziaren ondorioz, finantza-kapitala ere garestia izan zen. Aldi berean, bai merkantilismoak bai britainiarren kontrolak ere oztopo ugari jarri zizkioten merkataritza-jarduerari.

Britainia Handiaren aurka, Independentzia Gerraren ondoren (1776-1782), Amerikako Estatu Batuak herrialde subiranoa izan ziren, azkenean.

Independentzia Gerrak askatu zituen aurreko koloniak, merkantilismoari eta britainiarren kontrol politikoari amore emanaz. Bien bitartean, Ipar Amerikako sistema politikoaren oinarritzko ezaugarriak ezartzen hasi ziren; hala nola, idatzitako konstituzioa, federalismoa eta botereen arteko banaketa.

Gobernu propioa eta eraginkorra sortzeak ahalbidetu zuen ekonomia garatzeko hain beharrezkoa zen egonkortze politikoa. Hain zuzen, gaur egun ere zutik dirau

1787ko Konstituzioak —herrialdea errepublika federal gisa antolatu zuenak— (hori bai, hainbat zuzenketa egin zaizkio). Bere historia laburrean, herrialdeak egonkortze politikoa ezagutu du. XIX. eta XX. mendeetan zehar, AEBko egoera politiko lasaiak ez zuen zerikusirik Europan izandako ezegonkortasun politikoarekin.

Barne-egonkortze politiko horren salbuespen bakarra Sezeshio Gerra (1861-1865) izan zen.

#### b) Historiaren zama oso ahula

Europan gertatu ez bezala, AEBko historiaren beste ezaugarri bat da feudalismoaren aztarnarik eza. Hori dela eta, ez gizabanakoek ez lurak ez zuten jasan jaurerriaren eta jaunaren zamarik eta gehiegikeriarik.

Era horretan, gizarte- eta ekonomia-alorretan, ate asko ireki ziren langile ekintzaileentzat edo saiatuentzat. Egokieren eta aukeren herrialdea zen; batez ere, mendebaldeko lurraldeetan. Ez hainbeste, ordea, hegoaldean eta ekialdean, tokiko oligarkien kontrolak, zenbaitetan, egokiera-berdintasunak oztopatzen baitzituen.

#### d) Gizarte-antolaketa

Historikoki, herrialdearen gizarte-egitura jatorri askotako immigrazio handiaren emaitza izan da. 1820tik 1920ra, 36 milioi etorkin iritsi ziren herrialdera. Hain zuzen ere, Lehen Mundu Gerraren aurretik, immigrazioaren bidez biztanleria erdia baino gehiago gehitzea lortu zen.

Hainbeste etorkin izatea, hein handi batean, Europan izandako arazo ekonomikoen ondorio zen: 1840ko eta 1850eko hamarkadetan, Irlandan, Alemanian eta beste herrialde batzuetan nozitutako goseteak emigrazio handia ekarri zuen Ipar Amerikara. Jatorriko lekuetatik biztanleria kanporatzeko arrazoiak, ekonomiari ez ezik, politikari eta erlijioari zegozkion.

Dena dela, XIX. mendearen amaieran, areagotu egin zen AEBren populazioa erakartzeko ahalmena. Garai hartan, bizkor ari zen garatzen AEBko industrializazioa, eta bertako biztanleriaren hazkundeak ezin zion horri erantzun. Egoera hartan, AEB oso helmuga erakargarria zen etorkinentzat, Ipar Amerikako ekonomia zabalkorra, eskulanaren beharra eta soldata handiak zirela-eta. Horiez gain, aipatzekoa da AEBko klima leuna ere. Testuinguru horretan, ez dugu ahaztu behar trenbidea eta itsas nabigazioa hedatzeak ere lagundu ziela Amerikara joandako etorkinei.

1815. urtearen ondoren (napoleondar gerren ondoren, alegia), etengabe hasi zen AEBra jendea joaten.

Immigrazio horren jatorria, batik bat, Europa zen. Lehenengo kolonoak —eta ugariak— britainiarrak, holandarrak, frantziarrak, irlandarrak eta alemaniarrak izan ziren, batez ere; haien etorrera 1820 eta 1896 urteen artean nagusitu zen.

Geroago, 1896 eta 1921 urteen artean, mediterranean eta eslaviar etorkinak izan ziren nagusi. Denak indiar populazioaren lurretan kokatu ohi ziren, natiboen populazioa gainbehera baitzegoen. Europaz kanpoko etorkinak ere izan ziren; hain zuzen ere, beltzak, asiarrak eta hispanoak.

#### e) Biztanleriaren ahalmena

Independentzia Gerraren amaieran (1782), 3,5 milioi biztanle zeuden herrialdean, Ozeano Atlantikoaren eta Apalatxe mendikatearen artean. Lehen Mundu Gerraren amaieran (1918), 100 milioi izatera iritsi ziren.

Hauek izan ziren populazioa gehitzearen arrazoiak, besteak beste:

- Immigrazioa etengabe haztea, batez ere.
- Herrialdean bertan izandako hazkunde begetatiboa.

1921etik aurrera, legea immigrazioari mugak jartzen hasi zen: jatorriaren arabera bereizten eta hautatzen.

Biztanleriaren oparotasunak lurraldean bertan merkatu handia agertzen lagundu zuen. Orduan, industriaren garapena lortzeko, ez zen beharrezkoa kolonia-eta kanpo-merkatuetara jotzea. Era horretan, Ipar Amerikako enpresek berehala eskuratu zituzten merkatu zabal eta errentagarriak, eta, gainera, mendebaldera eta hegoaldera etengabe zabaltzeari ekin zioten.

Hala ere, herrialdearen tamaina geografiko itzela zela-eta, biztanleriaren dentsitatea Europakoa baino txikiagoa zen. Horren ondorioz, demografiaren presioa ez zen gauza herrialdea asko jendeztatzeko (jakina, salbuespenak baziren: New York, Chicago eta beste hiri batzuk).

#### f) Geografiaren tamaina itzela

Herrialdearen ekonomia garatzeko orduan, ezaugarri mesedagarria izan zen lurraldearen hedapen handia ere —Europako tamainaren bi heren edo—.

Gainera, ustiapena etengabe gauzatu zen. Hamahiru kolonia, geroago, hamairu jatorrizko estatu bihurtu ziren. Ozeano Atlantikoaren eta Apalatxe mendikatearen artean kokatuta, hasiera eman zioten lurraldearen zabalkundeari. Hedapen geografiko hori askotariko bitartekoen bidez gauzatu zen, hala nola:

- Mendebaldera: Frantziari Louisianako lurraldea erosi zioten; jatorrizko biztanleen lepora *Far West* lurraldea okupatu zuten; Mexikoren aurka eginda, Texas hartu zuten (aurretik, Kalifornia, Arizona, Nevada, Mexiko Berria).

- Hegoaldera: Espainiari Floridako lurraldea erosi zioten.
- Iparraldera: Errusiari Alaska erosi zioten.

Lurraldea zabaltzarekin batera, iparramerikarren pentsamoldea egokitzen joan zen: mugaren ideia, urrunago joateko gogoia eta, funtsean, inperialismoaren nozioa. Lurralde osoa okupatzean, ideia inperialista horrekin jarraituko zuten, bai Latinoamerikako zenbait herrialdetan, bai beste kontinente batzuetan.

#### g) Natura-baliabideen ahalmen izugarria

Natura-baliabideei zegokienez, oso aberatsa izan zen Estatu Batuetako lurraldea.

Lurraldearen baldintza fisikoen eta klimatikoen aniztasuna onuragarria izan zen nekazaritzarentzat.

Baliabide mineralaren aberastasuna ere agerian zegoen: harrikatza, burdina, kobrea, zinka, eta abar; industrian erabiltzeko oso mineral egokiak ziren.

Metal preziatuak eskuratzeko ahalbidea bistakoa zen; bai urrea (Kalifornia, Alaska) bai zilarra (Nevada, Colorado).

Era berean, energia-iturri berrien ahalmena ere naroa zen: petrolioia, gas naturala eta, geroago, mineral nuklearrak.

### **1.2. Nekazaritza-sektorea**

Estatu Batuetan, lurrak hartzea erraza izan zen. Horren arrazoiak askotarikoak ziren:

- Sozialak eta historikoak: tradizio feudalik ez izatea.
- Geografikoak: herrialdearen tamaina handia eta, era berean, eskulanaren gabezia erlatiboa.

Hain zuzen ere, eskulanaren murrizte erlatiboak eta herrialdearen zabalkunde handiak nekazaritzaren mekanizazioa eragin zuten (hala nola, sega-makinen eta garia jotzeko makinen erabilera).

AEBko nekazaritza-sektorearen beste ezaugarri nagusi bat laboreen espezializazioa eta aniztasuna izan ziren. Ezaugarri hori lur-jabetzaren tamainaren eta klima motaren eraginpean zegoen; horrela, adibidez:

- Kaliforniako Ozeano Barearen kostaldean, klima mediterranearrak lagundu zion zitrikoen, fruitu lehorren eta mahastien ekoizpenari.
- Mendebaldean, lursailak oso handiak eta lehorrak izateak zerealen ekoizpena eta abeltzaintza estentsiboa ahalbidetu zituen.



- Ipar-ekialdean, tamaina erdiko lur-jabetzetan eta latitude hotzetan —Laku Handiaren inguruan—, artoari eta antzeko beste labore batzuei ekin zioten eta, era berean, abere-hazkuntza intentsiboari, bereziki.

- Hegoaldean, latitude sasi-tropikaletako lursail handietan, orokortu ziren kotoia, azukre-kanabera, tabakoa, eta antzeko plantazioak.

Historikoki, oso altua izan da Estatu Batuetako nekazaritzaren merkaturatze-maila. Nekazaritzaren sektorea merkatuaren arabera egituratu zen. Ez zen bideratu, ordea, soil-soilik familien autokontsumoa asetzera. Dena den, nekazaritzako ekoizpena merkatura bideratzeak mendekotasun handia sortu zuen merkatuen zikloekiko. Horrela, nekazaritza-produktuen prezio baxuko zikloetan, nekazari txikiek eta zordunek euren lurak hipotekatu eta galdu egingo zituzten. Horrek nekazari lur-jabeak murriztea eta maizterrak ugaritzea ekarri zuen.

Horren guztiaren ondorioz —nekazaritzaren modernizazioaren, mekanizazioaren eta espezializazioaren ondorioz, alegia—, sektorearen errendimenduak, oro har, oso handiak izan ziren. Bide horretan, XIX. mendearen azken zatian, AEB bihurtu zen mundu-mailan gariaren, artoaren eta kotoiaren lehenengo ekoizle.

Geografikoki, bereizi egin daitezke herrialdearen hegoaldeko eta mendebaldeko nekazaritza-ereduak.

Hegoaldeko estatuen kasuan, 1790 inguruan, Britainia Handira hasitako kotoi gordinen esportazioek piztu zuten lurraldearen ekonomia. Tamalez, eta ezaguna denez, kotoia esklabutza bitartez landu zen. Egoera hartan, esportazioen bidez, kapital-metaketa handia lortu zen. Sezesio Gerra amaitutakoan, ordea, hegoaldeko estatuak herrialdeko txiroenak bihurtu ziren.

Horren zergatia iparraldeko industrializazioa izan zen. Baina, hegoaldeko akatsek ere izan zuten zerikusia; esaterako, gerratearen aurretik industrializatzea ez lortzea. Bestalde, kotoiaren prezioaren jaitsiera ere kaltegarria izan zen. Kontuan izan behar dugu, Sezesio Gerran zehar kotoi gordinen esportazioa etetearen ondorioz, Britainia Handiak beste kotoi-hornitzaile batzuk topatu behar izan zituela; Indiara jo zuen, batez ere.

Era berean, gerratearekin amaitu zen esklabutza, eta maiztergo-sistema batek ordeztu zuen. Egoera hartan, New Orleans izan ezik, ez ziren garatu hegoaldeko tamaina handiko hiriak. Egia esan, industrializazioa lortzea arazo larria izan zen hegoaldean.

Mendebaldeko estatuen kasuan, muga luzatu egin zen, batez ere Sezesio Gerra amaitu zenetik 1890. urtera arte. Lurralde horietan, aipatu den moduan, zerealak lantzea eta abeltzaintza estentsiboa indartu ziren.

Mendebaldeko nekazaritzaren garapenerako faktore onuragarria izan zen soroetan kolonoak finkatzeko erraztasuna. Hain zuzen ere, 1862. urtean, *Homestead Act* delakoak soroak okupatzea ahalbidetu zuen, estatuari ordaindutako prezio sinboliko baten truke.

Mendebaldean, nekazaritza eta abelazkuntzaren bidez lorturiko per capita errentak hegoaldekoa gainditu zuen. Mendebaldekoek, gainera, onura handia atera zioten bai Europan bai AEBko ekialdeko estatuetan sorturiko eskariari, batez ere, garraioaren garapenak merkatu horietara erraz sartzea ahalbidetu zuenean. Horren guztiaren ondorioz, XIX. mendean, nekazaritza erakargarria zen, behintzat, mendebalderako emigrazioari eusteko.

### **1.3. Industria-sektorea eta Ipar Amerikako kapitalismoa**

#### a) Industria-garapenaren abantailak

Estatu Batuetako industrializazioaren hastapena XIX. mendearen hasieran izan badaiteke ere, industria-garapena ez zen orokortu Sezesio Gerra amaitu arte (1860ko hamarkada).

Hala ere, Lehen Mundu Gerraren bezperan, AEB zen munduko lehenengo potentzia industrialia.

Industriaren garapen horrek abantaila handiak ekarri zituen:

- Britainiar teknologia oso goiz moldatu zen.
- Barneko eskariaren hazkunde-maila oso altua; biztanleria hazkorraren eta lursail berriak goldatzearen bidez lortu zen hori.
- Lehengaien eta erregaien aniztasuna; adibidez, harrikatza (lehenengo ekoizlea mundu-mailan) eta petrolio (munduko produkzioaren hiru bosten ekoizten zituen Lehen Mundu Gerraren bezperan).
- Garapen teknologikoa. 1840. urterako, garrantzitsua zen herrialdean bertan lorturiko teknologia-maila; laneskuari zegokionez, adibidez, aurrezki handia zekarren. Era horretan, esate baterako, mendebaldeko lurretako soro handietan sartzen hasi zen nekazaritzarako tresneria eta makineria.
- Trenbideak sorturiko eskariak burdingintza piztu egin zuen. AEBn, trenbidearen aroaren hasiera 1830eko hamarkadan izan zen. Eta 1900eko hamarkadarako amaituta zegoen trenbide-sarea —munduko luzeena—.
- XIX. mendearen azken aldetik XX. mendearen hasiera arte, automobilaren garapenak suspertu zuen burdingintza-sektorea (sektore hori Frantziako eta Britainia Handiko tekniketari oinarritu zen —herrialdean bertan Henry Ford-ek birmoldatu zituen—).

#### b) Sektoreak geografikoki

Sektoreen arteko ikuspegi batetik, 1820ko eta 1830eko hamarkadetan puntako sektorea izan zen oihalgintza. 1850 eta 1890 urteen artean, trenbidea eta burdingintza izan ziren sektore nagusiak. Geroago, XX. mendearen hasieratik aurrera, automobilak izan ziren lehentasuna.

Ikuspegi geografikotik, lurraldearen ipar-ekialdean zegoen AEBren zabalkundearen erdigunea, non populazioaren eta industriaren ahalmena egokiak baitziren. Lurralde horren merkataritza-aiurria ere agerian zegoen; esate baterako, Boston, New York eta beste itsas portu batzuk.

Hasiera batean, Ingalaterra Berria izan zen ehundegi gehien izan zituen lurraldea, batez ere 1790eko eta 1800eko hamarkadetan. Oihalgintzaren sektore horrek teknologia britainiarra erabili zuen.

Edonola ere, 1815. urte inguruan, artean, nekazaritzan eta merkataritzan oinarritzen zen batik bat lurralde horren ekonomia. Geroago, XIX. mendearen erdialdean, nekazaritza-aiurri hori desagertzen hasi zen. Eire kanala ireki zen, eta horrek mendebaldeko zerealen garraio masiboa ahalbidetu zuen. Era berean, merkataritza eta industria ekialdean kontzentratu ziren neurrian, hiri handien hazkundera gertatu zen; adibidez, New York, Boston, Filadelfia eta Baltimore. Testuinguru hartan, New York izan zen herrialde osorako immigraziorako erdigunea. Gainera, 1900. urte ingururako, Wall Street iparramerikar kapitalismoaren sinbolo bihurtzen hasi zen.

Bigarren industrializazioko industria handiak —kimikagintzan, automobilgintzan eta abarretan oinarritukoak— ez ziren kokatzen Ingalaterra Berrian, baizik eta barneko hiri hazkorretan, lehengaien iturburutik hurbilago baitzeuden.

Era horretan, Pittsburgh-ek nagusigoa lortu zuen burdingintzan eta altzairugintzan. Chicago, bere aldetik, (Superior lakuaren ertzean kokatua eta trenbideari esker ongi hornitua) mundu-mailako zerealen eta haragiaren merkatu nagusi bihurtu zen 1900. urterako.

#### d) Enpresa-egitura

Enpresa-egiturari zegokionez, 1850. urte inguruan, artean, bistan zegoen enpresa txikiaren nagusigoa, tokiko kontsumoa asetzeaz arduratuta. Salbuespen bakarra trenbide-konpainiena izan zen, tamaina handiko enpresak izan baitziren. Lehen Mundu Gerraren bezperan, ordea, egoera oso bestelakoa zen; oligopolio gisa, enpresa handi gutxi batzuek kontrolpean zituzten Ipar Amerikako merkatuak eta, are gehiago, herrialdetik kanpora zabaldu zen haien eragina. Enpresa horiek ziren, besteak beste: *United States Steel*, *Standard Oil*, *American Tobacco*, *Pullman* eta

*Singer*. Korporazio handi horiek eskala-ekonomia garrantzitsuak eskuratu zituzten XIX. mendearen azken aldirian, merkatu nazionala sendotu ahala. Aldi berean, beren tamaina handiari are gehiago eusteko, salneurriak eta merkatuak kontrolatzeko, eta etekinak gehitzeko asmoz, *trust* handiak eratzeari ekin zioten.

Enpresen kontzentrazioa —bai horizontala bai bertikala—, gehienetan, enpresen barne-berrantolaketaekin batera gauzatu zen, eta haien ekoizkortasuna eta kudeaketa hobetu egin ziren. Era berean, oso handiak ziren enpresa horien ekoizpenaren, kontabilitatearen, erosketen eta salmenta-sailen tamaina eta garapen-maila.

Kontzentrazio bertikalaren adibide bat *United States Steel Corporation* (J.P. Morgan bankariak eraturikoa) izan zen, burdingintzan. Enpresa horrek ikatz-meatzeak eta burdina-meatzeak zituen, lantegi eta instalazio propioak lehengaiz hornitzeko asmoz. Sektorearen tokiko merkatuaren % 60 kontrolatzera heldu zen. Bere aldetik, John D. Rockefeller-ek praktikan petrolio-monopolioa eskuratu zuen, bere enpresa *Standard Oil*entzat.

Hala eta guztiz ere, merkataritzaren askatasuna murrizteko eta monopolioak bilatzeko saio horien aurka izan ziren, azkenean, bai legedia, bai iritzi publikoa. Horrela, XIX. mendearen azken aldira eta XX. mendearen hasieran, lege sorta kaleratu zen *trusten* aurka, hala nola *Sherman* legea eta *Clayton* legea. Are gehiago, 1932an, F.D. Roosevelt-en lehendakaritzara bitartean, *trusten* aurka jo zuten berriro, lege bidez.

#### e) Merkatu masiboa

Merkatu masiboaren bilakaera izan zen Estatu Batuetako industriaren beste ezaugarri berezi bat. Ekonomiaren esparruan, finantza-kapitalaren inbertsioak gero eta masiboagoak izan ziren. Era berean, gero eta eskari handiagoa izan zen kontsumo iraunkorreko gaietan —automobila, etxe-tresna elektrikoak, eta abar— eta zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan.

Beste herrialde batzuekin erkatuz, kontsumo-gaien merkatua handiagoa izan zen Ipar Amerikan, batez ere, trenbideari esker merkatu nazionala batu zenetik.

Bestalde, industriaren egoera mesedegarria izan zen ondasunak masiboki ekoizteko. Besteak beste, oso egokiak suertatu ziren metalurgiaren eta elektronikaren arloetan izandako teknologia-aurrerabideak, kontsumo-ondasunen ekoizpenean eskala handian aritzeko.

#### f) Teknologia-hobekuntzak

Ipar Amerikako enpresen beste ezaugarri berezi bat izan ziren ekoizpen-jardueraren arloan antolakuntza zientifikoa eskuratzeko izandako saio ugari eta goiztiarrak. Horretarako, XIX. mendearen azkenaldetik, Frederick Taylor ingeniariak ekin zion lanean metodo zientifikoak sartzeari (taylorismo delakoa), langile bakoitzaren ekoizkortasuna handitzeko asmoz. Beste alde batetik, XX. mendearen hasieran, Henry Ford enpresaburuak kate-lanari eta serie-produkzioari eutsi zien. Horrela, automobilaren industriak masa-produkzioa jo zuen, kontsumitzaileentzat amaierako produktua merkatuz eta barneko merkatu masiboa garatuz. Hori guztia kontsumitzaileek harrera ona egiteari zor zitzaion, bai izaera homogineoan bai serie-fabrikazioan landutako produktuei.

Teknologia-hobekuntza horien adibide argiena kate-lana izan zen. Sistema horren bidez produktua langile sorta baten aurrean pasatzen zen; eta langile bakoitzak oinarrizko eragiketa sinple bat egiten zuen produktuan. Per capita ekoizpena handitu egin zen, langile bakoitzak ekipamendu gehiago eta hobe izan zuelako eta eragiketa sinpleen errepikapenak berak erraztu zuelako prozesu osoa.

Aipatu den legez, kate-lanaren adibide ospetsuena —ez, ordea, asmatzailea— Henry Ford-ena izan zen; hark Frederick Taylor-en kudeaketa zientifikoaren ideiak moldatu zituen *Ford T* ereduaren fabrikazioan. Automobilaren serie-fabrikazioa, azkenean, Ipar Amerikako oparotasunaren ezaugarri behinenetariko bihurtu zen.

Geroago, Ipar Amerikako kontsumo-ondasunen industrian ohikoak izango ziren kate-lana, tresna elektriko mugikorak, zulatzaileak, estanpatzeko makina automatikoak, eta abar.

#### g) Publizitatea

Egoera hartan, beste ezaugarri bat oso funtsezkoa izan zen Estatu Batuetako produktuen merkatu masiboarentzat: publizitate iraunkorra agertzea eta garatzea. Jakina, zabalkunde handiaren arloa izan zen publizitatea Estatu Batuetan, batez ere, egunkari *tabloideak* agertu eta irratia orokortu zenean.

#### h) Langileekiko harremana

AEBko enpresa-giroaren beste ezaugarri bat izan zen enpresaren gorabeheretikiko langileen arreta estua lortzeko ahalegina. Era berean, ahalegin ugari egin ziren langileak mugimendu sindikaletik urrunarazteko ere. Horrela, zenbaitetan langileen soldata igo zen (H. Ford-en kasuan, adibidez) eta, batez ere, sindikatuak gizarte kapitalistan integratu nahi izan ziren. Egia esan, azken helburu hori betetzea ez

zen oso zaila, ezen langileak eta sindikatuak euren bizi-maila altuaz ongi ohartzen baitziren, batez ere Europako langileekin parekatu orduko.

#### 1.4. Garraioa

XIX. mendearen hasieran, AEBn barne-garraioa garestia zen. Europan bezala, hasieran zenbait saio izan ziren kostaldeko eta ibaiko nabigazioa osatzeko, lehorbideak eraikiz eta, batez ere, ipar-ekialdeko hiriak lotuz.

Ipar-ekialdeko lurralde oso hiritar horretaz aparte, gainerako lekuetan agerian zeuden garraioaren aldetiko oztopoak, bai distantzia handiengatik eta bai trafikoaren dentsitate ahularengatik. Egoera hartan, mendebalderako zabalkundea eta kolonizazioa egiteko orduan, nekez egon ziren eskura lehorbideak.

Arlo horretan, munta handiko ibai-nabigazioa izan zen. Berrikuntza erabakiorra 1811. urtetik aurrera izan zen; Mississippi ibaian eta bere ibaiadarretan lurrenontziak erabiltzen hasi ziren, eta horrek ahalbidetu zuen hegoaldeko eta mendebaldeko lurralde zabaletara hedatzea. Garraiobide hura, itxura berezi harekin, oso komunikabide egoki bihurtu zen, bai mendebaldeko nekazaritza eta abeltzaintza, bai hegoaldeko plantazioak eta bai New Orleaneko merkatuen integrazioa lortuz. Azkenean, hala ere, ibaiko nabigazio horren nagusigoa desagertu egin zen Sezesio Gerraren ondoren, trenbidearen aroa hasi zenean. Bestalde, San Lorenzo ibaiaren eta Laku Handien bitartez, erraztu egin zen iparraldeko eta mendebaldeko lurraldeen arteko lotura.

Era berean, eta Europan bertan gertatu zen legez, ubideen eraikuntzak (batez ere, harrikatza garraitzeko meategietatik hirietara) ibai-sarea batu eta osatu zuen. Azkenean, trenbide-sareak ubideena ere ordeztu egin zuen.

1830eko hamarkadan hasi ziren trenbidea eraikitzen; Baltimore, Boston, Charleston eta antzeko hirietan hasi ziren, non ibaiko nabigazioaren baldintzak okerrak baitziren.

Hasiera batean, tokiko lineak eraikitzen hasi ziren. Geroago, 1850eko hamarkadan, trenbidea mendebaldera heldu zen: Ohio, Indiana eta Illinois estatuetera, eta Mississippirantz.

Sezesio Gerraren aldian, eten egin zen trenbidearen eraikuntza. Gerraostean, ordea, berriz ekin zioten jarduera horri, batez ere, bi kostaldeak (Atlantikokoa eta Barekoa) lotzeko asmotan. Helburu hori 1860ko hamarkadan lortu zuten, *Union Pacific* eta *Central Pacific* konpainien trenbideak Utah aldean elkartu zirenean. Kontinentean zeharreko lehenengo trenbide horren ondoren, beste hiru etorri ziren.

Estatu Batuetako trenbide-eredu horren beste ezaugarri bat koordinazio handia izan zen. Alde batetik, estatuak zeuden, lurrak eta kapitalak jarri eta lineen norabidea diseinatzeko zutenak. Beste alde batetik, trenbide-konpainia handiak zeuden (bai Amerikakoak, bai Europakoak), kapital pribatua jartzen zutenak.

Sektore horretan, hasierako krisi- eta espekulazio-mugimenduak ugari ziren. Arazo horiek izan arren, trenbidea lagungarri izan zen mendebalderanzko hedapenean, ibaietako trafikoa eta karabanen erabilera ordeztu baitzuten.

1910. urterako osaturik zegoen trenbide-sarea, oro har, 385.000 km. Horrek guztiak kotoiaren, haragien, zerealen eta etorkinen mugimenduak ahalbidetu zituen mendebaldetik ekialdera —eta alderantziz—.

Edonola ere, kolonizazio-prozesua bera garraioaren aurretik joan zen, sarritan. Horren ondorioz, garraioaren eraikuntza, gehienetan, aurretik izandako eskaera asetzera bideratu zen.

Laburbilduz, garraioaren garapenak finkatu zituen barne-merkataritzaren oinarriak eta Europarekin izandako kanpo-merkataritzaren harremanak. Era berean, lurraldeen berezitasunari lagundu eta estatuen arteko integrazioari ekin zion. Trenbideak burdinaren eta altzairuaren eskaria handitzeari eutsi zion, eta eskulan handiko enpleguak sortu zituen. Gainera, AEBn trenbidea muga hazkor eta mugikor baten arabera eraiki zenez (behintzat 1890eko hamarkada arte), burdingintzak eskari handia eta iraunkorra izan zuen trenbide-produktuetarako.

### **1.5. Kanpo-sektorea**

Arlo horretan, agerian geratu zen AEBren jatorrizko mendekotasuna Britainia Handiarekiko. Are gehiago, lurraldearen independentzia politikoa lortutakoan, artean mendekotasun horri eutsi zioten. Aurreko metropoliarekiko, antzeman zen dependentzia hori zenbait alderditan:

- Ipar Amerikan inportatu ziren Britainia Handiko industria-produktuak.
- Ipar Amerikan ugariak ziren Britainia Handiko teknologia-transferentziak.
- Ipar Amerikan inportatu ziren Britainia Handiko finantza-kapitalak.
- Ipar Amerikan nabaria zen Britainia Handiko merkataritza-itsasontziteriaren erabilera (hain zuzen ere, oso gerora arte, Estatu Batuetako itsas flota bere garraioaren % 10az bakarrik arduratu zen. Gainerakoa atzerritar pleiten bidez egiten zen, britainiarrak batik bat. XIX. mendearen erdira arte, Ipar Amerikako itsas garraioa ez zen izan garrantzi handikoa).

Geroago, XIX. mendean zehar, mendekotasun hori murriztu egin zen eta merkataritza-balantza mesedegarria lortu zen.

Hala eta guztiz ere, 1914. urtean AEB mundu-mailan lehenengo ekoizlea bazen ere, kanpo-merkataritzari zegokionez, artean Britainia Handiaren eta Alemaniaren atzean kokatzen zen.

Atzerrian, finantza-kapitalaren inbertsioari zegokionez, Lehen Mundu Gerra arte AEB izan zen zorduna eta Europako inbertsioen helmuga. Gerra ondoren, ordea, AEB kapital-esportatzaile bihurtu zen, bai Europarantz bai Latinoamerikarantz.

Latinoamerikan eta Europan kokatzen ziren, batez ere, kanpo-merkataritzaren helmuga eta jatorrizko puntuak.

### **1.6. Politika ekonomikoa**

AEBko gobernu-sistemak, oro har, edozein botere eta plangintza zentralizatu ekidin ditu, merkatuari arreta gehiago emanez.

Dena den, gobernuaren interbentzio-maila ezberdina izan da denboran zehar. Muga-zerga arazoa eta babesaren eta librekanbioaren artean sorturiko norgehiagoka ere oso zorrotza izan zen AEBn. Eztabaida gogor horretan, ekialdeko estatuak babesaren alde kokatu ziren; hegoaldekoak, ordea, kotoi gordinaren esportatzaile izanez, librekanbioaren alde.

Gehienetan, ekonomia politikoaren tresnak barneko estatuen mailan erabili ohi ziren. Gobernu Federalak (Washington D.C.) aukera gutxi zuen legea egiteko orduan eta nazio-mailan botere urria izan zuen (hau da, Gobernu Federalak botere gutxi zuen estatu bakoitzaren barnean). Esate baterako, trenbidearen esparruan nazio-mailan arauak finkatzeko orduan, hagitx ahula izan zen Gobernu Federalaren esku-hartzea.

Geroago bai, industriagintza sendotu zenean, 1890eko hamarkadan, nazio-mailakoa izan zen ekonomiaren erregulazioa. Urte hartan, *Sherman* lege antitrusta kaleratu zen. Geroago, 1900. urtean, joera interbentzionista zabaldu zen.

Lehen Mundu Gerraren bezperan, Gobernu Federalaren burokrazia erabat finkatuta ez bazegoen ere, gero eta eskuduntza gehiago zuen eta, oro har, onartzen zen Gobernu Federala bitarteko beharrezkoa zela herrialdearen ekonomia-jarduera antolatzeke orduan.

### **1.7. Banku- eta finantza-sistema**

Hasieran, independentzia lortutakoan, finantza-kapital eza agerian zegoen AEBn. Egoera horri, besteak beste, bitarteko hauen bidez aurre egin zioten:

- Europako kapital-emakiden bitartez.
- Barne-merkatuen zabalkundeari esker.



- Urrea aurkitzeari esker, Kalifornian (1848an) eta Alaskan (XIX. mendearen azken zatian).

Horrek guztiak metalen erreserbak eta jaulkipenerako ahalbideak handitu zituen. Horren ondorioz, urre-patroia moldatu zen XIX. mendearen azken zatian.

Banku-sistemari zegokionez, hasieran agerian zeuden anarkia eta antolakuntza eza. Esate baterako, banku berriak eratzeko orduan, berme eta arau oso gutxi bete behar ziren. Era horretan, ia kontrolik gabeko banku asko eratu ziren. Egoera horri sistema politiko federalak eutsi zion, kontrol zentral gogorrik ezarri gabe. Ondorioz, banku independente asko eratu ziren; gehienez, soil-soilik, egoitza bakarra zuten, sukurtsal eta agentziarik gabe.

Jatorrian, beraz, agerian geratu ziren behin baino gehiagotan Ipar Amerikako finantza-erakundearen akatsak. Horren ondorioz, interes-tasa altua izan zen; behintzat, Britainia Handian baino altuagoa.

Hala ere, denbora igaro ahala, eta kapital-merkatuen konplexutasuna hazten zela-eta, zenbait erakunde berezi eratzearen beharra antzeman zen. Era berean, New Yorkeko bankuak (ekialdeko bankuak, alegia) tamaina handiko erakunde bilakatu ziren eta herrialdean barrena zabaldu ziren.

Banku-sistema arautzeari zegokionez, porrot batzuk izan ondoren, oso berandu —1913. urtean, hain zuzen ere— erabaki zen *Erreserba Sistema Federala* eratzea. Erakunde hori banku zentral gisa eratu zen eta, azkenean, koordinazioa eta arauak ezarri zizkion AEBko banku-sistemari.

Bestalde, New Yorkeko burtsa bihurtu zen baloreen merkatu nagusi. Bere hazkundera oso bizkorra izan zen XIX. mendean zehar. Hasieran, transakzio garrantzitsuenak bihurtu ziren estatuen, gobernu federalen eta ubide-egile konpainien bonuen bitartez; gero, trenbide-konpainiek jaulkitako obligazioen bidez; eta, geroago, XIX. mendearen azken aldean, industriren baloreen bidez.

## **2. JAPONIAKO EREDUA**

### **2.1. Japoniako geografiaren eta gizartearen berezitasunetara sarrera**

Geografikoki, Japonia Asiako artxipelagoa da. Lurraldea menditsua da eta egoera horrek eraginda agertu ziren nekazaritza eta garraiobideak. Bailaretan eta itsasertzean hiriak eta lursailak kokatu ziren. Erein zitekeen lurra oso eskasa zen. Baliabide mineralak ere oso urriak ziren, kobreak eta harrikatzen zenbait meategi izan ezik.

Japoniar pentsamoldeari zegokionez, guztiek gurtzen zuten enperadorea. Aldi berean, nabariak ziren obediencia-zentzua, diziplina eta lankidetzarako aiurri tinkoa eta sendoa.

Aipagarria da mende bakar batean Japonian izandako eraldaketa. 1860. urtean herrialde feudal izatetik, Lehen Mundu Gerraren ondoren, mundu-mailan, potentzia ekonomiko lehenetariko bihurtu zen.

Ezaugarri historiko, soziologiko eta pentsamoldeari dagozkion ezaugarrietan datza garapen horren azalpena.

## **2.2. Tokugawa gizartearen ezaugarri ekonomikoak**

Sasoi horri Erregimen Zaharrareko Japonia deritza, Japonia feudala alegia, XIX. mendearen erdira arte iraun zuena.

Estatu hierarkizatua izan zen, eredu feudalaren antzeko piramide sozialarekin; goitik behera horrela eratzen zen: I) enperadorea —ustezko botere jainkotiarra zuena—; II) *Shogun* —*Tokugawa* sendia, praktikan botere gorena zuena—; III) aristokrazia (*daimio*, *samurai*); IV) nekazariak (lurraren jopuak, zerga handiak jasaten zituztenak); V) artisauak (kopuruz oso gutxi ziren).

Kanpo-politika isolagarria zen eta kanpoarekiko merkataritza-harremana oso mugatua. Salbuespenak oso zehatzak izan ziren; soilik Nagasaki itsas portuaren bidez garatzen ziren merkataritza-harremanak Txinarekin eta Herbehereekin.

Egitura mugigaitz horiek oso anakronikoak ziren XIX. mendean. Eta are anakronikoago geratu ziren mugimendu intelektual modernoa eta ekonomia-, finantza- eta merkataritza-berrikuntza agertu zirenean.

Aldi berean, europarrek saio ugari egin zuten Japoniarekin merkataritza-harremanak lortzeko asmoz. Baina saio gehienak zapuztu egin ziren (*Shogunen* politika isolagarriaren bidez, Japonian ez zen baimendu itsas portuetan atzerritarrekin merkataritza sistematikorik).

Testuinguru horretan, 1854. urtean, Estatu Batuetako itsas armadak lortu zuen herrialdearen merkataritza irekitzea, indarkeriaz. AEBz gain, beste potentzia batzuek ere (Britainia Handia, Errusia, Herbehereak, eta abar) profitatu zuten egoeraz.

Horrela, merkataritza-itun sorta bat sinatu zuten, *itun desorekatu* delakoak, eta horien bidez erabat mesedetu ziren atzerriko potentziak. Mendebaldeko potentziek, beren kabuz, erabaki zuten Japoniari debekatzea muga-zerga *ad valorem* % 5 baino altuago finkatzea.

Japoniaren kanpora irekitzearen eta merkataritza-itunak sinatzearen ondorioen artean egon ziren ekonomia-desorekak:

- Japonian eta Mendebaldean izandako urre-zilarraren arteko erlazioa desberdina zen. Faktore horren ondorioz, Japonian diruaren egoera erabat desorekatu zen (Japonian, Europaren aldean, urrea merkeagoa zen eta herrialdetik masiboki ateratzen hasi zen).
- Kanpokoek eskatzen zituzten Japoniako gaien salneurriak igo egin ziren (arroza, zeta, tea).
- Ordurako hasia zen inportazioaren ondorioz, ordea, jaitsi egin ziren Japonian manufakturatutako produktuen salneurriak (kotoizko oihalak, adibidez).

Beste alde batetik, ezegonkortze soziala zabaldu zen eta, horrekin batera, biztanleriaren ezinegona eta *Shogunek* ospea galtzea. Egoera hartan, *Tokugawa* dinastia gobernutik bota zuten eta, era berean, berriro enperadorearengana pasatu zen benetako boterea. Modu horretan, 1868. urtean, Japoniako Antzinako Erregimenaren amaiera heldu zen, eta hasiera eman zitzaion beste aro bati, Meiji Aroa delakoari.

### **2.3. Meiji Aroa eta industrializazioa: kanporako irekiera eta estatuaren protagonismoa**

Japonia ohikoaren eta feudalaren amaiera iristearekin batera, herrialdearen modernizazioaren hasiera ere heldu zen, mendebaldartze-politika batek lagundurik.

Aldaketa horiek zenbait esparrutan gauzatu ziren; adibidez:

- Lanbide-, merkataritza- edo lantze-askatasuna debekatzen zituzten antzinako langa feudalak ezabatu ziren.
- Mendebaldeko teknikariak eta teknikak erakarri ziren.
- Japoniako ikasleen behin-behineko emigrazioa gertatu zen Europara.
- Atzerriko erakundeak imitatzeari ekin zioten; hala nola, Frantziako administrazio-eredua, Britainia Handiko itsasontziteria edo Prusiako armada.

Meiji Aroarekin batera, herrialdearen industrializazioa ere heldu zen.

Hasiera batean, oso gogorra izan zen Japoniarentzat Mendebaldeko industriek egindako lehia. Aldi berean, Mendebaldearekiko izandako mendekotasun teknologikoa kaltegarria suertatu zen herrialdearen garapenerako.

Lehenengo urrats batean, 1870eko hamarkadan, estatua bera izan zen ekonomia-garapenaren bultzatzailea. Estatua enpresaburu zuzen bihurtu zen, eta enpresa garrantzitsuen jabegoa zuen.

Estatuak ekonomia-garapenaren oinarriak ezarri zituen zenbait arlotan:

- Burdingintzan. Sektore honek bi eragozpen nagusi pairatu zituen: a) atzeritar teknologiarekiko mendekotasuna; b) harrikatza, burdingaia eta petrolioaren murriztea.

- Oihalgintzan. Batez ere zetaren eta kotoiaren arloak garatu ziren eta, hein txiki batean, artilea, azken hori gaizki egokitzen baitzen herrialdeko klimara.
- Garraioan. Itsasoko garraioa eta trenbidea piztu ziren batik bat (hala ere, trenbidearen eraikuntza berandu hasi zen Japonian —1872. urtean, Tokio-Yokohama trenbidea eraiki zenean—).

Industrializazioaren finantzaketari zegokionez, batez ere, berezko baliabideen bidez eskuratu zen:

- Nekazaritza-sektorearen lepora zerga handiak ezarriz.
- Nekazaritza-esportazioen bitartez.
- Banku-sistema egoki baten bidez. Gobernuak berak lagunduriko sistema zen, aurrezki pribatuak industriadantz bideratzeko asmoz (Japoniako bankuaren eta industriaren arteko harremana, orduan, Alemaniako banku mistoaren ereduaren antzekoa izan zen).

1880. urte inguruan krisi ekonomiko gogorra izan zen. Japoniako ekonomiarentzat, krisialdia egoera gogaikarria izango zen. Arrazoa: inflazio altua. Jakina, industrializazioari laguntzeko asmoz, estatuak berak gastu publikoa handitzeari ekin zion eta, ezinbestean, bistan geratu zen inflazioa.

Ondorengo berrantolaketa ekonomikoari programa handi batek lagundu zion, eta ezaugarri hauek zituen:

- Gastu publikoa tinko murriztea.
- Paperezko dirua tinko murriztea.
- Industrializazioaren aurreko urratsean, estatuak sorturiko enpresak privatizatzea.

Funtsean, deflazio-politika bat zabaldu zen inguru hartan (*Matsukata* deflazioa deritzona). Estatuak amore eman zion enpresaburu zuzena izateari, industria babesten jarraitu bazuen ere. Enpresaburu gisa, estatuaren protagonismoaren erreleboa hartu zuten zenbait finantza-oligarkiak: *zaibatsu* edo finantza-talde delakoek.

Horrekin guztiarekin, 1880ko hamarkadatik aurrera, beste urrats baten hasiera heldu zitzaion Japoniaren industrializazioari. Oso zabalkorra izan zen sasoi hark, besteak beste, honako ezaugarri hauek izan zituen:

- Diru-sistema egonkorra sortu zen. 1897. urtean urre-patroia sortu zen, eta nazioarteko merkatuetan prestigioa eskuratu zuen *yen* txanponak.
- Lehen Mundu Gerrara arte, BPGren indizearen hazkundera % 3 inguru izan zen (baxuagoa izan zen Europako herrialdeen hazkundera).
- Ekialde Urrunean barrena Japoniako zabalkunde komertziala eta militarra gertatu zen. Horren ondorioz, Mendebaldeko herrialdeekin norgehiagokan aritu zen. Kontuan izan behar dugu, Aro Garaikidean, lehen aldiz, Europatik kanpoko herrialde batek merkataritza-zabalkundeari eta inperialismori ekin ziola, Europako eta AEBko erara

(egoera hartan, bi gerra izan ziren: Txinaren eta Japoniaren artekoa —1894-1895 urteetan— eta Errusiaren eta Japoniaren artekoa —1904-1905—; bietan, Japoniak eskuratu zuen garaipena).

- Japoniako merkataritza- eta industria-arloetan ere atzerritarren parte-hartzea urriagoa zen neurrian, handitzen ari zen tokiko enpresaburuen munta.

- Inportazio-egituraren esparruan, industria-produktua murriztea progresiboa izan zen (adibidez, 1880ko hamarkadaren hasieran, % 50 izan zen inportazio-egituraren produktu industrialak; Lehen Mundu Gerraren bezperan, ordea, % 25 besterik ez). Esportazioen aldetik, oster, industria-produktuen kopurua handitzen joan zen. Oinarrizko produktuak —arropa, zeta eta tea— esportatzeaz gain, landuriko produktuak kanpoan saltzeari ere ekin zioten.

Japoniarentzako egoera mesedegarri hori gehiago garatu zen Lehen Mundu Gerran. Orduko hartan, Japoniak, gerran Alemaniaren aurka, Ozeano Bareko kolonia batzuk eskuratu zituen. Era berean, Europako herrialdeen aurka, Japoniak kanpo-merkatuetan sartzeari ekin zion Ekialde Urrunean bertan. Gerra ostean, gainera, Japoniak finkatu eta sendotu egin zuen bere subiranotasuna alde aurretik lorturiko kolonietan: Mantxuria, Korea eta Formosa aldean. Horrela, Japoniak sendotu egin zuen bere hornikuntza-ahalmena, erraztasun erlatiboarekin.

Gerrartean, Japoniak gogortu egin zuen bere integrazioa kanpo-merkataritzaren arloan. Aldi berean, Asian barrena bere lurraldea zabaltzeari ekin zion, eta bere ekonomia militarizatu zuen, industria astuna garatuz.

## **V. gaia. BIGARREN INDUSTRIA IRAULTZA (1870-1940)**

### **1. Industrializazio-prozesuaren tinkotasuna**

Jakina denez, aldi hartan bizkortu egin zen industrializazioaren garapena. Prozesu horren ezaugarriak, oro har, hauek izan ziren:

- Britainia Handiaren industria-monopolioa apurtzea (eta bere gainbeheraren hasiera). Europa kontinentaleko herrialdeak hasi ziren Ingalaterraren eredu ekonomikoa imitatzen eta teknologia-transferentziak egiten.

- Britainia Handiaren atzean, Mendebaldeko Europako gainerako herrialdeak hasi ziren industrializatzen; geroago izango zen Europako gainerako herrialdeen txanda (Austria-Hungaria, Errusia, Eskandinavia, Italia, Espainia, eta abar), eta baita Europatik at zenbait herrialde ere (lehenengo AEB eta Japonia eta, geroago, Kanada, Australia, Argentina, eta abar).

- Orduan garatu zen bigarren industrializazioa delakoa, industria-sektore berrien garapenean oinarritutakoa; esaterako, kimikoa, farmazeutikoa, elektronikoa edo hidroelektrikoa. Energia-iturri gisa, nabaria zen petrolioaren erabilera. Trenbidearen goraldia izan zen, baina, batez ere, barne-eztandako motorrena eta hegazkintzarena; sektore berritzaileena, alegia.

### **2. Enpresa-egituraren eraldaketak**

*Kartel* delakoen eraketa zela-eta, konkurrentzia libreko (erlatiboki, noski) merkatuen amaiera heldu zen. Oligopolioak eta monopolioak zabaldu ziren (bategite bertikalak eta horizontalak hedatu ziren, kostu teknologikoak eta administrazio-gastuak murrizteko eta enpresaren antolakuntzan abantailak sartzeko asmotan).

### **3. Nazioarteko merkataritzaren zabalkundea**

1870etik 1913ra bitartean, munduko industria-ekoizpena baino gehiago handitu zen nazioarteko merkataritza. Geografia-ikuspuntu batetik, aipaturiko urte horietan, munduko merkataritzaren % 60 baino gehiago Europa barnekoa zen.

Honako hauek izan ziren nazioarteko merkataritza hedatzearen zergatiak:

- Munduko merkataritzarako eremu berriak irekitzea.
- Garraioen prezioa murriztea (pleiteak jaitsi eta trenbide-tarifak merkatu zirelako).

- Ordainketa-sistema aldeaniztun bat eskura izatea (urre-patroia).
- Munduko ekonomiaren garapena.
- Emigrazio handiak eta biztanleria gehitzea.

#### **4. Politika ekonomikoa: protekzionismoaren goraldia**

Cobden-Chevalier itunak *ad valorem* muga-zerga mota sartu zuen, antzinako muga-zerga *espezifiko*a baztertuz eta, era berean, herrialde mesedetuenaren klausulari hasiera emanez. Horren bidez, 1860ko hamarkadan librekanbioaren sasoia heldu zen.

Hala eta guztiz ere, librekanbismo hura laster hasi zen balaztatzen; 1870eko eta 1880ko hamarkadetan, hain zuzen ere, Europan zehar protekzionismoaren alde beste urrats bat egin zenean. Aldaketa horren arrazoi garrantzitsuenetariko bat izan zen herrialde berrietatik zerealen etorrera masiboa.

Aldi berean, ekonomia-arloan handitu egin zen gobernuen parte-hartzea apurka-apurka. Dena den, artean, erlatiboki motelak ziren estatuaren gastua eta interbentzionismoa. Artean estatu fiskalik ez zegoen; salneurrietan eta merkatuetan urria zen gobernuen interbentzio-maila; eta ozta-ozta zegoen enpresa publikorik. Edonola ere, estatuaren tamaina 1913. urtean handiagoa zen 1870ean baino, eta are handiagoa 1918. urtean.

#### **5. Faktoreen mugikortasuna**

Eskulanari zegokionez, biziki handitu zen Europatik klima epeleko lurraldeetarako emigrazioa, batez ere Ipar Amerikara.

Hauek izan ziren biztanleria erakartzeko faktoreak, besteak beste:

- Lurraren salneurri merkea.
- Soldata handiak (eskulan ezagatik).

Finantza-kapitalari zegokionez, Europan bertan eta Ipar Amerikan izan zen, batez ere, Europako kapitalen inbertsioa.

Bestalde, finantza-kapitalen esportatzaile nagusiak Britainia Handia, Frantzia eta Alemania izan ziren, aldi hartan.

Europan izandako beheranzko errentabilitate-tasa zela-eta, etekin handiagoa lortzea izan zen atzerrian inbertituriko kapitalen helburua.

## **6. Europak gauzaturiko zabalkunde geografiko berria**

Jakina denez, XIX. mendearen azkenaldian kolonialismo berri bat garatu zen, Asian eta Afrikan batez ere. Hedakuntza berri horren arrazoia —ohiko azalpenaren arabera— lehengaiak eta merkatu berriak bilatzea izan zen.

Beste arrazoi batzuek zera adierazten dute: helburu politikoak eta herrialdeen prestigioa handitzea izan zirela kolonialismoaren zergati nagusiak.

## **7. Nazioarteko diru-sistema bat eratzea: urre-patroia**

1870. urtera arte, patroi bimetalikoa orokortu zen (urretan eta zilarretan oinarritua); hau da, jaulkitako billeteen bihurtgarritasuna bai urretan bai zilarretan bermatzen zen.

1860 eta 1870 inguruan, zilarraren prezioaren eroraldia zela-eta (Kalifornia eta Britainiar Columbia aldean izandako zilarraren aurkikuntzengatik), amaitu egin zen patroi bimetalikoa.

Horren ondorioz, 1870. urte inguruan urre-patroiaren sasoia hasi zen. Apurka-apurka osatu zen, *alde bateko erabakien bitartez*.

### **a) Urre-patroiaren ezaugarriak**

- Urrearekiko truke-tipo finko bat ezartzea.
- Billeteen erabateko bihurtgarritasuna.
- Urrearen inportazio eta esportazio librea.

### **b) Urre-patroiaren abantailak**

- Inbertsioen aldetik ezbaiak ezabatzea (adibidez, urre-patroia erabilgarria izan zen kapitalak erakartzeko orduan).
- Inportazio- eta esportazio-jardueretan, truke-tipoen aldakortasuna eta ziurtasun gabezia saihestea.
  - Bai nazioarteko merkataritza, bai herrialdeen arteko kapitalen mugimenduak erraztea.
  - Ordainketa aldeaniztunen konpentsazioa baimentzea.
  - Epe luzearako planifikazioa ahalbidetzea.
  - Nazioarteko desoreka ekonomikoei mekanismo zuzentzaile automatikoa ematea, nazioarteko ordainketetarako sistema egonkorra sortuz.



d) Nazioarteko ordaintzen desoreken sistema zuzentzailearen funtzionamendua

d.1. Kanpo-defizita duen herrialde baten adibidea:

- 1- Kanpo defizita (inportazioak esportazioak baino gehiago dira).
- 2- Urrearen irteera automatikoa (estatuaren esku-hartzea, adibidez, interes-tipoak igoz).
- 3- Diru-eskaintza jaitea (urre kopuru urriagoarekin bat).
- 4- Deflazioa eta barneko prezioak jaitea.
- 5- Esportazioak merkatzea (esportazioak gehitu eta inportazioak gutxitu egiten dira).
- 6- Ordaintza-balantza zuzentzea.

d.2. Kanpo-superabita duen herrialde baten adibidea:

- 1- Kanpo-superabita (esportazioak inportazioak baino gehiago dira).
- 2- Urrea sartzea.
- 3- Diru-eskaintza eta salneurriak igotzea.
- 4- Esportazioak garestitzea (esportazioak gutxitu eta inportazioak gehitu egiten dira).
- 5- Kanpo-defizitagatik urrea murriztea.

Sistemaren funtzionamendua arintzeko asmoz, diru-sistemako agintariak goian aipaturiko arauak bete behar zituzten. Hala eta guztiz ere, praktikan, egoera oso bestelakoa zen; izan ere:

- Urrearen mugimenduak oso urriak izan ziren nazioarte-mailan.
- Ia beti berdinak ziren herrialde defizitarioak eta superabitarioak.
- Diru-sistemako agintariak eta banku zentralak, gehienetan, ez zieten jaramon handirik egiten arauari.

Hala ere, herrialde gutxi utzi zioten bihurtgarritasunari (Italia izan zen salbuespena, zenbait urtean).

Sakonean, sistema horren guztiaren gakoa Londresko finantza-egitura izan zen. Izan ere, Britainia Handiak finantzatu zuen nazioarteko merkataritza, libera esterlinak edonon esportatuz eta inbertituz.

**8. Lehen Mundu Gerra: politikak eta ondorioak**

Lehen Mundu Gerra, «Gerrate Handia» zeritzona, 1914tik 1918ra garatu zen. Bi talde izan ziren aurrez aurre: alde batetik, potentzia zentralak (Austria-Hungariako Inperioa, Alemaniako Inperioa eta Otomandar Inperioa); eta beste alde batetik, aliatuak (Frantzia, Erresuma Batua, Errusia eta Estatu Batuak buru zirelarik).

Gerratean zehar, gobernuek jarduera ekonomikoa kontrolatzen zuten, gerratean ahalik eta bitarteko gehien erabiltzeko asmoz. Langileen jarduera, lehengai eta *input* gehienak gobernuen kontrolpean geratu ziren. Gerratea finantzatzeko diru kopuru itzela egin zen; gobernuek hamaika mailegu eskatzen zituzten bitartean, eta horrek inflazio kontrolaezina sortu zuen.

Lehen Mundu Gerran zortzi milioi pertsona hil ziren. Arlo politikoari zegokionez, lau inperio desegin ziren, eta Europako mapa aldatu egin zen 1919ko bake-itunaren bitartez:

- 1917ko iraultza komunista zela-eta, Errusia bihurtu zen Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB).
- Otomandar Inperioa gaur egungo Turkiara murriztu zen.
- Austro-Hungariako Inperioa lau estatu txikitan banatu zen (Austria, Hungaria, Txekoslovakia eta Jugoslavia).
- Alemaniako Inperioa desegin egin zen, eta Alemania txikiago geratu zen.
- Erresuma Batuak eta Frantziak Alemaniaren koloniak berenganatu zituzten, potentzia handien estatusari eutsiz. Bestetik, Japonia eta Estatu Batuak ere botere handiko estatu bihurtu ziren.

### **8.1. Lehen Mundu Gerraren politika ekonomikoa**

Gerra Handia ahalmen ekonomiko ezberdinen arteko liskarra izan zen. Hain zuzen ere, aliatuek azkenean lortu zuten garapena euren ekonomia-ahalmenari esker, batik bat AEBk esku hartu zuenetik.

Ekonomia-esparruan, areagotu egin zen gobernuen parte-hartze tinkoa, ahalik eta baliabide gehien gerratera bideratzeko asmoz. Horrela, adibidez:

- Komisio ugari eratu ziren; esaterako, prezioak kontrolatzeko, esportazioak kontrolatzeko, eta abarrerako.
- Kapital-merkatuetan kotizazioak eten ziren; adibidez, gobernuak parte hartuz Parisko eta Londresko burtsa-eragiketan; Londresen inbertitutako alemaniarren aktiboak blokeatuz; Alemanian ere aliatuen aktiboak blokeatuz, eta abar.

Gainera, gerratearekin batera, urre-patroia ere eten egin zen. Horrek eragin zuen urrearen bihurtasunaren amaiera, urre-esportazioa debekatzea, eta abar.

Oro har, herrialde bakoitzaren ekonomia-jarduera eta produkzio gehiena gerratera bideratu zen testuinguru hartan; esaterako, eskulana atzeguardian; lehengaien, erregaien eta elikagaien hornikuntza; ekoizpen industrialak edota finantza-baliabideak; baliabide horien gehiena gerratera bideratu zen.

Gainera, gerratearen finantziazioa inflazionista izan zen eta, aldi berean, gobernua zorpekoan amaitu ziren. Hona hemen finantziazioa eskuratzeko gehien erabilitako prozedurak:

- Zor publikoaren gehiegizko jaulkipena, bai gerrarako bonuen bidez, bai zor patriotikoa jaulkiz, eta abar (batez ere, Britainia Handiko eta Frantziako gobernua zorpetu ziren; AEB, ordea, hartzekodun bihurtu zen).
- Maileguak eskatzea (berriro, nabarmenak izan ziren Britainia Handiko eta Frantziako kasuak; maileguak, batez ere, AEBn lortu ziren).
- Dirua sortzea (governuek banketxe zentraleri eskaturikoa).

Oro har, gerran parte hartu zuen gobernu bakoitzak, liskarraren bitartean, finantziario inflazionista izan zuen. Era berean, zorpetze-maila erabat handitu zen eta, gobernuek ere ordura arte inoiz ez bezala hartu zuten parte ekonomia-jardueran.

## 8.2. Gerratearen ondorio ekonomikoak

- Hildakoak eta galera materialak (batez ere, kapital fisikoaren hondamendia: azpiegiturak, lantegiak, eta abar).

- Gobernuen esku-hartze tinkoagoa ekonomia-esparruan. Geroxeago, parte-hartze trinko horretatik nazionalismo ekonomikora eta, aldi berean, erabateko protekzionismora abiatu ziren. Joera interbentzionista hori gerran zehar hasi eta gerraostean sendotu zen; agerian geratu zen, tamalez, nazioarte-mailan ezarritako neurri ekonomiko komunik eza.

- Urre-patroia etena zela-eta, aldaketa negatiboak agertu ziren nazioarteko merkataritzan eta ordainketa-bitartekoetan; ekonomia- eta diru-esparruetan eragozpen larriak sortu ziren. 1922. urtean, Nazioarteko Diru Biltzarrean, *Gold Exchange Estandar* delakoa ezarri zen (*Trukerako urre-patroia*).

- Nazioarte-mailan, finantza-nagusigoa lekuz aldatu zen azkenean: Londresko City-tik New Yorkeko Wall Streetera.

- Inbertsio-tasa gehitu zen. Gerra garaian, erosketa pribatuak egiteko oztopo ugari izan ziren. Gerraostean, gastatzeko nahia berehala sendotu zen eta inbertsio-maila handitu.

- Gerrateak oso finantza-ekarpen larria sortu zuen, aipatu den moduan, erabat traketsa izan baitzen gerrarako finantzaketa-prozedura; hala nola, dirua sortuz, zor publikoa jaulkiz, edota estatuak maileguak eskatuz.

Baina zergak gehituz, ordea, oso gutxi finantzatu zen, prozedura horrek herri-onarpen baxua baitzuen (ordurako, Keynes-ek berak gerratea finantzatzeko erabilitako prozeduren aurka jo zuten; estatuaren baliabideak handitzerakoan, zergak gehitzearen

alde jarri zen Keynes, modu horretan, publikoaren eros-ahalmena eta inflazioa gutxitu zedin). Funtsean, inflazioa izan zen gerratearen beste ondorio latz bat.

- Beste egoera baten hasiera izan zen: AEBrekiko aliatuen zorpekoa (bai AEBko gobernua, bai estatubatuar akziodun pribatuek emandako dirua zela-eta). Liskarra zen bitartean gerrarako zorrak handitu ziren, baina, gerratea amaitutakoan, gehitu egin ziren, berreraikuntzarako erabilitako Europako kapitalen bidez. Era hartan, AEB munduko hartzekodun behinen bihurtu zen; Britainia Handia eta Frantzia, berriz, haren zorpekodun nagusi. Inguru hartan, aliatuen artean oso eztabaida gogorra piztu zen: gerratearen zor haiek ordaindu behar ziren ala ez.

- Gerra galdu zuela-eta, oso zamagarriak izan ziren Alemaniaren lepora ezarritako gerratearen kalte-ordainketak. Alemaniaren kargura jarri nahi izan ziren bai gerratearen kostua bai europar berreraikuntzaren kostua. Horrela, 1920an, kostu horiek 132 bilioi urrezko markotan kuantifikatu ziren Bruselako biltzarrean; Alemaniak ordaindu beharko zituen, 1920tik 1988ra bitartean, dibiseta zein urretan (balore, lehengai, erregai, edo zenbait produkturen bidez). Hori guztia zama handia izan zen Alemaniarentzat. Egoera hartan, Alemaniak biziki ekin zion paper-dirua jaulkitzeari, nazioarteko merkatuetan markoaren jaitsiera eragiteari, eta herrialdean bertan hiperinflazioa sortzeari. Era berean, Alemaniak kalte-ordainei aurre egiteko izandako zailtasunak, azkenean, ordainketak berregituratzea eragin zuen. *Dawes* komisioak eta *Young* planak bultzatu zuten zenbait kalte-ordainketa murriztea (azkenean, 1930eko hamarkadako krisialdia zela-eta, Lausanako biltzarrean –1932an–, barkatu egin zizkioten kalte-ordainketak Alemaniari).

- Bestalde, bakea heltzean, bistan geratu zen gerra zen bitartean liskarren beharrak egoeraren arabera asetzeko eraturiko industriaren errentagarritasun urria.

Funtsean, 1918ko mundua eta 1914koa ezberdinak ziren. Europak amore eman zuen munduko tailer izate horretan. AEBren txanda heldu zen; ekonomia- eta finantza-nagusitasuna Europatik AEBra aldatu zen. Estatu Batuak (gerra aurretik zordun zirenak) hartzekodun bihurtu ziren. Gainera, ordurarte Europaren eskaintzaz baliatu izan ziren beste kontinente batzuk ere, apurka-apurka, ekonomia garatzen hasi ziren. Gerra zen bitartean neutral izateagatik eta Europako hornikuntza eten zela eta, Europatik kanpoko zenbait ekonomiaren ordua heldu zen. Europak, berriz, kanpo-merkatuak murriztea ezagutu zuen.

Gainera, nahiko arrazoi izan zen nazioarteko ekonomia oso egoera larrian kokatzeko; esaterako: a) urre-patroia eten zela-eta, nazioartean sorturiko ordainketa-bitartekoak aldatzea; b) gerraren kalte-ordainketak; c) gerraren zorrak; d) gerrateak eragindako inflazioa; eta e) gerraostean hedaturiko protekzionismo eta nazionalismo ekonomiko hazkorrak.

## **9. 1920ko hamarkadako politika ekonomikoa**

Gerraostean, 1918an eta 1919an, uste oker bat zabaldu zen: gerraurreko egoerara itzul zitekeela. Gertaturiko aldaketez ohartu gabe, aurreko baldintzak errekupera zitezkeela pentsatu zen; hau da, urre-patroia (nazioarteko ordainketa-sistema gisa), truke-tipo tinkoak, eta nazioarteko merkatuen irekiera orokorra.

Horren ondorioz, berehalako gerraostean eta 1920ko hamarkadan, gobernuek zenbait saio egin zituzten merkatuen liberalizazio eta normalizazio bizkorra eskuratzeko.

Eraitza, ordea, nahiko motela izan zen, behintzat gerraurreko egoera ekonomikoa berreskuratzeari zegokionez. Gainera, gerra finantzatzeko erabilitako sistemaren ondorioz, zenbait arazo makroekonomiko agertu ziren; hauek, batez ere: inflazioa, dolarrekiko gainerako diruaren truke-tipoak balioa galtzea.

### **9.1. Britainia Handiko kasua**

Gerra ostean, Britainia Handiko aginte ekonomikoek nazioarteko merkataritzaren erdigunetzat artean Londres izatea nahi zutenez, saiatu ziren libera esterlina urre-patroira ahalik eta azkarren itzul zedin.

Bestalde, gerraurrean, atzerriko enpresa askoren aktiboak libera esterlinetan izan ziren Londresen. Diru horren aurreko balioa bermatzen ez baldin bazen, eta dolarrekiko liberak balioa gutxituta jarraitzen baldin bazuen, Londresen prestigioa eta munta kaltetuko ziren.

Hau izan zen gerraurreko truke-tipoa: libera bat = 4,8 dolar. Gerra ostean, ordea: libera bat = 3 dolar.

Liberaren balioa handitzeko, behar-beharrezkoa zen shock-terapia gogorra: interes-tipo altuak finkatu, aurrekontu publikoa orekatu eta diru-masaren kopurua *outputekin* batera gehitu.

Shock-terapia —1920 eta 1924 urteen artean garatua— oso zaila suertatu zen. 1925ean, Winston Churchill orduko Ogasuneko ministroak gerraurreko truke-tipoa ezartzea erabaki zuen berriro ere (libera bat = 4,8 dolar). Merkatuetan, ordea, truke-tipoa bestelakoa izan zen; hain zuzen ere: libera bat = 4 dolar inguru. Shock-terapia politika egokitzen jarraituz, oreka eskuratuko zela pentsatu zuten. Baina, azkenean, ez zen halakorik gertatu (testuinguru hartan, Keynesek berak uste zuen libera % 10 edo birbalioztatua zegoela eta britainiar ekonomia, bere kabuz, ez zela gauza izango truke-tipoaren alde hori ekiditeko).

## 9.2. Alemaniako kasua

Markoaren bilakaera deigarria eta larria izan zen:

- 1914an: 4,2 marko = 1 dolar
- 1918an (azaroko armistizioa sinatu zenean): 6 marko = 1 dolar - 1919ko ekainean: 14 marko = 1 dolar
- 1921eko ekainean: 69 marko = 1 dolar
- 1923ko urtarrilean: 18.000 marko = 1 dolar
- 1923ko ekainean: 100.000 marko = 1 dolar
- 1923ko azaroan: bilioi bat marko = 1 dolar

Hiperinflazioa itzela izan zen. Hauek izan ziren, besteak beste, Alemaniako hiperinflazio horren arrazoiak:

- Aurrekontuaren (altxor publikoaren) desorekak.

- *Weimarko* Errepublikako gobernuen ezintasuna aurrekontua orekatzeko. Horren ondorioz, altxor publikoaren lepora finantzatu behar zen. 1922 inguruan, zergen bidez gastu publikoaren % 1 edo finantzatu zen soilik; dirua eta epe laburreko zor publikoa jaulkiz egin zen gainerakoa.

- Gerratearen kalte-ordainketak, bai dolarretan bai libera esterlinetan. Alemaniak bi ordainketa mota erabil zitzaizkeen: a) truke-merkatuetan markoak dibisen trukez aldatzea; b) ordainketa-balantzan superabita sortzea (baina bigarren bide hori ezinezkoa izan zen). Gainera, kalte-ordainketei aurre egiteko orduan, gobernuak zergak handitzeko ezgai zenez, *Reichsbankera* jo behar izan zuten markoak jaulkitzeko eskatuz. Bide horretatik, markoak are gehiago galdu zuen balioa.

- Bestalde, egoera larritu egin zuen inflazioaren aurrean langileek soldata igotzeko eskatu izanak (ulergarria zena).

Inflazioaren amaiera noiz eta nola heldu zen, azkenean?

- Balio-galtzea zela-eta, jendea nekatu egin zen eta, azken batean, ez ziren onartu markoak. Inflazioa, orduan, agortze hutsagatik amaitu zen. Testuinguru hartan, prozesu inflazionista eteteko asmoz, zenbait bitarteko finkatu ziren.

- Erreformatarako plangintza hasi zen 1923ko azaroan. Hona hemen bere ezaugarriak:

- 1) Gastu publikoa murriztea (era trinkoan aurrekontua orekatuz, adibidez, funtzionarioen soldatak % 75 inguru murriztuz).
- 2) Diruaren erreforma (diru berria jaulkiz). Marko berriaren balioa aurreko markoaren bilioi batean finkatu zen.
- 3) Banku Zentralaren erreforma (finantziario inflazionaria debekatuz, adibidez).

- 4) Urre-patroira itzultzea (diruaren bihurtasuna eta truke-tipo finkoa ezarriz).
- 5) Nazioarteko mailegu bat hartzea (*Dawes* planaren barnean), gerratearen kalte-ordainketak murriztearekin batera.

Erdialdeko Europako beste herrialde batzuek ere (Austriak edo Txekoslovakiak, esaterako) pairatu zituzten presio inflazionistak Lehen Mundu Gerra ostean; hala ere, Alemaniakoekin alderatuta, indar gutxiagoak ziren.

### 9.3. Frantziako kasua

Gainerako dibisekin gertatu zen legez, gerraostean balioa galdua zegoen frankoa. Aldi berean, inflazioaren arazoa hedatua izan zen, nahiz eta Alemaniakoa baino askoz baxuagoa izan. Bestalde, Frantziaren asmo tematia —Alemaniak gerratearen kalteak ordaintzea, alegia— kaltegarria zen ekonomiaren normalizazioa lortzeko.

Hauek izan ziren, besteak beste, Frantziako inflazioaren arrazoiak:

- Zergak handitzeko ezintasuna.
- Gastu publikoa finantzatzea zor publikoaren eta diruaren bidez.
- Kapitalen mugimendu espekulatiboak (jendea zain zegoen libera egonkortzeko; horren ondorioz, diru horren eskaria handitu egin zen. Hala eta guztiz ere, frankoa geroago egonkortu zen, Poincaré-k bultzaturik, 1926. urtean).

Halaber, frankoa egonkortzeko erabilitako prozedura —gainerako herrialdeen antzera— askotarikoa izan zen. Horrela, esate baterako:

- Frantziako banketxeetarako lege berri bat kaleratu zen, inflaziozko diru-sorrera oztopatu zuena.
- Altxor publikoa zorpetzeko debekua.
- Gastu publikoa murriztea.
- Liberarentzat beste truke-tipo bat ezartzea, merkatuaren parean gutxietsia edo gutxi balioztatua; era horretan, esportatzaileen jarduera mesedetu zen.

### 9.4. Italiako kasua

1920 eta 1926 urteen artean, Frantziako liberaren antzera, Italiako lirak fluktuazio eta gorabehera ugari jasan zituen. Kasu hartan, nabarmentzekoa zen Mussoliniren desioa, dibisa sendo eta ospetsu bat izatea faxismoaren propagandarentzat.

Kasu horretan ere, ohiko shock-terapiaren bitartez egonkortu zen dirua. Ezaugarri hauek izan zituen:

- Aurrekonturako diziplina.
- Diru-eskaintzaren kontrola.
- Interes-tasa altua.
- Banku Zentralarekiko zorpetzea galaraztea.

1927an lira egonkortu egin zen. Baina, gehiegi balioztatu zenez, lehiakortasuna galdu zuen kanpoko merkatuetan.

Funtsean, ez zen erabat berreskuratu gerraurreko ekonomiaren egoera (alegia, 1914ko ekonomia).

Dibisa guztiak ez ziren aldi berean itzuli urre-trukagarritasunera; koordinazio falta nabaria izan zen.

Arestian esan denez, ordurako, Londres eta libera esterlina ez zeuden erdigunean; handik aurrera, Wall Streeti eta dolarrari zegokien izaera hori.

Nolanahi ere, artean AEBk ez zuen ontzat hartzen munduko gidaritza (adibidez, Erreserba Federalak ez zuen diru-masa gehitu —dolar ugari sortzea— eta, horren ondorioz, agerian geratu zen likideziaren arazoa nazioarteko diru-sisteman).

## **10. 1929ko krisialdia**

### **10.1. Burtsaren krisia AEBn**

1920ko hamarkada amaitzear zegoela, nabarmen jaitsi ziren Wall Streeteko burtsaren kotizazioak (*ostegun beltza*, 1929ko urriaren 24an; *astearte beltza*, 1929ko urriaren 29an).

Hauek izan ziren burtsaren jaitsieraren arrazoiak:

- 1928 eta 1929 urteetan, burtsa-merkatua eroslea izaten zen; 1929an, bat-batean, saltzaile bihurtu zen.
- Inbertsiorako eskariak behea jo zuen.
- 1927an eta 1928an etekin-tasa oso altuak izan ziren; 1929an, ordea, jaisten hasi ziren.

- 1928ren erdialdetik aurrera, New Yorkeko merkatuaren interes-tasak gehitu egin ziren. Horren azalpena zen Erreserba Federalak ezabatu nahi izatea kreditu merkeen bidez finantzaturiko *boom* espekulatzaila (testuinguru hartan, interes-tasa gehitu zen eta, horren ondorioz, kreditua garestitu).

- Etorkizuneko etekinei buruzko itxaropenak aldatzea (lau urtean zehar aukerak oso mesedegarriak izan ziren; orduko hartan, ordea, aldaketa psikologikoa sumatzen hasi zen, joera ezbaikorra antzematen, alegia).



- Zertzelada hartan, ospe handiko banketxe batzuk aktiboak saltzen hasi ziren; zenbait kotizazioen erorialdia eragiten, azken batean.

Burtsaren beheraldiaren ondorioak, berriz, hauek izan ziren, besteak beste:

- Aurretik planifikaturiko inbertsioa eta kontsumoa etetea (efektu psikologikoarengatik eta etorkizun txarrarengatik).

- Akziodunek kapitalak galtzea.

- Burtsaren protagonismoa haustea, enpresak kapitalizatzeko merkatu gisa.

## **10.2. Depresioaren hedapena AEBn zehar**

Burtsaren beheraldiak kontsumoaren eta inbertsioaren erorialdi nabarmena eragin zuen. Horren ondorioz, errentaren jaitsiera bistan geratu zen. Horrek gainerako sektoreak kaltetu zituen (hala nola, industria eta merkataritza), herrialdean barrena krisialdia zabaltzen hasi zen, eta, aldi berean, areagotu egin zen enpleguaren eta prezio-mailaren beheraldia.

Gobernu Federalak harturiko jarrerak eutsi egin zion krisialdia zabaltzeari:

- Aurrekontuaren ortodoxia klasikoa luzatu zuen. Hots, defizit publikoa ekidin asmoz, gastu publiko urria mantendu zen, errentaren eta inbertsio pribatuaren beherakada orekatu gabe.

- Diru-politika murrizgarria bultzatu zen, interes-tasa altuetan oinarritua.

Beste arrazoi batzuek ere eragin zioten krisialdia zabaltzeari AEBn:

- AEBko gehiegizko nekazaritza- eta industria-ekoizpenak; batez ere gerraostean, Europa errekuiperatu ahala, merkatua betetzen joan zen. Bitartean, AEBko biltegieta merkantzia gehiago pilatzen ari zen, eta prezioak jaisten.

- Nekazaritza- eta industria-ekoizpenaren hazkundera nazioarteko merkataritzarena baino handiagoa izan zen.

- Funtsean, arazo ekonomiko larriak agertu ziren gerraostean; hala nola, inflazioa, gerrateko zorrak, kalte-ordainketak, eta abar. Horren guztiaren ondorioz, oso larria zen nazioarteko merkataritzaren eta ordainketa-sistemaren egoera.

## **10.3. Krisialdiaren zabalkundera Europarantz**

Jatorrizko burtsaren krisi bat zergatik bihurtu zen depresio ekonomiko sakon, AEBtik gainerako herrialdeetara abiatuz?

Krisialdia Europa aldera zabaltzearen arrazoiak:

- Kontinente honetan inbertitutako Ipar Amerikako kapitalak aberriratzea. Hots, Europan, kapitalak AEBra itzuli ahala, kanpoko inbertsioak bat-batean murriztu ziren.

Gainera, AEBrekiko nazioarteko ekonomiaren mendekotasuna nabarmena zen, eta horrek arazoa areagotu egiten zuen.

- Estatu Batuetako kapital horien aberriratzea zela-eta, likideziaren krisia agertu zen Europako zenbait banketxetan.

- Nazioarteko merkataritza asko murriztu zen eta, ondorioz, babeserako muturreko politikak jarri ziren.

1931n, Erdialdeko European inbertsio-politika tamalgarria egin ondoren, Austriako banku pribatu nagusiak porrot egin zuen. Gainera, Austriako Bankuak (publikoa) ez zuen salbamendu-operaziorik gauzatu. Azkenean, Austriako bankuetan aktiboak zeuzkaten Alemaniako bankuak kaltetu ziren —*Deutsche Bank, Dresdner Bank* eta beste batzuk—. Egoera hartan, 1931. urtearen amaieran, Alemaniako banku handiak ere porrot egiten edota ordainketak eteten hasi ziren. Aldi berean, Ipar eta Ekialdeko Europako beste banku batzuk ere kaltetu ziren. Era berean, Britainia Handian eta Frantzia ugaldu egin ziren banku zentralenganako presioak, eta likidezia eza nabarmendu zen.

Horren guztiaren ondorioz, 1931z geroztik, Europako finantza-sistema hautsi egin zen. Aldi berean, truke-merkatuetan gogortu egin zen dibisen gaineko presioa; azkenean, dibisen bihurtasuna eten zen.

Funtsean, Europako krisialdia banku-krisia izan zen batik bat.

#### **10.4. Krisialdiaren zabalkundea Munduan zehar**

Krisia herrialde garatuetatik ez-garatuetara hedatu zen. Gehienez, herrialde ez-garatuak oso produktu gutxiren esportatzaile ziren, eta euren ekonomiak European eta AEBn lehengaiak eta elikagaiak saltzearen mende izan ziren erabat (adibidez, Hego Amerikako kafea, Erdialdeko Amerikako azukrea, Hego-ekialdeko Asiako kautxoa, eta abar).

Batez beste, eta salbuespenak salbuespen, 1929tik 1933ra, herrialde horien salmenta % 50 jaitsi zen.

#### **10.5. Krisialdiari aurre egiteko egokituriko estrategiak**

Krisiaren larritasunak egundoko aldaketa sortu zuen estatuaren ekonomia-jardueraren esku-hartzean. Orduko hartan, askotariko neurriak hartzen hasi ziren. Hona hemen aipagarrienak:

#### a) Ekonomia-esparruan estatuaren parte-hartze trinkoagoa

Sistema politiko totalitarioko herrialdeetan —Alemanian eta Italian, esaterako— lan publikoen programa izugarriak eta gizartearen militarizazioa garatu ziren. Gobernu liberal eta demokratikoko herrialdeetan ere —Britainia Handia, Frantzia edo AEB, adibidez— sendotu egin zen gobernuen parte-hartzea esparru ekonomikoan. Horrela, zenbait neurri ezarri ziren: prezioak igotzeko saioak, langabezia biguntzeko programak, maileguak ordaintzeko erraztasunak, krisialdi larrian zeuden azpisektoreentzako laguntza publikoa, eta abar.

Alde bakarreko neurriak egokitu ziren, eta ez herrialdeen artekoak edo akordioen bidezkoak. Horrela, beste herrialdeen aurrean, errepresalia erabili zen defentsa-mekanismo moduan.

Era horretan, nazioarteko tentsio eta lehia politikoak gogortu egin ziren eta, funtsean, gertuago zegoen beste mundu gerra bat.

Kanpo-merkataritzaren arloan, gehiegizko babesa orokortu zen.

Protektionismo hori garatu zen inportazioak saihesteko politiken bidez. Politika horiek neurri hauek ezarri zituzten: a) inportaziorako kupo edo kontingenteak; b) inportaziorako oztopo administratiboak; c) trukeen kontrola (dibisen emakida erakunde publiko batean zentralizatuz).

#### b) Nazioarteko diru-sistema berrantolatzeko saioak

1933an, Londresen, munduko ekonomia-biltzarra izan zen. Ez zegoen adostasunik; herrialde bakoitzak bere diru-politika independenteari eusten zion. Are gehiago, diruaren arloan, hiru politika garatu ziren. Honako hauek izan ziren eredu horien oinarriak:

- Truke-tipo flotatzailea: zenbait herrialdek —horien artean AEB, Britainia Handia eta *Commonwealth*koak— truke-tipo flotatzaileak ezarri zituzten eta uko egin zioten urre-patroiari. Oro har, euren dirua balioa galtzen joan zen; ondorioz, esportazioak areagotu zituzten.

- Truke-kontrola: Alemaniak, Erdialdeko Europak eta antzeko beste herrialde batzuek truke-kontrolak finkatu zituzten.

- Diruaren bihurtasuna: beste herrialde talde bat —Frantzia, Belgika, Italia eta Herbehereak— urre-patroiaren bihurtasunarekiko fidela izan zen; politika deflazionistari ekin zioten, baina emaitza eskasa lortu zuten, gehienetan.

- Bestalde, 1933ko Londresko Biltzarrean krisialditik ateratzeko ebatzitako neurriak ez ziren batere onuragarriak. Besteak beste, muga-zergak igotzea eta inportaziorako kuotak eta kontingenteak finkatzea izan ziren. Funtsean, xedaturiko erantzun hain protektionistak are gehiago eutsi zion krisialdiari.

d) Alderdi psikologiko eta teorikoak

- 1920ko hamarkadako inflazioaren beldurra.
- Aurrekontuaren orekaren ortodoxiari eusteko gogoia.
- Defizit publikoak eskariaren aldetik efektu biderkatzaileak sortuko zituela uste izatearen ezjakintasun teorikoa. Gaur badakigu berdina dela gastu publikoak zein inbertsio pribatuak errentarekiko duten efektu biderkatzailea; baina, garai hartan ideia oker bati eutsi zioten: inbertsioa finantzatzeko izandako aurrezki kopurua finkoa zela uste zuten; horrekin batera, aurrezki sektore publikora bideratzen baldin bazen, sektore pribatua inbertsiorik gabe geratuko zela uste zuten.

e) AEBko *New Deal* programa

Baldintza haietan, gobernu totalitarioek soilik —adibidez, Alemania naziak (1933tik aurrera)—, edo esperimentatzeko prest zeuden beste batzuek —AEB (*Roosevelt* presidentearekin, 1933tik aurrera)—, eraman zituzten aurrera benetako programa sakonak, krisiaren ondorioak biguntzeko asmoz.

AEBren kasuan, *New Deal* programaren bidez, programa handia garatu zuen *Roosevelt* presidente demokratik (Herbert Hoover errepublikarra ez bezala, estatuak ekonomia-arloan parte hartzearen alde agertu zen *Roosevelt*). Ezaugarriak:

- Eskariaren beherakada ekiditea. Hau da, kontsumoa eta inbertsioa piztea.
- Enpresa-mozkinen erorialdia saihestea. Horretarako, prezioak gorantz egonkortzen ahalegindu zen, prozedura bikoitza erabiliz:
  - I) *NIRA* delako programa garatu eta enpresa pribatuari zenbait abantaila eman, hala nola, antimonopolioen arauak bigundu (hain zuzen ere, motibo horregatik, urte batzuk geroago antikonstituzionaltzat jo zuten programa hori).
  - II) Dolarra devaluatu, zeinaren bidez diru-politika bigunak moldatzea ahalbidetu baitzen eta, aldi berean, interes-tipo baxuen bitartez, inbertsioa areagotu baitzen.
    - Azpiegituretarako programa handiak garatzea (TVA), gastu publikoak gehitzearen testuinguruan.
    - Nekazaritzarako lege sorta bat argitaratzea (AAA), sektorearen prezioen sostengua eta enpresen errentagarritasuna eskuratzeko asmoz.
    - Enpleguak sortzea, lan publikoko programen bidez eta lan-orduak murriztuz (populazio aktiboaren % 25 izan zen langabezia).
    - Gizarte-segurantzaren esparruan estaldura-tasa hobetzea.

Funtsean, eta salbuespenak salbuespen, Bigarren Mundu Gerraren bezperan munduko ekonomiaren susperraldia lortzeko zorian zegoen. 1939 inguruan, berriro ere bazirudien 1929ko krisialdiaren aurreko indize makroekonomikoen maila lortu zela.

## VI. gaia. NAZIOARTEKO EKONOMIA KAPITALISTA

### GERRA HOTZEAN (1945-1990)

#### 1. Bigarren Mundu Gerraren ondorioak

Bigarren Mundu Gerrak, gizakiak ezagutu duen gatazka armaturik garrantzitsuenak, sei urtean iraun zuen —1939ko irailaren 1etik 1945eko irailaren 2ra— eta garai hartako munduko biztanleriaren % 2 hil zen (60 milioi pertsona), gehienak zibilak. Aurrez aurre bi talde egon ziren: Ardatzeko potentziak (Alemania nazia, Italia faxista eta Japoniako inperioa) eta aliatuak (Erresuma Batua eta Frantzia izan ziren buru hasiera batean; geroago, Estatu Batuak eta SESB). Aliatuek irabazi zuten.

1945ean San Frantziskoko Konferentzia egin zen, eta Nazio Batuen Gutuna onartu zen bertan, aho batez.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, bi estatuk izan zuten botere handiena nazioarteko harremanetan eragiteko; «superpotentzia» maila zeukaten biek ere: Amerikako Estatu Batuak eta Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna. Bakoitzak bere sistema politiko eta ekonomikoa zuen, bata bestearen guztiz kontrakoa. Horrek bien arteko borroka zekarren, biek mundua kontrolatu nahi zutelako, ahalik eta estatu gehien kontrolpean izanez. Jadanik ez zen aurkaria Alemaniako nazismoa, Italiako faxismoa edo Japoniako inperialismoa; komunismoa zuten aurkari Estatu Batuek eta kapitalismoa SESBk. *Gerra Hotza* izena hartu zuen egoera horrek.

Hauek izan ziren, besteak beste, Bigarren Mundu Gerraren ondorio ekonomikoak:

- Hildakoak eta galera materialak (azpiegiturak, etxebizitzak, lantegiak, eta abar).
- Gerra zen bitartean, jarduera ekonomikoaren kontrol publikoa sendotu zen; horren ondorioz, gerraosterako aukera berriak ireki ziren.
- Lehen eta Bigarren Mundu Gerren artean, ezberdintasun nabariak izan ziren finantziarioaren esparruan. Bigarren Mundu Gerran erabilitako metodoak egokiagoak izan ziren, eta zergadunen kargura utzi zen finantziarioaren zati bat. Nahiz eta epe luzerako zor publikoa jaulki eta AEBk maileguak eman, ez zegoen diru-sorrera handirik gerratea finantzatzeko. Ondorioa ez zen hain larria izan, ezta finantziarioa hain inflazionista ere.
- Lehen Mundu Gerran baino zor gehiago barkatu zen Bigarren Mundu Gerran (batez ere, Britainia Handiak Estatu Batuekiko zituen zorrak). Era berean, aliatuek berehala barkatu zituzten Ardatzeko potentzien gerrateko kalte-ordainketak.

## 2. Europako berreraikuntzarako prozesua (1945-1950)

Bigarren Mundu Gerra amaitzerakoan, aliatuek planteatu zuten munduko ekonomiak etorkizunean zertara egingo zuen. Horretarako, erabat ekidin beharrekoa zen Lehen Mundu Gerraren ostean eratutako nazioarteko politika ekonomikoa.

Nazioarteko ordena ekonomiko eta politiko berria planifikatzeko orduan, agerian geratu zen AEBren konpromiso hazkorra. Bi izan ziren horren arrazoi nagusiak:

- 1930eko hamarkadan garaturiko nazionalismo ekonomikoak eta protekzionismoak eragin zutela gerratea uste izatea (gainera, uste zen beste eredu ekonomiko batek ekarri behar zuela susperraldia, oro har; hots, Lehen Mundu Gerraren osteko baldintzen ezberdinak behar ziren).
- Gerra Hotzaren hasiera. Testuinguru hartan, AEBren nahia zen Europako berreraikuntza azkar lortzea, Europako gobernuak sistema komunistatik urrundu nahiez.

Ekonomia- eta finantza-berreraikuntzarako mekanismo ugari erabili ziren. Jadanik, gerra amaitu aurretik, nazioarte-mailan aritu ziren aliatuak, gerraosterako baldintza ekonomiko onuragarriak prestatzen. Horrela, adibidez:

- 1942an, *Atlantikoko Eskutitza* delakoa sinatu zen; eskutitz hartan, mekanismo berri baten beharra adierazten zen ordainketa-balantzei oreka eta egonkortasuna emateko asmoz. Era berean, mekanismo hark gauza izan behar zuen nazioarteko finantzaketaren eta likideziaren arazoak gainditzeko.
- 1943an, aliatuen garaipen militarra nabariagoa zenean, UNRRA eratu zen, nazioarteko finantziarako erakunde gisa; *Marshall* Planaren aurrekaria izan zen.
- 1944an, angloamerikar finantza-akordio bat sinatu zen. Kasu horretan, bi aldetako hitzarmena izan zen, eta geroko beste akordio batzuetarako eredu izan zen.

Gerraostean, 1945etik aurrera, merkataritzarako akordio asko sinatu ziren, alde biko laguntza moduan; hots, alde batetik, AEB eta, beste alde batetik, Frantzia, Grezia, Turkia eta beste herrialde batzuk (zeinetan nabarmena baitzen, orduan, komunismoaren zabalkundearen arriskua). Akordio horietan, munduko merkataritzan zeuden oztopoak ezabatzearen beharraz aritu ziren eta, aldi berean, truke-kontrolak bertan behera uztearen onuraz. Gainera, jadanik argi eta garbi agertu zen nazioarte-mailan berrantolaketa sakon bati ekin behar ziotela ekonomia-harremanetan. Hala eta guztiz ere, egoera hartan zaila izan zen Europarentzat bere gelditasunetik ateratzea.

Azkenean, Europako berreraikuntzari ekiteko orduan, garrantzi handiko elementu bat heldu zen **Marshall Plan**arekin batera (1947ko ekainean). Hauek izan ziren Plan horren ezaugarri nagusiak:

- Ipar Amerikaren laguntzaren bidez gauzatu zen; hain zuzen ere, ekipamendu-ondasun, lehengai edota sostengu teknikoen ekarpenen bidez (egia esan, artean urria izan zen Europan inbertituriko Ipar Amerikako kapital publiko eta pribatua; 1950. urterako 1.700 milioi dolar inguru inbertitu zen, eta oso kopuru eskasa zen 1973. urterako inbertituko zen 40.000 milioi dolarren parean).
- Diskriminazio politiko ezaren printzipioan oinarritu zen. Teorikoki, orduan, baliozkoa zen bai gerrako garaileentzat, bai galtzaileentzat, bai herrialde sozialistentzat. Praktikan, onuradun nagusiak Britainia Handia, Frantzia, Alemaniako Errepublika Federala, Italia, Herbehereak, Grezia eta Austria izan ziren.
- Laguntza ez zen bere hutsean planteatu; aitzitik, jasotzekotan, nahitaez berreraikuntzarako prozedura batzuk onartu behar ziren. Horren arabera, herrialde onuradunek konpromisoa hartu behar zuten barneko diru- eta finantza-egonkortasuna lortzeko neurri aproposak hartzeko (esaterako, aurrekontuaren oreka bilatu, diru-politika murriztailea egokitu, inflazioa kontrolatu, eta gerran izaniko hainbeste kontrol eta erregulazio tinko ezabatu) eta, era berean, nazioarteko ekonomiaren elkarkidetzaren bultzatzearen alde izan behar zuten; adibidez, inportaziorako kontingente, kuota edo edozein oztopo mota ezabatzea. Funtsean, horren guztiaren helburua zen ordura arteko protekzionismoari eta bilateralismoari uko egiten saiatzea, ekonomia irekiagoa lortu nahian. Hala ere, urrun zegoen erabateko liberalizazioa.

Halaber, Marshall Planaren ekonomia-helburuak honako hauek izan ziren:

- Europako berreraikuntzari laguntza ekonomikoa ematea.
- Europako ekonomian dolarraren defizitak sortu zuen arazoa gainditzea. Ordainketa-balantza orekatzeko orduan, Europako herrialdeak ezgai ziren, zeren eta lehengaien, erregaien eta gainerako gaien inportazio masiboaren beharra baitzeukaten. Gainera, diru-jaulkipenaren kontra jarri ziren. 1947. urtean, dolarraren urritasuna oztopo handia izan zen Europako ekonomiarentzat. Ildo horretatik, Marshall Planaren bitartez, erosalmenaren transferentzia bideratu zen Ipar Amerikatik Europara.

Laburbilduz, zenbait alderdi onuragarri elkartu ziren gerraosteko berreraikuntzarako; hala nola, gerratearen ondorio ekonomikoak, erlatiboki ez hain traketsak; AEBren laguntza; nazioartean, elkarkidetzaren maila sendoagoa.

### **3. Bretton Woods-eko akordioak**

1944. urtean, gerra amaitu aurretik, Bretton Woods-eko (AEB) Nazioarteko Finantza Konferentzia egin zen. Garai hartan ziren herrialdeak batu ziren, Alemania eta haren aldekoak izan ezik. Europaren berreraikuntzarako eta, geroago, 50eko eta

60ko hamarkadetan garatuko zen ezohiko ekonomiaren goraldirako, garrantzi handikoa izan zen Bretton Woodseko biltzar hura.

Batzar hartan, nazioarteko finantza-erakundeak eratzeko asmotan, plan eta arau komenigarrienak zein izango ziren eztabaidatu zuten. Funtsean, bi plan nagusi aurkeztu ziren: bata britainiarra, J.M. Keynesek defendaturikoa; bestea AEBkoa, Harry D. White-ek aurkeztua. Biak bat zetozen zenbait alderditan; adibidez, truke-tipo finko baten alde, errearekiko bihurtgarritasunaren alde eta mekanismo koordinatzailea sortzearen alde izan ziren. Bestalde, hauek ziren ezberdintasun behinenak:

- Keynesen plana, eratuko ziren erakunde berrien autonomia-maila altua bermatzeko asmoz, diru-baliabide asko ematearen aldekoa izan zen. Whiten plana, ordea, moderatuago agertu zen puntu horretan.
- Truke-tipoari zegokionez, Keynes fluktuazio-banda zabal baten alde zegoen; Whitek, ordea, nahiago zuen lerro estu bat, % 2,5ekoa.
- Keynesek nahiago zuen herrialde kideei kreditu sakona baimentzea; aitzitik, Whitek, puntu horretan, herrialde bakoitzaren kreditua hark ematen zuen kuotaren arabera osatu behar zela defendatzen zuen.

AEBk egindako presio gogorren ondorioz, azkenean, Dexter Whiten plana eraman zen aurrera.

Bretton Woodsen finkatu ziren etorkizunean garrantzi handiko izango ziren bi erakunde ekonomikoen hastapenak:

- Nazioarteko Diru Funtza (NDF).
- Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankua (BGNB), geroago Munduko Bankua izango zena.
- GATT izango zenaren oinarriak ere finkatu ziren.

Erakunde horien bidez, nazioarteko ekonomia-sistema egonkortu egin zen.

### **3.1. Nazioarteko Diru Funtza**

Bretton Woodseko Konferentzian eratu zen, baina Nazio Batuen erakundearen antolaketan kokatu zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, herrialdeek ekonomiak martxan jartzeko tresna baliagarri gisa sortu zen, nazioarteko ordainketak eta nazioarteko merkataritza-harremanak errazteko.

#### a) NDF erakundearen helburuak

- Nazioarteko diru-sistemaren arauak ezartzea eta mundu-mailako diru-lankidetzak bultzatzea.



- Moneten arteko aldaketa-oreka lortzea, nazioarteko diru-transferentzien sistema orekatua eta egonkorra errazteko.
- Nazioarteko merkataritza bultzatzea eta horren garapen orekatua lortzea.

#### b) NDF erakundearen funtzio nagusiak

- Nazioarteko diru-sistemaren arauak ezartzea.
- Herrialde kideei finantza-laguntza ematea.
- Erakundeko kide diren gobernuentzat aholkurako erakundea izatea.

#### d) NDFren funtzionamendua

- Herrialde kide bakoitzak kuota bat ordaindu behar zuen; kuota horren ehunekoa herrialde bakoitzaren errenta nazionalaren eta merkataritza-balantzaren arabera finkatzen zen, eta bost urtero birmoldatu behar zen kopurua.
- Sistemari sartzean, herrialde bakoitzak errearekiko eta dolarrarekiko bere diruaren truke-tipoa finkatu behar zuen.
- Sistemaren funtzionamenduak antz handia zuen *gold exchange standard* delakoarekin. Hots, bihurtasuna hasieran dolarretan egin behar zen. AEB soilik zegoen dolarren bihurtasuna urretan gauzatzera behartuta. Dolarrak, hain zuzen, nazioarteko diru-erreserba gisa jokatzen zuen.
- % 10etik behera, edozein balio-gutxitze edo -handitze egitekotan, NDFri berri eman besterik ez zen egin behar; % 10etik gora, haren onarpena lortu beharra zegoen.
- Herrialde kideek konpromisoa hartu zuten urtero NDFren komisio bat hartzeko, zeinaren helburuak izan baitziren gobernuari ekonomiari buruzko gomendioak ematea eta ekonomia-txostenak argitaratzea.

### **3.2. Berreraikuntzarako eta Garapenerako Nazioarteko Bankua**

1946an jarri zen martxan BGNB, Bigarren Mundu Gerran deuseztutako herrialdeen berreraikuntza finantzatzeko. Bestalde, BGNBk bazuen bigarren helburua ere, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako garapen bidean zeuden herrialdeen garapen ekonomikoa bultzatzea, hain zuzen ere. Hasieran, ekintza gehienek azpiegiturak eraikitze proiektuak izan ziren, eta AEBk eman zuen finantzaketa osoa.

1950eko hamarkadatik aurrera, garapen bidean dauden herrialdeentzako laguntzan oinarritu da erakundearen jardura. Horretarako organismo zehatzak sortu ziren eta denek talde bat osatu zuten: Mundu Bankua.

- Nazioarteko Finantza Korporazioa (1956): sektore pribatua bultzatzen du garapen bidean dauden herrialdeetan.

- Susperketarako Nazioarteko Elkartea (1960): interes gabeko maileguak ematen dizkie herrialde txiroenei.
- Inbertsioei buruzko Ertabaiden Konponketarako Nazioarteko Erakundea (1966): atzerritar inbertsioak bultzatzen ditu garapen bidean dauden herrialdeetan.

### **3.3. GATT (Merkataritzari eta Muga Zergei buruzko Akordio Orokorra).**

1940ko hamarkadaren azkenaldian eratu zen, Londresen, Genevan eta Habanan izandako zenbait bileren bidez (1946-1948). Nazioarteko erakunde horren helburu behinena zen merkataritza-harremanetan librekanbismoa zabaltzea ahalik eta gehien. Horretarako, metodo hauek erabili ziren:

- Nazioarteko merkataritzaren esparruan, ildo multilateralari jarraitzea, teoriarik behintzat, diskriminazioak baztertuz.
- Murriztapen kuantitatiboak eta murrizketak gaitzestea.
- *Ad-valorem* delako muga-zergak ezartzea.
- Oztopo burokratikoak gutxiestea.
- Herrialde mesedetuenaren klausula suspertzea.

Funtsean, librekanbismoaren eta harreman multilateralaren bultzatzailea zen erakunde hori.

Funtzionamenduari zegokionez, zenbait negoziazio-urratsetan oinarritzen zen; hala nola, *Kennedy round*, *Tokio round* edo geroago *Uruguay round*. Azken horretan eratu zen MME (Munduko Merkataritza Erakundea), 1990eko hamarkadaren erdialdean.

### **4. Nazioarteko erakundeen eraketa**

1945 eta 1960 urteen artean, kapitalismoaren esparruan, askotariko nazioarteko erakunde ekonomikoak eratu ziren. Bistan geratu zen nazioarteko ekonomiaren elkarkidetzarako orduan agerturiko giro aproposa. Besteak beste, honako hauek zeuden erakunde horien artean:

#### **a) EELE (Europako Ekonomia Lankidetzarako Erakundea)**

Marshall Planaren onuradunak ziren herrialdeek eratu zuten, 1948an. Erakundea eratzeke arrazoia izan zen Marshall Planaren laguntza administratzeko eta koordinatzeko premia.

b) ELGE (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea)

1960an ELGEren ordezturiko erakundea zen, aurreko partaideei kide berriak gehitu zitzaizkienean; hala nola, AEB, Kanada eta geroago Japonia, Australia eta beste batzuk. Bere betebeharra izan zen politika makroekonomikoan akordioak bilatzea eta, halaber, azpigaratutako herrialdeetara bideratutako laguntza koordinatzea.

Beste alde batetik, Mendebaldeko Europan, zehazki, nazioarteko erakunde asko eratu ziren. Ekonomiaren ikuspegitik, gero eta hurbilago zegoela zirudien Europako batasunaren helburua. Erakunde berri horiek izan ziren, besteak beste:

a) BENELUX (1948)

Belgikaren, Herbehereen eta Luxenburgoren artean osaturiko merkatu-batasuna.

b) Europako Erkidegoak (1951, 1957)

1951n Pariseko Ituna sinatu zen. Horren bitartez, Alemaniak, Frantziak, Italiak eta BENELUXeko hiru estatuak ikatz eta Alzairuaren Europako Erkidegoa (IAEE) sortu zuten.

Sei estatu horiek Erromako Itunak sinatu zituzten 1957an. Horien bitartez sortu ziren Energi Atomikoaren Europako Erkidegoa (EAEE) eta Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE).

Europako eraikuntza-prozesuaren azken helburua batasun politikoa da, ekonomia- eta diru-batasuna sortu ondoren lortuko zena. Ekonomia- eta diru-batasuna lortzeko beharrezkoa zen aurretik merkatu komun bat lortzea. Hori bilakatu zen Europako Erkidegoaren helburu 1960ko hamarkadarako. 1968an martxan jarri zen salgaien eraman-ekarri askea, eta, ondorioz, estatu kideen produktuak muga-zergarik ordaindu gabe eraman zitezkeen leku batetik bestera Europako Erkidegoaren barruan (merkataritza askerako gune bilakatu zen, merkatu bateratu bat lortzeko lehenengo pauso gisa).

1973an Europako Erkidegoko estatu kide bilakatu ziren Erresuma Batua, Danimarka eta Irlanda (Norvegiak ezetza adierazi zuen erreferendum bidez).

d) EFTA (Europako Merkataritza Askeko Elkarte)

1959an eratu zen; Britainia Handia, Danimarka, Norvegia, Suedia, Austria, Suitza eta Portugal izan ziren erakunde horren partaideak. EFTAren helburuen artean zen merkatu bateratu bat lortzea ere, baina, Europar Batasunaren helburuekin

alderatuta, EFTArenak motelagoak izan ziren. Horrela, adibidez, kanpo-zerga komunik ez zegoen; eta barneko merkatuak industria-produktuentzat soilik bateratu ziren; ez, ordea, nekazaritzakoentzat. Helburua merkataritza askerako gune bat sortzea zen.

## **5. Mendebaldeko ekonomien hazkundera: Europako ekonomia-mirariak (1950-1973)**

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, ezohiko hazkunde historikoa izan zen Mendebaldeko ekonomian. Herrialde garatuetan, BPGren batez besteko hazkundera % 4 eta % 5 artean kokatu zen; bikoiztu egin zen aurreko sasoiaren hazkundera. Gero, 1973ko krisialdiaren ondoren, berriro % 2,5aren inguruan kokatu zen hazkunde-tasa.

1950 eta 1973 urteen artean izandako ekonomia-hazkundeari azalpena emateko, askotariko **zergatiak** dauzkagu; hona hemen horietako batzuk:

### **5.1. Eskaintza**

Alde batetik, inputen kantitatea eta kalitatea gehitu egin zen (alegia, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan merkeak izan ziren erregaiak eta lehengaiak).

Bestalde, aipatzekoa da berrikuntza teknologikoaren dinamismoa, inguru hirukoitz batean:

- Hirugarren industria-iraultzaren ingurua (informatikan, mikroelektronikan, lasterketa espazialean, telekomunikazioan eta abarretan oinarritu zen).
- Herrialdeen arteko transferentzia teknologikoa; enpresa multinazionalen, bide ofizialen eta patente-erosketaren bidez garatu zen.
- Handituz doan eskariaren testuingurua; oso egokia izan zen garapen teknologikoa bultzatzeko eta, aldi berean, teknika berrien errentagarritasun-maila altua ahalbidetu zuen.

### **5.2. Eskaria**

Hamarkada horietan hazkunde nabarmena antzeman zen; honako hauek izan ziren arrazoiak:

- Ekonomiaren irekiera-maila altuagoa, nazioarteko merkataritzaren ezohiko zabalkundearekin batera. Horren arrazoia izan zen nazioarteko erakundeak eratzea; bereziki, GATT (librekanbioaren alde eta kanpo-merkataritzaren arloan murriztapenak ezabatzearen alde zegoen erakunde) eta NDF (herrialdeen artean truke-tipo egonkorrak finkatzearen aldekoa).

- Keynesianismoaren hasiera eta garapena; honako hauek izan ziren politika ekonomiko horren ezaugarri nagusiak:

i) Ekonomiaren esparruan, estatuaren parte-hartzea handitu zen, enpresa publikoaren tamaina hazi egin zen eta, are gehiago, zenbait sektoretan enpresa askoren nazionalizazioak orokortu ziren (azken horiek, berehalako gerraostean ezkertiarren gobernuek bideraturikoak ziren —besteak beste, Britainia Handiko, Frantziako edo Italiako kasuak—).

ii) Ekonomia-garapenaren bultzatzaile nagusia estatua bera izan behar zela uste zen; inguru hartan, gastu publikoa eta modalitatea gehitu ziren, azpiegiturak eta produkzio zuzenak eskuratzeko asmoz bideraturikoak.

iii) Gastu publikoa gehitu zen. Are gehiago, beharrezkoa bazen, defizitera ere iritsiko ziren. Horren bidez, enplegu osoa eta egonkortze soziala bilatu ziren. Hori guztia, merkatu libreko sistema baten barnean egin zen, baina, era berean, ekonomia misto batera joz, erlatiboki planifikaturiko hazkunde ekonomikoaren bidez.

Arrazoi horien guztien ondorioz, handitu egin zen sektore publikoaren pisua. 1950eko hamarkadan, Mendebaldeko Europan, gastu publikoa BPGren % 26 ingurukoa izan zen; 1960ko hamarkadaren azkenaldirako % 38 edo izan zen.

- Errentak gehitzearen ondorioz, kontsumo pribatua biziki handitu zen. Jakina, 1950eko hamarkadatik aurrera, Mendebaldeko Europan, merkatu masiboa agertu zen estandarizaturiko kontsumo-ondasun iraunkorren zatia (auto pribatuak, etxe-tresna elektrikoak, eta abar). Aldi berean, marketing eta propaganda —prentsakoa, irratikoa eta telebistakoa— garatu ziren.

- Ongizatearen estatua agertu eta garatu zen. Kontsumoa eta eskaria hedatzeak zerikusi handia zuen errentak birbanatzearekin, eta estaldura handiko gizarte-babeserako programa berritzaileekin lotu zen. Oro har, gizarte-babeserako programa horiek osatzen dute ongizate-estatua delakoa.

Inguru horretan, estatuak estaldura soziala gehitu egin zuten; aldi berean, errenten birbanaketa eta banaketa-sistema soziala garatu ziren.

Gerraren ondoren, estatuarekiko beste jarrera bat izan zuten; hiritarrak estatuari eskatzen hasi ziren ordura arte ia aintzat hartu gabeko eskariak eta zerbitzuak. Era berean, esparru sozialari arreta handiagoa jarri zitzaion Mendebaldeko gizartearen pentsamoldean, gizarte-segurantza eskubide eta ondasun publikotzat hartu zenean. Horri gehitu behar zaio, gerraostean, Mendebaldeko gobernuek iritzi publikoarekiko izandako mendekotasuna. Horren guztiaren emaitza izan zen estatuaren esku-hartze handia, bai ekonomian, bai esparru sozialean. Ongizateko estatuaren sistema berri horren arabera, estatuaren esku geratu ziren erabat aurreko zenbait funtzio pribatu edo erdi-pribatu; adibidez, irakaskuntzarako, langabeziarako, gaixotasunerako eta

zahartzarorako beharrezkoak ziren prestazioak eta laguntzak. Aldi berean, onuradunen kopurua handituz joan zen eta arriskuen estaldura-maila zabaltzen. Britainia Handia aitzindari zen alderdi horietan, *Beveridge Plana* delakoaren bidez eta, aldi berean, Eskandinaviako herrialdeak ere bai. Ez dugu ahaztu behar, gainera, ongizate-estatua sortu zen inguruan, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan egoera mesedegarria izan zela-eta, *keynesianismoa* gailurrean zegoela; bertan behera geratu zen aurrekontuaren orekaren ohiko mitoa.

### 5.3. Beste arrazoi batzuk

1950eko eta 1960ko hamarkadetako zabalkunde ekonomikoa azaltzen laguntzen digute honako beste zergati hauek ere:

- Eskari altuarekin batera, inflazio-maila erlatiboki urri mantendu zen (batez beste, 1950 eta 1973 urteen artean, prezioen igoera-maila urtero % 4 izan zen; orduan jasangarriak ziren maila horiek). Besteak beste, hauek izan ziren inflazio erlatiboki moderatu horren zergatiak: a) truke-tipo tinkoek ezarritako diru-sistemaren diziplina; b) AEBko inflazio-maila baxuak zabalduriko eragina gainerako herrialdeetan; c) nazioarteko merkataritzako oztupoak murrizteak eta lehia gehitzeak prezioen igoera oztopatu zuen.

- Etengabeko inbertsio-maila altu mantendu zen. Honako arrazoi hauei esker lortu zen hori: a) barneko eta nazioarteko egonkortze politikoa; b) tratamendu fiskal mesedegarria (dirulaguntzak eta hobariak areagotuz, edo banatu gabeko etekinzentzat zama fiskal bigunagoa ezarriz); c) kapital-kostu oso baxuak. Arrazoi horien guztien ondorioz, BPGrekiko inbertsio-mailaren tasa % 7 eta % 10 artean kokatu zen; eskuarki, % 3ren inguruan izaten da.

- Nazioarteko erakunde eraginkorren erabilgarritasuna nabaria zen; esate baterako: NDF, MB, GATT, ELGE, IAEE, Benelux, Europar Batasuna, eta abar. Hots, elkarkidetza ekonomikorako ere oso onuragarria izan zen nazioarteko esparru horren erabilgarritasuna.

- Adostasunerako, akordiorako eta egonkortzeko egoera sozio-sindikala garrantzitsua zen. Lan-harremanen esparruan eta errenta-banaketaren arloan adostasun-maila nabaria lortu zen gerraostean. Adostasuna gatazka baino garrantzitsuagoa izan zen inguru hartan. Egoera horri oso langabezia-maila baxuak — eskuarki, % 3 baino baxuagoa— lagundu zion.

Halaber, aginte sozialaren eta lan-harremanen munduan zenbait ezaugarri nabarmendu ziren: a) sindikatuen behin betiko onarpen juridikoa; b) lan-baldintzak

finkatzerakoan, negoziazio kolektiborako sistemen erabilera; c) sindikatuen jarduera ekintza politikotik urruntzea; e) funtsean, armonia soziala sendotzea.

- Europako enpresen amerikartze prozesua hedatu zen. AEBko enpresa handiak sartuz bideratu zen prozesu hori, zeinen arabera orokortzen hasi baitziren Ipar Amerikako enpresen *management* metodoak.

- Europako egonkortze politikoa ziurtatzeko, bermatzaile gisa AEBren protagonismoa nabaritu zen. Horrela, AEBk bertan behera utzi zuen Europarekiko zuen ohiko isolamendua. Nazioarteko ekonomiaren nagusitasuna onartu zuten, azkenean. Aurreko sasoiari, ordea, oso bestelakoa izan zen AEBren jarrera: gerrartearen, barne-politikari eman zioten lehentasuna iparramerikarrek. Jarrera-aldaketa horren funtsezko arrazoia Gerra Hotza bera izan zen.

- Eskulanaren eskaintza asko hazi zen, honako arrazoi hauek zirela-eta: a) gerraosteko *baby boom* deritzona; b) emakumea lan-merkatuan tinko sartzea; c) landa-eremutik hirietara orokorturiko emigrazioa; d) Europako periferiatik herrialde industrializatuetarako immigrazio handia. Era horretan, Mediterraneoko herrialdeak — lehenengo Italia; gero Grezia, Espainia eta Portugal; eta, geroago, Turkia eta Jugoslavia— industrializaturiko herrialdeetarako eskulanaren erreserba bilakatu ziren. Oro har, 1950 eta 1973 urteen artean, 9,4 milioi etorkin heldu ziren Mendebaldeko Europara.

- Beste azalpen bat *hondakinena* da, alegia, kuantifikatzeko zail diren zenbait alderdi; besteak beste, baliabideak eta dirulaguntzak emateko eraginkortasuna, merkatuaren funtzionamendu egokia, giza kapitalaren kalitatea, bereizketa, teknologia, eskala-ekonomiak, eta abar.

- Bateratzea edo berdintzea da beste azalpen mota bat (*catching up*); horren arabera, gerraosteko ekonomia-garapena ulertzeko ezinbestekoa da kontuan izatea Europaren nahia AEBren ekonomia-eredua imitatzeke. Egoera horrek XIX. mendean gertatukoaren antza zuen; orduko hartan, Europa kontinentaleko herrialde asko saiatu ziren Britainia Handiaren industrializazio-ereduari jarraitzen.

## **6. Beste ekonomia-mirari bat: Japonia**

### **6.1. Garapen ekonomikoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren: Japoniako ekonomia-mirariaren oinarriak**

Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, 1945ean, larria zen Japoniako egoera ekonomikoa eta politikoa. Asia aldean desagertu egin zen bere eragina. Gainera, estatubatuarren aire-erasoak zirela-eta, herrialdean bertan hondamendia orokortu zen

eta, horrekin batera, inflazioa, ekoizpen-baliabideen desantolaketa eta hornikuntza eza nagusitu ziren.

Lau hamarkada geroago, Japoniako BPG bigarrena izango zen mundu-mailan. Japonia oso azkar suspertu zen. Nazioarte-mailan agerian geratu ziren haren produktuen lehiakortasuna eta haren aurrerapen teknologikoa, batez ere, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan. Gerraosteko Japoniaren ekonomia-garapenari *ekonomia-mirari* izena eman zioten eta, benetan, ekonomia-miraritzat hartu zen (gainera – dakigunez–, natur baliabideen esparruan nabaria zen herrialdearen ahulezia).

Dena den, gogoratu behar da Japoniak krisialdi gogorra jasaten duela 1990eko hamarkadaren bigarren erditik (Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik gertatu ez bezala). Krisialdi horretatik oso mantso ari da irteten.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, herrialdearen hazkundera ahalbidetu zuten faktore dinamikoen artean, honako hauek daude:

- Lan-faktorea; ezaugarri hauek ditu:

- 1) Hezkuntza-maila oso altua zen, eta horrek oso eskulan gaitua eman zion ekoizpen-prozesuari.
- 2) Lan-harremanen esparru berezia garatu zen; gainerako herrialde industrializatuetan ez bezala, langilea eta enpresa lotzen zituen bata bestearekin era berezi baten bidez.
- 3) Enpresaburuak zein langileak ondo prestatuta zeuden, teknologia berrira azkar egokitzeko.

- Kanpo-merkataritzaren politika oso zorrotza zen, esportaturiko ondasunen lehiakortasun-maila altua zela-eta.

- Zaila bazen ere, makromagnitude hauek elkartu ziren: langabezia-tasa urria, inflazio-maila eskasa eta per capita errenta oso altua; garapen ekonomikoa pizteko proposak ziren.

- Ekonomiaren esparruan, erabakiorra zen sektore pribatuaren parte-hartzea, inbertsio- eta aurrezki-tasa altuetan oinarrituta.

- Sektore publikoaren laguntza garrantzitsua zen, ez sektore pribatua ordeztzeko, hura laguntzeko baizik. Aipatzekoa da MITI erakunde publikoa. Ikuspuntu fiskal batetik, aurrezki bultzatzea izan zen helburua; halaber, finantza- eta diru-ikuspuntutik, interes-tasa urria mantentzeari ekin zioten.

- 1950eko hamarkadan egoera mesedegarria zen; Koreako gerratea bitartean, AEBk Japonia erabili zuen bere hornikuntzarako oinarri gisa.



## 6.2. Japoniako enpresa

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Japoniako egitura politikoa, ekonomikoa eta militarra suntsitzeari ekin zion aliatuen okupazio-armadak. Horretarako, ekonomia-erreforma gauzatu zen, enpresa handien kudeaketa eta jabetza elkarrengandik banatu ziren eta, bide batez, legea kaleratu zen desegindako aurreko *zaibatsuen* eta *trusten* aurka.

Dena den, 1950etik, okupazio-armadak suntsitutako aurreko *zaibatsuak* zutabetzat hartuta, Japonian enpresa handia agertu zen berriro.

Japoniako enpresaren ereduari dagokionez, enpresa handien talde txiki batek osatzen du erdigunea. Enpresa horiek industria konglomeratuen barnean daude, ekonomiaren sektore dinamikoetan garatzen dute euren jarduera, eta oso altua da euren ekoizkortasun-maila.

Beste sektore bat mendekotasunean da Japonian. Sektore horrek enpresa handientzat lan egiten du, enpresa txiki eta ertainen bidez, bai zuzenean bai zeharbidez.

Baina, Japoniako enpresa mota ezagunena hasieran aipaturiko enpresa handia da. Bistan dago haren aiurri oligopolistikoa. Kasu horretan, enpresa horien jarduera ahalbidetu du gobernuak, eta enpresa handi horiek egindako merkatuen pilaketa baimendu (gogoan izan, beste herrialde batzuetan —AEBren kasuan, adibidez—, legeria gogor jarri dela oligopolio horiek sortzearen aurka).

## 6.3. Lan-harremanen sistema

Topiko hutsa izan liteke Japoniako lehiakortasunaren sekretua identifikatzea, soil-soilik, eskulan kualifikatu, eraginkor eta amodiotsuekin. Hori guztia zehaztu egin behar da. Jakina, altua da Japoniako eskulanaren kualifikazio-maila; eta hori, askotan, bai oso garaturiko hezkuntza-sistemaren bai kultura-balioen ondorioa da. Baina, maiz, puztu egin izan dira Japoniako langileen ekoizkortasuna, eragina eta lanerako gogoia.

Japoniako gizarte-segurantzaren sistema publikoa garapen gutxikoa da, Mendebaldeko Europako herrialdekoen aldean, eta enpresek emandako prestazioen bidez osatzen da gehienetan.

Lan-harremanen arloan, ezberdintasun handiak daude enpresa handien eta txikien artean. Mendebaldeko egoerarekin alderatuz, Japonian lan-merkatuan dagoen bitasuna batez ere enpresaren tamainaren araberakoa da.

Oro har, enpresa handietako langileen aldean, enpresa txikietakoek dituzte soldata urriagoa, lanordu gehiago, prestakuntza sozial kaskarra eta sindikatu-antolakuntza askoz eskasagoa.

Enpresa handietan, lan-harremanak hiru arloren inguruan egituratzen dira:

- Langileari behin betiko enplegua bermatzen diote (ohituraz, ez legez).
- Antzinasunaren arabera osatzen da soldata (era horretan, langileak mugikortasun horizontala galtzen du; enpresarekiko fideltasuna, ordea, erabat sendotzen da. Era berean, enpresan bertan ziurtatzen da langilearen formazioaren errentagarritasuna. Testuinguru horretan, enplegatzen den enpresaren arabera izan ohi da langile bakoitzaren zoria).
- Sindikatuen eraketa, enpresaz enpresa. Horren ondorioz, sakabanaketa nabaria da sindikatuen esparruan, oro har, enpresa bakoitzean sindikatu bakarria baitago.

## **7. 1970eko hamarkadako krisialdia**

### **7.1. Krisialdiaren zergatiak**

1973-1974 urteen inguruan, ekonomia kapitalistaren *urre-aroa* bukatu zen. Hazkunde-prozesua eten egin zen, eta krisialdia agertu. Krisiaren arrazoiak honako hauek izan ziren:

#### **a) Sistemaren zamak**

Ongizate-estatua hobetzearen ondorioz sorturikoak (gogoan izan esparru batzuetan kostu handiak sortu zituztela; adibidez, birbanaketarako eta enplegu osorako politikak, programa sozialak, eta hezkuntza, etxebizitza eta abarretako ondasun eta zerbitzuen hornidurak). Ordura arte, pentsio-sistemari euts zekiokkeen ekoizkortasuna gehitzeari esker (teknologia, espezializazioa, eta abar), gizarte-sostenguaren programa horiei aurre egiteko nahiko mozkin ahalbidetzen zen-eta.

#### **b) Lan-harremanen adostasunari amaiera**

1968. urtetik aurrera, lan-harremanen arloan, amaiera eman zitzaien aurretik lortutako adostasunari, eta ezegonkortze soziala, laborala eta politikoa agertu zen.

#### **d) Soldaten hazkunde altua**

1968 eta 1973 urteen artean, nabarmen hazi ziren soldadak, eta ondorio hauek izan zituen:

- Biztanleriaren kontsumorako ahalmena handitu zen; horren ondorioz, kontsumoaren eskaria gehitu eta prezioek gora egin zuten.
- Enpresen etekinak jaitsi egin ziren; horrela, 1960ko hamarkadaren azkenaldetik aurrera, jaitsiera nabaritu zen enpresen inbertsio-tasan.

#### e) Lehengaien prezioen igoera

1960ko hamarkadaren azkenaldetik eta 1970ekoaren hasieratik, lehengaien prezioak igo egin ziren. Ordura arte —batez ere 1950eko eta 1960ko hamarkadetan—, merkeak izan ziren erregaia eta energia. Orduan, lehengaiak garestitzeak errenta jaitea eragin zuen manufakturak ekoizten ziren herrialdeetan. Giro hartan gauzatu zen, beraz, errenta-fluxua, industrializatutako herrialdeetatik lehengaien herrialde ekoizleetara.

#### f) Diru-politikan aldaketak

1968-1969 urteetan, zenbait dibisa krisialdian sartzean, interes-tipoak igotzen hasi ziren. Horrek ekarri zuen diru merkearen aroaren amaiera (hain zuzen ere, aurreko ekonomia-hazkundean zutaberen bat izan zena). Urtebetean bikoiztu egin ziren interes-tipoak. Horrekin batera, finantziazioa garestitu egin zen enpresentzat zein kontsumitzaileentzat.

#### g) Garapen-bidean zeuden zenbait herrialderen oinarrizko industriek egindako lehia, teknologia ertaina edota baxua erabiliz

Industria horiek min handia egin zieten AEBko eta Europako ohiko industria-sektoreei (oihalgintzari, burdingintzari, itsasontzigintzari edo meatzaritzari) (herrialde lehiakide horiek industrializazio berrikoak izan ziren; euren eskulana ez zen aldarrikatzailea izan —*dumping* laborala arrunta zen—; abantaila fiskalak handiak ziren; eta ingurumenarekiko erregulazioa ahula izan zen —*dumping* ekologikoa—). Funtsean, lehiakortasun-maila gutxitu egin zen Mendebaldean, agresibitate handiko ekonomia berri horiek agertzearekin batera.

#### h) Bretton Woodsen sistema apurtzea

Etendura hori 1971. urtean hasi zen. Nixon AEBko presidentek erabaki zuen dolarraren bihurtasunari amore ematea: diru-erreserba hori sistematik atera zuten eta merkatuetan flotatzen hasi zen. Horrek izugarritzko kaltea eragin zion munduko ekonomiari, dolarraren balioa % 10 eta % 15 artean gutxitu baitzen. Gainera, praktikan, munduko enpresa handi guztiek zeuzkaten erreserbak eta aktiboak dolarretan.

Egundoko ezbaia sortu zen; hura ez zen balio-gutxitze hutsa, dolarraren sistematik erabat ateratzea baizik.

Zergatik atera zen dolarra diru-sistematik? Vietnamgo gerrateak AEBko altxor publikoaren defizita eragin zuen, dolarraren kopurua gehituz finantzatu baitzen gerratea. Gainerako herrialdeek AEBko defizita finantzatu zuten, jaulkitako dolarrak beste herrialde batzuetara baitzihoazen. Gainera, dolarra jaulkitzeak eragindako presio inflazionista, AEBn ez ezik, gainerako herrialdeetara ere zabaldu zen; izan ere, herrialde horietan ugariak ziren aktiboak dolarretan. Azkenean, AEBko ekonomia finantzatzeko orduan, gainerako herrialdeek oztupoak jarri zituzten.

Funtsean, 1970eko hamarkadaren hasieran, Europan dolarraren oparotasuna izan zen; 1945. urtean, ordea, alderantziz gertatu zen, dolarraren urritasuna izan baitzen.

#### i) Petrolioaren prezioaren igoera

1973ko urrian, Yom Kippur delako gerratea izan zen; arerioak ziren, alde batetik, Egipto eta Siria, eta, beste alde batetik, Israel.

Gerratea hasi eta bi egunera, petrolioaren esportatzen duten arabiar herrialdeen erakundeak (OPAEP), Kuwaiten batzartu eta, petrolioaren prezioa izugarri igozteak erabaki zuen. Berehala hasi zuten, gainera, esportazioen murrizketa.

Ondoren etorri ziren erabakiek % 400ekoa izatea suposatzen zuten petrolioaren prezioaren igoera (1973ko urriko prezioan oinarrituz; zeren eta 1970eko urtarileko prezioa kontuan hartuz gero, igoera % 800ekoa izan baitzen) eta produkzioaren % 25 murriztea. Bat-batean, izugarri murriztu zen Mendebaldeko ekonomiek beren produkzio-sistamarako eta kontsumorako guztiz beharrezkoa zuten erregaia. 1974ko urtarrilean krisia konpontzen hasi zen, OPAEP produkzioa handitzen hasi zenean; baina prezioa mantendu egin zen.

1979an, krisiaren beste kolpe bat izan zen, aurrekoa baino gogorragoa. Orduko hartan, berriro, igo egin zen petrolioaren prezioa (Iraneko krisialdiaren testuinguruan, momentu hartan munduko bigarren ekoizlea zena).

## **7.2. Krisialdiaren ondorioak: estanflazioa eta desenplegua**

### a) Nazioarteko diru-sistematik dolarra ateratzeak ondorio latzak izan zituen:

- Nazioarteko kapitalen galerak ugariak ziren (hain zuzen ere, dolarraren balio-gutxitzea izan zena: % 10 edo % 15 inguru).

- Nazioarteko ekonomia- eta diru-esparruetan ezbaia eta ziurgabetasuna nagusitu ziren. Kontuan hartu behar dugu egoera hura ezezaguna zela Mendebaldeko munduan 1945. urtetik aurrera.
- Beste diru batzuk kutsatu ziren. 1971tik 1973ra bitartean, herrialde guztiek onartu zuten beren diruaren eta dolarraren arteko truke-tipo finko baten arabera (Bretton Woodsen sistema).
- Ezarri berri ziren tipo fluktuatzaileek eta espekulatzaileek kapital-fluxu ugari sortu zituzten.

b) Krisiaren ondorio orokorrak, besteak beste, honako hauek izan ziren:

- Enpresen etekinak murriztea.
- Inbertsio-tasak jaistea.
- Langabezia gehitzea (1930. urtetik aurrera gertatu ez zen moduan).
- Inflazioa (estanflazioa agertu zen).
- Enpresak ixtea, eta enpresa berrien ezgaitasuna enplegua sortzeko orduan.
- Enpresa publikoen sektorea handitzea, gobernuek euren kargura hartzen zituztenean zailtasunak zituzten enpresa pribatuak.

### **7.3. Harturiko neurriak eta haien emaitzak: neoliberalismoa**

Hasiera batean, bai agente sozialak (sindikatuak eta enpresaburuak), bai diru-sistemako agintariak krisialdia laburra izango zelakoan zeuden. Hein handi batean, pasibitatea nagusi zen artean.

Mendebaldeko ekonomiak erreakzio-ahalmen gutxikoak ziren. Agente sozialak ez ziren prest amore emateko; horregatik, gobernuek ezinean zebiltzan shock-terapiak eta krisiaren aurkako doikuntza-politikak egiterakoan. Jakina, neurri horien errentagarritasun politikoa oso baxua zen, eta onarpen eza, oster, oso altua.

*Banda* batzuen barnean, Europako diruaren fluktuazioa (*diru-suge* delakoa) kontrolatzeko asmoz, zenbait saio zapuztu ziren.

1979. urtetik aurrera, krisialdiaren bigarren kolpe handia izan zelarik, gobernuek ez zeukaten erreakzionatu beste erremediorik. Beraz, 1980ko hamarkadaren hasieratik, krisialdiari aurre egiteko politika sorta bat eratu zen. Besteak beste, hori egin zuen Ronald Reagan-ek AEBn, eta Margareth Thatcher-ek Britainia Handian. Irtenbidea bilatzen saiatu ziren, hain zuzen ere, finantza-ortodoxia zaharraren bidez.

Era horretan, keynesianismoa (estatuaren partze-hartze aktiboa ekonomian) bertan behera utzi eta askotariko shock-terapia deflazionistak garatu ziren, ekonomia

hozteko asmotan (estatuaren parte-hartzerik gabe). Hauek izan ziren politika ekonomiko berri horren ezaugarriak:

- Esklerosia (ekonomien zurruntasuna) amatatzeko asmoz, desarauketa bultzatu zen.
- Interes-tasak igo ziren.
- Gastu publikoa murriztu zen.
- Zergen tarifak igo ziren.
- Balio-gutxitzea orokortu zen eta, era berean, diru-fluktuaziorako eragozpenak ezarri ziren.
- Ondasun eta funtzio publikoari definizio berria eman zioten; ongizate-estatuaren mamia kolokan jarri zen eta, bide batez, estatuaren protagonismoa biziki murriztu zen enpresaburu zuzen gisa, eta hasiera eman zitzaion enpresa publikoen pribatizazioari.

Azken batean, helburua zen merkatuaren legea —eskaria eta eskaintza— bere kabuz aritzea. Arrazoi horiengatik, **NEOLIBERALISMO** izena hartu zuten politika ekonomiko horiek, azkenean.

Aldi berean, berrindustrializazioaren eta industria-birmoldaketaren bidez, puntako sektore teknologikoen sustapena bilatu zen; horren bidez, gainbeheran zeuden ohiko industriek ordura arte sortu zituzten enplegu eta errentak konpentsatzen saiatu ziren.

Politika horien emaitzak, oro har, nahiko arrakastatsuak izan ziren 1980ko hamarkadaren erdialdean; Mendebaldeko Europan, egoera erlatiboki onuragarria izan zen. Horrela, makromagnitude batzuetan agerian geratu zen inflazio-tasak eta defizitak beherantz zihoazela; aldi berean, inbertsioaren, etekinaren, ekoizpen industrialaren eta kanpo-merkataritzaren indizeak errekuiperatu ziren.

Hala eta guztiz ere, krisialdia erabat gainditzera, emaitzak askoz motelago lortu ziren, alderdi batean, behintzat: langabeziaren esparruan, hain zuzen ere. Arlo horretan, lorpenak geldoak izan ziren. Era berean, arrakasta motela izan zen errenta-banaketaren esparruan ere.

Halaber, 1990eko hamarkadaren hasieran, enplegua sostengatzeko eta sortzeko asmoz, era berriei eta malguagoei ekin zieten; besteak beste, denbora partzialeko lanaren modalitatearen bidez, lanaren ezegonkortasunaren eta behin-behinekotasunaren bidez, eta abarren bidez. Laburbilduz, lanak eskegitako gaia izaten jarraitu zuen Mendebaldeko esparruan XX. mendearen azken urteetan eta XXI.aren hasierakoetan (inguru hartan, gainera, ekonomia- eta finantza-krisialdi handia gertatu zen 2000ko hamarkadaren azkenaldian).

Politika neoliberalak egokitzearekin eta gastu publikoa murriztearekin batera, polemika sakona sortu zen ongizate-estatuaren inguruan. Jakina, 1980ko hamarkadan zehar eta 1990eko hamarkadaren hasieran, oso gai eztabaidatua izan zen ongizate-

estatua murriztearen edo desagertzearen aukera. Eztabaida horren erdigunean zegoen ohiko zerbitzu sozialak mantentzea.

Babes sozialeko sistemaren erreforma sakon bati ekiteko orduan, eragin handiko faktoreak izan ziren, besteak beste, honako hauek: gastu publikoa murriztea —aurrekontu-politika urrien inguruan—, populazio ez-aktibo onuradunak gehitzea —langabetuak eta erretiratuak—, eta kotizatutako kopurua jaisteak. Ongizate-estatuari buruzko eztabaida ireki zen.

## VII. gaia. EKONOMIA SOZIALISTEN GARAPENA

### 1. Aurkezpena. Plangintza eta barnealderanzko hazkundera

XX. mendean zehar, eredu ekonomiko sozialista garatu zen zenbait herrialdetan. Lehendabizikoa lehengo Errusian, gero SESB izan zenean (Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna), non 1917. urtean iraultza boltxebikea gertatu baitzen. Geroago, Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, Ekialdeko Europako herrialde askotan barrena zabaldu zen, Sobietar Batasunaren eragina edota okupazioa hedatu ahala. Era horretan, Ekialdeko Alemania, Polonia, Hungaria, Txekoslovakia, Errumania, Bulgaria, Jugoslavia, Albania eta beste hainbat herrialdetan zabaldu zen sozialismo erreala edo komunismoa.

Aldi berean, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, komunismoaren eragina hedatu zen Ekialdeko Asian —Txina, Ipar Korea, Vietnam eta beste herrialde batzuetan—. Gainerako kontinentei dagokienez (Latinoamerikan, hain zuzen ere), oso ezaguna da Kubako eredu; edo, beste aro batzuetan, Nikaraguakoa edo Txilekoa. Afrikako kasuan, amaitzeko, komunismoaren eragina hedatu zen lurralde askotan, Gerra Hotza zen bitartean. Gaur egun, ordea, askoz mugatuago agertzen da komunismoaren eragin-esparrua: Txinako Herri Errepublikan, Kuban, Ipar Korean eta ez leku askoz gehiagotan.

Garapen ekonomiko komunistaren estrategiaz hitz egitean, eta salbuespenak salbuespen, honako ezaugarri orokor hauek aipa genitzake:

- Autarkian oinarritutako garapen-eredua; barnealderantz garatzen dira, funtsezko inportazioen ordezkapena bultzatuz.
- Estatuaren erabateko parte-hartzea, merkatuaren mekanismoak ordezkatzuz.
- Botere publikoek egindako baliabideak esleitzea, prezioak eta ekoizpenen helburuak ezarriz eta merkatuaren mekanismoak baztertuz. Ekonomia komunista batean, merkatu-ekonomia batekin alderatuta, alderantzizko norabidean gauzatzen da prozesu ekonomikoa.
- Kantitateari emandako nagusigoa, kalitatearen lepora (*out-puta* handitzeko obsesioa bilakatzen da helburu nagusi).
- Kapitalaren, lanaren eta ingurumenaren baliabideen gehiegizko erabilera.
- Baliabideak esleitzerakoan, industriari lehentasuna eman ohi diote, nekazaritzaren lepora.



- Kontsumoaren bizkar, nabaria da inbertsioari emandako nagusigoa. Era berean, bistakoa da industria astunari emandako lehentasuna, industria arinaren kontura (inbertsio-tasa gehitzea, kontsumo-ondasunak lortzeko ahalbidea murriztuz, alegia).
- Praktikan, langabeziaren falta.
- Hezkuntza-politikara eta kultura-arloetara bideraturiko aurrekontu handia.

## **2. Sobietar ekonomiaren urratsak**

### **2.1. Iraultza boltxebikea eta berehalako ondorio ekonomikoak**

1917. urtean, iraultza gertatu bezain laster, lehenengo ekonomia-dekretuak finkatu zituzten boltxebikeek, besteak beste, honako ezaugarri hauekin:

- Estatuak eragindako lurraren desjabetzea eta haren doako banaketa.
- Oinarritzko sektoreen nazionalizazioa: garraioa, energia, burdingintza, bankuak, kanpo-sektorea.
- Aurreko gobernuak beste herrialde batzuekiko harturiko zorrak ez onartzea.

### **2.2. Gerrako komunismoaren sasoia (1919-1921)**

Gobernu boltxebike berriak —Lenin buru zela— ezohiko neurriak hartu zituen, 1919 eta 1921 urteen artean, herrialdea jasaten ari zen krisialdi eta ezegonkortasun-egoerari aurre egiteko.

Hauek izan ziren, besteak beste, nozitutako egongaitzasunaren arrazoiak:

- Kanpo-arazoak. *Brest-Litovskeko* bake-ituna sinatu arte, herrialdeak Lehen Mundu Gerran parte hartu zuen. Bakea heldu zenean, artean liskarraren ondorioak jasaten ari ziren: hondatuta zeuden lantegiak, garraiobideak eta nekazaritza, eta etenda zegoen kanpo-merkataritza; alegia, ekonomiaren egoera biziki larria zen.
- Gerra Zibilak 1922. urtera arte iraun zuen; erregimen komunista berriaren jarraitzaileek aurreko tsarismoaren aldekoen aurka egin zuten; azken horiei Europako potentzia batzuek lagundu zieten. Oso larriak izan ziren liskar zibil horren ondorio ekonomikoak —Lehen Mundu Gerrak sorturikoen antzekoak, alegia—.

Testuinguru gogor hartan, gerrako komunismoaren esparru ekonomikoan, muturreko neurriak hartu ziren; horrela, esate baterako, honako ezaugarri hauek finkatu ziren:

- Hamar langiletik gorako enpresen nazionalizazioa.
- Estatuari, nekazaritzako uzten nahitaezko emakida.

- Lan-esparruan ere zenbait neurri hartu ziren; hala nola, lanorduak gehitzea eta soldatak bateratzea.

Emitzei zegokienez, gerrako komunismoak huts egin zuen; esperotakoa baino askoz ere gutxiago lortu zen. Gainera, ezegonkortasun soziala hedatu zen. Egoera hartan, Leninek beste joera bat eman zion politika ekonomikoari, eta eten egin zituen aurreko muturreko neurriak.

### **2.3. Ekonomia Politika Berria (NEP) (1921-1928)**

Gerrako komunismoaren porrotaren ondorioz, NEP deritzonari hasiera eman zioten Sobietar Batasunean.

Honako hauek ziren NEP programa horren ezaugarriak:

- Ekonomia mistoa bultzatu zen; aldi berean, kapitalista eta estatalista izan zen. Era horretan, aintzat hartu zen enpresa ertain eta txikian sektore pribatua ezartzeko komenentzia, ekimen pribatuak eraginda. Horrela, enpresa txikien desnazionalizazioari ekin zioten. Dena dela, eta aldi berean, sektore publiko sendo bati ere eutsi zioten.
- Ezabatu egin zen estatuari nahitaez eman beharreko uzten emakida; lehenbizi, espezie-zerga baten truke egin zen eta, gero, esku-dirutako zerga baten bidez.
- Kontratuaren bitartez, lanaren eta soldataren nozioak berrezarri ziren.
- Kanpokoarekiko irekiera erlatiboa; berriro hasi ziren beste herrialde batzuekiko harremanak eta, bide batez, atzerritar teknikariak erakarri ziren.

NEPen emaitza ekonomikoari dagokionez:

- Nabarmen gehitu zen nekazaritza-ekoizpena eta, batez ere, zerealen produkzioa. Dena den, gutxi iraun zuen egoera onuragarriak; berehala, nekazaritzako etekinak urriagoak izan ziren, oso eskasak biztanleriaren gorakadari aurre egiteko.
- Ekoizpena handitu egin zen meatzaritzaren eta energiaren sektoreetan; batik bat, harrikatzaren eta petrolioaren esparruetan.
- Aitzitik, burdingintzaren egoera ez zen hobetu, artean. Horren ondorioz, nekazaritzaren prezioek behera egin zuten; industriarenak, ordea, igo egin ziren, eta baserritarrek eros-ahalmena galdu zuten.
- Hala ere, nekazarien klase ertainak (*kulak* delakoak) onura ateratu zion liberalizazio-politika horri. Baserritar txiki asko, ordea, jernalari gisa lan egitera behartu ziren.

Leninen heriotza goiztiarra zela-eta, 1924an, haren ondorengo izan zitezkeen artean —Stalinen eta Trotskyren artean, hain zuzen ere— izugarrizko lehia sortu zen boterea lortzeko. Azkenean —jakina denez—, lehenak eskuratu zuen boterea, eta Alderdi Komunistaren jabetzan izan zen 1929tik 1953ra arte. Stalinekin, aro ekonomiko, sozial eta politiko berria ireki zen Sobietar Batasunarentzat.

## 2.4. Plangintza ekonomikoa. Bosturteko Planak

Aldi berri hartan, beste norabide bat hartu zuen sobietar ekonomiak. Ezaugarri hauek izan zituen, besteak beste: plangintza tinkoa (bosturteko planen bidez) eta ekoizpen-baliabideen nazionalizazio intentsiboa.

Hain zuzen ere, plangintza suspertzeko asmoz, GOSPLAN (Plangintza Ekonomikoarentzat Estatuaren Komisia) erakundea sortu zen. Haren betebeharrak behinenak ziren helburu ekonomikoak finkatzea eta, horrez gain, haiek betetzea ziurtatzea.

### a) Lehenengo Bosturteko Plana (1928-1933)

Honako hauek izan ziren plan horren ezaugarri nabarmenenak:

Industria-sektorean:

- Sektorearen nazionalizazio berria eta kontzentrazioarako ildoak.
- Burdingintzaren eta elektrizitatearen ekoizpenari emandako lehentasuna.
- Herrialdearen barnean industria ekialderantz eramateko joera.
- Emaizte zigokienez, aurretik planifikaturikoak baino motelagoak izan ziren; hala ere, zenbait sektoretan igoera oso handiak izan ziren; hala nola, harrikatzean, burdingintzan, altzairugintzan eta elektrizitatean.

Nekazaritza-sektorean:

- Alde batetik, planak baserritar jabeen lurak kooperatibetan bildu nahi zituen (*koljos* delakoetan); horietan, uztaren zati baten truke, baserritarrak nekazaritzarako tresneriaz hornitzen zituen estatuak.
- Beste alde batetik, *sovjos* delakoak garatu ziren; jernalarien bidez landuriko nekazaritzaren ustiapen-unitateak ziren, eta estatua bera zen horien jabea. Nekazaritza-unitate horietan, baliabide ugari bideratu ziren esperimentazioarako eta ekoizkortasuna hobetzeko.
- Hala ere, emaitze zigokienez, industrian baino urriagoak izan ziren nekazaritza-sektorean. Horren arrazoiak izan ziren bai klimatologiak kaltetutako uztak, bai baserritarrek kolektibizazioaren aurka egindako oposizio gogorra.

### b) Bigarren Bosturteko Plangintza (1933-1937)

Honako hauek ziren helburu nagusiak:

- Industria arina edo kontsumo-ondasunen industria (oihalgintza, elikagintza) pizteko saio asko.
- Biztanleriaren eros-ahalmena hobetzeko ahaleginak.
- Profesionalak eta teknikoak prestatzeko irakaskuntza teknikoak garatzea.

Aldi berean, *stajhanovismo* delakoa zabaltzen ari zen. Hau da, langileriaren ekoizkortasuna suspertzeko asmoz, prozedura instituzionala ezartzen, lanaren metodoak arrazionalizatzen eta langileari –ekoizkortasuna handia zenean– sariak ematen ari ziren.

#### d) Hirugarren Bosturteko Plana

1938. urtean hasi eta Bigarren Mundu Gerran eten zen. Ezaugarri hauek izan zituen:

- Bistako arrazoiengatik, armamentu-industriara bideratu zen plangintza hori.
- Dena den, Bigarren Mundu Gerra hartan, Lehen Mundu Gerrako egoeraren aldean, askoz baldintza egokiagoak zituen Sobietar Batasunak, gatazkari aurre egiteko. Orduko hartan, munduko potentzia handienetarikoa zen; ekoizle handia izan zen urre, burdina, altzairu, petrolio, harrikatz eta elektrizitatearen esparruetan. Gainera, garraioaren aldetik, jadanik egokia eta modernoak zen azpiegitura-sarea.

#### e) Bigarren Mundu Gerra osteko plangintza

Bigarren Mundu Gerra hartan, Sobietar Batasunak, potentzia garaileetarikoa bat bazen ere, arazo larriak izan zituen; herrialdearen ekonomiarentzat ondorio latzak izan ziren; esate baterako, pertsona ugari hil zen, eta erabat suntsituta geratu ziren industriak, etxebizitzak, zein garraio-sareak.

Dena dela, oso bizkor berreraiki zen. Lau urteren ingururako, gerratearen aurreko ekoizpen-maila berreskuratu zen (Laugarren Bosturteko Plana garatzen zen bitartean, 1946-1950).

Bosturteko planak eta, geroago, zazpiurtekoak garatzen jarraitu zuten. Azken plangintzetan, sektore kimikoa, elektronikoa eta kontsumo-ondasunarena garatzen ahalegindu ziren; arlo horretan, Sobietar Batasuna saiatu zen berak zuen atzerapen hain nabaria ekiditen.

Oro har, eta finkaturiko helburu guztiak eskuratu ez baziren ere, Sobietar Batasunak hazkunde ekonomiko nahiko altua lortu zuen, batik batik industriagintzan eta meatzaritzan (dena dela, gogoratu abiapuntu-maila oso baxua izan zela).

Nekazaritza-sektorean onura gutxi lortu zen. Nahiz eta ureztapen-jarduerak eta lan hidrauliko handiak egin, eta *koljosen* sareetan oso erreforma sakonak gauzatu (adibidez, estatuak uztaren truke ordaindutako prezioak gehitzea, nekazariarentzat autonomia handitzea, zergak murriztea, eta abar), askotan SESBk zerealak inportatu egin behar izan zituen, eta zenbaitetan, gainera, Amerikako Estatu Batuetatik.

## 2.5. Sobietar komunismoaren bukaera

1950eko eta 1960ko hamarkadetan, SESBren kasuan, oso altuak izan ziren *out-puten* hazkunde-tasak. Hala ere, hazkunde-eredu sozialista horren kostuak ebaluatzeko orduan, kontuan hartu behar dira beste arazo batzuk; hala nola:

- Baliabideak emateko orduan izandako eraginkortasuna.
- Biztanleria osoaren ongizatearen gorabehera.
- Gainera, zenbaitetan, ezbaian jar daiteke emandako datuen eta zifren fidagarritasun-maila; izan ere, batzuetan, herrialde horietako agintariek jarritako datuen helburua politikoa eta propagandistiko hutsa zen, neurri handi batean.

Dena dela, 1980ko hamarkadan zehar, kolokan jartzen hasi zen herrialde horien eredu ekonomikoa, hazkunde-maila gero eta geldoagoa baitzuten. Arrazoen artean, honako hauek zeuden:

- Inportazioen ordezkapen-prozesuaren ahalbideak agortzen hasi ziren.
- Plangintza zentralizatuaren kalkulu-akatsak agertzen ari ziren.
- Bai ongizate-esparruan bai kontsumo-ondasunak lortzerakoan, ezberdintasunak gero eta nabariagoak ziren *burdinazko hesiaren* bi aldeetan.

Sobietar Batasunaren ekonomia garatzeko, garrantzi handiko eragozpenak izan ziren isolamendu politikoa eta Gerra Hotza. Horren ondorioz, Mendebaldeko Europak gerraostean izandako finantza-abantailak dastatu gabe geratu ziren herrialde komunistetan. Gainera, armamentuaren norgehiagokara eta espazioaren esplorazioaren lehiara jotzeko asmoz, Sobietar Batasunak desbideratu egin zuen bere baliabideen zati garrantzitsu bat.

Bestalde, eta lehen aipatu denez gero, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, sobietar eremua zabaldu egin zen Ekialdeko Europan barrena, eta erregimen sozialista berriak finkatu ziren. Bide batez, ekonomia-esparruan Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (COMECON) sortu zen; halaber, arlo militarrean, Varsoviako Ituna eratu zen.

1985. urteaz geroztik, Gorbachov SESBren lehendakaritzara heldu bezain laster, aldaketari eta birmoldaketari ekin zioten Sobietar Batasunean; *perestroika* (birmoldaketa) eta *glasnot* (informaziorako argitasuna) ziren alderdi adierazgarrienetarikoak.

Ekonomiaren aldetik, merkatu-ekonomiaranzko lehenengo pausoak eman ziren, ekimen pribatuari protagonismo zabalagoa baimenduz eta atzerritarren inbertsio ugariagoak ahalbidetuz (hala ere, zenbait sektoretan estatuaren esku-hartzea tinkoa izan zen artean, eta prezio batzuk tasatuak zeuden). Aldi berean, azkar murriztu zen

estatuaren erabateko parte-hartzea —bai enpresaburu zuzen gisa, bai ekonomia-esparruan gehiegizko kontrolatzaile gisa—.

1991ko abenduan, ikuspegi politiko batetik, SESB oso azkar hondatu zen entitate geopolitiko gisa, arrapalada handiko erritmo historikoan. Sobietar Batasuna osatzen zuten hamabost errepublikak estatu independente bihurtu ziren. Haren ordeztan, nekez definituriko entitate politikoa sortu zen: Estatu Burujabeen Erkidegoa; lehendik zeuden hamabi errepublikek osatzen zuten (Baltikoko hiru errepublikek ez zuten partetik hartu). Praktikan, aurretik SESB osatzen zuten errepubliken independentzia politikoa eragin zuen egoera horrek. Haien artean, Errusiako Errepublikak izan zuen garrantzirik handiena, Boris Yeltsin presidente zela.

Horrekin guztiarekin, arazoz beteriko trantsizio-aro nahasia hasi zen, zailtasunez gainezka; arazo ekonomikoak, sozialak eta politikoak ziren nagusi.

Aurretik, Ekialdeko Europako herrialdeetan ere, Mendebaldeko gobernu kapitalisten gisakoek ordeztan zituzten ohiko gobernu komunistak; azkar finkatu ziren merkatu-ekonomiak eta politika liberalak.

### **3. Txinako Herri Errepublikaren ekonomia**

#### **3.1. Baldintza geografiko eta demografikoak**

Txinaren aniztasuna betidanik izan da nabaria. Bestelakotasun horren arrazoiaren artean, honako hauek ditugu:

- Geografiaren handitasuna. Asiako herrialde ia guztiekin egiten du muga; orografia bera ere konplexua da (Himalaia mendikatea, Gobi basamortua, Ozeano Barearen kostaldea, eta abar); ibai nabigagarri batzuk oso luzeak dira (Ibai Horia, Ibai Urdina), batez ere ekialdeko lurraldeetan; luraren % 10 inguru soilik erein daiteke; lur azpiko aberastasuna nabaria da (harrikatza, petrolio, burdina, kobaltoa, nikela, eta abar).
- Klimaren aniztasuna. Horren arrazoiak dira herrialdearen tamaina itzela eta bere orografia eta kokapena (Siberiaren eta Ozeano Barearen artean). Kostaldeko lurraldeetan, bistakoa da montzoiaren garrantzia.
- Demografiaren kopurua oso handia da (1.300 milioi biztanle baino gehiago). Banaketari dagokionez, hego-ekialdean dago biztanle-dentsitate handiena; iparraldea eta mendebaldea, ordea, biztanle gutxiko lurraldeak dira. Zenbaitetan, oso arazo larria izan da demografiaren presioa, eta muturreko politika arbitrarioak eragin dira jaiotza murrizteko.

### 3.2. Txinako Herri Errepublikaren garapen ekonomikoaren urratsak

#### a) Ekonomiaren berreraikuntza (1949-1952)

1949. urtean, Gerra Zibilean *Kuomintang* gainditu bezain laster, Mao Zedong-en komunistek Txinako Herri Errepublika aldarrikatu zuten; nekazariengan oinarrituriko mugimendu sozialistak garapena lortu zuenean izan zen. Aldi berean, ekonomiaren eta gizartearen esparruetan, martxan jarri zen kontzeptu *maoista*, Mao Zedong liderraren ildoari jarraituz. Txinako historian, hasiera eman zioten aro berri bati.

Arazo batzuk tarteko, agerian zegoen ekonomiaren atzerapen-maila; horrela, esaterako:

- Mendebaldearen eta Japoniaren aldean, atzerapena nabaria zen ekonomian; industrializazioa ez zen artean gauzatu.
- 1920tik 1949ra bitartean, etengabeko gerrateak izan ziren (adibidez, Gerra Zibila eta Japoniaren aurkako gatazkak, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan). Gerrateen ondorioz, azpiegiturak suntsituta zeuden eta, bide batez, prezioen inflazioa oso altua zen; azken kasu horretan, gerrako gastuei aurre egiteko asmoz diruaren zirkulazioa erabat handitu izana zen arrazoia.
- Hazkunde demografikoa arazo bilakatu zen (zenbaitetan, familien plangintzarako programak ezarri ziren; kasu batzuetan, jaiotza bultzatu zuten eta, beste kasu batzuetan, ostera, jaiotza-tasa erabat jaistea).

Txinako Herri Errepublika sortu orduko, Mao Zedong estrategia ekonomikoa prestatzen hasi zen; tokiko baliabideak soilik erabili zituen; ondorioz, barneranzko garapena bilatu zen, barneko ahalmena ustiatuz. Gainera, nazioartean, Txinako Herri Errepublikak harremanak apurtu zituen (are gehiago, 1960. urtetik aurrera, harremanak eten egin ziren Sobietar Batasunarekin ere).

Estrategia horren emaitza ekonomikoa nahiko traketsa suertatu zen. Hona hemen horren arrazoiak:

- Txinako kanpo-merkataritzaren dimentsioa oso maila baxuan mantendu zen.
- Atzerriko inbertsioei uko egin zieten (dena dela, hasiera batean, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan, Sobietar Batasunak Txinari laguntza teknikoa eta finantzarioa eman zizkion; Txina, orduan, zordun bihurtu zen, bi potentzia komunista handien artean aipaturiko etena iritsi zen arte).
- Plangintza zentralizatua garatu zen; estatalizazioa, kooperatibismoa, eta abar bultzatu ziren.
- Oinarrizko sektoreen nazionalizazioari ekin zioten; hala nola, industria astuna, banka, trenbideak, eta abar.

Egoera horrek arazo larriak eragin zituen. Adibidez:

- Herrialdean bertan ez zegoen teknologiarik eta, horrela, agerian geratu zen ondasun kapitalak inportatzeko beharra.
- Inportazio horiek finantzatzerakoan, agerian geratu zen Txinako nekazaritza-produktuen eta mineralen esportazioaren premia. Funtsean, nekazaritza-sektoretik industriagintzarako errenten transferentzia izan zen.
- Etengabe baztertu zen gizartearen kontsumorako gogoia.

#### b) Lehenengo Bosturteko Plana (1953-1957)

1953. urtean jarri zen abian Lehen Bosturteko Plana, Sobietar Batasunaren garapenerako urratsak ezarri zituena. Honako hauek izan ziren plangintza horren bereizgarriak:

- Sozializazio-planak ezarri ziren.
- Industria astunari eman zitzaion lehentasuna, industria arinaren lepora.
- Nekazaritza-sektorea, kooperatiben bidez, sozializazio- eta kolektibizazio-ildo batean sartu zen.
- Lan publikoen esparruan, plan garrantzitsua garatu zen; batez ere, ureztapena eta ibaiak bideratzearekin oso lotuta.
- Artean, Sobietar Batasunaren elkarkidetzari eutsi zioten; SESBk laguntza teknikoa eta finantzarioa eman zion Txinari.

Emaitzei zegokienez, Planaren garaian, BPGren urteroko hazkundea % 9aren inguruan kokatu zen; hots, arrakasta nabarmenez hitz egin daiteke. Hala ere, arazo larria izaten jarraitzen zuen landa-eremuetako biztanle kopuru handiak; neurri handi batean, horrek oztopatu zuen nekazaritzaren mekanizazioa.

#### d) Aurreranzko Salto Handia (1958-1961)

Oro har, bigarren Bosturteko Planarekin batera gauzatu zen urrats hori. Teorian, plan horrek 1962ra arte luzatu behar izan zuen.

Urrats horren hasieran, oso eztabaida tinkoa sortu zen. Hain zuzen ere, Alderdi Komunistaren Kongresuan, Mao Zedongen planteamenduen aurrean (sozialismoranzko ideologiak sakontzearen aldekoa), Liu Shaoqi-renak aurkeztu ziren; azken horiek ekoizpen-egiturak modernizatzearen aldekoak ziren, eta gerorako utzi zuten sozialismorako bidea.

Azkenean, bi antolamendu horien artean izandako eztabaidan, Maorentzat izan zen garaipena. Horrela, *Ehun Loreak* izeneko kanpaina garatu zuen Maok, eta hasiera eman zion *Aurreranzko Salto Handia* politikari; horrek biziki bizkortu zuen sozializazio-prozesua.



Aurreranzko Salto Handiaren bereizgarrien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Planifikazio zentralaren malgutasuna.
- Lurraren sozializazioa; herri-komunen bitartez garaturikoa. Bide batez, nekazaritzarako ekoizpen-unitate horiek bilakatu ziren entitate politiko-administratibo ere.

Hala eta guztiz ere, emaitzak espero baina kaskarragoak izan ziren. Egia esan, testuingurua ez zen batere mesedegarria: alde batetik, zenbait lehorte eta oso uzta txarrak izan ziren; beste alde batetik, harremanak eten egin ziren Sobietar Batasunarekin (1960. urtean, hain zuzen ere) eta, horren ondorioz, sobietarren laguntza bukatu zen. Egoera hartan, Mao Zedong Errepublikaren presidentea dimititzera behartu zuten (nahiz eta Txinako Alderdi Komunistaren presidentetzari eutsi), eta Liu Shaoqik ordezkatu zuen.

#### e) Ekonomiaren berrantolaketa (1962-1965)

1960an, arestian aipatu denez, Sobietar Batasunak laguntza kendu zion Txinari.

Aurreranzko Salto Handiaren porrot erlatiboa zela-eta, Txinako ekonomiaren berrantolaketari ekin zioten: Liu Shaoqi izan zen Errepublikaren presidentea, Zhou Enlai lehen ministroa, eta Deng Xiaoping Alderdi Komunistaren idazkari nagusia. Urrats horretan, *Lau modernizazioak* delako programa iragarri zen. Helburua izan zen nekazaritza, industria, defentsa eta zientzia-teknologia bultzatzea.

*Lau modernizazioen* programa berritzaile horren ezaugarriak izan ziren, batik bat:

- Nekazaritza- eta industria-sektoreen arteko hazkunde orekatua bilatzea.
- Komunaren lepora, ekimen pribatuari euskarri handiagoa ematea.
- Kanpo-jarduerari zegokionez, malgutasun handiagoa ematea enpresa pribatuari; eta, era berean, pizgarrien politika suspertzea, berdintasuneko printzipioak baztertuz.

Ekonomikoki arrakasta nabaria izan zen; BPGren hazkundera % 15ekoa izan zen. Hala eta guztiz ere, politika-ikuspegitik, Maok erabateko oposizioa eragin zuen.

#### f) Iraultza Kulturala (1966-1970)

Mao Zedongek —berriro boterea errekuiperatu zuenean— beste bide bat eman zion egitura ekonomikoari, politikoari eta sozialari. *Iraultza Kulturala* izena eman zioten birmoldaketa sakon horri.

Egia esan, oso gaizki definitu zen iraultza edo aldaketa sendo hura. Testuinguru hartan, areagotu egin zen mobilizazio soziala, eta atzerritartzat eta

inboluzionistatzat hartutako edozeren eta edonoren aurka jokatu zuten. Aldi berean, gogor jo zuten aurreko ekonomiaren berrantolaketa aldiaren aurka. Egundoko jazarpena jasan zuten aurreko kudeatzaile ekonomikoek eta intelektualek; haien artean ziren Liu Shaoqi eta Deng Xiaoping.

Besteak beste, Iraultza Kulturalaren ezaugarri hauek aipa ditzakegu:

- Guardia Gorrien eta Maoren Liburu Gorriaren protagonismoa; oro har, gizartearen ideologizazio sakona bilatu zen inguru hartan.
- Garapen ekonomikoaren lepora, eraldaketa sozialari emandako lehentasuna eta nagusigoa (hazkunde ekonomikoak helburu behinena izateari utzi zion).
- Plangintzaren deszentralizazioa (adibidez, gerenteak saihestu ziren; enpresa-komiteen munta, ordea, piztu egin zen).
- Berriro, nekazaritza-sektorean, banakako laboreak ezabatu ziren.

Emaitzari zegokionez, oro har, ekoizpena nabarmen jaitsi zen industria- eta nekazaritza-sektoreetan.

#### g) Trantsizio-aroa (1970-1980)

Iraultza Kulturalak eragindako egoera ekonomiko hain larriak beste aldaketa baterako bidea erraztu zuen, 1970etik aurrera; berriro, *Lau modernizazioen* programa aplikatu zen.

Gainera, 1970ean ere, Txinako Herri Errepublikak arrakasta diplomatiko handia lortu zuen, Nazio Batuen Elkartean erabateko eskubideekin kide onartua izan zenean eta, are gehiago, NBEren Segurtasun Kontseiluan kide iraunkor hautatu zutenean, Taiwanen ordez.

Ildo horri jarraitu zioten hamarkadaren hasieran. Azkenean, harreman diplomatikoetan sartu ziren Japoniarekin; eta Nixon AEBko presidenteak Txina ofizialki bisitatu eta Mao Zedongekin elkarrizketa bat izan zuen. Txinaren ohiko isolamenduaren amaiera zirudien horrek.

Hala eta guztiz ere, herrialdearen barruan, jarraitu zuten sozialismoa ulertzeko era ezberdinek sorturiko desadostasunek. Horrela, boterea lortzeko asmoz, oso lehia gogorra antzeman zen; joera hori askoz argiago ikusi zen Mao Zedong hil zenean, 1976an. Alde batetik, haren alargunak eta jarraitzaileek ortodoxia maoistari eutsi nahi zioten. Beste alde batetik, oster, Deng Xiaoping eta bere taldea sozialismo malguagoa bultzatzearen alde zeuden. Lehia gogor hartan, Deng Xiaoping izan zen garaile.

### 3.3. Merkatu-sozialismoa Txinan

Mao Zedongen heriotzaren eta Deng Xiaopingeng etorreraren ondoren, 1970eko hamarkadaren amaieran, beste urrats bat egin zen Txinako Herri Errepublikarentzat. Antolamendu zabalagoak bultzatu ziren, teknologia- eta merkataritza-esparruetan atzerriko elkarkidetzarako getu zeudenak, batez ere Japonia eta AEBekin.

Maoren antzeko muturreko planteamendu ideologikoak gainbehera hasi ziren, eta agintari berrien tankera pragmatikoagoa nagusitu zen.

Ekonomiaren ikuspegitik, beste estrategia bati ekin zioten, berriro *Lau modernizazioen* programan oinarritu zena; hots, nekazaritzaren, industriaren, defentsaren eta zientzia-teknologiaren esparruak suspertu ziren berriro. Irekitasunaren aldeko neurri horien ezaugarriak izan ziren, besteak beste:

- Kanpoarekiko irekiera, batez ere teknologiaren eta merkataritzaren esparruetan; aurreko autarkiaren amaiera izan zen (jarduera horri *Kanpoalderanzko Salto Handia* esan zioten). Aldi berean, politika aproposa gauzatu zen kanpoko kapitalak erakartzeko eta atzerriko bankuak Txinan bertan kokatzeko.
- Barneko kontsumoa gehitzea.
- Azkenean, lehentasuna eman zioten industria arinari, industria astunaren bizkar.
- Enpresa mistoaren ereduak garatzen hasi zen, zeinaren jabetasuna banatzen baitzen estatuaren eta inbertsore pribatuen —askotan atzerritarrak— artean.
- Ekimen pribatua piztu zen.
- Baliabideen banaketan eraginkortasun handiagoa bilatu zen; hain zuzen, garrantzi handiagoa eman zitzaion merkatuari, eta elkarkidetzak areagotu zen estatuaren eta ekimen pribatuaren artean.

Dena den, harturiko liberalizazio-neurri horiek ez ziren zabaldu herrialde osoan zehar. Momentuz, soilik EEESn (Ekonomia Eremu Esklusiboak) ezarri ziren irekitasunaren aldeko politika horiek. Besteak beste, lurralde horiek izan ziren: Shenzhen, Shantou, Zhuai eta Xiamen; kapitalismoaren eredu esperimentalak ziren, Txinan bertan. Dena dela, horrekin guztiarekin, biziki areagotu ziren kostaldeko lurraldeen —EEES kokatzen zen lekua, hain zuzen ere— eta herrialdearen barnealdearen artean izandako ezberdintasunak.

Ikuspegi politikotik, gainera, askoz motelagoak izan ziren liberalizatorako neurriak. XXI. mendea hasia zen eta, artean, nabaria zen demokrazia eza, Txinako Alderdi Komunista izan baitzen aukera politiko bakarra. Hain zuzen ere, dualtasun horrek (alde batetik, ekonomiaren liberalizazioa eta, beste alde batetik, aniztasun politikoaren eza) sortu du Txinako merkatu-sozialismoa delako kontzeptua.

## **VIII. gaia. GARAPEN-BIDEAN DAUDEN EKONOMIEN HISTORIA GARAIKIDEA**

### **1. Aurkezpena. Garapen-bidean dauden herrialdeen askotariko aiurria**

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, areagotu egin zen Afrika eta Asiako europarren kolonien independentziarako joera, eta *ez-alineazio* kontzeptua garatu zen: herrialde berri askok ez zuten kapitalismoaren alde kokatu nahi, ezta komunismoaren alde ere; Hirugarren Mundua osatzen zuten.

Oro har, *Hirugarren Mundua* kontzeptua loturik dago arlo politikoarekin; *azpigarapena*, ordea, ekonomiaren esparruarekin.

Aniztasun nabaria dago Hirugarren Mundua osatzen duten herrialdeen artean, bai ekonomiaren alorrean, bai arlo politiko edo sozialean. Kontzeptu hori zehaztugabea da, alegia.

### **2. Azpigarapenaren geografia, arrazoiak, ondorioak eta balizko irteerak**

#### **2.1 Azpigarapenaren geografia**

- Gehienetan, azpigarapena Europatik at dago. Latinoamerikako, Asiako, Ozeaniako eta, batez ere, Afrikako lurralde askotan hedatzen da.
- Dena den, ugariak dira salbuespen geografikoak; garrantzitsuenetarikoak AEB, Kanada, Japonia edo Australiako kasuak dira, besteak beste.

#### **2.2. Azpigarapenaren arrazoiak**

- Naturaren baldintza okerrak (lurra, geografia-kokapena, muturreko klima-baldintzak, euri-irregularitasuna, gaixotasun tropikalak, eta abar).
- Ekonomia-sistemetan eta gobernuen politikan dauden akatsak. Hots, erakunde eta merkatu traketsak, gizakiei lepora dakizkiekeenak.
- Antolaketa sozial eta politiko ezegokia.
- Finantza-kapital eza eta inbertsioen gabezia. Era berean, urriak dira diru-errenten maila eta aurrezki-ahalmena ere. Funtsean, aurrezki-tasa baxuek garapen-tasa urriak eragiten dituzte, eta alderantziz ere gertatzen da.
- Biztanleriaren gehiegizko hazkundera.

- Giza kapitalaren ahulezia (oso urriak dira hezkuntza eta eskolatzetasak; bistan dago enpresaburu eta klase ertainaren gabezia, eta abar).
- Teknologiaren garapena oso mugatua da.
- Historiaren zama astuna. Hots, aurreko europar inperio kolonialek ustiatu zituzten lurralde horien baliabide naturalak. Ustiapen hori ia azpiegiturarik garatu gabe gauzatu zen; metropoliara mineralak eta lehengaiak garraiatzeko beharrezko ziren azpiegiturak soilik eraiki eta mantendu ziren. Gainera, nazioarteko lan-banaketaren arabera, lurralde kolonial horietatik landu gabeko produktuak esportatzeari ekin zioten. Are gehiago, geroago, lurralde horien independentzia heldutakoan, beste kontrol mota bat ezarri zuten enpresa multinazionalak, neokolonialismo delakoaren testuinguruan.
- Ekoizpen-sistema oso produktu gutxitan oinarritzen da Lehen Munduan saltzeko (produktu gehienak, gainera, lehenengo sektorearenak dira). Dakigunez, Bigarren Mundu Gerraren ostean, nazioarteko prezioen bilakaera ez zen batere mesedegarria izan lehen mailako produktu horientzat; aitzitik, askoz handiagoa izan zen industrializaturiko herrialdeen produktuen prezioen bilakaera. Oro har, produktu industrialen salneurriek lehen mailako produktuenek baino hazkunde handiagoa izan zuten. Gainera, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, industrializazio-politikaren hasierak izugarritzko merkataritza-defizitak eta kanpo-zorra sortu zituen Hirugarren Munduko zenbait herrialdetan —teknologiaren eta ekipamendu-ondasunen inportazioa areagotuz—.
- Lehen eta Bigarren Munduekiko mendekotasuna (dena den, arestian amaitu da Bigarren Munduarekiko mendekotasuna).
- Garapen-bidean dauden herrialdeetan, nabaria da azpigarapenerako ekonomisten falta (daudenak Mendebaldeko unibertsitateetatik aritzen dira, eta nabaria da haien mendebaldar eragina).

### **2.3. Azpigarapenaren ondorio nabarmenak**

- Per capita errenta urria (garapen-maila neurtzeko indize bat da per capita errenta; hala ere, askotan, eredu hori ez da fidagarria, ezin dituelako adierazi barneko ezberdintasunak; horregatik, askoz egokiagoa da giza garapenerako indizea erabiltzea).
- Gose handia eta elikadura eskasa (FAO eta MOE erakundeek gomendatzen dituzten eguneroko kalorien kopurua baino gutxiago kontsumitzen da, maiz).
- Biztanleriaren gehiegizko hazkundera (oso heriotza-tasa altuarekin batera ageri bada ere).
- Industrializazio- eta mekanizazio-maila oso urriak.

- Energiaren kontsumo eskasa.
- Nekazaritza-sektorearen erabateko nagusigoa.
- Lehengaietan (hala nola elikagai eta mineraletan) oinarrituriko esportazioak; gehienetan herrialde garatuetara bideraturikoak, gainera.

#### **2.4. Azpigarapenetik irteteko aukerak**

- Aurrezki-tasa gehitzea, kontsumoarena gaindituz; kapital-ondasunaren eta teknologiaren erosketak ahalbidetzea eta, bide batez, faktoreen errentagarritasuna lortzea.
- Sistemaren erreforma sakonak egitea, merkatu-sena eta gizabanakoaren ekimena suspertuz (merkatuko erakundeen sarrera lortzea, alegia).
- Kontsumorako nahia bultzatzea. Imitaziorako nahia piztea eta materialismoa sartzea (dena dela, ohiko balio espiritualak apurtzea eragingo luke egoera horrek). (Beste alde batetik, historian zehar, izan dira imitazioa eta bateratasuna lortzeko adibide arrakastatsu batzuk; hala nola, Europa kontinentalean Britainia Handia imitatzeko nahia lehenengo industrializazio garaian; eta, geroago, Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, AEB imitatzekoa Europan eta Japonian).
- Herrialde garatuek garapenerako bidea erraztea gainerakoei. Adibidez, zirkuitu ekonomiko pribilegiatuetan sarrera ahalbidetzea (*trade not aid*, hots, merkataritza areagotzea, ez laguntza hutsa).
- Lehen Mundura emigrazioa baimentzea. XIX. mendean Europari gauza bera gertatu zitzaion, hain zuzen ere, Europako biztanle kopuru handia emigratzera behartu zenean.
- Jaiotza-tasaren jaitsierari ekitea.
- Heziketaren esparruan hobekuntzak bultzatzea. Dena den, arlo horretan epe luzera ikus daitezke etekinak.
- Mailakako hazkundera bultzatzea, behetik gora. Alegia, hasiera batean, baliabide gehienak ez bideratzea azpiegitura handietara, baizik eta eskari handiko arloetara; esate baterako, oinarrizko eskolak eraikitzea, edateko ur onaren hornidura ahalbidetzea; osasun- eta higiene-egoera hobetzea, bideak asfaltatzea, eta abar.

### **3. LATINOAMERIKAKo historia garaikide ekonomikoa**

Independentzia lortu eta duela gutxi arte, nabaria izan da kontinente horren ezegonkortze politikoa. Oso ugariak izan dira estatu-kolpeak, iraultzak, muga-gerrak eta gerrillen agerpena; baldintza horietan, noski, makala izan da, askotan, demokraziaren sendotasuna.

Latinoamerikako ekonomiak ezberdintasun handiak erakusten ditu, herrialdearen arabera. Lurrealdearen gehiena oinarritzko ondasunen ekoizle garrantzitsua bada ere, zenbait berezitasun nabarmen daitezke. Horrela —eta gehiegi orokortu arren—, kanpoarekiko lotunea garatu dute Argentinak eta Uruguaiak, nekazaritza- eta abelazkuntza-jarduera errentagarriaren bidez. Txilekoa izan da antzeko kasua, esportaziorako mineral eta zereal sorta ugari dituen. Beste herrialde batzuek erlatiboki modernizaturiko labore-plantazio garrantzitsuak izan dituzte; hori da Brasil, Antillak edo Venezuelako kasua. Azkenik, beste zenbait herrialdek iraupeneko nekazaritzari ekin dio orain dela gutxi arte.

Kronologiaren ikuspegitik, zenbait urrats bereiz genitzake Latinoamerikako garapen ekonomikoan; honako hauek, hain zuzen ere.

#### **3.1 Lehengaien esportatzaile-eredua eta kanporantzko hazkundea XIX. mendean**

Nazioarteko espezializazio ekonomikoaren testuinguruan garatu zen eredu hori, lehengaien esportatzaile rol hutsa sendotu baitzuen Latinoamerikak.

Eragozpen ugari agertu ziren egoera horretan; hala nola:

- Latinoamerikako ekonomien gehiegizko mendekotasuna nazioarteko prezioen eta merkatuen gorabeheretik.
- Finantza- eta teknologia-esparruetan, erabateko mendekotasuna. Enpresa multinazionalak izan ziren egoera horren adierazpen nagusiak; horiek kontrol zuzena izan zuten Erdialdeko Amerikan eta Karibe aldean, nekazaritzaren eta meatzaritzaren arloetan.
- Truke-harremanean, lehengaientzat baino joera gero eta mesedegarriagoa izan zen industria-produktuentzat.
- Barruko kontsumorako, baztertu egin zen nekazaritzan oinarrituriko ohiko ekonomia-jarduera; esportaziorantz bideraturiko monolaborantza-sistemaren alde egin zen, hain zuzen ere.

Lehengaien esportazioan espezializatu direla-eta, Latinoamerikan hiru herrialde multzo eratu dira, arian-arian; hala nola:

- Klima epeleko lehengaien esportatzaileak, Plata ibaiaren arroan zeudenak (Argentina, Uruguai), gehienetan. XIX. mendean zehar, herrialde horien egoera oso mesedegarria zen zerealen eta abelazkuntza-produktuen esportazioari esker; garraio-sarea, finantza-egitura eta hirigintza garatu ziren, per capita errenta handitu zen heinean.
- Nekazaritza-produktu tropikalen esportatzaileak. Brasil, Kolonbia, Ekuador, Erdialdeko Amerika eta Karibe izan ziren; kafea, kakaoa, tabakoa, eta antzeko produktuak esportatzen zituzten. Gehienetan, herrialde horiek abantaila gutxi lortzen zuten jarduera esportatzaile horren bidez. Brasilgo kasua izan zen salbuespena, dinamismo ekonomikoa areagotu egin baitzen kafea lantzeari esker.
- Mineralen esportatzaileak (Mexiko, Peru, Bolivia eta Venezuela). Herrialde horietan, XIX. mendean zehar, handitu egin ziren mea industrialen ustiapena eta esportazioa; moteldu, ordea, metal preziatuen jarduerak. Aldi berean, gehitu egin ziren atzerriko teknologia, eskulan gaitua eta finantza-kapitalen erabilera. Hala ere, azkenean, mineral-jarduera esportatzaile hori ez zen gauza gainerako sektore ekonomikoak pizteko.

Oro har, AEBn eta Europan zeuden Latinoamerikako esportazioen merkatu nagusiak. Dena den, kanporanzko garapenaren eredia gero eta mugatuagoa zen, arestian aipaturiko arazoengatik —finantzaren, teknologiaren eta kanpo-merkataritzaren esparruetan izandako atzerritarrekiko mendekotasunagatik—.

Lehen Mundu Gerran argiago geratu zen egoera hori, nazioarteko merkataritzaren eta kapitalen mugimendu-alorretan murrizketak areagotu zirenean eta, bidenabar, urre-patroiaren porrota eragin zenean. Min handia sortu zioten Latinoamerikako ekonomietan hain makalak ziren afera horiek.

Halaber, gerraostean, 1920ko hamarkadan, Britainia Handiaren eraginaren amaiera iritsi zen lurraldera; haren ordeztu, eta Monroe doktrinaren babespean (Amerika amerikarrentzat), AEBren nagusigoa hasi zen.

1930eko krisialdia heldu zenean, nazioarteko protekzionismoa orokortu egin zen, kanpo-merkataritzaren jaitsiera eta nazioarteko finantza-bitartekoen etena eraginez. Testuinguru hartan, oso kaltetuta amaitu zuten Latinoamerikako ekonomia-esportatzaileak; aldi berean, agerian geratu ziren beren eredu ekonomikoen akatsak.

Krisialdiak produktu tropikalen herrialde esportatzaileei egin zien batik bat min, haien eskaria elastikoa baitzen. Mineralen herrialde esportatzaileei ere eragin zien. Aitzitik, ez ziren hainbeste kaltetu Plata ibaiaren inguruko herrialdeek zituzten haragi-esportatzaileak —eskari ez-elastikoa— .



### **3.2. Barnealderanzko hazkundera: kontsumo-ondasunen inportazioen ordezkapen-politika**

1930eko krisialdiaren ondorioak zirela-eta, inportazioak ordeztera behartuta zeudenez gero, Latinoamerikako zenbait herrialdek industrializazio-politikaren hasierari ekin zion.

Oro har, gobernuek eta sektore publikoek bultzatu zituzten industrializazio-ildo berri horiek. Inportazioen ordezkapenerako industrializazioan oinarritu ziren Argentinako, Uruguaiako, Brasilgo, Txileko eta Mexikoko kasuak; geroago, *barnealderanzko hazkundera* izena hartuko zuen.

Gainerako herrialdeek, ordea, artean ez zuten ezer egiten 1930eko krisialdiaren aurrean, eta errentaren beheraldia jasaten jarraitzen zuten. Nabaria zen beren industrializazioa eskuratzekoan izandako atzerapena. Industrializazio horren hasiera, azkenean, Bigarren Mundu Gerran iritsi zen, atzerriko industria-produktuen horniduraz gabetzearekin batera.

Hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerraren ostean, beste urrats bat egin zen Latinoamerikako ekonomientzat: nazioarteko egoera mesedegarria zen eta, aldi berean, Latinoamerikan industrializazioa gauzatzeko asmo tinkoa agertu zen, azkenean.

Oro har, 1960ko hamarkadaren erdialdera arte luzatu ziren estrategia ekonomiko berri horiek. Hasieran, kontsumo-ondasun ez-iraunkorren ekoizpena suspertu zen; hala nola, elikagaia, edaria, tabakoa eta oihalak, zeinen barne-eskaria praktikan ziurtaturik baitzegoen eta ekoizpen-prozesuak erlatiboki errazak baitziren.

Dena den, ekonomia-politika berri horrekin batera, premiazkoak ziren kapitalen eta teknologien inportazioak ere; inportazio horien beharrak, azkenean, beste estugune bat eragin zuen garapenerako prozesuan.

Egoera hartan, desoreka gehiago agertu ziren; hala nola, presio inflazionistak, hazkunde motela, langabezia, biztanleria kopuru handiak baztertzea eta kanpo-zorra handitzea. Horrekin guztiarekin batera, azkenean, agortzen hasi zen kontsumo-ondasunen inportazioen ordezkapen-prozesua.

Halaber, 1940tik 1965era garaturiko estrategia ekonomiko horien bereizgarri mesedegarrien artean, honako hauek aipa genitzake:

- Brasil, Txile, Mexiko, Argentina eta Uruguai herrialdeetan lorturiko produkzioaren aniztasun erlatiboa.
- 1950eko hamarkadan, ekonomia horien batez besteko urteroko hazkunde-tasa % 4,5 ingurukoa izan zen (dena den, apalagoa zen per capita hazkundera).

Edonola ere, askoz ere nabariagoak ziren ezaugarri negatiboak; hala nola:

- Lorturiko industrializazio-maila urria zen, oro har, abiapuntua eskasa baitzen.
- Benetako industria-politika falta zen; inportazioen ordezkapena bilatu zen inondik inora, kostuak kontuan hartu gabe eta, funtsean, egoeraren araberako neurrien bidez.
- Agerian zegoen nekazaritza-sektore modernorik eza, iraganaren zama jasaten baitzuten artean; esaterako, lurraren ustiapen estentsiboa, lur-jabeen absentismoa, nekazaritza-erreformaren falta, latifundioen oparotasuna, landatik hirietarako emigrazioa edo hirien periferietan txabolismoa zabaltzea.
- Errentaren banaketa ezberdina eta klase ertainaren gabezia.
- Azpiegitura egokirik eza. Dakigunez, garraio-sarea aldeztu aurretik eraiki zen, soilik oinarrizko esportazioak bideratzeko asmoz.
- Zerbitzu-sektorearen antolaketa txarra, sailkatzeko zailak ziren askotariko jardueren bidez, hain zuzen ere. Sektorere horren bereizgarriak izan ziren: azpienplegua, langabezia estalia, eta hirugarren sektorea asetzeari, hirien marjinazio-prozesua handitzearekin batera.
- Lurraldeen arteko desoreka, hirigune handietan industriak kokatzearen ondorioz.
- Ekoizpen-baliabide egokien gabezia: eskulan aditua, teknologia konplexua eta kapital asko behar zituzten moldaturiko industrializazio-ereduek; hain zuzen ere, faktore horiek eskasak ziren Latinoamerikan. Gainera, kontsumo-ondasun iraunkorrak ekoizteari ekin zioten, Mendebaldean dauden produktuen antzera, konplexutasun handiko industria-plantak eraikiz; merkatuen tamaina baino askoz ere handiagoa izan zen planta horien ekoizpen-ahalmena.
- Nazioarte-mailako lehiarik eza. Horrela, lehiakortasun-maila handitzeko asmoz, kanpoko teknologia inportatzen ahalegindu ziren. Baina, bide horretatik, barneko aurrezki-ahalmenaren gaintik zegoen gehiegizko kapitalizaziorako ahalegina gauzatu behar zen. Horren ondorioz, azkenean, kanpo-zorra izugarri handitu zen. Kanpo-zorrek bistan utzi zuen mendekotasun ekonomiko mota berri bat eta, bidenabar, baita azpigarapenaren egitura luzatzea ere.

### **3.3. Ekipamendu-ondasunen inportazioen ordezkapen-politika**

Oro har, 1960ko hamarkadaren erdialdean koka daiteke industrializaziorako estrategia berri baten hasiera; orduko hartan, ekipamendu-ondasunen inportazioa saihestera bideratu zen.

Urrats horren nolakotasun mesedegarriak, besteak beste, honako hauek izan ziren:

- 1960tik 1973ra bitartean, BPGren batez besteko hazkundera % 5 ingurukoa zen (jakina, ezberdintasun nabariak zeuden herrialdeen artean). Hala ere, biztanleriaren hazkundera zela-eta (% 3 inguru, urtero), nabarmen moteldu zen per capita hazkundera.
- Kapitalizazioa eta inbertsioa nabarmen gehitu ziren, batez ere ekipamendu-ondasunaren arloan.

Dena den, berriro ere bistan geratu ziren hainbat arazo kaltegarri; hala nola, lurraldeen arteko desorekak edo kanpoarekiko finantza- eta teknologia-mendekotasuna; horren ondorioz, kanpo-zorra handitu egin zen.

Geroago, 1973tik aurrera, krisi ekonomikoaren ondorioz, beste arazo tamalgarri batzuk agertu ziren; besteak beste, esportazioen, inportazioen eta barne-kontsumoaren jaitsiera. Aldi berean, inflazioa handitu egin zen eta, funtsean, moteltzen joan zen aurreko susperraldia.

1970eko hamarkadako krisiak era ezberdinean eragin zien Latinoamerikako herrialdeei, eta gehiago eragin zuen lurraldeen arteko desorekan. Orduan, aldea handitu egin zen petrolioaren herrialde esportatzaileen (Venezuela, Bolivia edo Ekuador —Mexikok artean hazkunde txikiagoa zuen—) eta gainerakoen artean eta, oro har, urriagoa izan zen azken horien garapena.

Orain arte ikusitakoarekin batera, kanpo-zorra gehiegi haztea izan zen beste arazo larri bat. Arazo horrek esparru ekonomikoa gaingitu zuen, arlo sozialera eta politikora ailegatu baitzen.

Halaber, inflazioa gehitzea izan zen Latinoamerikako herrialdeen beste arazo sakon bat. inflazio-mailak ez dira izan erlatiboki oso altuak Afrikako eta Asiako kontinenteen kasuan. Latinoamerikan, ordea, XX. mendearen azken hamarkadetan zorigaiztoko ildo inflazionistak eta hiperinflazioak jasan zituzten; 1923an Alemanian nozitutakoa gogorarazten zuen horrek.

1950eko eta 1960ko hamarkadetatik aurrera, inflazioaren arazoa agertzen hasi zen Latinoamerikako herrialde gehienetan, beste zenbait arazorekin batera; hala nola, aipaturiko lurraldeen desorekak, nazioarte-mailan interes-tasa gehitzea, populismo politikoarekin bat zetorren estatuaren gehiegizko parte-hartzea, eta abar. Dena dela, 1973tik aurrera agertu zen inflazioa erabateko intentsitatearekin, munduko krisiarekin batera. Batez ere, *Hegoaldeko konoa* delakoaren herrialdeak kaltetu ziren (Argentina, Uruguai eta Txile). Geroxeago, beste herrialde batzuetara zabaldu zen inflazioaren arazoa (besteak beste, Brasil, Kolonbia, Mexiko eta Peru), orduan industrializazio-prozesuan sartuta zeudenetara. Bien bitartean, inflazio askoz urriagoa nozitu zuten lehengaien eta nekazaritza-produktuen herrialde esportatzaileek.

1970eko hamarkadako latinoamerikar inflazioaren munta benetan larria bazen ere, txarrena hurrengo hamarkadan helduko zen. Geldotzea eta inflazioa oso

ezagunak izan ziren Latinoamerikan 1980ko hamarkadan. Krisialdi horren gailurra, gainera, ikuspegi politiko batetik, erregimen demokratikoak berrezartzearekin batera agertu zen hainbat herrialdetan. Kasu askotan, aurreko urrats politiko autoritarioek — 70eko hamarkadan kontinentean zehar garaturiko diktadorek, alegia— zama korapilatsua utzi zieten gobernu berri demokratikoei.

Halaber, ekonomiaren arazo horiek gainditzeko asmoz, NDFk aholkaturiko egonkortze-neurri gogorak hartzen hasi ziren, deflazio-politikak pizten, ekonomiak hozteko asmotan. Era hartan, bai interes-tasa gehitzeari, bai gastu publikoa eta diru-masa murrizteari ekin zieten; hala ere, kostu politiko oso handia izan dute neurri horiek.

## **4. ASIako hego-ekialdeko historia ekonomikoa**

### **4.1. Aurkezpena**

Historian zehar, eragin ugari jaso ditu lurralde horrek; hala nola, hindua, islamiarra eta europarra.

Europarrekin izandako harremanen arrazoia espezieen bilaketa izan zen, Sonda, Molukak, Celebeak eta beste hainbat uhartetan. Lehenengo harremanetan portugaldar eta espainiar merkatariek eta marinelak aritu ziren; gero holandarrak, britainiarrak eta frantziarrak, eta kasu horietan Ekialdeko Indietako Konpainien agenteak ziren.

Geroago, XIX. eta XX. mendeetan zehar, AEBren eta Japoniaren zabalkundea izan zen lurralde horietan, halaber (azkenean, bi potentzia horiek aurkariak izan ziren Bigarren Mundu Gerran). Aldi berean, murrizten joan zen aurreko europar metropolien eragina.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Gerra Hotzaren testuinguruan, elkarren aurka borrokan ari ziren bi motatako eraginaren agertokia izan zen lurralde hori: alde batetik, sozialismoa (txinatarra zein sobietarra) eta, beste alde batetik, kapitalismoa (estatubatuarra zein japoniarra).

Halaber, Bigarren Mundu Gerraren ostean, hainbat lurralderen independentzia politikoa heldu zen. Besteak beste, Indonesia, Filipinak, Malaysia edo Indotxinako kasuak izan ziren. 1965ean Singapur Malaysiatik aldendu zen, eta estatu independente bilakatu.

#### **4.2. Asiako hego-ekialdea industria-iraultza bitartean**

1869. urtean Suezko kanala irekitzeak Asiako lurraldeen hurbiltasuna ahalbidetu zuen itsas garraioaren esparruan, eta Ekialde Urruneko ekonomiak suspertu zituen nazioarte-mailan.

Aro Garaikidean, Mendebaldean gauzatutako industria iraultza izan zen garrantzizko beste ezaugarri bat lurralde horrentzat; izan ere, geroztik mendebaldarrek gero eta lehengai gehiago behar zuten, ordura arte ez bezalako kopuruetan.

Gainera, Ipar Amerikan, Latinoamerikan edo Hego Afrikan koloniek independentzia lortzen bazuten ere, Asian eta Afrikan sendotu egin zen europar kolonizazioa XIX. mendean zehar.

Testuinguru hartan, Hego-ekialde Urrunean merkataritza-akordio sorta bat sinatu zen Mendebaldeko potentzia batzuekin, hala nola Britainia Handia, AEB, Frantzia eta Herbehereekin, gehienez, lurren emakiden bidez. Dena den, mendebaldartze-prozesua eskasa izan zen lurralde horietan.

Hala ere, hainbat azpiegitura egiten joan ziren (itsas portuak edo trenbideak, esaterako), eta ekoizpen-guneak kostaldearekin lotzen. Azpiegitura horiek aproposak ziren oinarrizko ohiko produktuak —arroza, azukrea, kafea, tabakoa, tea, eta abar— eta ustiapen masiboko produktu berriak ere esportatzeko —besteak beste, kautxoa, eztainua edo petrolio—. Hots, plantazio-sisteman eta meatzaritzan oinarritu zen ekonomia gehiena.

Era horretan, lurralde horien ekonomiaren modernizazio erlatiboari ekin ahala, ohiko gizartea kaltetzen joan zen. Testuinguru hartan, anitz hedatu ziren mugimendu nazionalista-independentista eta sozialista.

Beste alde batetik, 1930eko krisiak lurralde horiek kaltetu zituen, jakien, lehengaien eta esportaziorako mineralen prezioak jaitsi zirelako.

#### **4.3. Asiako hego-ekialdearen hazkundearen ezaugarriak Bigarren Mundu Gerraren ondoren**

Hasiera batean, Bigarren Mundu Gerraren ostean inportazioen ordezkapenaren politikari ekin zioten, industria arinean batik bat. Geroago, 1960ko eta 70eko hamarkaden hasieran, esportaziora bideratu zen jarduera hori.

Jarduera horren garapenak indize ekonomiko altuak sortu zituen zona horretan, aurrekaririk gabe. Horrela, adibidez, 1969tik 1973ra bitartean, BPGren hazkunde-tasa % 7koa izan zen urtero.

Oro har, 1960ko hamarkadatik aurrera Asiako hego-ekialdean izandako ezaugarri orokor batzuk aipa genitzake; besteak beste:

- Gehienetan, ekonomia horiek ez ziren osagarriak elkarren artean, lehiakideak baizik. Hots, garrantzi gutxikoa zen elkarren artean bideraturiko merkataritza. Maiz, euren kanpo-merkataritza herrialde garatuetara bideratu zen, *erdigunera*, *zentrorra* edo *Lehen Mundu* delakora.

- Landa-eremutik eskulan ugari abiatu zen hirietara; egoera horrek arazoak sortu zituen hirigintzan, prestakuntza sozialak oztopatu ziren eta, oro har, bizi-mailaren kalitatea kaltetu zen.

- Kuantifikatzeko eta sailkatzeko oso zaila den hirugarren sektorea hedatu zen, biztanle langabetuen sasi-babes bilakatu zena eta ekonomiaren benetako beharrezanaren gainetik kokaturik zegoena.

- Bistan dago ekonomia horien bitasuna; ohiko nekazaritza-sektorearekin batera, industriagintza modernoa nabaritzen da hirietan.

- Sektore nagusietan agerian daude atzerriko kontrola eta, aldi berean, tokiko finantza-baliabideen eta teknikoen gabezia. Aintzat hartu behar dugu, gehienetan, herrialde horiek errentagarritasun handia ematen dietela kanpoko inbestitzaileei. Horren arrazoiak dira, besteak beste, baliabide naturalen ugaritasuna, eskulan merkearen erabilgarritasuna, muga-zergaren babes altua, barne-ekonomiaren garapen azkarra, eta ekonomia- eta politika-esparruetan gobernuek harturiko hainbat berme eta konpromiso.

- Eskariaren eta merkatuen alorretan, bistan dago kanpoarekiko mendekotasuna. Herrialde horien bezero nagusiak dira Japonia, AEB eta Mendebaldeko Europako aurreko metropoliak.

- Bitxia bada ere, herrialde horietan elkarrekin joan dira, alde batetik, BPGren hazkunde nabaria eta, beste alde batetik, gehiegizkoa ez den prezioen igoera. Horren ondorioz, neurrizko inflazio-indizeei eusten diete.

- 1970eko hamarkadatik aurrera, aldaketa asko izan ziren herrialde horien kanpo-merkataritzaren egituran. Esportazioei zegokienez, apurka-apurka murrizten joan ziren lehengai sortak; adibidez, kautxoa, kokoa, palma-olioa, piperrautsa eta antzeko espeziak, basoko produktuak eta eztainuaren esportazioen kasua izan zen. Esportazio mota horiek garrantzitsuak izaten jarraitzen badute ere, galtzen joan dira munta erlatiboa, batez ere, esportazioen munta balio erantsi handiagoarekin handitzen delako; esaterako, ekoizpen kimikoa, tresneria, manufaktura arina, elektronikak, oihalak, eta abar. Funtsean, hego-ekialdeko ekonomia horiek politika hedakorra eta agresiboa garatzen hasi ziren kanpo-merkataritzaren esparruan, XX. mendearen azken hamarkadetan. Zenbait abantailatan oinarritu da kanpo-politika hori; hala nola, maila

ertainako teknologiaren erabilera edo eskulan merkearen enplegua (*dumping* soziala, alegia). Kanpo-politika ekonomiko hori puntako sektorea izan da Asiako hego-ekialdeko ekonomiak garatzeko orduan.

## **5. AFRIKAKO historia ekonomiko garaikidea**

### **5.1. Aurkezpena**

Historian zehar, europarrak Afrikara heldu aurretik, ugari izan dira kontinente horren kultura- eta ekonomia-garapenaren adibideak; kontinentearen egungo egoera tamalgarriarekin parekatzen baditugu, askoz ere onuragarriagoak izan ziren.

Honako hauek dira Afrikak izandako garapenaren adibide historiko batzuk:

- Olduvai-ko —gaurko Tanzania aldea— historiaurrea.
- Antzinaroan, Egiptoko eta Niloko kultura aberatsa.
- Kartagoko kultura, gaurko Tunisia aldean.
- Saharako basamortua, non berbere- edo tuareg-kultura garatu baitzen, abeltzaintza eta karabanen merkataritza.
- Aipagarriak dira, halaber, islama (jatorrizko arabiar penintsulako beduinoak) eta haren zabalera Magreb (Afrikako Mediterraneo) lurraldean barrena. Inguru hartan biziki suspertu ziren kultura eta merkataritza-jarduera.

Aro Modernotik aurrera, harreman estuagoak garatu ziren europarren eta afrikarren artean. Hala eta guztiz ere, oro har, harremana itsasertzeko zenbait lekutara mugatu zen, artean barneko lurraldeak kolonizatu gabe.

Honako hauek ditugu europarren eta afrikarren arteko harreman horren zenbait adibide:

- Portugalen zabalkundea; Afrikako Atlantikoko kostaldea inguratuz, espeziatara Indietara joateko bide alternatiboa bilatzen saiatu zirena.
- Gaztelaren hedakuntza Iparraldeko Afrikan zehar, Iberiar penintsulako Errekonkista amaitu ondoren.
- Batez ere britainiarrek bultzatuta, esklabu-merkataritza garatu zen. Ekintza lotsagarri horrek izaera triangeluarra izan zuen, Amerikako plantazio-ekonomiak eskulan merkez hornitzeko asmoz.

XIX. mendearen azkenaldera, Europako eraginaren beste arrasto bat izan zen Afrikan. Orduko hartan, *Afrikaren banaketa* izena hartu zuen, Europako kolonialismoaren fase berriaren testuinguruan. Britainia Handiak, Frantziak, Belgikak, Alemaniak eta beste zenbait potentziek, lurralde berrien subiranotasuna eskuratzeko

eta lehengaien eta mineralen hornidura lortzeko asmoz, gogor ekin zioten lasterketa kolonialari, eta, kostaldean ez ezik, kontinentearen barnealdean ere kokatu ziren azkenean.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren (eta, are zehatzago, 1960ko hamarkadaren ondoren), ideologia independentisten ondorioz, Afrikako kolonia gehienetan hasiera eman zioten euren Europako metropoliengandik emantzipatzeko prozesuari. Testuinguru hartan sortu zen Afrikar Batasunerako Erakundea (OUA).

Afrikako kolonien independentziaren ondoren, ordea, neokolonialismoa agertu zen. Prozesu hartan, Europako metropoliak ez zieten eusten jadanik subiranotasun politikoari eta kontrol zuzenari, zeharkako kontrolari baizik. Baina, zeharkako kontrol horren bidez, handitu egin zen Europarekiko Afrikaren mendekotasun ekonomikoa eta finantzarioa. Are gehiago, AEBren eraginak laster Europakoa gainditu zuen Afrikan zehar.

Beste aldetik, ekonomia-mendekotasunaz gain, arazo askori egin behar izan zieten aurre independentziaren ondoren Afrikan eratu ziren herrialde berriek; hala nola, gobernu askoren egoera politiko ezegonkorrari, etnien arteko zorigaiztoko liskar ugari, edota baldintza ekonomiko tamalgarri.

## **5.2. Lurraldeen arteko ezberdintasunak**

Gaur egungo munduan, ikuspegi ekonomiko baten arabera, Afrikan hiru lurralde bereiz genitzake: Mediterraneoko Afrika, Afrika Beltza eta Hegoaldeko Afrika.

### a) Mediterraneo aldeko Afrika (Afrika musulmana)

- Kontinentearen iparraldea da: Maroko, Aljeria, Tunis, Libia eta Egipto (hemen sar daitezke beste estatu musulmanak ere; hala nola, Mauritania, Txad edo Sudan).
- Mundu arabiarrekin lotzen da esparru hori: Ekialde Hurbilarekin eta Asiarekin; Afrikako kontinentearen mugak gainditzen ditu.
- Lurralde hori berandu sartu zen munduko sistema kapitalistan, XIX. mendearen bigarren alditik aurrera, hain zuzen.
- Arestian, mugimendu musulmanak eta nazionalistak agertu dira herrialde horietan. Ideologia-zama handiz, Koranaren muturreko hastapenetara itzuli nahi dute. Islamiar mugimendu horien ezaugarriak dira, halaber, antilaizismo erradikala eta Mendebaldeko munduarekiko muturreko aurkakotasuna.
- Oro har, azpigaratuta dago lurralde hori. Dena dela, Afrika tropikalaren parean, jarduera ekonomiko dinamikoagoa du.



#### b) Afrika Beltza (Afrika tropikala)

- Munduko ekonomia-sisteman berandu eta gutxi integratutako lurraldea da.
- Kolonizazioa, harraparia izateaz gain, hasiera batean Mendebaldeko baldintzetara moldatzeko prest ez zegoen biztanleriaren gainean ezarri zen.
- Nahiz eta aldaketa asko izan 1960ko hamarkadako deskolonizazioaren ondoren, oraindik iraganeko aztarna askori eusten diote.
- Halaber, klase ertainaren eta enpresaburuen gabezia nabaria da Afrika tropikalean.
- Garapen-maila oso baxua da. Eguneroko arazoak dira pobrezia, desberdintasun soziala, analfabetismoa, gaixotasunak, heriotza-tasa altua, teknologia- eta finantza-mendekotasuna, eta abar.
- Hala eta guztiz ere, eta atzerapena badago ere, dinamismo zertxobait antzeman da, batez ere BPGren hazkundean, esportazio-arloan eta atzerriko inbestitzeetan. Dena dela, era horretan are gehiago kaltetu da nekazaritzaren esparrua, subsistentziako ohiko nekazaritza baztertu eta hirietara emigrazio handia sortu delako.

#### d) Hego Afrika

- Gutxi gorabehera, lurralde horiek klima epela daukate. Horrek Europako biztanle asko erakarri zituen bertara (batez ere, britainiarrak eta holandarrak), XIX. mendearen azkenaldiko kolonizaziora bitartean.
- Europar jatorriko biztanleria nagusitzeak lurralde horietako populazio zulua eta beltza baztertzea eragin zuen, *apartheid* izenekoaren pean.
- Beren ekonomia-egituraren eta garapenerako indizeen arabera, garatutzat har daitezke herrialde horiek.
- Dena dela, Afrika tropikalaren antzera, hemen ere bazterketa, desoreka eta ezberdintasuna dira nagusi. Horrela, adibidez, ez dira ezabatu etnia- eta gizarte-diskriminazioaren aztarna guztiak, ezta errentaren zorigaitzoko banaketarenak ere.

### **5.3. Afrikako arestiko historia ekonomikoaren ezaugarri orokorrak**

Asiako eta Latinoamerikako lurralde askorekin batera, Afrika ere azpigaraturiko periferia horren parte da. Bere ekonomiaren bilakaera, hein handi batean, kanpotik erabakita dator, eta bazterrean geratzen da munduko ekonomia-egituraren esparruan.

Afrikako ekonomiak lehengaien eta oinarritzko gaien ekoizle dira, soil-soilik.

Nazioarteko lanaren banaketa dela-eta, herrialde horiei, gehienez, industria-ekoizpen tradizionalak dagozkie, oihalgintzan oinarrituta edo, gehienez, meatzaritzan eta burdingintzan; hots, gutxi kualifikaturiko lanaren bidez garaturiko ekoizpenak.

Trukeak, gehienetan, Mendebaldeko esparruarekin egiten dira; Afrikako herrialdeen artean egindako merkataritza, ordea, eskasa da. Era horretan, herrialde horien merkataritza osoaren % 5 inguru besterik ez da Afrikaren barneko merkataritza.

Nabaria da finantziazioaren eta teknologiaren ahulezia, Lehen Munduarekiko mendekotasun-maila handitzeko aproposa.

Edonola ere, bistan daude barneko berezitasunak: zenbait herrialdetan — Hegoafrikako Errepublikaren kasuan— handiagoa da per capita errenta; beste batzuetan, ordea, —Burundiko, Etiopiako, Senegaleko edo Somaliako kasuak, besteak beste— bistan dago pobrezia.

Gainera, Afrikako gizarte tradizionalak zituzten zenbait ezaugarri mesedegarri (bizi-kalitatearekin loturikoak) desagertzen joan ziren hirigintza zabaldu ahala. Horiek izan ziren, adibidez, autokontsumoaren eta komunitate txikien elkarkidetzaren kasuak.

Ongizatearen adierazleei dagokionez, gabezia agerian dago. Horrela, gaixotasunak zabaltzea, sendagaien falta, desnutrizioa eta analfabetismoa hedatzea nagusitzen dira askotan.

Bizi-mailari dagokionez, beraz, goibela da Afrikako etorkizun hurbila. Are gehiago, azken urteotako biztanleriaren hazkundeak larritu egiten ditu arazo horiek.

Beste alde batetik, agerian dago Afrikako natura-baliabideen aberastasuna. Mendebaldeko potentziek harraparitza hazkorrak egin arren, askotan, baliabide asko ustiatu gabe daude oraindik. Horrela, munduko gainerako kontinenteen parean Afrikako ekonomiaren pisua txikia bada ere, aberastasun potentzial handia du, oraindik baliabide asko ustiatu gabe daudelako.

Gizarte-egiturari dagokionez, biztanle gehienak lehen eta hirugarren sektoreetan enplegatzen dira. Azken urteotan, azkar ari da hazten industria-jarduera.

Afrikako ekoizpen nagusiak lehenengo sektorean daude; hala nola, elikagaiak (kakaoa, kafea, palma- eta kakahuete-olioa, artoa, eta abar), mineralak (bauxita, burdina, kromoa, manganesoa, urrea, eta abar), lehengaiak (kotoia eta antzekoak).

Industria-ekoizpenari dagokionez, eta beti sektore horren gabezia kontuan hartuz, esan behar da ekoizpena handitu egin dela 1960ko hamarkadatik aurrera. Gorakada horri industria-politika batzuek lagundu diote, gehienetan eskulan merkean eta aditasun-maila baxuko produkzioetan oinarriturikoek.

Ekonomia horien beste ezaugarri bat da garraiobideen azpiegituraren ahulezia. Jakina, garraio-sistema eskasa eta kalitate baxukoa da; barne-merkatuen integrazioari ez dio laguntzen eta, azken batean, oztopo latza da garapenerako. Garraio-sarea aurreko metropolien beharizanen arabera eratu zen, eta aro kolonialean zuen hasiera. Bere helburu behinena izan zen produkzio-guneak itsas portuekin trenbidez lotzea,

soil-soilik. Gainera, trenbide gehienak lurralde bakarrean eraiki ziren, Hegoafrikan, hain zuzen ere; gainerako aldeak ia hornitu gabe geratu ziren.

Funtsean, gurpil zoro batez ari gara. Ez dago garraio egokirik, aurrezkirik ez dagoelako; eta ez dago aurrezkirik, ekonomia integratuta ez dagoelako; eta ekonomia integratuta egoteko, beharko lirateke garraiorako gutxieneko baldintza batzuk.

Afrikako ekonomiaren beste ohiko ezaugarri bat eskariaren tamaina urria da. Horren arrazoiak dira biztanleriaren eros-ahalmen txikia eta merkatu osaturik eza. Horren guztiaren ondorioz, orokorra da buruaskitasuna.

Azken boladan, sektore publikoak susperturik, barne-eskarian izan dira zenbait igoera, inbertsioen eta lan publikoen programak garatzen diren neurrian.

#### 5.4. Kanpoarekiko mendekotasuna

Afrikako produktuen eskariaren gehiena kanpo-merkataritzaren sektorean badago ere, mundu-mailan oso urria zen jarduera hori XX. mendearen azkenaldian (% 5). Gainera, deskolonizazioaren aurretik, txikiagoak izan ziren truke horiek.

Merkataritzaren egiturari dagokionez, lehengaien eta petrolioaren esportazioek osatzen dute ia balio guztia. Adibidez, Aljeria, Libia edo Nigeria dira petrolioaren esportatzaile garrantzitsuak. Inportazioei dagokienez, industria-produktua da bere balioaren % 75 inguru.

Merkataritza horren beste ezaugarri bat dugu ordainketa-balantzaren ohiko defizita. Dena den, Afrikako herrialdeek beste kontinenteetakoak baino inbertsio urriagoak jasotzen dituzte. Horregatik, beren zorpetze-maila ere ez da, adibidez, Latinoamerikako herrialdeena bezain handia.

Afrikako atzerapen ekonomikoaren beste arrazoi bat da esportazio-jarduera ia bakarrik lehengaietan oinarrituta egotea. Horrela, tradizionalki, bederatzi produktuk bakarrik osatu ohi dute esportazioen % 80. Sail horiek dira: azukrea, burdingaia, egurra, fosfatoak, kakaoa, kafea, kobrea, kotoia eta petrolio. Hots, *monoesportazioa* arazo larria da Afrikako herrialde askotan.

Hala eta guztiz ere, baliteke orokorregiak izatea Afrikari buruz emandako ezaugarri horiek; dakigunez, garapen-maila altuagoa den zenbait herrialdetan — Hegoafrikaren kasuan, besteak beste— beste ezaugarri batzuk ere erakusten dira.

Oro har, Bigarren Mundu Gerraren ondorenetik 1960ko hamarkadara bitartean garatu zen Afrikako kanpo-merkataritza. Horren arrazoiak askotarikoak ziren; hala nola: a) herrialde askoren independentzia eta haien ahalegina ekonomia modernizatzeko; b) 1950eko hamarkadaren erdialdean, Koreako Gerra zela-eta, nazioartean izandako lehengaien prezioen igoera.

Hala ere, 1970eko hamarkadako krisialdiaren ondorioz, Mendebaldeko herrialde garatuetan nozitutako inflazioa zela-eta, truke-erlazioa narriatu egin zen Afrikarentzat. Egoera hark isla izan zuen Afrikako herrialdeetan, inportazioak egiterakoan prezio altuagoak ordaindu behar zituztelako.

## IX. gaia. GLOBALIZAZIOA ETA XXI. MENDEKO ERRONKAK

### 1. Globalizazioa

Mundu mailako ekonomia-, teknologia-, gizarte- eta kultura-prozesua da globalizazioa. Geroz eta handiago den munduko herrialdeen arteko interdependentzia eta komunikazioan datza; horren arabera, bateratzen ari dira herrialdeen merkatuak, gizarteak eta kulturak, eta denak izaera globala garatzen ari dira.

Globalizazioa prozesu dinamikotzat hartzen da, eta bereziki gizarte kapitalista demokratikoetan sortzen eta garatzen da. Herrialde horietan aurrerapen nabarmenak eman dira giza loturan (garraioa eta telekomunikabideak); horrek pertsonen joan-etorri askea erraztu du eta IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) eta Internet masifikatu ditu.

Ekonomia arloan, globalizazioak ekartzen du tokiko ekonomiak (nazionalak) mundu mailako merkatu-ekonomian bateratzea, non produkzio moduak eta kapitalen mugimenduak planeta-escalan eratzen baitira (Ekonomia Berria). Inguru horretan, garrantzi handiagoa jasotzen dute enpresa multinazionalen rola, kapitalen eraman-ekarri askeak eta kontsumo-gizartearen behin betiko ezarpenak. Liberalizazioaren helburua nagusitzen da estatuen ordenamendu juridikoetan eta nazioarteko harremanetan.

*Ekonomia Berria* terminoa erabiltzen da herrialde garatuek 1990etik aurrera izan duten ekonomia-bilakaera deskribatzeko, hau da, Gerra Hotzaren bukaeratik eta komunista-blokearen amaieratik gaur egun arte. 1990eko hamarkadan zehar, ekonomiaren oinarria fabrikaziotik eta industriatik Internetera eta ezagupenera aldatu zuten herrialde garatuek eta garapen bidean zeuden aurreratuenek; horrela, hazkunde iraunkorreko eta produktibitatearen hobekuntzako zikloan sartu ziren. Ekonomiaren joera horren ezaugarri da I+G+B (Ikerkuntza, Garapena, eta Berrikuntza) esparruan eman den bultzada, helburu hauekin: lan-kostuak murriztea, energia-eraginkortasuna hobetzea, informazio- eta kudeaketa-prozesuak merkatzea eta transakzio-kostuak gutxitzea.

Globalizazioaren baiezkotza edo ezezkotza balorazioa egiten da ideologiaren arabera: sektore batzuek gogotsu hartu dute eta beste batzuk gogor jarri dira kontra (globalizazioaren aurkako mugimenduak).

### 1.1. Globalizazioaren egitateak

Munduko herrialdeen arteko interdependentzia islatzen duten gertaerak, aldi berean globalizazioa zehazten dutenak, hauek dira:

#### a) Washingtoneko adostasuna

1989ko azaroan, John Williansom estatubatuar ekonomilariak «What Washington Means by Policy Reform» izeneko dokumentua aurkeztu zuen, *Institute for International Economics* erakundearen eman zuen hitzaldian (bertako kidea zen).

Dokumentuak jasotzen du Washingtonen egoitza duten talde ekonomikoek (Estatu Batuetako Gobernua, NDF, Mundu Bankua, baita GATT ere) Latinoamerikako herrialdeen hazkundera sustatzeko ekonomia-programa gisa orokorki onartzen zuten hamar politiken zerrenda. Egia esan, 1990eko hamarkadan zehar, nazioarteko finantza-erakundeek (NDF, Mundu Bankua, MME) politika horiek gomendatu zizkieten euren ekonomiak indartu behar zituzten herrialde guztiei. Askoren ustez, zerrendak globalizazioaren oinarritzko ideiak jasotzen ditu, ordea, ez dira gauza berdinak. Hauek dira hamar politika horiek, 1980ko hamarkadako neoliberalismoan onartutakoen berdintsuak:

- zerga-diziplina
- gastu publikoaren lehentasunen berrantolaketa
- zerga-sistemaren erreforma
- interes-tipoen liberalizazioa
- aldaketa-tipo lehiakorra
- nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa
- zuzeneko atzerritar inbertsioen sarreraren liberalizazioa
- pribatizazioa
- desarauketa
- jabego-eskubideak

#### b) Mundu Merkataritzaren Erakundearen sorrera, 1995ean

GATT gaudituz, NDFko eta Mundu Bankuko estatu kide gehienak batzen ditu Mundu Merkataritzaren Erakundeak, zuzenenean (kide gisa) edo zeharka (elkartu gisa). Salgaien, zerbitzuen eta ideien merkataritzaren liberalizazioa sustatzen du erakundeak; hala eta guztiz ere, kontuan hartzen du herrialde txiroenentzako beharrezko laguntza ere.

Askoren ustez, nazioarteko finantza-erakunde horiek (MME, NDF eta Mundu Bankua) 1990eko hamarkadan jokatu duten paperak (baita gaur egun ere) globalizazioaren sustatzaile bihurtu ditu (onerako zein txarrerako).

#### d) Krisialdi ekonomikoak

Kapitalen eraman-ekarri askea orokortzeak eta hartu duen abiadurak ekarri du dirua estatuen artean azkartasun eta erraztasun osoz sartzea eta irtetea. Ordea, aldi berean, tokiko ekonomia- eta finantza-krisiek eragin globala izatea ere ahalbidetu du. Horrela, tokiko arrazoi zehatzengatik herrialde batean sortzen den krisialdia, merkatuen interdependentzia dela medio, beste herrialdeetara zabaltzen da, eta, kasu batzuetan, mundu mailako krisialdi izatera heltzen da.

1990eko hamarkadan zehar, hauek izan ziren tokiko arrazoiengatik sortu baina eragin zabala izatera heldu ziren krisialdiak:

- Mexikoko krisialdia, 1994/1995ean: *Tekila efektua* izena jaso zuen hura sortu zuen eragin globalak.
- Asiako hego-ekialdeko krisialdia, 1995/1997an: *Dragoi efektua*.
- Errusiako efektua, 1998an: *Vodka efektua*.
- Brasileko krisialdia, 1998/1999an: *Sanba efektua*.
- Argentinako krisialdia, 2001/2002an: *Tango efektua*.

#### e) Ekonomia-bateratze prozesuak

1990eko hamarkadan zehar, eskualde esparruko lankidetzak eta bateratze-prozesu asko sustatu eta garatu ziren. Horrela, Europako Erkidegoak bateratzean sakondu eta Europar Batasuna sortu zen, Andeetako Hitzarmenak ere aurrerapauso garrantzitsua eman zuen eta Andeetako Erkidegoa sortu zen, eta ASEANek bere helburuak berriztatu zituen lankidetzak ekonomikoak sustatzeko.

Bestalde, ekonomia-lankidetzak helburu gisa zuten erakunde berriak sortu ziren, hala nola, NAFTA; baita bateratzeraino heldu nahi duten erakundeak ere, adibidez, MERCOSUR.

#### f) Txinaren sarrera MMEn, 2001ean

1980ko hamarkadan martxan jarritako merkatu-sozialismoa garatu zuen Txinak 1990eko hamarkadan zehar. Txinak, sistema politiko komunistarekin batera, egitura ekonomiko kapitalista bat eratu du; azken horrek 2001ean MMEko kide bihurtzea ahalbidetu zion. Horrela, munduko merkatura guztiz batu zen munduko herrialderik biztanletsuena (gizateriaren % 22), bosgarren ekonomia eta azken 30 urteotan hazkunde handiena duena.

Aditu gehienen arabera, Txina eta herrialde horrek Asian duen nagusitasuna **ari dira sustatzen** XXI. mendean zehar globalizazioaren norabidean eragin nabarmena izango duen prozesu historikoa.

Bestalde, kontuan hartzekoa da Errusia 2012an MMEn sartu zela ere. SESB desegin zenetik, Errusia merkatuen liberalizazioaren aurka agertu da askotan, MMEren erabakiak gogor kritikatu. Ordea, azken urteotan jarrera aldatu du eta, mesfidantza asko agertu baditu ere, MMEko kide egin da. Horrela, munduko ekonomia nazional nagusiak (guztiz garatuak eta garapen bidean dauden aurreratuenak) MMEko kideak dira, eta globalki legitimatzen dituzte erakundearen helburuak («librekanbioaren aurrean ez dago aukerarik»).

#### g) 2001eko irailaren 11ko atentatuak

Eragin globala izan zuten Osama Ben Ladem-ek gidatutako Al-Qaeda terrorista taldeak New Yorkeko World Trade Center-en aurka eta Washingtoneko Pentagonoaren aurka egindako atentatuak –munduko telebista kate guztietan zuzenean ikusi ahal izan zenak–. Une hartatik aurrera, nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokak eta segurtasun nazionalaren babesak (Estatu Batuenak, bereziki) funtsezko garrantzia jaso zuten agenda globalean, eta giza eskubideen murriztapena ere eskatu da segurtasuna bermatzeko. Horrek guztiak eragin zuzena izan du nazioarteko harreman ekonomikoetan.

## **1.2. Globalizazioaren ondorio kaltegarriak**

### a) Azpigarapenaren arazoak

Estatuen arteko lankidetzaren helburu nagusietakoa da herrialde txiroei laguntza ematea, eta helburu horrekin sortu zen Nazio Batuen Erakundea. Egia esan, Nazio Batuen programa askok munduko txirotasuna murriztu nahi izan dute, eta horretarako sustatu dute gizarte-, ekonomia- eta politika-atzerapen egoeran dauden herrialdeen hazkundea. Erakundearen ekintzak herrialde horien egoera hobetzea ekarri zuen 1970eko hamarkadan zehar.

Ordea, 1990eko hamarkadan, moteldu egin zen herrialde azpigaratuen hazkundea eta orain dela hamabost urte zutena baino txarragoa da askoren egungo egoera:

- 2003ko Nazio Batuen Garapenerako Programaren Giza Garapenari buruzko Txostenak frogatu zuen 50 herrialde 1990ean baino txiroagoak direla XXI. mendearan hasieran. Horren arrazoi nagusiak bi dira: herrialde garatuen laguntza publikoa murriztea eta laguntza horren erabilera txarra.



- HIESak 20 milioi gizaki hil ditu eta 40 milioi gaixo daude.
- Elikadura kaskarrak arazoak larriagotzen ditu. 2006ko urrian Nekazaritza eta Elikadura Erakundeak (FAO) aditzera eman zuen urtero sei milioi ume hiltzen dituela elikadura txarrak eta desnutrizioak.

#### b) Kontsumismoa

Munduko aberastasuna handitu bada ere, ez da banatu planetan zehar modu solidarioan, ezta herrialde aberatsen barruan ere. Horren ondorioz, bi milioi pertsona baino gehiago bizi dira txirotasunean.

Global Footprint Network garapen iraungarriko erakundeak oso datu adierazgarria eman zuen aditzera 2006ko urrian: urte horretako urtariletik irailera, naturak urte osoan zehar sortu ahal dituen baliabideak baino gehiago kontsumitu zuen gizateriak, herrialde garatu eta industrializatuen bizimodua zela medio. Zehazki, Estatu Batuetako hiritar batek 9,6 hektarea lurzoruri dagozkion baliabideak erabiltzen ditu; Afrikako hiritar batek, berriz, 1,4 hektarea lurzoruri dagozkionak bakarrik. Munduko hiritar guztiek «american way of life» delakoa biziko balute, beharrezkoak lirateke lau Lur planeten baliabideak.

#### d) Aldaketa klimatikoaren ondorioak

Erresuma Batuko Gobernuak, G-8 taldearen ordezkari gisa, aldaketa klimatikoaren eragin ekonomikoari buruzko txostena eskatu zion Nicholas Stern-i, Mundu Bankuko ekonomia-buru izandakoari. 2006ko urrian eman zen aditzera Stern Txostena.

Txostenaren arabera, gizateriak ez badu neurririk hartzen berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko, Bigarren Mundu Gerrak edo 1929 krisialdiak sortu zituzten ondorio ekonomikoen pareko gastua sorraraz daiteke. Klima-aldaketari aurre egiteko hartu behar diren neurriak ekarriko lituzketen kostuak txikiagoak lirateke erabaki horiek atzeratzeak ekarriko lituzkeenak baino, etorkizunean garestiagoa izango baita berotasun globalaren eraginak arintzea eta horietara egokitzea. Zehazki, txostenaren arabera, klima-aldaketaren aurrean ezer ez egiteak munduko BPGren % 20 galtzea ekarriko luke; ordea, berotasun globala arintzeak nazioarteko BPGren % 1 soilik eskatzen du.

Premiaz ez bada ezer egiten, ondorioak izugarriak izan daitezke: Asian eta Afrikan askoz ere txiro gehiago izango dira; kostaldeetako eta itsasoaren mailan kokatzen diren hiri asko (New York edo Londres hiri handietatik hasita) uren igoera dela eta babestu egin beharko dira, are gehiago, herrialde batzuk bere osotasunean

(Bangladeshen kasuan, 100 milioi pertsona mugitu beharko lirateke); eskualde askoren laborantzak murriztuko dira.

Nazio Batuen azkenengo txostenek baieztatzen dute klima-aldaketaren ondorioak ekiditeko ezer ez egiteak koste ekonomiko izugarria dakarrela, eta azpimarratzen dute garaia dela gai horren inguruan programa eraginkorrak martxan jartzeko. 2007an, 3000 aditu batzen dituen Nazio Batuek antolatutako Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Taldeak (IPCC) klima-aldaketa politika-agenda globalean kokatu zuten gizateriarentzako erronka nagusietako gisa.

#### e) Merkataritza-esparrua

Premia gehiago dituzten herrialdeen atzerapena argi nabaritzen da merkataritza-esparruan.

Kontraesan handia agertzen da globalizazioaren inguruan. Fenomeno horrek merkatuen irekiera erraztu beharko luke eta, horren ondorioz, azpigaratutako herrialdeentzat hazkunderako sustapena ekarri beharko luke. Ordea, globalizazioak indar handiagoa hartzen duen heinean, herrialde txiroenen esportazio-gaitasuna orain dela hamabost urteko mailetara jeitsi da (bereziki, Afrikan).

Egoera horri aurre egiteko eta herrialde guztien hazkundera sustatzeko, ezaugarri hauek dituen nazioarteko merkataritza- eta finantza-sistema ezarri behar da: irekitasuna, zuzentasuna, diskriminaziorik eza, arautegi justua. Aldi berean, desagerrarazi egin behar dira herrialde azpigaratuek beren hazkundera finantzatzeko beharrezko baliabideak lortzeko dituzten oztopoak.

## **2. Munduko ekonomia XX. mendetik XXI. mendera**

### **2.1. Globalizazio neoliberalak**

1973ko krisia gainditzeko helburuarekin 1980ko hamarkadaren hasieran ezarri ziren neurri neoliberalak gaurko mundu-ekonomiaren ezaugarri nagusiak bihurtu dira. Washingtoneko Adostasunak indartu zuen egoera hori, bereziki 1990eko hamarkadan orokortu den globalizazioaren testuinguruan. Horrek guztiak ekarri du gaur egungo mundu-kapitalismoaren faseari *globalizazio neoliberalak* izena ematea. Fase horren adierazgarria izan da planetan zehar ekonomia-ekintza ez arautzeko politikak martxan jarri direla, bereziki nazioarteko produkzio-, merkataritza- eta finantza-kapital fluxuak liberalizatzeke.

Globalizazio neoliberalaren garapenak emaitza kontraesankorrak ekarri ditu:

- Arrakastatsua izan da Mendebaldeko herrialdeen ekonomia berreskuratzeko estrategia gisa, erregio-esparruko krisi ekonomikoak gainditzeko eta garapen bidean dauden zenbait herrialderen hazkundera lortzeko.
- Arrakastatsua izan da ekonomia-eredu kapitalista zabaltzeko ere, batez ere sobietar sistemaren porrotaren ostean, eta merkatu-sozialismoa garatzeko (Txina da adibide argiena).
- Kapitalismoa zabaltzeak hazkunderako gune dinamiko berrien sorrera ekarri du (BRIC delakoak –Txina, India, Errusia, Brasil– eta garapen bidean baina jadanik industrializatuta dauden zenbait ekonomia). Horrek aldatu du nazioarteko harreman ekonomikoen antolaketa, eta kolokan jarri ditu Bigarren Mundu Gerra ostean ezarritako gune hegemonikoak: Ameriketako Estatu Batuak, Mendebaldeko Europako herrialdeak (egun Europar Batasuna osatzen dutenak) eta Japonia.
- Ordea, globalizazio neoliberalak langileen bizitza eta lan-baldintzak okerrera joatea eragin duenez, gizarte-atsekabea handitu du. Gogora dezagun neurri neoliberalak 1970eko hamarkadako krisia gainditzeko lortu zutela: alde batetik, inflazioa eta defizita gutxitu zituzten; bestetik, inbertsio-tasak, irabaziak, industria-produkzioa, eta nazioarteko merkataritza igo zituzten. Baina enpleguaren sorrera ez zen izan hain ikusgarria eta, orduan, hazkunde ekonomikoa gerta daiteke langabezia-maila altuekin edota enplegu eskasaren ehuneko altuarekin.

## 2.2. Munduko BPGren egungo bilakaera

1980ko hamarkadaren erdialdean, munduko ekonomiak krisiaren ondorioak gainditu zituenetik, Barne Produktu Gordinak (BPG) hazkunde-eritmo egonkorra izan du. Hala ere, krisia baino lehen zegoena baino txikiagoa izan da; horrek adierazten du motelagoa dela munduko ekintza ekonomiko garaikidearen dinamismoa:

- Nazioarteko BPGren hazkunde-tasaren urteroko batezbestekoa % 5 izan zen 1950etik (BMGren ondorioak gainditu zirenetik) 1973ra (nazioarteko krisiaren agerpena).
- Krisialdia kontuan hartzen bada ere (oso hazkunde motelarekin, inflazio gogorrarekin, baita estanflazioarekin ere), nazioarteko BPGren hazkunde-tasaren urteroko batezbestekoa % 4,7 izan zen 1950etik 1980ra.
- Ordea, nazioarteko BPGren hazkunde-tasaren urteroko batezbestekoa % 2,8 izan zen 1980tik 2007ra.

Munduko BPGren eraketan herrialdeek eta erregioek izandako parte-hartzea aldatuz joan da. Horrela, Mendebaldeko ekonomien parte-hartzea gutxitu den heinean

(Estatu Batuak, Kanada, Europar Batasuna, Japonia, Australia, eta abar), nabarmenki handitu dute beren parte-hartzea garapen bidean dauden industrializatutako ekonomia aurreratuenek (BRIC herrialdeek, bereziki).

Datuek adierazten dutenaren arabera, 1980tik 2007ra doan tartean, munduko BPGren eraketan, % 60,8 izatetik % 49,1 izatera igaro zen Estatu Batuetako, egun Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetako eta Japoniako BPG (erosteko ahalmen-parekotasunean neurtuta):

- Estatu Batuetako parte-hartzea % 22,5etik (1980an) % 23,9ra (1999an) igo zen, baina 2000n beheranzko joera hartu zuen, eta 2007an % 21,4 izatera iritsi zen.
- Europar Batasuneko herrialdeen parte-hartzea % 29,9tik (1980) % 22ra (2007) jaitsi zen. Hala ere, 1993tik aurrera Europar Batasuna merkatu bakarra denez (eta 2002tik aurrera Eurogunea ekonomia bakarra), planetako ekonomia handiena bilakatu da, eta Estatu Batuak gainditu ditu.
- Japoniaren parte-hartzea murrizten hasi zen 1992an, eta, orduetik hona, % 8,4tik % 6,6ra gutxitu da.

Munduko BPGren eraketan, herrialde horien pisu erlatiboa murriztea azaltzen da hazkunde-gune berrien dinamismo handia dela eta: bereziki, Txina eta India 1980ko hamarkadatik aurrera eta Errusia eta Brasil 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera. BRIC taldeak handitu egin zuen bere parte-hartzea % 13,2tik (1980an) % 21,9ra (2007an). Adibide gisa aipa daiteke:

- 1980an Txinak munduko BPGren % 2,3 ekarri zuen; ordea, 2007an, % 11,3.
- Sobietar Batasuna desagertzearen ondorioz jasandako desoreka ekonomikoaren ostean, Errusiaren parte-hartzea munduko BPGn % 2,5 izatetik (1998) % 3,2 izatera (2007) igaro zen.

Aldaketa horiek hazkunde ekonomikoaren erritmo ezberdinak direla eta azaltzen dira. 2001etik aurrera, munduko ekonomiaren hazkundeak abiadura handitu bazuen ere, garapen bidean dauden industrializatutako ekonomia aurreratuenek mantendu dute erritmo altuena. Horrela, egungo krisialdia hasi aurretiko urteetan (2007 eta 2008), hauek izan dira aipatu diren herrialdeen BPGren hazkunde-tasak:

- Estatu Batuak: % 2,2 eta % 1,5
- Europar Batasuna: % 3 eta % 2,5
- Japonia: % 1,9 eta % 1,5
- Txina: % 11,4 eta % 10
- India: % 8,9 eta % 8,4
- Errusia: % 7 eta % 6,5
- Brasil: % 4,4 eta % 4

### 2.3. Nazioarteko merkataritza

Globalizazio neoliberallean zehar, nahiko egonkorra izan da nazioarteko merkataritza-fluxuen hazkundera. Hala ere, ez da ailegatu 1970eko hamarkadako krisiaren aurretik zegoen erritmo altura.

Egia esan, BGMren ostean, nazioarteko merkataritza bultzatzea izan zen egoera ekonomiko larria gainditzeko hartutako neurrien artean garrantzitsuenetakoa. Zehazki, horretarako sortu ziren Bretton Woodseko erakundeak, bereziki NDF eta GATT. 1973ko krisiak (eta 1979ko bigarren bolada) haustura gogorra ekarri zuen nazioarteko merkataritzaren joera hedakorrean. 1980ko hamarkadaren erdialdetik aurrera gainditu egin zen egoera larri hura, baina 1950eko eta 1960ko hamarkadetakoa erritmora bueltatu barik (gogoratu hori izan zela mirari kapitalisten epea). Datuak oso adierazgarriak dira:

- Salgaien nazioarteko merkataritzaren bolumen errealearen hazkundera (esportazioak kontuan hartuz) % 5,9 izan zen, urtero, 1983tik 2006ra.
- 1973-1983 epean gertatu zen % 2,6 baino askoz hobea da, baina 1950-1973 epean gertatutako % 8,3 baino baxuagoa.
- Hala ere, ekintza ekonomikoaren hazkunde motela dela eta, nazioarteko merkataritzaren hazkunde-tasa ia bikoiztu egin zen munduko BPGrekin konparatuz gero: 1980ko hamarkadako urteroko % 17ko tasatik 2008ko % 32ra igo zen.

Azken hamarkadetakoa datuetara murrizten bagara, ikus daiteke nazioarteko merkataritzaren hazkundeak erritmo egonkorra duela. Horrela, esportazioek BPGrekiko duten balore nominala kontuan hartuz:

- Salgaien esportazioak hazi egin ziren 1980ko hamarkadako urteroko % 15etik 2006ko % 25era.
- Salgaien esportazioekin batera zerbitzuen esportazioak kontuan hartzen badira, hazkundera handiagoa da, hain zuzen, % 19tik % 30,5era.

### 2.4. Atzerritar Inbertsio Zuzena

Adierazienez, neurri neoliberalak krisiaren ondorioak gainditu bazituzten ere, ezin izan zuten berrezarri 1973 urtearen aurretik zegoen hazkunde ekonomikoaren erritmoa. Ordea, arrakastatsuak izan ziren Atzerritar Inbertsio Zuzenari dagokionez (AIZ). Horrela, 1980tik aurrera kapitalaren errentagarritasuna berreskuratzea lortu zuten, eta 1990etik aurrera AIZren mundu-fluxuak hedatzea. Azken horren inguruan,

aipatzekoa da 1990eko eta 2000ko hamarkadetan izandako finantza-kapitalen zabalkuntza handia. Datuek argi uzten dute joera hori:

- 1987 baino lehen, urtero 100.000 milioi dolar baino txikiagoak ziren AIZren mundu-fluxuak. 2000 eta 2006 urteetan maximo historikoak lortu zituzten, hain zuzen, 1,4 eta 1,3 bilioi dolar.
- 1980ko hamarkadako lehen erdialdean, AIZren BPGrekiko batezbestekoa urtero % 0,5 zen. 2000. urtean, % 4,4ko maximo historikora ailegatu zen.
- 1991 eta 2006 urteen artean, nazioarteko finantza-inbertsioen fluxuak (AIZrekin batera, burtsetako inbertsioak eta bankuen maileguak eta gordailuak batzen dituztenak) BPGren % 1,3 izatetik % 13,3 izatera igaro ziren.

Azkeneko hamarkadetan, zenbait aldaketa gertatu dira AIZren mugimenduetako ezaugarrietan:

- Mendebaldeko ekonomia-potentziak, zeinak enpresa multinazionalen egoitzan kokatzen baitira, AIZren jatorri nagusia dira oraindik ere. Hala ere, 1980tik aurrera, garapen bidean dauden herrialdeek areagotu egin dute AIZren irteeretan parte hartzea: 1970-1979 epean urtero % 1,2 bazen, 1980-2006 epean urtero % 9,5 izatera igo da.
- Era berean, AIZren helmuga nagusia Mendebaldeko ekonomia-potentziak dira oraindik ere, merkatu garatuetan eta erosteko ahalmen handia dutenetan kokatu nahi direlako multinazionalak.
- Aldi berean, multinazionalak garapen bidean dauden herrialdeetan birkokatu dituzte haien produkzio-sareen zatiak, kostu baxuak baliatuz (bereziki soldatak) herrialde horietan bertan saltzeko (garapen bidean egonda ere, herrialde industrializatuak badira, erosteko ahalmena duten merkatuekin) eta, bereziki, herrialde horietatik mundu osora esportatzeko.
- Ondorioz, gutxi bada ere, garapen bidean dauden herrialdeek handitu egin dute haien pisua IAZren helmuga gisa: 1970-1979 epean urtero % 24,7 zen eta 1980-2006 epean urtero % 28,2.

IAZren helmugari buruz hitz egiterakoan, garapen bidean dauden herrialdeen artean, garrantzi handiago hartzen ari dira industrializatuta dauden merkatu handiak. Eta horien artean aipagarria da Txinaren egoera. Txinak mundu osora egiten dituen gero eta esportazio gehiagoren arrazoi nagusietarikoa da herrialdeak duen IAZ sarrera indartsua, baita enpresa multinazionalak dituzten operazio- eta merkataritza-estrategiak ere (Estatu Batuetako eta Europar Batasuneko enpresak). Horrela, 1980ko hamarkadaren erdialdetik hasita eta, bereziki, 1990eko hamarkadatik aurrera, Txina

IAZren helmuga garrantzitsua bilakatu zen. Datuen arabera, 1986tik hona, Txinan gelditzen da garapen bidean dauden herrialdeek jasotzen duten IAZren herena.

### **3. Nazioarteko lankidetzak ekonomikoak: MME, NDF, Mundu Bankua**

#### **3.1. Munduko Merkataritza Erakundea (MME)**

Estatuen arteko merkataritza arautzen duen nazioarteko erakundea da. «Uruguai Erronda»ren negoziazioetan sortu zen 1995eko urtarrilaren 1ean, GATT erakundea gaindituz.

##### a) GATT hitzarmena

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, beharrezkoa zen estatuen arteko merkataritza bultzatzea. Horretarako, 1948an nazioarteko merkataritza arautuko zuen hitzarmena sinatu zuten zenbait estatuk: Muga Zergari eta Merkataritzari buruzko Hitzarmen Orokorra (*General Agreement of Tariffs and Trade* – GATT).

GATTen helburua da ondasunen produkzioa, trukea eta kontsumoa bultzatzea, nazioarteko merkataritzan egon daitezkeen oztopoak desagerraraziz (muga-zergak bereziki), eta horrela nazioarteko merkaturak liberalizatzea. Horrek guztiak munduaren garapen ekonomikoak ekartzen du (helburu teorikoa).

GATTen funtsezko oinarriak:

- Estatuak ez dute inolako diskriminaziorik onartuko merkataritza-harremanetan (herrialde guztien artean tratua berdina izan behar da merkataritza-mailan). Salbuespen bakarrak ekonomia bateratzeko prozesuetan onartzen dira, non lehentasunak izan baitaitezke (Europar Batasuna, Mercosur, NAFTA, eta abar).
- Muga-zergak gutxitzea eta merkataritzari jarritako oztopoak desagertzea (kopuru-murrizketak).
- Nazioarteko merkataritzan sor daitezkeen arazoak konpontzeko, kideen arteko kontsultak egiten dira.

GATT sortu zenetik, zortzi negoziazio-epe izan dira haren helburua aplikatzeko, «erronda» deritzenak: Geneva (Suitza) 1947, Annecy (Frantzia) 1949, Torquay (Erresuma Batua) 1951, Geneva 1956, Geneva 1960-1961, Geneva 1964-1967, Geneva 1973-1979, Montevideo 1986-1993 (Uruguai Erronda).

##### b) Munduko Merkataritza Erakundearen sorrera

1948an, estatuen arteko merkataritza salgaiena zen. Hori dela eta, GATT hitzarmenak salgaien nazioarteko merkataritza arautu zuen bakarrak. Baina urteak

pasatu eta gero, indar handia hartu zuten zerbitzuen merkataritzak eta ideien merkataritzak (jabego intelektualak eta industrialak, patenteak, eta abar).

Horrela, 1980ko hamarkadan, erabaki zen beharrezkoa zela nazioarteko merkataritzaren arlo berri horiek arautzea, eta «Uruguai Erronda» antolatu zen, merkataritzari buruzko negoziatorik garrantzitsu eta luzeenetarikoak (1986tik 1993ra).

Negoziario horietan GATT hitzarmena mantentzea erabaki zen, baina beste bi hitzarmen onartu ziren nazioarteko merkataritzaren beste arloak arautzeko. Beraz, gaur egun, hiru hitzarmen daude:

- Muga Zergari eta Merkataritzari buruzko Hitzarmen Orokorra (GATT): salgaien nazioarteko merkataritza arautzen du.
- Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Hitzarmen Orokorra: zerbitzuen nazioarteko merkataritza arautzen du.
- Merkataritzarekin loturik dauden Jabego Intelektualaren Eskubideei buruzko Hitzarmena: ideien nazioarteko merkataritza (jabego intelektualak eta industrialak, patenteak, eta abar) arautzen du.

Hiru hitzarmen horien gainetik, nazioarteko erakunde bat eratu zen 1995ean: Munduko Merkataritza Erakundea.

#### d) Munduko Merkataritza Erakundearen funtzioak

Munduko Merkataritza Erakundeak estatuen arteko esportazio eta inportazioak bultzatzen ditu: ondasun eta zerbitzuen produktoreei laguntza eskaintzen die nazioarteko ekintzak aurrera eramanez ditzaten.

Horretarako, MME arduratzen da nazioarteko merkataritzan oztoporik ez egoteaz, eta nazioarteko merkataritza arautzen duten hiru hitzarmen orokorrak betetzen direla ziurtatzen du, baita erakundeak onartu dituen beste hitzarmenak ere (60 guztira). Hitzarmen horiek kontratuak dira, eta sinatzaileek (estatuetakoa gobernuek) hitzarmenetan jasotakoa bete behar dute merkataritza-politikak eratzean.

Hitzarmenetako arauak betetzen direla bermatzeko, MMEk garrantzi berezia ematen die honako jarduerak hauei:

- Garapenean dauden ekonomiei laguntza ematea.
- Esportazioak sustatzeko laguntza berezia.
- Mundu-mailako politika ekonomikoa antolatzeko lankidetzak.
- Estatu kide bakoitzak duen merkataritza-politikaren azterketa.

Arazorik egonez gero, kontsulta-sistema bat eratzen da estatuen arteko merkataritzaren inguruko gatazkak konpontzeko. MMEk estatuei kontsultak egiten dizkie, haien arteko eztabaida bultzatzeko eta haien arteko akordioa lortzeko.



Konponbiderik ez badago, teknikari eta adituen talde bat eratzen da, gatazkan dauden estatuei MMEren hitzarmenak nola bete behar diren adierazteko.

#### e) Munduko Merkataritza Erakundearen antolaketa

- *Ministroen Konferentzia*. Organo honetan parte hartzen dute MMEren kide guztiek. Nazioarteko merkataritzari buruzko erabaki guztiak adostasunez hartzen dira.

Organoa bi urtean behin batzartzen da, eskuarki: 1996an Singapurren, 1998an Genevan, 1999an Seattlen, 2001ean Dohan, 2003an Hong Kongen, 2009an Genevan. Seattlen Milurteko Errondak hasi behar zuen, baina bertan ez zen akordiorik onartu eta negoziazioak Dohan hasi ziren (horregatik, Doha Erronda ere baderitzo).

- *Kontseilu Orokorra*. Ministroen Kontseiluaren ordezkariak dauka, eta haren batzarren artean hartu beharreko erabaki arruntak hartzen ditu. Erakundearen eguneroko kudeaketaz arduratzen da.

- *Espezializatutako Kontseiluak*. Hitzarmen bakoitzagatik kontseilu bat. Bakoitza da dagokion hitzarmenaren funtzionamenduaren arduraduna.

- *MMEren Idazkaritza*. Genevan, lan administratiboak egiten ditu (500 funtzionario).

#### f) Kideak

Munduko Merkataritza Erakundeak 157 estatu kide ditu; Europar Batasuna ere erakundeko kidea da. Beste 27 estatu begirale dira (ahotsa bai, botorik ez) eta bost urteko epea dute kide bihurtzeko. Beraz, munduko 184 estatu MMErekin harremanetan daude.

Kide guztien ia % 75 (115 herrialde) estatu azpigaratuak edo garapen-bidean dauden estatuak dira. Horien artean, 50 Gutxien Garatutako Estatuak dira, munduko herrialde txiroenak. MMEren hitzarmenek klausula bereziak dituzte haientzat:

- Epe luzeagoak arauak betetzeko.
- MMEren betebeharrak konplitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak sortzeko laguntzak jasotzeko aukera.
- Laguntza teknikoa.

### **3.2. Nazioarteko Diru Funtza (NDF)**

#### a) Nazioarteko Diru Funtzaren helburuak

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, estatu gehienek pentsatzen zuten estatuen arteko foro bat eratzea zela beren diruen salerosketa-sistema orekatu eta egonkor bat lortzeko biderik onena, bertan gai horri buruzko kontsultak egitea ahalbidetzeko estatuen artean. Helburu orokorra da estatu bakoitzak beste estatu

batzuei ordainketak egin behar dizkionean arazo eta atzerapen barik egin ahal izatea. Horrela, 1946an Nazioarteko Diru Funtza sortu zuten.

Honako hauek dira erakundearen helburuak:

- Nazioarteko diru-lankidetzaren bultzatzea.
- Diruen arteko truke-oreka lortzea, nazioarteko ordainketak eta, ondorioz, nazioarteko merkataritza errazteko.
- Nazioarteko merkataritzaren garapen orekatu bat lortzea.

#### b) Estatu kideen betebeharrak

Nazioarteko Diru Funtzak 185 estatu kide ditu. Bakoitzak honako betebeharrak ditu:

- Bere diruaren balioa beste diruekiko ezartzeko sistema adierazi behar die beste estatuei.
- Ezin izango dio oztoporik jarri bere diruaren eta beste diruen arteko trukeari.
- Martxan jarri behar ditu bere aberastasun nazionala eta beste estatu kideena handituko duten politika ekonomikoak.

Horretaz gainera, estatu kide bakoitzak kuota bat ordaindu behar du NDFko kide bilakatzean, NDFk diru-gordailu bat baitu. Kuota horiek hiru helburu dituzte:

- NDFren diru-funtz bat eratzten dute, eta hortik NDFk maileguak eman ahal dizkie finantza-arazoak dituzten kideei.
- Estatu bakoitzak maileguan jaso dezakeen diru kopurua zehazten du kuotak.
- Estatu kideak erakundearen daukan boto kopurua zehazten du kuotak.

NDFk aberastasunen azterketa bat egin ondoren, estatu bakoitzak ordaindu behar duen kuota finkatzen du. Estatu aberatsenek ordaintzen dute kuota handiena, baina mailegurik handienak jaso ditzakete eta erabakiak hartzeko orduan ere boto kopuru handiena dute.

#### d) Nazioarteko Diru Funtzaren funtzioak

- Aholkuak eta gomendioak eman.
- Laguntza teknikoa, behar duten estatu kideei.
- Maileguak.

NDFk diru-maileguak egiten dizkie beren finantza-betebeharrei aurre egiteko arazoak dituzten estatu kideei, baldintza bat jarrita: estatuek aldaketa ekonomikoak egin behar dituzte arazo horiek konpontzeko (NDFk gomendatutakoak).

Arazoak dituen estatu kideak NDFri eman dion kuotaren % 25 har dezake berehala. Diru gehiago behar badu, NDFri mailegu bat eska diezaiokete, gehienez bere

kuotaren hirukoitza, eta hiru urtetik bost urterako epean ordainduko du. Mailegua jasotzeko, estatuak frogatu behar du bere arazoak konponduko dituela eta mailegua ordaindu ahal izango duela.

NDFk ezin du betebeharririk ezarri, gomendioak adierazi bakarrik. Estatu kideek ez dituzte nahitaez aintzat hartu behar, baina kasu horretan gerta daiteke mailegurik ez jasotzea.

#### e) Nazioarteko Diru Funtsaren antolaketa

- *Gobernadoreen Batzarra*. Estatuetakoko ogasun-ministroak edo banku zentraletako presidentek dira, eta urtean behin batzartzen dira. NDFren politikak zehazten dituzte.

- *Zuzendaritza Exekutiboa*. Estatuetakoko gobernuen ordezkariak osatua dago, eta NDFren eguneroko lanaz arduratzen da. Egoitza Washingtonen dago. Gobernadoreen Batzarraren erabakiak ezartzen direla ikuskatzeko eta kontrolatzeko.

24 zuzendari exekutibo daude: ordezkari bana dute Alemaniak, Saudi Arabiak, Txinak, Estatu Batuek, Frantziak, Japoniak, Erresuma Batuak eta Errusiak, eta beste estatuen artean 16 ordezkari aukeratzen dira.

Batzarreko presidentea zuzendari kudeatzailea da, eta gehienetan europarra da.

NDFk 2.600 funtzionario ditu, eta ordezkariak honako hiri hauetan: Parisen, Genevan, Tokion eta New Yorken.

### **3.3. Mundu Bankua**

#### a) Mundu Bankuaren helburua

1944an sortutako nazioarteko erakundea da. Gaur egun, 185 estatu kide ditu.

Garapenerako bidean dauden 100 herrialdeei diru-maileguak eta aholkularitza eskaintzen dizkie, estatu horiek mundu-ekonomian parte handiagoa har dezaten eta, horrela, gara daitezten. Gaur egun, Mundu Bankuak urtero 20.000 milioi dolarreko maileguak ematen ditu.

Mundu Bankuaren helburua zera da: ekonomia-hazkundera gidatzea garatu gabeko estatuak edo garapenerako bidean dauden estatuak, betiere hazkunde edo garapen egonkor, orekatu eta berdintasunezko batera. Horrela, Mundu Bankuaren laguntzarekin herrialdeek beren ekonomia eta banku-sistemak indartu ditzakete eta, aldi berean, giza baliabideetan, azpiegiturretan eta ingurumenaren babesean inberti dezakete; hala, inbertsio pribatuentzat erakargarri diren merkatuak sor ditzakete.

Helburu horiek lortzeko, Mundu Bankuak maileguak ematen dizkie estatu kideei. Dirua irteten da estatu kideek ordaintzen duten kuotek osatzen duten funts batetik. Funtzionamendua Nazioarteko Diru Funtsarenaren berdina da.

Maileguek honako helburu hauek dituzten programak finantzatzen dituzte:

- Inbertsioa pertsonetan: oinarrizko zerbitzu sozialetako laguntzaren bidez eta egoera larrian dagoen biztanleriarentzako hezkuntza-, osasun- eta elikadura-programen bidez; baita Gizarte Segurantza eta pentsioen sistemak antolatzeke ere.
- Ingurumenaren babesa: kutsaduraren aurka borrokatzeke eta baliabide naturalen ustiapen orekatua lortzeke programak finantzatzen ditu.
- Sektore pribatuaren garapena bultzatzea: sektore pribatua ekonomia-hazkunderaren oinarria edo motorra dela jakinda, Mundu Bankuak sektore horren garapena sustatu nahi du, azpiegituretan inbertituz (garraioak eta telekomunikabideak), estatu-enpresak privatizatuz eta monopolioak deseginez.
- Gobernuek kalitatezko zerbitzuak eskaintzeke duten gaitasuna indartzea: oinarrizko hezkuntza, osasuna, ingurumenaren babesa.
- Ekonomia-erreforma sustatzea: inguru makroekonomiko egonkorra, orekatua eta inbertsioak erakar ditzakeena lortzeke neurriak hartu behar dituzte gobernuek.

#### b) Mundu Bankuaren barne-erakundeak

##### 1. Berreraikuntzarako eta Susperketarako Nazioarteko Bankua:

Maileguak eta laguntza ematen dizkie diru-sarreraren maila erdia duten estatuei eta ordaintzeke gaitasuna duten estatu txiroei. Maileguek interes baxua dute.

Banku honek dirua lortzen du Mundu Bankuko kide aberatsenen kuotetatik eta, batez ere, kapitalen nazioarteko merkatuetan bonoak saltzetik.

Mundu Bankuak urtero ematen dituen maileguen % 75 ematen du.

##### 2. Susperketarako Nazioarteko Elkartea:

Estatu txiroenei interes gabeko maileguak ematen dizkie.

Elkarte honek estatu kide aberatsen kuotetatik lortzen du dirua.

Mundu Bankuak urtero ematen dituen maileguen % 25 ematen du.

##### 3. Nazioarteko Finantza Korporazioa:

Garapen-bidean dauden estatuen hazkundera bultzatzen du, sektore pribatuari laguntza emanez. Inbertitzaile pribatuekin batera estatu horietako enpresa pribatuei maileguak ematen dizkie, eta haien kapital sozialean parte hartzen du.

##### 4. Inbertsioen Bermerako Aldeanitzeko Organismoa:

Garapen-bidean dauden estatuetan atzeritar inbertsioa bultzatzen du, bi eratan:

- Ezagutzera ematen ditu estatu horietan dauden inbertsioak egiteke aukerak.
- Atzerriko inbertitzaileei arriskuen aurkako bermeak eskaintzen dizkie.

### 5. Inbertsioei buruzko Eztabaidak Konpontzeko Nazioarteko Erakundea:

Atzerriko inbertitzaileen eta inbertsioa jasotzen duten garapen-bideko estatuen arteko eztabaidak eta arazoak konpontzeko bideak eskaintzen ditu.

#### d) Antolaketa

- *Gobernadoreen Batzarra*. 185 estatu kideetatik, bakoitzak gobernadore bat izendatzen du, eskuarki ministro bat, urteroko batzarrean parte hartzen duena.

Funtzioak: kide berriak onartzea edo kanporatzea, aurrekontua onartzea.

- *Zuzendaritza Exekutiboa*. Gobernadoreen Batzarrak organo honen esku uzten ditu eguneroko funtzioak.

24 zuzendari exekutibo daude: Frantziak, Alemaniak, Japoniak, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek (diru gehien ematen dutenek) zuzendari bana izendatzen dute; beste estatu guztien artean aukeratzen dira beste 19 zuzendariak.

Egoitza Washingtonen dago, eta presidentea, gehienetan, estatubatuarra da.

### 3.4. Nazioarteko finantza-erakundeak eta globalizazioa

Globalizazioaren aurkako mugimenduek gogor kritikatu dute estatuen ekonomiak sustatzeko betebeharra duten nazioarteko erakundeek ez dutela beren helburua betetzen; are gehiago, adierazten dute erakunde horiek direla azpigaratutako estatu horien txirotasun-egoeraren errudunak. Horren arrazoia da estatu garatuenean MMEn, NDFn eta Munduko Bankuan duten boterea.

Salatzen dute herrialde txiroentzat ez dela egokia erakunde horiek bultzatzen duten nazioarteko lankidetzak eta bateratze ekonomikoaren eredua (globalizazioaren alde positiboa denontzat onuragarria izan dadin), estatuen arteko errenta ezberdintasunak handitzen baititu. Horrela, esaten dute aipatutako erakundeak direla globalizazioaren eta politika neoliberalen eragin negatiboen errudun.

MMEren erabakiak hartzeko sistemak estatu kideen berdintasun teorikoa errazten du, edozein gairi buruz erabakitzeko beharrezkoa baita guztien adostasuna. Eskakizun horrek, ordea, edozein erabaki hartzeko negoziazioak amaigabeak izatea suposatzen du. Hori dela eta, 1995az geroztik ezinezkoa izan da hitzarmen orokor berririk adostea. Edozein kasutan, errealitatea da MMEn herrialde garatuaren iritziak duela lehentasuna eta, azkenean, herrialde txiroenak aberatsek nahi dutenaren alde egiten dutela. NDFri egozten zaio horren errua.

NDFren helburuak MMEren helburuen osagarriak dira, baina, MMEn ez bezala, NDFren erabakiak hartzeko sistemak botere handiagoa dute estatu aberatsenek. Erakundearen 184 estatu kideen artean, bakoitzak boto kopuru bat du. Estatu

bakoitzak erakundeari ordaintzen dion kuotak zehazten du boto kopurua; kuota hori, berriz, estatu bakoitzaren aberastasunak zehazten du. Kuota horiek sortzen duten dirufuntsa erabiltzen da NDFren helburuak lortzeko arazoak dituzten estatuei maileguak emateko.

Ekintza horrek positiboa dirudi, baina esan beharra dago garatutako estatuek bakarrik bete ditzaketela NDFk bere helburuak betetzeko estatu kideei ematen dizkieten aholkuak. Horrek kaltea dakar azpigaratutako herrialdeentzat:

- Aurrekontua kontrolatzeko, gastu soziala murrizten duten politikak aplikatu behar dituzte.
- Kanpo-zorra ordaintzeko (NDFk emandako maileguaren ordainketa ere hor kokatzen da), zerga-presioa handitu behar dute.
- Muga-zergak desagertzen dira eta, horrela, murriztu egiten dira estatu horiek dituzten diru-sarrera urriak.

Gainera, azpigaratutako estatuek NDFren mailegurik gabe ez dute ia barne-inbertsiorik. Hori dela eta, inbertsioak lortzeko eta herrialde aberatsen haserreak saihesteko, horien proposamenen aldeko botoa ematen dute MMEn.

Azkenik, Munduko Bankuko estatu kideak NDFrenak berak dira. Beren helburua da 100 estatu txiroenak garapen ekonomiko orekatu batera bideratzea. Horretarako, Munduko Bankuak herrialde horien erreforma ekonomikoa bilatzen du, eta maileguak ematen dizkie. Maileguentzako dirua, NDFn bezala, estatu kideek euren aberastasunak zehaztuta ordaintzen dituzten kuoten kopuruekin lortzen da. Baina mailegu horiek «arazo gutxi sortzen dituzten» herrialdeei ematen zaizkie. Munduko Bankuaren organoak aztertuz ikus daitekeenez:

- Berreraikitze Nazioarteko Bankuak ordaintzeko gaitasuna duten estatuei ematen dizkie maileguak; horretarako, Munduko Bankuaren funtsaren hiru laurdenak erabiltzen ditu, hau da, diru gehiena.
- Garapenerako Nazioarteko Elkarrekin interesik gabeko maileguak ematen dizkie herrialde txiroenei, baina funtsaren laurden bat bakarrik erabiltzen du.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar gaur egun NDFren kideak 187 estatu direla, garapen bidean dauden herrialde gehienak barne, eta finantza-arazoak dituzten herrialde guztiek NDFra jotzen dutela laguntza eske. Aldi berean, munduko herrialde gehienek harremana dute MMEekin, eta potentzia ekonomiko handi bilakatzen ari diren herrialdeek (Txina, Errusia, Brasil, India) erakunde horiek emandako aholkuak eta gomendioak bete dituzte azken urteotan egoera horretara heltzeko.

#### **4. 2008ko krisialdi ekonomikoa**

##### **4.1. Jatorria: lehengaien prezioen igoera**

Lehengaien prezioek 2000ko hamarkadan jasan zuten igoeran kokatzen da mundu osoan eragina izan duen 2008ko ekonomia- eta finantza-krisialdiaren jatorria. 1980tik 2000ra prezioak merke mantendu baziren ere, XXI. mendearen hasierarekin goranzko joera hartu zuten, eta 2008an oso maila altura heldu ziren:

- 2008ko urtarrilean petrolio-upelaren prezioa 100 \$-etik gora jarri zen eta uztailean 147 \$-era heldu zen. Aldakortasun handiko espekulazio-fenomenoak izan ziren horren arrazoa, hain zuzen ere, abuztutik aurrera prezioaren jaitsiera bultzatu zutenak.
- 2003tik aurrera, goranzko bidea zekarren industriarako metal garrantzitsuenetakoa den kobreaken kotizazioak, potentzia ekonomiko berrien eskaeragatik (Txina eta India) eta herrialde esportatzaileen ekoizpena murrizteagatik (munduko lehen ekoizlea den Txileko mehategietako lan-arazoak). 2008ko urtarrilean *London Metal Exchangen* kobre-tonaren prezioa 8000 \$-etik gora jarri zen, eta uztailean 8.940 \$-era heldu zen. Ondoren, jaitsiera gogorra jasan zuen (urtarrilerako bere balioaren % 50 galdu zuen) aipatutako aldakortasun handiko espekulazio-fenomenoak zirela medio.
- Epe berean, ekoizpenerako oinarrizko materialek, hala nola azido sulfurikoak eta sosa kaustikoak, % 600eko igoera jasan zuten prezioan.

##### **4.2. Sorrera: Estatu Batuetako krisialdia (*subprime* hipotekak)**

2007an zehar, *subprime* hipotekek sortuko zituzten arazoaren lehenengo seinaleak izan ziren Estatu Batuetan. Hipoteka horiek oso baliabide murriztuak zituzten pertsonen eman zizkieten, beraz, hipotekak ez kobratzeko aukera handiak zeuden.

Urte horren bukaeran, Estatu Batuetako balore-merkatuek beheranzko joera hartu zuten, eta 2008an zehar egoera larriagotu egin zen:

- Bear Stearns bankua erreskatatu zuen Erreserba Federalak eta oso prezio merkean saldu zion JP Morgan Chase bankuari.
- IndyMac bankuaren porrota, herrialdearen historian bigarren porrotik handiena.
- Estatu Batuetako burtsan ezkortasuna nagusitu zen, eta egunero beherakadak jasaten zituen finantza-zurrunruengatik (askotan % 20 baino beherakada handiagoak).

- Uztailean, lehengaien prezioak maila altuenera heldu ziren.
- Irailean, arazoak larritu egin ziren *subprime* hipoteken arloan aritu ziren zenbait finantza-erakundek porrot egin zutenean: Lehman Brothers bankua, AIG aseguru-etxea, Fannie Mae eta Freddie Mac hipoteka-konpainiak (bi horiek kontrolatzen zuten etxebizitzaren gaineko hipoteka-merkatuaren erdia). George W. Bush presidentearen gobernuak kontu hartu zuen eta mahai gainean jarri zituen 700.000 milioi dolar, horietako erakunde batzuk salbatzeko.

### 4.3. Krisialdiaren hedapena munduan zehar: Atzerapen Handia

2008 bukatu baino lehen egiaztatu zen estatu askotako finantza-erakundeek kutsatutako funtsak zituztela, hau da, kobratu ezin ziren hipotekak batzen zituzten finantza-paketeak erosi zituztela nazioarteko merkatuetan. Horrela, krisialdia munduan zehar zabaldu zen, egoera horretan agerian gelditu zelako bankuen likidezia falta eta zenbait sektoretako eragile ekonomikoek galdu egin zutelako beharrezko zuten finantza. Beste era batera esanda, finantzaketa hori behar zuten enpresek eta kontsumitzaileek ezin izan zuten produkzioa eta kontsumoa mantendu; horrek, ekintza ekonomikoa jaistea eta langabezia gehitzea ekarri zuen.

2009an zehar European banku asko nazionalizatu ziren (lehenengoak Erresuma Batuan, Islandian eta Frantzian). Agintari ekonomikoek (Banku Zentralek) dirua erraztu zieten banku pribatuei (baldintza mesedegarriko maileguak) likidezia handitzeko, eta interes tipoak jaitsi zituzten. Ordea, bankuen arteko mesfidantza zela eta, kreditu-merkatua gelditu egin zen (bankuek ez zieten elkarri mailegurik ematen, bakoitzak ez baitzekien kutsatutako zenbat funts zituzten besteek eta, beraz, ezezaguna zen bakoitzak zuen ordaintzeko gaitasuna). Horrek guztiak enpresentzako eta hiritarrentzako kreditu falta ekarri zuen, maileguak eta hipotekak jasotzeko baldintzak zaildu zituen (merkataritza-interes altuagoak) eta, ondorioz, ekintza ekonomikoa ahuldu egin zen.

Gobernuek milaka milioi dolar jarri zituzten bankuen eskuetan, horrela kreditua erraztuko zen ustean. Aldi berean, martxan jarri zituzten enpresak ez ixteko eta langabezia-tasa ez handitzeko plan ekonomikoak. Hala eta guztiz ere, arazoa ezin izan zen konpondu diru kopurua txikia zelako edo bankuek dirua beste gauzetarako erabili zutelako (beren kontuak «makillatzeko»). Hasieran paralisi ekonomikoa arindu bazen ere, ekintza ekonomikoak gutxitzen jarraitu zuen; horren ondorioz, diru-sarrerak jaitsi eta gobernuen gastuak handitu ziren, eta defizitaren eta zorraren igoera izan zen emaitza.



Egoerak okerrera egin zuen, krisialdiaren errudun ere baziren bankuek gobernuen finantzaketa beharrak baliatu zituztelako beren negozioa salbatzeko. Hain zuzen ere, bankuek diru kopuru handiak utzi zizkieten maileguan gobernuei, baina baldintza gogorak ezarri zizkieten (interes altuak). Gobernuek dirua bueltatu ahal izateko baliabide ekonomikoak bilatu zituzten eta erreforma gogorak egin behar izan zituzten, hala nola giza gastua gutxitzea eta soldatak murriztea. Horren ondorioa erosteko ahalmena gutxitzea izan zen, kontsumoa murriztea, enpresen jarduera moteltzea eta langabezia-tasak gora jarraitzea. Azken finean, zenbait herrialderen egoera larriagotu egin zen, bereziki Europan.

## **5. 2010eko Euroguneko krisialdia**

2010 urtearen hasieratik aurrera, Euroguneko estatuek konfiantza-krisialdi izugarria jasan zuten: beren bono publikoen aurkako eraso espekulatiboak, beren finantza- eta burtsa-merkatuetan iskanbilak, euroaren balioa gutxitzea. Egoera larriagotzeko, estatu horiek ez zuten akordiorik lortzen krisialdiari aurre egiteko.

### **5.1. Krisialdiaren zergatia**

Krisialdiaren zergatia alderdi konplexuen konbinaketa da:

- Finantzen globalizazioa.
- 2002-2008 epean egon ziren kreditua lortzeko baldintza errazak, zeinek mailegu- eta zorpetze-praktika arriskutsuak sustatu baitzituzten.
- Nazioarteko merkataritzan egon ziren desorekak.
- 2008an eztanda egin zuten higiezinen burbuilak.
- Hazkunde ekonomikoak jasandako ahulezia 2008tik aurrera (krisialdi globala).
- Zerga-politikan hartutako erabakiak.
- Zenbait estatuk erabilitako tresna beren bankuak eta finantza-erakundeak laguntzeko, zor pribatuak berenganatu eta galerak sozializatu baitzituzten.

Krisialdiak agerian utzi zituen Eurogunean zeuden hutsune batzuk:

- Euroa babesteko bateratze politiko eta ekonomiko nahikoaren falta, are gehiago, zerga-batasun falta.
- Estatu kideen kontu publikoen gaineko Europako Batzordearen kontrol falta (horrek zenbait estaturi beren defizitak disimulatzea ahalbidetu zien).
- Euroguneko kideen arteko lankidetzaren falta.
- Eurogunean sor zitezkeen krisialdiak era egokian kudeatzeko tresna falta.

## 5.2. Krisialdiaren eboluzioa

### a) Greziaren porrota eta erreskate-plana

2009ko urrian Greziako alderdi sozialistak hauteskondeak irabazi zituen eta Georgios Papandreu izendatu zuten lehen ministro. Herrialdearen egoera ekonomikoa hondamenezkoa zela adierazi zuen eta 2009ko defizita % 12,5ekoa izango zela, aurreko gobernuak % 3,7an aurrikusia zuena. Era berean, onartu zuen aurreko hamarkadan Greziak bere zorren benetako tamaina zein zen ere ez ziola esan Europako Batzordeari.

Abenduan eman ziren aditzera urte hartako defizita eta zor publiko kopuruak: % 12,7 eta % 113,4, Egonkortasun Itunak zehazten dituen mugetatik oso urrun (zehazki % 3 eta % 60). Horren aurreran, arrisku-kalifikazio agentzia garrantzitsuenek (Fitch Ratings, Standard & Poor's eta Moody's) jaitsi egin zuten Greziako epe luzerako zorraren kalifikazioa. 2010eko apirilean Eurostatek argitaratu zuen Greziako 2009ko defizita % 13,6 izan zela, eta jaitsi egin zuten berriro ere Greziako zorraren kalifikazioa.

Greziako arazoak tarteko, Europar Batasunak aurre egin behar izan zion ezbai horri:

- Erreskatea Euroguneko estatu kideen esku. Estatu kide baten talde-erreskatea debekaturik dago, kaltegarri izan daitekeelako; hain zuzen ere, gobernuak ez lukete defizita gutxitzeko egin beharrekoa egingo. Alemaniak ez zion Greziari lagundu nahi; Alemaniako gobernuaren ustean, Euroguneko beste kideek ez zituzten greziarren akatsak konpondu behar.
- Erreskatea Nazioarteko Diru Funtsaren esku: NDFren parte-hartzea zen euroak atzerritik kudeatu behar ziren arazoak zituela onartzea. Europar Batasunak eta Greziak ere ez zuten onartu NDFren parte hartze bakarra.

Bi aukera horien tarteko bidea jarraituz, 2001eko maiatzean erreskate-plana onartu zen, bi txandatan:

- Maiatzaren 2an, Euroguneko finantza-ministroek (Eurotaldea) 110.000 milioi €-ko kreditua onartu zuten, hiru urteko epean zehar Greziari laguntzeko. Europar Batasunak 80.000 milioi jarri zituen eta NDFk 30.000 milioi.
- Maiatzaren 10ean, finantza-ministroek orekatze-mekanismo bat sortzea erabaki zuten, Greziako krisialdia beste estatu kideetara zabaldu ez zedin: Finantza Orekarako Europar Funtsa. Funtsak 750.000 milioi € ditu, Europar Batasunak 500.000 milioi eta NDFk 250 milioi jarri baitzituzten. Funtsaren helburua da finantza-arazoak dituzten estatuei maileguak ematea.

#### b) Beste estatuen erreskatea

Irlandaren kasuan, bere zorraren krisialdiaren arrazoia ez zen gehiegizko gastu publikoa. Ordea, bere jatorria izan zen Irlandako gobernuak herrialdeko sei banku nagusien pasiboari emandako bermea (100.000 milioi €); banku horiek egoera horretara heldu ziren higiezinaren burbuila finantzatu zutelako. Irlandako hiritarrek egin zieten aurre, beren osotasunean, galerei, eta ez bankuen bonoen jabe pribatuek. Izan ere, Gobernuak 80.000 milioiko mailegua eskatu zion Europako Banku Zentralari eta bonoen jabeak ordaindu zien; beraz, zorraren ardura zergadunen esku gelditu zen. 2010eko irailean, bankuek artean zorrari aurre egiteko baliabide gutxi zutenenez, Gobernuak bermea berriztatu behar izan zuen; baina hark ere ez zuen babesteko baliabiderik, eta erreskate bat negoziatu behar izan zuen Europar Batasunarekin eta NDFrekin. 67.500 milioi € jaso zituen.

Bestalde, 2011ko urtarrilean publikoki aditzera eman zen azken lau hamarkadetan Portugaleko gobernuak gehiegizko gastuak eta inbertsio-burbuilak egin zituela gardenak ez ziren aliantza publiko-pribatuen bitartez. Horren ondorio izan ziren lan publikoen prezio altuak, exekutiboen soldata puztuak eta funtzionario kopuru handia. 2010ean zehar, Portugalen kontra espekulazio-mugimendu handiak egin ziren nazioarteko merkatuetan, eta, aipatutakoaren eraginez, Portugaleko zor publikoaren balorazioa gutxitu egin zuten kalifikazio agentziek. 2011ko maiatzean, Euroguneko agintariek 78.000 milioi €-ko laguntza onartu zuten Portugalentzat.

2011ko maiatzean, baita ere, Greziako zor-publikoaren balorazioa hain zen baxua, ezen Greziak ezin baitzuen lortu behar zuen finantzaketarik nazioarteko merkatuetan (ezin izango lituzke ordaindu eskaini behar zituen interesak). Horrela, Euroguneko estatuak Greziarako bigarren erreskatea hitzarmendu zuten urrian, 109.000 milioi €-koa, eta baita zorraren % 50 barkatzea ere. Trukean, Greziak berriro ere zergak igo behar izan zituen, gastu publikoa murrizteko beste neurri batzuk hartu, enpresa publiko gehiago pribatizatu eta Europar Batasunaren laguntza tekniko eta administratiboa onartu bere ekonomia indarberritzeko.

#### d) Beste estatuak kutsatzeko aukera

Euroguneko zenbait estatu kide krisialdi-egoeran sartu dira aurretik aipatutako herrialdeek kutsatu dituztelako: beren zorraren fidagarritasuna zalantzan egon da agentzien kalifikazioetan jaitsierak izan dituztelako. Horrela gertatu da Belgikarekin eta Frantziarekin. Aldiz, Italia eta Espainia daude egoera makalenean:

- 2010ean Italiak Alemaniaren pareko defizita zuen (% 4,6), baina bere zorra % 120 zen, eta 2000tik aurrera Europar Batasunaren batezbestekoa baino baxuagoa izan da haren hazkunde ekonomikoa. Berlusconik boterea utzi behar izan zuenean,

2011ko azaroan, gobernura teknokrata taldea heldu zen eta neurri gogorrak hartu zituen aurrezki publikoa sustatzeko (higiezin publikoen salmenta, jubilaziorako adina igotzea, enpresa publikoen privatizazioak). Horrek gutxitu du Italiak nazioarteko merkatuetan zuen presioa.

- Espainiak ez zituen datu txarrak 2010ean: defizita altua bazen ere (% 9), 2009tik behera zetorren (% 11) eta haren zorra (% 50) Alemaniakoa baino txikiagoa zen (% 70). Erreskatea behar zuen zurrumurruak hasi ziren Espainiako higiezin burbuilak eztanda egin zuenean, merkatuen mesfidantza agerian gelditu zelako. Maiatzean, Espainiako gobernuak (Zapatero) herstura ekonomikoa sustatzeko neurriak hartu zituen, defizita gutxitzeko. Hazkunde ekonomiko ahula eta nazioarteko presioa zirela eta, 2011ko urtarrilean beste neurri batzuk hartu zituzten. Gobernuaren esanetan, defizita % 6ra beheratu zen; hauteskunde ostean, ordea, gobernu popular berriak (Rajoy) aditzera eman zuen 2011ko defizita % 8,5 izango zela, eta Espainiaren gaineko dudak sorrarazi zituen. Gobernu popularrak herstura ekonomikoa guztiz indartzeko oso neurri gogorrak hartu bazituen ere (funtzionarioen soldatak jaitea eta hezkuntzako eta gizarte arloko gastuak murriztea barne), zenbait bankuren egoera larria zela eta (Bankiaren nazionalizazioa) Europar Batasunak Espainiarako erreskatea onartu zuen 2012ko ekainean: 100.000 milioi €, banka-sistema onbideratzeko.

#### e) Itun berria

2011ko abenduan Euroguneke estatu kideek eta Europar Batasuneko beste kideek, Erresuma Batuak salbu, gobernuen arteko beste itun bat sinatzea hitzarmendu zuten. Zehaztu behar den itun horren bidez, muga zorrotzak jarri zaizkie gobernuen zorpetzeari eta gastuei, eta zigor gogorrak betetzen ez dutenentzat. Zerga-batasuna lortzeko pausoa da.

#### f) Ziperren erreskatea

Greziako egoeraz kutsatuta, 2012ko ekainean Europar Batasunari diru-laguntza eskatzeko erabakia hartu zuen Ziperko Gobernuak. Hasierako akordioa azaroan lortu zuten Ziperk, Europar Batasunak eta NDFk, baina azken akordioa 2013ko martxoan eman zen aditzera; horren arabera, Ziperk 10.000 milioi euroko mailegua jaso zuen. Ziperko Bankuek egunean 300 eurora mugatu behar izan zuten hiritarrei diru-ematea, hamar eguneko epean.

## **X. gaia. EUOPAR BATASUNA**

### **ETA BESTE EKONOMIA-BATERATZE PROZESU BATZUK**

#### **LEHENENGO ZATIA: EUOPAR BATASUNA**

##### **1. Garapen historikoa: Europako Erkidegoetatik Europar Batasunera**

###### **1.1. Europako Erkidegoak: seien Europa**

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Europako herrialdeak egoera larrian zeuden, errekurtsorik ez zutelako eta gerraondoko berreraikuntzarako behar handiak zituztelako. Aldi berean, ideologikoki bitan banaturik geratu zen Europa, kontinentearen ekialdea sobietar komunismoaren mendean gelditu baitzen.

Dena den, aurrera ateratzeko beharrezko ikusten zuten Europako herrialdeen arteko batasuna, oro har, gerra sortu zuten akats berdinak ez egiteko.

Europako bateratze-prozesuaren abiapuntua Schuman Adierazpena izan zen, Jean Monnet-ek egindakoa eta Robert Schuman Frantziako atzerri-ministroak aurkeztutakoa, 1950eko maiatzaren 9an. Hiru beharretan antolatutako proposamena zen:

- Europako industria siderurgikoa antolatzea.
- Frantzia eta Alemaniaren arteko harremanak oinarri berrien gainean arautzea.
- Europaren bateratzea bultzatzea.

Proposamen horri baieztuko erantzuna eman zioten Frantziak, Alemaniak, Italiak eta Beneluxeko hiru estatuak (Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo). 1951ko apirilaren 18an Parisen sinatu zuten **Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoa** (IAEE) eratzen zuen Ituna, 1952ko uztailaren 25ean indarrean sartu zena.

IAEEren arrakasta ikusita, 1955ean Beneluxek bateratze ekonomiko orokorra bultzatzea proposatu zuen, merkatu komun bat sortzeko. Negoziazioak egin zituzten eta, sei estatuak beste bi itun sinatu zituzten Erroman 1957ko martxoaren 25ean, eta beste bi erakunde eratu zituzten: **Europako Ekonomia Erkidegoa** (EEE) eta **Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa** (EAEE). 1958ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

1968an abian zen *Europako Erkidegoak* osatzen zituzten sei estatu kideen artean merkatu batua lortzeko lehenengo pausoa: salgaien eraman-ekarri askea. Hau da, merkataritza askerako esparru bat ezarri zen, eta horri kanpo muga-zerga bat gehitu zitzaion.

1973an zabaldu ziren lehen aldiz Europako Erkidegoak. Urtarrilaren 1ean Erresuma Batua, Danimarka eta Irlanda estatu kide bihurtu ziren (Norvegiak ezezkoa eman zuen erreferendumean). Bederatzien Europa sortu zen.

## **1.2. Bederatzien Europatik hamabosten Europara. Europako Erkidegotik Europar Batasunera**

1980ko hamarkadan bigarren aldiz zabaldu ziren Europako Erkidegoak, bi fasetan. Sistema demokratikora bueltatu ondoren (Europako bateratze-prozesuan parte hartzeko nahitaezko baldintza), kide izateko eskaria egin zuten Greziak 1975ean eta Portugalak eta Espainiak 1977an. 1981eko urtarrilaren 1ean, Europako Erkidegoko hamargarren estatu kide bihurtu zen Grezia. Bost urte geroago, 1986ko urtarrilaren 1ean Portugal eta Espainia barneratu ziren Europako Erkidegoan, eta hamabi estatu kide izatera iritsi ziren.

1985ean estatu kideek aurrera eraman zituzten negoziazioak eta 1986ko otsailean Europako Agiri Bakuna (EAB) sinatu zuten. Horren bidez, Europako Erkidegoak sortu zituzten hiru itunak egokitu ziren, Europako bateratze-prozesua indartuz. 1987ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean. Erakundearen izena singular bihurtu zen: *Europako Erkidegoa*.

EABk zekarren berrikuntzen artean nabarmenena zen Europako Erkidegoan barne-merkatua ezartzeko arauketa, hau da, merkatu komuna estatu kide guztientzat; kide horiek muga-zergak eta Erkidegoaren barneko merkataritza oztopatzen zuten neurri guztiak ezabatu behar zituzten. Europako Erkidegoko askatasunak ezarri nahi ziren: salgaien eraman-ekarri askea, langileen joan-etorri askea, zerbitzuen joan-etorri askea eta kapitalen eraman-ekarri askea. Merkatu komuna lortzea 1992ko abendurako aurreikusita bazegoen ere, 1993 erdialdera atzeratu zen. Orduetik aurrera, Europar Batasunak merkatu nazional gisa funtzionatzen du.

Europaren bateratze-prozesuaren bultzatzaile bilakatu zen EAB. Horrela, negoziazio gogorren ondoren, 1992ko otsailaren 7an *Europar Batasunaren Ituna* (EBI) sinatu zen Maastricht hirian (Herbehereak), *Maastrichteko Ituna* izenarekin ezagunagoa. Berrespenetan egon ziren arazoak tarteko, ez zen indarrean sartu 1993ko azaroaren 1era arte. Itun horrek egokitzapen hain garrantzitsua zekarrenez, erakundearen izena aldatu egin zen; orduetik aurrera, **Europar Batasuna** (EB) izango zen.

Itun horrek Europar Batasunaren kompetentziak handitu zituen, eta Ekonomia eta Diru Batasuna (EDB) martxan jartzeko arauketa ezarri zuen. Zehazki, sistema ekonomiko bateratu batera —diru bakarra izan behar zuena, euroa, hain zuzen—

heltzeko jarraitu beharreko hiru faseak eta estatu kideek bete behar zituzten baldintzak ezarri zituen. Era berean, «Batasunaren hiritartasuna» sortu zen; horri esker, estatu kide baten nazionalitatea zuenak Europar Batasunari lotutako zenbait eskubide politiko lortzen zituen.

Beste estatu batzuek ere egin zuten eskaria Europar Batasunean sartzeko: Austria, Suedia, Finlandia eta, berriro ere, Norvegia. Negoziazioak bukatu ondoren eta Norvegiaren erreferendum bidezko beste ezezko baten ondoren, 1995eko urtarrilaren 1ean Europar Batasuneko kide bihurtu ziren Austria, Suedia eta Finlandia. Europar Batasunak hamabost kide zituen jadanik.

### **1.3. Europaren ekialderako zabaltzea. 28en Europar Batasuna, munduko potentzia.**

1997ko urriaren 7an **Amsterdameko Ituna** sinatu zen. Haren helburua Europar Batasuna zabaltzea errazteko Batasunaren barne-antolaketa egokitzea bazen ere, ez zuen horrelakorik egin. Porrota izan zen.

Egokitzea beharrezkoa zenez, 2000. urtean beste negoziazio batzuk egin ziren eta 2001ean **Nizako Ituna** sinatu zen; 2003ko otsailean sartu zen indarrean. Itun horrek egokitu egin zuen Europar Batasunaren Ituna, zabalkuntza egin ahal izateko:

- 2004ko maiatzaren 1ean Europar Batasuneko kide bihurtu ziren Estonia, Eslovenia, Eslovakia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Zipre eta Txekiar Errepublika.
- 2007ko urtarrilaren 1ean Bulgaria eta Errumania sartu ziren.

2007ko abenduaren 13an sinatutako Lisboako Ituna izan da batasunaren garapena errazteko eman den azkeneko pausoa; 2009ko abenduan sartu zen indarrean.

2013ko uztailen Kroazia Europar Batasunako kide bihurtu zen. Kide bihurtzeko hautagaiak dira: Islandia, Mazedonia, Montenegro eta Turkia.

Nazioartean, gaur egungo Europar Batasunak Estatu Batuak gainditu ditu munduko potentzia ekonomiko gisa. Europar Batasuna da munduko barne-merkatu handiena bolumenari dagokionez (gogoratu Europar Batasuna merkatu nazional gisa eratuta dagoela). Europarrek iparramerikarrek baino BPG handiagoa dute, eta mundu-mailan salgaien merkataritzaren bosten bat (% 20) eta zerbitzuen merkataritzaren laurden bat sorrarazten dute (% 25). Munduko estatuak merkataritza-taldeetan batuz gero, Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Itunak (NAFTA) bakarrik gainditzen du Europar Batasuna salgaien kasuan.

#### 1.4. Europar Batasunaren erakunde-antolaketa eta politikak

##### a) Europar Batasuneko erakundeak

- **Europako Parlamentua.** Erakunde honek hiritarren interesak ordezkatzeko ditu. Bere funtzioa legeak egitean datza (Kontseiluarekin batera).
- **Europar Kontseilua.** Estatu kideen estatuburuak edo gobernuburuak, Europako Batzordeko presidentek eta Europar Kontseiluko presidentek berak osatzen dute. Europar Batasuna garatzeko norabide orokorrak onartzen ditu.
- **Ministroen Kontseilua (Kontseilua).** Erakunde honek estatuen interesak ordezkatzeko ditu. Estatu kideen politika ekonomikoak koordinatzea eta legeak egitea ditu funtzio nagusiak (kasu askotan, Europako Parlamentuarekin batera).
- **Europako Batzordea.** Erakunde honek Europar Batasunaren interesak ordezkatzeko ditu. Bi funtzio nagusi ditu: Batasunaren legedia betetzen dela kontrolatzea eta Batasunaren eguneroko kudeaketa.
- **Justizia Auzitegia.** Europar Batasuneko legediaren gain, botere judiziala eragiten du.
- **Kontu Auzitegia.** Europar Batasunaren aurrekontuaren gastua kontrolatzea dagokio.
- **Europako Banku Zentrala.** Salneurrien egonkortasuna lortzea du helburutzat.

##### b) Europar Batasunaren politikak (eskumenak)

Europar Batasunean aurrera eramaten diren politikari «politika komunak» esaten zaie, estatu kide guztietan aplikatzen direlako. Estatu kideek Batasunari igorri dioten subiranotasun arloen gain eratzen dira politika horiek, eta Batasunaren erakundeek arautzen dituzte (Europako Parlamentuak eta Kontseiluak).

Batasunak eskumen-maila handia du arlo hauetan: nekazaritza, kohesio ekonomiko eta soziala, garapenerako lankidetzak, energia, ikerkuntza eta garapena, industria, lehia askea, ingurumena, arrantza, merkataritza-politika, politika ekonomikoa, diru-politika (Euroguneko estatu kideentzat), erregio-politika, kontsumitzaileen babesa, Europako batez besteko sareak, eta garraioak.

Beste arlo batzuetan, eskumen txikiagoa du Batasunak: kultura, hezkuntza, lanbide-heziketa eta gazteria, enplegua, zergak, politika soziala, eta ogasun publikoa.

## **2. Merkatu Batua**

Europar Batasuneko estatu kide guztien lurraldeak hartzen dituen eremu ekonomikoa da Merkatu Batua, non produkzio, lan eta kapital faktoreak batetik bestera askatasunez mugitu baitaitezke, merkatu nazional bat izango balitz bezala.



1970eko urtarrilaren 1a zen Merkatu Batua martxan jartzeko aurreikusitako data. Salgaien eraman-ekarri askea martxan 1968an jarri bazen ere, langile eta zerbitzuen joan-etorri askea ez zen guztiz garatu, are gutxiago kapitalen eraman-ekarri askea. Benetako Merkatu Batua eratzeko zenbait oztopo izan ziren 1980ko hamarkadan.

1986ko Europako Agiri Bakunak Merkatu Batua bultzatu zuen. «Barne-merkatua»ren kontzeptua ekarri zuen, barne-mugarik gabeko eremua, non bermatuta geratuko baitziren salgai, pertsona, zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askea. Horrela, barne-merkatua eremu ekonomiko bateratu gisa agertu zen, eta ezabatu egin ziren estatu kideen arteko muga-zergak eta oztopo mota guztiak (teknikoak, fisikoak, diruzkoak).

Barne-merkatua 1992ko abenduaren 31rako martxan jartzea aurreikusi bazen ere, praktikan 1993 erdialdera lortu zen hori.

### **2.1. Salgaien eraman-ekarri askea**

Salgaien eraman-ekarri askearen bitartez, bi helbururen gaineko merkatu batu bat lortu nahi zen (eta lortu egin zen):

- Estatu kideen artean merkataritza askeko gune bat eratzea.
- Kanporako muga-zergen batasuna eratzea.

Merkataritza askeko guneak zera ekarri du: estatu kide bateko edozein enpresak egindako produktua beste estatu kide batera eraman ahal izatea, inolako oztoporik gabe. Hori egin ahal izan da ezabatu egin direlako muga-zergak, ondorio berdina duten tasak, eta inportazioen gaineko kopuruzko murriztapenak.

Kanporako muga-zerga batzearen ondorioz, estatu kide guztiek muga-zerga berdinak ezartzen dizkiete Europar Batasunaren kanpotik etortzen diren produktuei. Horrela, berdinak dira Hanburgoko kaitik sartzen den produktuak Alemaniako administrazioari ordaindu behar dion muga-zerga, eta Bilboko kaitik sartuz gero Espainiako administrazioari ordaindu beharko liokeena.

### **2.2. Langileen joan-etorri askea**

Langileen joan-etorri askea da Europar Batasuneko edozein estatu kideetako pertsona orok duen eskubidea beste estatu kide batera mugitzeko eta bertakoek dituzten baldintza berdinekin soldatapeko lanpostu bat eskuratzeko.

Europar Batasuneko langileen joan-etorri askearen araubidea ezartzen zaie soldatapeko langile guztiei, edozein sektoretan lan egiten dutela ere.

Askatasun horren onuradunari dagozkion eskubideak:

- Beste estatu kide bateko lurraldean sartzea, egoitza izatea eta bertan kokatzea.
- Soldatapeko enplegu baterako hautagai izatea: estatu kide bateko herritar orok eskubidea du beste estatu kide batean soldatapeko enplegu baterako hautagai izateko, beste estatu kide horretako legediak bere langile nazionalentzat ezarritako baldintza eta eskubide berdinekin.
- Lan-baldintzak eta abantaila sozialak: estatu kide bateko herritar den langilea ezin da nazionalitateagatik diskriminatua izan, beste estatu kide bateko lan-baldintzak direla-eta (soldata edo kanporatze-baldintzak barne); gainera, langile nazionalek dituzten lanpostuetatik eratortzen diren abantaila sozial eta fiskal berdinak izango ditu beste estatu kide bateko herritar den langileak.
- Gizarte Segurantzaren sistema: estatu kide batean lan egiten duen beste estatu kide bateko herritarrek lan egiten duen estatuko Gizarte Segurantzaren sisteman sartzen da.

### **2.3. Egoitza kokatzeko eskubidea eta zerbitzuak eskaintzeko askatasuna**

Zerbitzuen joan-etorri askeari buruz hitz egiten bada ere, elkarri lotutako bi askatasunen aurrean gaude: egoitza kokatzeko eskubidea eta zerbitzuak eskaintzeko askatasuna.

a) Egoitza kokatzeko eskubidearen kasuan, bi modalitate praktiko bereiz daitezke:

- Alde batetik, estatu kide bateko pertsona fisiko batek eskubidea du beste estatu kide batean profesional autonomo gisa egoitza kokatzeko, estatu kide horrek bere herritarrentzat ezarritako baldintza berdinetan.
- Bestalde, estatu kide bateko pertsona orok (bai fisikoak, bai juridikoak —beraz, enpresak eta merkataritza-elkarteak barne—) beste estatu kide bateko lurraldean enpresak era eta kudea ditzake (edo enpresa baten filialak, agentziak eta sukurtsalak), betiere estatu kide horretako herritarrentzat ezarritako baldintza berdinetan.

b) Zerbitzuen eskaintza askea zera da: estatu kide bateko herritar den eta estatu kide batean egoitza duen profesional autonomo batek beste estatu kide batera joateko eta han lanean aritzeko eskubidea, estatu kide horretako herritarrentzat ezarritako baldintza berdinetan. Zerbitzuen eskaintzak hiru modalitate praktiko ditu:

- Estatu kide bateko herritar den profesional autonomoa beste estatu kide batera mugitzen da zerbitzu bat eskaintzera.
- Zerbitzuaren jasotzailea beste estatu kide batera mugitzea. «Zerbitzuak eskaintzeko askatasunaren dimentsio pasiboa» da: Erresuma Batua tratamendu medikoa jasotzera doan frantziar herritarra; Espainiara turismo-bidaia egiten duen alemaniar

herritarra; Italiara ikasketak egitera doan suediar herritarra; Greziara futbol-partida bat ikustera doan austriar herritarra.

- Estatu kide batetik bestera zerbitzua bera mugitzea. Adibidez, txosten juridiko bat postaz bidaltzea, telebista-saioak emititzea, Interneten bidez zerbitzuak eskaintzea.

Hiru kasu horietan, zerbitzua eskaintzen duenak edo zerbitzua jasotzen duenak —betiere estatu kide bateko herritar badira— beste estatu kideko herritarrek dituzten eskubide berak izango ditu.

Askatasun hori onuragarri da lanbide liberal eta ekintza ekonomiko guztientzat (industrialak, merkataritzakoak edo eskulangintzakoak). Praktikan, edozein estatu kidean egin ahal izango da irabaziak lortzeko asmoarekin egiten den edozein ekintza ekonomiko edo profesional, nazionalitatea dela-eta inolako diskriminaziorik jasan gabe.

#### **2.4. Kapitalen eraman-ekarri askea**

Kapitalen eraman-ekarri askea beste hiru askatasunak baliatzeko oinarria da. Era berean, kapitalen erabateko liberalizazioak sistema ekonomikoak indartzen ditu, beste estatuetan zuzeneko inbertsioak bultzatzen baititu eta era egokian aurrezteko laguntza baita.

Kapitalen eraman-ekarri askea lortzeko, kapitalen mugimenduen gaineko murriztapenak debekatzen dira, estatu kideen artean nahiz estatu kideen eta Europar Batasunetik kanpoko estatuen artean. Praktikan, debeku hauek dira, merkataritzako diru-operazioak egitean estatu kideen artean:

- Europar Batasunean egoitza duten pertsonen egindako kapitalen mugimenduen gaineko murriztapenak.
- Nazionalitatean edo egoitzan oinarritutako diskriminazioak.
- Inbertsioen jatorrian edo helmugan oinarritzen diren diskriminazioak.

Askatasun horren edukiaren arabera, Europar Batasuneko norbanakoek — herritarrek edo enpresek— ez dute beren diruaren edo ondasun higikorren mugimenduak egiteko baimenik behar, eta eragiketok askatasun osoz egin ditzakete:

- Munduko beste edozein estatutan banku-kontuak zabaltzea eta haietara muga gabeko diru kopuruak mugitzea, agintariei baimenik eskatu behar izanik gabe.
- Bakoitzaren estatu kidean banku-kontuak zabaltzea beste estatu kide baten dirutan.
- Atzerritar banku bati mailegu bat eskatzea, agintariei baimenik eskatu beharrik izan gabe.
- Atzerriko burtsetan ondasun higiezinei buruzko eragiketak egitea.

Kapitalen mugimenduen liberalizazioak barne-merkatuaren sorrera erraztu du:

- Enpresek finantza-zerbitzu egokiagoak lortu dituztelako.
- Aurrezkiaren banaketa orekatuagoa lortu delako.
- Politika ekonomikoetan diziplina handiagoa lortu delako.

### **2.5. Pertsonen joan-etorri askea**

Europar Batasuneko lau askatasunak martxan jarri zirenean, Justizia Auzitegia oso interpretazio zabala egiten hasi zen langileen eta zerbitzuen joan-etorri askearen inguruan. Denborarekin, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak europar herritar guztien joan-etorri askea eratu du. Beraz, gaur egun, praktikan pertsona guztiek —ez bakarrik soldatapeko langileak eta autonomoak— askatasuna dute Europar Batasuneko lurralde guztian zehar mugitzeko.

### **3. Ekonomia eta Diru Batasuna**

1986ko EABrekin zehaztuta geratu zen barne-merkatuaren sistema; praktikan, 1993rako guztiz garatu zen, eta Ekonomia eta Diru Batasunarekin hasteko aukera ematen zuen.

Estatu kideek Europako Diru Sistema indartzea erabaki zuten: konpromisoa hartu zen estatu kideen diruen arteko nolabaiteko parekotasuna mantentzeko (diru-tipoa ezin zen aldatu % 2,25 baino gehiago gorantz edo beherantz, 1990eko krisialdian % 15era igo zena).

1994an erabaki zen etorkizuneko diru batuaren izena: euroa. Diru hori hartzeko estatu kideek bete beharreko baldintzak ere ezarri ziren (bateratasunerako irizpideak):

- Inflazioa ez izatea inflaziorik txikiena duten hiru estatu kideen batezbestekoa baino 1,5 puntu handiagoa.
- Interes-tipoak ez izatea interes-tiporik baxuenak dituzten hiru estatu kideen batezbestekoa baino 2 puntu handiagoak.
- BPGren % 3 baino handiago ez den defizit publikoa.
- BPGren % 60 baino handiago ez den zor publikoa.
- Diru nazionalaren truke-tipoaren egonkortasuna (balio galerarik ez jasatea).

1998aren amaieran beharrezko erabakiak hartu ziren:

- Euroa hartuko zuten estatu kideak zehaztu ziren (baldintzak betetzen zituztelako): Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak eta Portugal. Greziak hasieran ez zituen baldintzak betetzen, baina 2000.

urtean bete zituen; Suediak nahita jarraitzen du bete gabe. Erresuma Batuak eta Danimarkak betetzen zituzten, baina dirutzat euroa ez izatea erabaki zuten.

- Europako Banku Zentrala sortu zen; estatu kideen Banku Zentralek ordurarte izandako eskumenak bereganatzen zituen.

1999an euroa sortu zen. Hasiera batean, euroa banku-eragiketak egiteko soilik sortu zen, fisikoki ez baitzen existitzen. 2002ko urtarrilaren 1ean sartu zen euroa zirkulazioan, eta otsailaren 28ra arte Euroguneko estatu kideetako diru nazionalekin bizi izan zen. 2002ko martxoaren 1etik aurrera, euroa 300 milioi europarren diru bakar bihurtu zen.

Bateratasunerako irizpideak bete ondoren, beste estatu kide batzuek ere euroa hartu zuten: Esloveniak 2007an, Ziprek eta Maltak 2008an, Eslovakiak 2009an, Estoniak 2011n eta Letonia 2014an.

#### a) Ekonomia-organoak

Europako Banku Zentrala (EBZ) da ekonomia- eta diru-batasunaren oinarritzko zutabea. Horrek, estatu kideetako banku zentral nazionalekin batera, Banku Zentralen Europako Sistema (BZES) osatzen du. Horren barruan, gaur egun Eurogunean dauden hamazazpi estatuek *Eurosistema* osatzen dute.

BZESren helburu nagusia da salneurrien egonkortasuna mantentzea. Funtzioak:

- Europar Batasunaren diru-politika definitzea eta ezartzea.
- Ezarritako truke-tipoei buruzko politikaren inguruan dibisen eragiketa egokiak egitea.
- Estatu kideen dibisen erreserba ofizialak gordetzea eta kudeatzea, eta ordainketa-sistemen funtzionamendu ona bultzatzea.

Europako Banku Zentrala da BZESren organu zentrala. Egoitza Frankfurtan du, eta 1999ko urtarrilaren 1ean hasi zen jardunean. Independentzia osoz jokatzen du, eta BZESri dagozkion funtzioak betetzen dituela ziurtatzen du. Funtzio hori Europako Banku Zentralak berak zuzenean egiten du, edo banku zentral nazionalen bitartez. Beraz, Euroguneko estatu kideetako banku zentralak Europako Banku Zentralaren agentziak edo ordezkariak dira praktikan.

Salneurrien egonkortasuna bermatzeko eta politika ekonomiko sinesgarria izateko, hiru funtzio ditu Europako Banku Zentralak:

- Billeteak eta txanponak jaulkitzea; Eurogunean billeteak jaulkitzeko baimena eman dezakeen organo bakarra da.
- Europako eta mundu mailako diru-lankidetzak; lan-harremanak ditu Europar Batasuneko eta munduko erakunde eta organoekin.
- Finantza-sistema egonkortzea eta banku-sektorea kontrolatzea.

#### b) Ekonomia- eta diru-batasunaren ondorioak

Ekonomia- eta diru-batasuna abian jarriz geroztik, erraztu eta argitu egin da euroa dirutzat hartu duten estatu kideen arteko merkataritza, diruen gaineko trabak eta oztopoak desagertu direlako.

Honako hauek dira onurak (teorian behintzat):

- Transakzio-kostuak ezabatzea.
- Diruen arteko truke-tipoen segurtasun eza desagertzea.
- Finantza-erakundeen (bankuak, aurrezki kutxak, eta abar) arteko lehia handitu da, eta, ondorioz, finantza-aukerak handitu eta hobetu egin dira.
- Prezioak egonkortu ditu Europako Banku Zentralaren politika antiinflazionistak.

EDBk produzitzaileen lehia handiagoa ekarri duenez, kontsumitzaileentzat produktuen eskaintza handitu egin da, produktu eta prezio hobeak dira, eta Eurogune osoan konpara daitezke.

#### **4. Europako Esparru Ekonomikoa**

1960an sortu zen Europako Merkataritza Libreko Erkidegoa (European Free Trade Agreement – EFTA). Hasierako estatu kideak Austria, Danimarka, Portugal, Norvegia, Suedia, Suitza eta Erresuma Batua izan ziren. Ondoren, kide bihurtu ziren Finlandia, Islandia eta Liechtenstein. Estatu horiek ez zuten garatu nahi Europako Erkidegoek osatu zuten Merkatu Batua, merkataritza askeko gune bat sortzea nahiko zelakoan. Hala eta guztiz ere, Europako Erkidegoen eta haren estatu kideen garapena ikusita, EFTAko estatu gehienak apurka-apurka Europar Batasunean sartu dira.

1992an erakundearen moldaketa egitea erabaki zen, eta Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) antolatu zen. Gaur egun, EEEko kideak dira Europar Batasuneko 27 estatu kideak, Islandia, Liechtenstein eta Norvegia (Suitzako herritarrek erakunde berrian sartzeko ezezko botoa eman zuten erreferendumean).

EEEren helburua da salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen joan-etorri askea bermatzea, Europar Batasunak gai horretaz duen araubidea aplikatuz; bestetik, lankidetzaren bitartez murriztu egin nahi dituzte estatu kideen eskualde- eta gizarte-ezberdintasunak.

Era berean, enpresen ekintzak eta merkataritza-harremanak bultzatzeko, Europar Batasuneko zenbait politika Europako Esparru Ekonomiko osoan ezarri nahi dituzte: ingurumena, kontsumitzaileen babesa, ikerkuntza eta garapena, hezkuntza, eta abar.

## **BIGARREN ZATIA: BESTE EKONOMIA-BATERATZE PROZESU BATZUK**

Komunista-blokea desagertzearekin eta globalizazioa zabaltzearekin, nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa bultzatu da munduan zehar. MMEren sorrera da adibide argiena. Hala eta guztiz ere, 1990eko hamarkadan zehar prozesu hori eskualde eremuan ere orokortu zen, eta indartu egin da XXI. mende hasieran. Gaur egun, horrelakoa da eskualde barruko merkataritza (Mundu Bankua, 2007): Ipar Amerika, % 51; Hego Amerika, % 24; Europa, % 50; Sobietar Errepublika ohiak, % 20; Afrika, % 10; Ekialde Hurbila, % 12; Asia, % 50.

Europar Batasunaz gain, munduan ekonomia-elkarkidetzan oinarritzen diren bestelako nazioarteko eskualde-erakundeak daude. Batzuek merkataritza-liberalizazioa bilatzen dute; beste batzuek merkataritza askeko gune bat osatu dute; gutxi batzuk merkatu batua martxan jartzeko pausoak ematen ari dira, eta, oraingoz, Europar Batasuna da ekonomia- eta diru-batasuna garatzea lortu duen bakarra.

### **1. Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Ituna**

1988an, Estatu Batuek eta Kanadak Merkataritza Askeko Ituna sinatu zuten, eta 1989an sartu zen indarrean. 1992an Mexiko batu zitzaien Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Itunaren bitartez, 1994an indarrean sartu zena. Izenak adierazten duen bezala, helburua da hiru estatuen artean merkataritza askeko gune bat sortzea, 15 urteko epean muga-zergak kenduz edo murriztuz (2009rako, beraz).

Gaur egun, ehungintza liberalizatu da, eta baita nekazaritza-arloko produktu asko ere (azukrearentzat, artoarentzat eta barazkientzat % 6ko muga-zerga mantentzen da).

Industria-sektorean, lekuko edukiaren araua ezarri da: autoen kasuan, nahitaezkoa da ibilgailuaren % 60 estatu kide batean egina izatea, beste bi estatu kideetara askatasunez eraman ahal izateko.

Estatu Batuen nahiari men eginez, erakundeak ez du inolako batasun ekonomikorako prozesurik egingo; beraz, merkataritza askeko gune bat garatuko da gehienez. Horrela, ez da eratu inongo erakunde-antolaketarik, soilik eguneroko kudeaketa-funtzioak betetzen dituen idazkaritza administratiboa.

### **Ameriketako Merkataritza Askeko Gunea**

Estatu Batuetako agintariak aspaldi ari dira Amerika kontinenteko beste estatuekin negoziatuz, Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Ituneko kide bihurtzeko daitezkeen edo, behintzat, aldebiko merkataritza-hitzarmenak egin ditzaten haiekin.

Txilerekin saiakera handia egin zuten, eta 1990eko hamarkadaren amaieran bazirudien Txile NAFTA n sartuko zela. Ordea, Txilek nahiago izan du akordioak bere auzokoekin bilatu, eta Mercosurrekin eta Andeetako Erkidegoarekin harreman ekonomikoak sakondu.

Estatu Batuen helburu horrek forma zehatza hartu zuen 2000. urtean, Bill Clinton presidentek aurkeztutako proposamenarekin: Ameriketako Merkataritza Askeko Gunea, hain zuzen, Alaskatik Tierra de Fuegora doan merkataritza askeko gunea bat sortzeko proposamena. Proposamen horrek oztopoak ekar ditzake Hegoamerikako ekonomia bateratzeko prozesuentzat (eta hori izan daiteke Estatu Batuen helburua ere). 2005ean Bush presidentek proiektua bultzatu nahi izan zuen berriro ere, Mexikoren laguntzaz, baina Hegoamerikako herrialdeek ez dute baiezkorik eman.

## **2. Andeetako Erkidegoa eta Mercosur**

### **2.1. Andeetako Erkidegoa**

Erakunde hau *Andeetako Itun* izenarekin jaio zen 1969ko maiatzaren 26an, Txilek, Kolonbiak, Ekuadorrek, Peruk eta Boliviak Cartagenako Hitzarmena sinatu zutenean. Venezuela estatu kide bihurtu zen 1973an, eta Txile erakundetik irten zen 1976an.

Erakundearen helburu orokorra zen estatu kideen garapen ekonomiko orekatua lortzea. Horretarako, honako helburu zehatz hauek ezarri ziren:

- Merkatu batua.
- Kanpo-zerga bakarra.
- Ekonomia- eta giza politiken bateratzea.

Itunak helburuak lortzeko epea finkatu zuen, 1980. urtean. hain zuzen. Ordea, ez zen praktikara eramateko akordiorik lortu, zeren garai horretako kanpo-zorraren krisiak eta kideetako ekonomien ahultasunak ez baitzuten erraztu egin beharreko lana.

Erakundeari bultzada ematearren, 1993an martxan jarri zuten merkataritza askeko gunea Boliviak, Kolonbiak, Ekuadorrek eta Venezuelak, eta 1995ean kanpoko muga-zerga bakarra produktu gutxi batzuentzat. Peruk, bere egoera ekonomikoa zela eta, 1997an bat egin zuen Merkataritza Askeko Andeetako Gunearekin. Aurrerapauso hori dela eta, erakundea Andeetako Itun izatetik Andeetako Erkidego izatera igaro zen. 2002an hasi ziren merkatu batua garatzeko negoziazioak, eta produktuen % 62rako ezarri zen kanpoko muga-zerga.



Bestalde, 2003an pertsonen joan-etorri askea ezarri zen: estatu kideetako herritarrak Andeetako Erkidegoko lurraldeetan zehar mugi daitezke pasaporterik gabe.

2006an, Venezuelak kide izateari utzi zion, Kolonbiak eta Peruk Estatu Batuekin merkataritza askeko itunak sinatzeko eginiko negoziazioen aurka zegoelako. Venezuela Mercosurreko estatu kide bilakatu zen, eta Andeetako Erkidegoko estatu elkartu gisa mantendu zen.

## 2.2. Hegoaldeko Merkatu Batua

MERCOSUR da Latinoamerikan batasun ekonomikoa zabaltzearen ideiarekin erakunde sinbolikoa. Asunción-eko Itunaren bitartez sortu zen 1991ko martxoaren 26an, Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguai sortzaile zirela. 1994ko abenduaren 16ko Ouro Preto Protokoloaren bitartez, Nazioarteko Zuzenbidean pertsonalitate juridikoa eman zitzaion erakundeari, 1995eko abenduan indarrean sartu zena.

Erakundearen helburua bikoitza da:

- Salgaien, pertsonen eta kapitalen joan-etorri askea lortzea, hau da, merkatu batua. Horretarako, estatu kideek politika makroekonomikoak koordinatzen dituzte, eta beste herrialdeekiko merkataritza-politika batua antolatzen dute.
- Estatu kideen eta estatu elkartuen arteko batasun politiko eta kulturalean sakontzea.

Protokoloaren araubideari jarraituz eta hasierako arrakasten ondorio gisa, 1999an martxan jarri zen merkataritza askeko gunea, baina bi salbuespen garrantzitsurekin: azukrea eta automobilgintza. Protokoloak kanpoko muga-zeriga erakunde bat ezartzea aurreikusten zuen. Ordea, urte horretan Brasil eta Argentina arteko merkataritza-gatazkak zirela eta, erakundearen garapena moteldu zen. Gainera, 2000. urtetik 2003. urtera bitartean, bi estatu horiek krisialdi ekonomiko gogorra jasan zuten. Brasil eta Argentina ekonomikoki suspertzen hasi direnean, Mercosur martxan jarri da berriro ere bere helburua lortzeko.

Horrela, 2002ko Olivos-eko batzarrean erakundea indartzea erabaki zuten estatu kideek, hiru zutabetan oinarrituz:

- Barne-organoak indartzea, diru-politika batua sortzearen posibilitatea barne.
- Lehiakortasuna handitzea, ekoizpen-sektorea dinamizatuz.
- Nazioartean proiektatzea.

Azken finean, Mercosurreko batasun ekonomikoa indartzearen alde agertu ziren, era berean, nazioarteko merkatuetan hobeto sartu ahal izateko.

2002an ere, Mercosurrek, Txilek eta Boliviak «egoitza askeko eta lan-ekubideko gunea» ezarri zuten. Horren arabera, herrialde bakoitzeko herritarrek beste herrialdeetan beren egoitza kokatzen ahal dute askatasun osoz, eta lana bilatzeko

eskubidea dute, nazionalitatean oinarritutako diskriminaziorik jasan gabe (aurrekari penalik ez edukitzea da baldintza bakarra).

2005eko abenduan merkataritza askeko ituna sinatu zen Mercosur eta Kolonbia artean, eta 2006an sartu zen indarrean.

Urte horretan, Venezuelak uko egin zion Andeetako Erkidegoko estatu kide izateari, eta Mercosurren sartzeko eskaria egin zuen; horrenbestez, 2007ko uztailean Mercosurreko bosgarren estatu kide bilakatu zen (hala ere, 2012ko uztailean arte ez da formalki eskubide osoko kide bilakatu).

2007an, Bolivia Mercosurren sartzeko eskaria egin zuen (Andeetako Nazioen Erkidegotik irten barik). Ekuadorrek ere adierazi du Mercosurreko estatu kide bihurtzeko eskaria egingo duela.

2007ko abenduan Mercosurren eta Israelen artean sinatu zen merkataritza askeko ituna, hamar urteren buruan muga-zergak desagertzea ekarriko duena.

2010ean, estatu kideek muga-zergako kodea sinatu zuten; muga-zerga batua ezartzeko lehenengo pausoa izan zen.

Gaur egun, beraz, Argentina, Brasil, Paraguai, Uruguai eta Venezuela dira Mercosurreko estatu kideak eta 275 milioi biztanle ditu. Andeetako Erkidegoko estatu kideak (Bolivia, Kolonbia, Ekuador eta Peru) eta Txile estatu elkartuak dira. Mexiko estatu begiralea da.

Mercosur da elikagaien munduko lehen produktorea.

### **2.3. Hego Amerikako Nazioen Batasuna**

Mercosurrek eta Andeetako Erkidegoak harreman lotuak dituzte. Alde batetik, erakunde bakoitzeko estatu kideak beste erakundearen estatu elkartuak dira, eta Txile bi erakundeen estatu elkartua da. Bestalde, bi erakundeek ekonomia-harremanak estutzeko hitzarmena garatu zuten 2002ko abenduaren 6an («Acuerdo de Complementación Económica»).

Aurrerapauso garrantzitsu bat eman eta, Hego Amerikako estatu guztiek Hego Amerikako Nazioen Batasuna (UNASUR) sortu zuten 2008ko maiatzaren 23an Brasilian sinatutako itunaren bitartez. Erakunde berri horrek elkartzen ditu Mercosurreko estatu kideak, Andeetako Erkidegoko estatu kideak, Txile, Guyana eta Surinam, 400 milioi biztanle dituen erkidego ekonomiko zein politiko batean.

Berehalako helburu ekonomikoa Hego Amerika osoan merkataritza askeko gune bat sortzea bada ere, esan beharra dago UNASURek helburu zehatz sakonak dituela: kideen artean kultura-, gizarte-, ekonomia- eta politika-arloetan bateratze-gunea sortzea, giza eta ekonomia-ezberdintasunak desagerrarazteko eta demokrazia

indartzeko. Horretarako, elkarrizketa politikoa, gizarte-politikak, hezkuntza, energia, azpiegiturak, finantzaketa eta ingurumenaren babesa bultzatuko dira.

Etorkizunera begira, eta jakinda Mercosur eta Andeetako Erkidegoa, bakoitza bere aldetik, Europar Batasunarekin merkataritza askeko gune bat sortzeko negoziaziotan ari direla, argi dago UNASUReko 12 estatu kidek eta Europar Batasuneko 27 estatu kidek (oraingoz) merkataritza askeko inoizko gunerik handiena osa dezaketela.

### **3. Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Erkidegoa**

Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Erkidegoa (ingelesez duen izenaren siglez ezaguna) 1967ko abuztuan sortu zen, Filipinek, Indonesiak, Singapurrek, Malaysiak eta Thailandiak komunismoaren aurkako defentsarako erakunde bat eratu zutenean. 1984an, Brunei estatu kide bilakatu zen.

1992an, Gerra Hotza bukatu zenean, erakundeak lankidetzak ekonomikoan oinarritu zuen bere helburua. Horrela, ASEANek helburu bikoitza hartu zuen oinarri:

- Estatu kideen artean merkataritza askeko gune bat sortzea 2010erako.
- Merkatu batua 2020rako.

Erakundearen aldaketa horrek eskualdeko beste estatu batzuk kidetzea erraztu zuen: Vietnam 1995ean, Myanmar 1997an, Laos 1997an eta Kanbodia 1999an.

Hala eta guztiz ere, ASEANeko estatu kide gehienetan sistema politiko diktatoriala edo alderdi bakarrekoa dago:

- Singapur: hiri-estatu honetan alderdi bakarrekoko sistema dago.
- Myanmar, Laos eta Vietnam: sistema komunistak dituzte, nahiz Laosek eta Vietnamek ekonomia-mailan kapitalismora jo duten (Txinaren adibideari jarraituz).
- Thailandia, Filipinak, Kanbodia, Malaysia eta Indonesia: sistema demokratikoak badituzte ere, «demokrazia ahulak» dira, armadak eragin handia baitu eta estatu-kolpeak emateko ahalegin anitz izaten baitira.

Hori guztia dela eta, merkatu batua lortzeko helburua praktikoa baino teorikoagoa da. Egia esanda, gaur egun, oso murrizta da estatu kideen arteko merkataritza-liberalizazioa.

Txinarekin hitzarmen garrantzitsua sinatu dute ASEANeko kideek. Horren arabera, 2010erako muga-zergak % 5etik behera jaitsiko dira hamaika estatuen arteko merkataritzan. Txina ASEANeko estatu kide bihurtuko balitz, biztanleria kontuan harturik, munduko merkataritza askeko gunerik handiena sortuko litzateke. Japoniarekin eta Hego Korearekin ere lankidetzarako hitzarmenak sinatu dituzte. Herrialde horiek guztiek osatzen duten foroari «ASEAN + hiru» deritzo.

Erakundearen sartzeko hautagaia da Ekialdeko Timor, eta Papua Ginea Berria herrialde begiralea da.

#### **4. Beste erakunde batzuk**

##### **4.1. Karibeko Erkidegoa**

Karibeko Erkidegoa Chaguaramas-ko Itunarekin sortu zen, 1973ko uztailaren 4an, eta Barbados, Guyana, Jamaika, eta Trinidad eta Tobago sinatu zuten. Orduetik hona beste hamaika estatu kide dira, eta helburuak zehaztu egin dira:

- Estatu kideen ekonomia-batasuna, Merkatu Batu bat antolatuz.
- Estatu kideen kanpo-politikak koordinatzea.
- Hezkuntza-, kultura- eta industria-arloetan lankidetzaren bultzatzea.

Estatu kideak: Antigua eta Barbuda, Bahamak, Barbados, Belize, Dominika, Grenada, Guyana, Haiti, Jamaika, Montserrat, Saint Kitts eta Nevis, Santa Luzia, Saint Vincent eta Grenadinak, Surinam, Trinidad eta Tobago.

Estatu elkartuak: Anguilla, Bermuda, Birjina uharte britainiarrak, Kaiman uharteak, Turks eta Caicos uharteak.

##### **4.2. Erdialdeko Amerikako Merkatu Batua**

1960an Erdialdeko Amerikako estatuak, ekonomia nahiko ahulak zituztenak, Erdialdeko Amerikako Merkatu Batua (EAMB) eratzea erabaki zuten Managuako Itunaren bitartez. Helburua merkatu batu bat sortzea zen, erakundea osatzen zuten herrialdeen arteko merkatu bakarra: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Costa Rica (azken horrek besteak baino garapen ekonomiko nabarmenagoa zuen).

Hasiera batean, EAMB nahiko arrakastatsua izan zen, martxan jarri baitzen estatu kideen artean salgaien eraman-ekarri askea. Merkataritza askeko gunea bat zen, beraz, 1960ko hamarkadan herrialdeen arteko merkataritza % 7tik % 26ra handitu zuena. Hasiera itxaropentsu horren ondoren, moteldu egin zen erakundearen garapena, eta 1970eko hamarkadan krisiak jo zuen.

1985ean hitzarmen bat sinatu zuten Europako Erkidegoarekin. Horren arabera, EAMBko estatu kideen produktuei Europako Erkidegoan sartzeko erraztasunak eman zitzaizkien, muga-zerga txikiagoa ordainduz.

1993an estatu kideek erabaki zuten merkataritza askeko gunea indartzea eta merkatu batua lortzeko pausoak ematea. Horrela, produktu gehien truke askea, kapitalen liberalizazioa eta pertsonen joan-etorri askea martxan jartzea erabaki zuten.

Ordea, 1994ko Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Itunak ez zien mesederik ekarri, EAMBko estatu kideek Mexikorekin eta batez ere Estatu Batuekin merkataritza-harreman ugariak zituztelako. 1998an, estatu kideen esportazioen % 48k Estatu Batuak zituzten helmuga.

Horrela, merkatu batuak urruneko helburua dirudi. Gaur egun, EAMB osatu gabeko merkataritza askeko gunea da, salgaien eraman-ekarri askea ahalbidetzen duelako honako produktu hauetarako izan ezik: kafea, azukrea, alkohola eta petroliotik eratorritakoak.

### **4.3. Golkoko Arabiar Estatuaren Elkarkidetzarako Kontseilua**

Persiako golkoko estatu gehienek 1981eko maiatzean sortu zuten erakunde hau: Bahrain, Kuwait, Oman, Qatar, Saudi Arabia eta Arabiar Emirerri Batuak (Iran eta Irak ez dira kideak). Guztiek ezaugarri berdina dute; hain zuzen, haien ekonomiak aberastasun bakar batean oinarritzen direla: petrolioan.

Erakundearen oinarritzko helburua da estatu kideetako herrien arteko harremanak honako ekonomia-arlo hauetan estutzea: finantzak, merkataritza, muga-zergak, turismoa, industria, nekazaritza, ur-baliabideak, ikerkuntza zientifikorako zentroak, sektore pribatuko lankidetzak.

Gaur egun, estatu kideen artean muga-zergen batasuna dago, eta Kontseilua merkataritza askeko itun bat negoziatzen ari da Europar Batasunarekin.

### **4.4. Afrikako Ekonomia Erkidegoa**

Afrikako herrialdeek izan dituzten ekonomia- eta politika-arazoak direla eta, porrot egin dute kontinentean lankidetzak ekonomikorako sortu diren erakunde ugariak.

Kontinentean zeuden erakundeak batuz, 1994an martxan jarri zen Afrikako Ekonomia Erkidegoa. Erakunde horren helburua da Afrikako herrialdeen garapen ekonomikoa lortzeko oinarriak ezartzea, bide bakarra elkarlana dela argi izanik. Horrela, zenbait fasetan garatu nahi dira merkataritza askeko gunea, merkatu batua eta ekonomia- eta diru-batasuna.

Lehenengo pausoa emateko –merkataritza askeko gunea sortzea–, abiapuntu gisa hartu ziren Afrikako estatuak osatu dituzten eskualde-erakunde ekonomikoak, guztiek merkataritza liberalizatzea baitute hasierako helburutzat:

Gaur egun erakunde horiek guztiek ez dute oraindik praktikan jarri merkataritza askeko gunea. Hau da helburu hori lortzeko prozesuaren egoera:

- Sahel-Saharako Estatuaren Erkidegoa (CEN-SAD): prozesua gelditua.

- Afrikako Ekialde eta Hegoaldeko Merkatu Batua (COMESA): prozesua garatzen.
- Ekialdeko Afrikako Erkidegoa (EAC): prozesua indarrean.
- Afrika Erdialdeko Estatuaren Ekonomia Erkidegoa (ECCAS): prozesua indarrean.
- Afrika Mendebaldeko Estatuaren Ekonomia Erkidegoa (ECOWAS): prozesua indarrean.
- Garapenerako Gobernu-arte Agintzaritza (IGAD): prozesua gelditua.
- Afrikako Hegoaldeko Garapenerako Erkidegoa (SADC): prozesua indarrean.
- Arabiar Magrebeko Batasuna (UMA): prozesua gelditua.

Horrela, Afrikako Ekonomia Erkidegoa ez da garatzen hasi erakundea osatzen duten estatu kide guztietan, hasierako helburua betetzen hasi diren eskualde-erakundeetan baizik.

#### **4.5. Australiaren eta Zeelanda Berriaren arteko Ekonomia Harremanak Estutzeko Merkataritza Ituna (ANZCERTA)**

Ozeano Bareko eskualdean garatuen dagoen erakundea da, eremu horretan ekonomikoki garatuen dauden bi herrialdeek eratua baitago.

Australiak eta Zeelanda Berriak merkataritza askeko ituna sinatu zuten 1965ean. Horri esker, 1980rako, kenduta zegoen bien arteko merkataritzan mugazergen % 80. Hala eta guztiz ere, bi herrialdeen arteko ekonomia-harremanak sakondu nahi zituzten, eta helburu horrekin sinatu zuten 1983an Ekonomia Harremanak Estutzeko Merkataritza Ituna (ANZCERTA). Helburu orokorra da batasun ekonomikoa lortzea, eta 1990erako martxan jarri zituzten honako ekonomia-askatasun hauek:

- salgaien eraman-ekarri askea
- langileen joan-etorri askea
- zerbitzuen eskaintza askea

2001ean, herritarren mugitzeko askatasuna garatzeko akordioa onartu zuten bi herrialdeek (*Trans-Tasman Travel Arrangement*).

Etorkizunera begira, kanpoko muga-zerga batua eta lehiari buruzko politika batua eratu nahi dituzte.

## XI. gaia.

### ESPAINIAKO GARAPEN EKONOMIKOAREN EBOLUZIOA

#### 1. Esparru politiko-instituzionala: Erregimen Zaharretik estatu liberal burgesera

Espainiako estatuaren XIX. mendeko historia politikoan eta sozialean oso ugariak izan dira estatu-kolpeak, iraultzak, barneko liskarrak, independentzia eta gerrate kolonialak, gobernu-aldaketak eta konstituzio berrien argitalpenak. Ezegonkortasun politiko eta soziala handia izan da.

Zertzelada horiek, noski, ez zuten sortu giro egokirik ez ekonomiaren garapenerako, ezta industrializazio-politkarik ezartzeko ere.

Erregimen Zaharraren amaiera eta horren ondoren etorri zen sistema liberalaren osaketa apurka-apurka gauzatu ziren Espainian. Aldaketa soziopolitiko hori zenbait momentutan bultzatu zen, hala nola: Cádizko Gorteak eta Konstituzioa (1812), Hirurteko Liberala (1820-1823), Fernando VII.aren ondorengotza (1833ren ondoren) eta 1868ko Iraultza.

Ekonomiaren ikuspuntutik, Iraultza Liberalak legeriaren modernizazioa ekarri zuen Espainiara, behintzat, industria-garapenerako abiapuntuko gutxieneko baldintza batzuk ahalbidetu zirelako. Ildo horretatik etorri ziren kaleratu zireneko komertzio-kodeak eta orduan argitaraturiko legeak.

#### 2. Nekazaritza-sektorea

##### **2.1. Lur-jabetzaren egitura eta desamortizazio-prozesua**

Espainiako estatuan hain anakronikoa izan zen lur-jabetzaren banaketa eragozpen handia izan zen nekazaritzaren garapena lortzeko orduan.

Lur gehiena betiko jaunen eskubideen mende zegoen, antzinatek pribilegiadun estamentuei loturikoen esku (noblezia, Eliza). Oro har, lur horien etekina urria zen eta oso zerga gutxi ordaintzen zuten.

Muturreko gobernu liberalek saio sorta bat egin zuten lur horiek desjabetzeko eta, era berean, landaren egoera modernizatzeko.

Jarraituriko estrategia politikoak jaurerriak eta maiorazkoak ezabatzea eragin zuen eta, bide batez, luraren desamortizazio-prozesuen hasiera. Erabilitako estrategiek ozta-ozta jarraitu zioten eredu horri:

- Jaurerriak indargabetzea. Jaurerriak izan ziren feudalismoaren aztarna anakronikoa, zeinen bidez zenbait noblek antzinako eskubideei eusten baitzieten. Bi jaurerri mota izan ohi ziren: jurisdikzionalak (zergak kobratzeko, justizia emateko, eta abarrerako eskubidea) eta lurraldekoak (lurraren jabetasuna). Lehenak ezabatu ziren, baina nobleziak artean bigarrenei eutsi zien.

- Maiorazkoak ezabatzea. Erakunde horren arabera, nobleziaren ondarea osorik eta banatu gabe mantendu behar zen nahitaez, besterentzeko ahalbiderik gabe (saldu eta banatu gabe). Baina, azkenean, maiorazkoak ezabatu egin ziren.

- Elizaren eta udalen ondasunen desamortizazioa. Ondasun mota horien barnean zeuden hirietako eta landetako orube hagitz (udalen kasuan, gainera, berezitasun bat izan zen: baziren, alde batetik, ondasun komunalak, komunitate guztiak erabil zitezakeenak; eta, beste aldetik, udalaren beraren ondasunak, partikularrei errentan emanik udalen diru-sarrerak gehitzen zituztenak).

Lehenengo desamortizazio handia 1836an gertatu zen, Mendizabal ministroak Elizaren desamortizazioari ekin zionean. Erradikala izan zen; klero erregularraren eta, gero, klero sekularraren ondasunak desjabetuz eta enkanteen bitartez gauzatu zen.

1855. urteaz geroztik, desamortizazio zibila edo desamortizazio orokorra gauzatu zen, Pascual Madoz Ogasuneko ministroak bultzaturik. Orduko hartan, bai Elizaren ondasunak bai udalena ukitu ziren.

Besteak beste, honako hauek izan ziren bi desamortizazio horien ondorioak:

- Lur-jabetzaren egituraren aldaketak izan ziren.
- Hala ere, lurra zati handietan saldu zirenez, erosle gehienak ez ziren nekazariak, baizik eta kapital franko zeukaten nobleak eta burgesak.
- Latifundioak gehitu egin ziren; ondasun komunalak, ordea, murriztu.
- Landuriko lurra neurrian gehitu ziren.
- Ogasunaren defizita partzialki gainditu zen.
- Frantziako lur-jabetza ereduaren parean, nekazaritza-erreformak ez zuen suspertu lur-jabetza txikirik; Britainiar eta prusiar ereduaren parean, lur-jabe berri handien artean ez zen sortu aiurri kapitalistarik.

Era horretan, Espainiako landa-eremuan, momentuz ez zen gauzatu Mendebaldeko Europan izan zen nekazaritzaren modernizaziorik.

## **2.2. Nekazaritza-ekoizpena eta ekoizkortasuna**

XIX. mendean, lursail berrien goldaketa zela-eta, Espainiako nekazaritza-ekoizpena handitu egin zen. Hala ere, ekoizkortasunaren igoera oso motel gertatu zen (igoera intentsiborik ez zen izan, estentsiboa baizik).



Ekoizpenaren hazkundearen beste arrazoi bat zerealen alde ezarritako babesaren izan zen, hala Espainian bertan nola kolonietan (Kuban eta Puerto Rico).

Dena dela, 1870eko hamarkadatik aurrera, eta atzerriko lehia zela-eta, zerealen lanketan atzerapena antzeman zen (horren arrazoiak izan ziren, besteak beste, nazioarteko garraioen gorkaldia eta herrialde berrien lehia).

Landuriko produktu garrantzitsuenak hauek izan ziren:

- 1870. urtera arte garia zen nagusi.
- Mendearen erdialdetik 1890era arte, mahastiak zabaldu ziren, Frantzia izandako filoxera gaixotasunaren ondorioz. Mahastia lehorreko lurretara moldatzen joan zen. Mendearen amaieran, eta Iberiar penintsulan filoxera zabaldu ahala, sektorea krisialdian sartu zen.
- Olibondoaren zabalkundea ere izan zen, lehorreko lurraldeetan, mahastiarekin batera.
- Halaber, barazkiak nabarmen hedatu ziren sail ureztatueta.
- Aldi berean, zitrikoen eta fruitu lehorren zabalkundea nabarmena izan zen Levante aldean.

Funtsean, XIX. mendean zehar, gaurko nekazaritza-ekoizpenaren egitura eratzten joan zen. Ezaugarriak honako hauek izan ziren:

- Ekoizpenaren aniztasuna areagotzea.
- Gaurko nekazaritza-lurraldeak progresiboki finkatuz joatea.
- Nekazaritza-sektorea gehitzea kanpo-merkataritzaren esparruan.

Nekazaritza-sektoreak ez zuen sortu nahikoa eskaririk industria-garapena suspertzeko. Nekazaritza ez zen gauza kapital franko pilatzeko, ezta industriari eskulan ugaria emateko ere.

Hala eta guztiz ere, XIX. mendean zehar, ikuspuntu kuantitatibo batetik, nekazaritzak sektore behinena izateari eutsi zion. Artean, 1900. urtean, nekazaritza-sektoreak populazio aktiboaren bi heren inguru enplegatzen zuen, eta errenta nazionalaren erdia baino gehiago sortzen zuen. Dударik gabe, nekazaritzan gertatzen ari zena oinarritzat izan zen gainerako sektoreentzat.

### **3. Meztzaritza**

#### **3.1. Baliabide mineralak**

Espainiako estatuan oparoa izan ohi da lurpeko mineralen ahalmena.

Mezte handien baliabidea nabaria izan da; are gehiago, askotan, meztegiak kostaldetik hurbil kokatzen zirenez gero, erlatiboki erraza izan zen meatearen garraioa.

Mea-baliabide garrantzitsuenak hauek izan dira: burdingaia, beruna, merkurioa, kobrea eta harrikatza.

Funtsean, mea-baliabideen ahalmen hain handiak erraz susper lezake industrializazioa. Hala eta guztiz ere, zenbait zailtasun tarteko, halakorik ez zen gertatu. Zailtasunak hauek izan ziren, batik bat:

- Eskaintzaren aldetik, finantza-kapitalik eta ezaguera teknikorik eza.
- Eskariaren aldetik, ekonomiaren eta industriaren azpigarapenak sorturiko urritasuna.

### **3.2. Legeria**

Ohiko tradizioari jarraituz gero, Espainiako lurraldeko meatze guztien jabea nazioa izan zen; hots, monarkia eta gobernu.

Tradizionalki, kanon baten truke, gobernuak partikularrei meategiak alokatu ohi zizkien; errentamenduen epeak laburrak ziren, gehienetan.

1868ko Meatzaritzarako Oinarrien Legea garrantzi handiko inflexio-puntua izan zen. Lege horren arabera, estatuari kanon bat ordaintzearen truke, epe luzerako (are behin betirako) meatze-emakidak baimendu zitzaizkien bai Espainiako bai atzerriko konpainiei. Egoera horrek sektorearen modernizazioa eta ustiapen intentsiboa ekarri zituen (ordura arte, emakidak oso epe laburrerakoak izan zirenez, ez zen suspertu ustiapenen hobekuntzarik).

### **3.3. Inbertsioak eta atzerriko nagusigoa**

XIX. mendean, atzerriko kapitalek eskuratu zuten Espainiako meatzaritza gehienaren jabetasuna.

Honako hauek izan ziren egoera horren arrazoiak:

- Estatuak emandako erraztasunak —adibidez, aipaturiko 1868ko Oinarrien Legea— sektorera atzerriko kapitalen etorrera legala baimentzeko.
- Espainiako enpresaburuen eta kapitalen ahulezia bera.

Inbestitzaile garrantzitsuenak britainiarrak, frantziarrak eta belgikarrak izan ziren.

Batez ere, kobreak, merkurioaren, berunaren eta harrikatzaren sektorean hartu zuten parte. Burdina-meatzaritzaren sektorean, ordea, beren partaidetzaren ehunekoa —altua bazen ere— erlatiboki urriagoa zen.

Atzerritar inbertitzaile horiek sozietate batzuk eratu zituzten; esate baterako, *The Riotinto Co.*; *Cinabrio de los Rothschild*; *Orconera Iron Or*; edo *Compagnie Royale Asturienne des Mines*.

Epe luzera, atzerriko parte-hartze horrek ez zion onura handirik ekarri Espainiako ekonomiari. Horren arrazoiak hauek izan ziren:

- Gehienetan, etekinak herrialdean bertan ez inbertitzea.
- Mineral gehiena gordinean esportatzea, landu gabe; hots, balio erantsi urria sortu zen.
- Meatze emankorrenak agortu egin ziren, neurri handi batean Espainiako industrializazioari laguntzeko erabili gabe.

Espainiako mearen eskaria eta merkatuak atzerrian zeuden batez ere. Industrializaturiko Europako herrialde garrantzitsuenetan kokatu ziren (Britainia Handian, Frantzia, Belgika eta Alemanian). XIX. mendean, mineralen esportazioek osatzen zuten, nekazaritza-sektorearekin batera, Espainiako esportazioen sorta nagusia. Barneko eskaria, orduko espainiar industriaren munta eskasa zela-eta, hagitz urria izan zen.

Funtsean, mineral gordinen esportazioa zela-eta, Espainiako meatzaritza sektoreak meatzaritza-sektore kolonia huts baten antza izan zuen, zenbaitetan.

#### **3.4. Burdina-meatzaritza**

Azpisektore horren kokapen garrantzitsuenak ziren Bizkaia, Kantabria, Teruel eta Málaga.

Ez dugu ahaztu behar azpisektore horrek izugarritzko garapena lortu zuela Bessemer sistemari esker. Altzairua egiteko sistema horrek fosforo gutxiko burdingaia behar zuen, eta burdingai berezi hori Bizkaian zegoen batez ere.

Hain zuzen ere, burdingaiaren eskari handiena kanpoan zegoen, are zehatzago, Britainia Handian (XIX. mendearen azkenaldian, produkzioaren % 90 inguru esportatzen zen). Bertan % 10 bakarrik merkaturatzen zen, batez ere, Nerbioi itsasadarraren ezker aldeko burdingintzan.

Zergatik hautatu zuen Britainia Handiak euskal burdingaia, eta Suediako burdina baztertu? Galdera horri erantzuna emateko, Euskal Herriko burdinaren zenbait ezaugarri mesedegarri aipatu behar ditugu: I) euskal burdingaiaren kalitatea; II) hura erauztea erlatiboki erraza zen, gehienetan lurrazalean aurkitu zelako; III) meategietatik Nerbioiren kaltetara garraio erraza eta hurbila zen; IV) itzulera-pleitamentuen ahalbidea garrantzitsua zen, itsas garraioa merkatu zelako.

Inbertituriko kapitalari zegokionez, batez ere britainiarra, frantziarra edota belgikarra izan zen. Baina tokiko inbestitzaileak ere jabetu ziren sektorearen ehuneko garrantzitsu batez; era horretan, kapital asko pilatu zuten, burdingintzan inbertitzeko aproposa.

#### **4. Industria**

XIX. mendean, erraz aipa genitzake Espainiako estatuaren industrializazioaren hasierako zenbait ezaugarri orokor; esate baterako:

- Lurraldeen eta sektoreen arteko desoreka handia zen (Kataluniako oihalgintzak eta Euskal Herriko burdingintzak lorturiko garapen-maila izan ziren nabarmenenak).
- Gainerako Mendebaldeko Europako herrialdeen parean, nabaria zen Espainiako atzerapen-maila; aldi berean, Britainia Handiko teknikak berandu hartu zituzten.

##### **4.1. Oihalgintza**

XIX. mendean zehar, Katalunia nagusi zen oihalgintzan (batez ere, Sabadell eta Tarrasa aldean). Kataluniako lehiaren ondorioz, beste lurralde-ekoizle batzuk baztertuta geratu ziren; esate baterako, Béjar (Salamanca) edo Alcoy (Alacant), zeinetan aurretik oihalgintza tradizionala eta sakabanaturikoa garatu izan baitzen.

Honako hauek izan ziren Katalunian oihalgintzaren modernizazioa gauzatzeko arrazoiak:

- Teknologia berritzailea sartu zen (1830eko hamarkadaz geroztik britainiar teknologia sartu zen: lurrun-makina, tresnerien eta makinen modernizazioa, eta abar). Hasiera batean, hobekuntza horiek kotoigintzan gertatu ziren batez ere; geroago, gainerako azpisektoreetan ere bai: artilean eta lihoan.
- Enpresak sozietate anonimoen bidez eratu ziren, oro har.

Lehengaien hornidurari zegokionez (kotoi gordina, batez ere), gehienetan AEBtik hegoalderako estatuetan erosten zen.

Halaber, Katalunian oihalgintzaren garapena lortzeko orduan, ezinbestekoak ziren estatuaren laguntza eta babesak; hain zuzen ere, laguntza bi eratara erdietsi zen:

- Bata, Kataluniarentzat Espainiako barne-merkatua erreserbatuz, atzerriko lehiari oso muga-zerga altuak ezarriz (hala ere, barneko eskariaren ahulezia agerian zegoenez, arazo handia izan zen sorturiko gehiegizko produkzioarena).
- Bestea, Kataluniarentzat kolonietako merkatuak gordez (Kubakoak eta Puerto Ricokoak).

Hala eta guztiz ere, XIX. mendearen azkenaldian, eskaria tinko erori zen. Honako hauek izan ziren horren arrazoiak:

- 1898ko azken kolonien independentzia.
- Frantziako oihalen lehia (Espainiako ardoa Frantziara gehiago esportatzearen ordainetan, Frantziak erraztasunak eskuratu zituen bere oihalak Espainiako merkatuan sartzeko).

Lehen Mundu Gerra zen bitartean, sektoreak beste goraldi bat izan zuen. Dena den, egoeraren araberakoa baino ez zen.

## 4.2. Burdingintza

Kokapenari dagokionez:

- Hasiera batean, 1861-1865 bosturtekoan, Malagarena izan zen burdingintzaren nagusigoa. Garapen hori Malagan bertan zegoen burdingaiari esker garatu zen. Dena dela, Malagako harriatzaren urritasunak eta Asturiasetik ekartzeko beharrak gainbehera eragin zuten Malagako burdingintzan.
- Geroago, 1865etik 1880ra bitartean, Asturias aldean kokatu zen Espainiako estatuko burdingintzaren nagusigoa. Lurralde hartan harriatzaren hornikuntzarako arazorik ez zegoen, oso ugaria baitzen. Gainera, burdingaiari zegokionez, erraz hornitu zen Bizkaiko burdinarekin. Era horretan, Asturias aldean burdingintza-enpresa batzuk eratu ziren.
- Azkenean, 1880ko hamarkadaz geroztik, Bizkaiaren esku geratu zen burdingintzaren nagusigoa. Euskal burdingintza Bizkaian bertan zegoen burdingaiari esker garatu zen eta, aldi berean, Asturiasetik eta Britainia Handitik bideratu zen harriatzaren hornidura.

1902. urte aldean heldu zen Euskal Herriko burdingintzaren abagune garrantzitsuenetarikoa bat, aurreko hiru burdingintzek bat egin zutenean: *Altos Hornos de Bilbao*, *La Vizcaya* eta *La Iberia* enpresek *Altos Hornos de Vizcaya* enpresa berria eratu zuten.

Dena den, barne-eskari urria zela eta, Espainiako estatuko burdingintzaren sektorea kaltetu zen. Gainera, Espainiako burdingintzatik Europa industrializatura landuriko burdina esportatzeko egindako saioek oztopo handiak izan zituzten, atzerriko produkzioa lehiakorragoa izan baitzen. Testuinguru horretan, gainprodukzioa eta, era berean, ekoizpen-ahalmenaren azpierzalera arazo larriak izan ziren, eta sektorearen garapena oztopatu zuten.

Sektorearen beste ezaugarri bat, oro har, ekoizpenaren kopuru eskasa izan zen, behintzat Europako burdingintza garrantzitsuekin alderatzen bada. Horrela, 1900.

urte inguruan, Espainiako burdina totxoaren produkzioa, Britainia Handikoaren aldean, % 3 soilik izan zen, eta altzairuarena are baxuagoa, % 2koa.

Edonola ere, sektorearentzat mesedegarriak izan ziren zenbait alderdi, hala nola: atzerriko burdingintzaren lehia oztopatzeko asmoz politika protekzionista egin zen eta, aldi berean, nabaria zen kartelak eta oligopolioak osatzeko erraztasuna, enpresen salneurrien eta merkatuen kontrola ahalbidetu zutenak.

## **5. Kanpo-merkataritza**

### **5.1. Sail nagusiak**

XIX. mendean zehar, oso makala izan zen Espainiako ekonomiaren internazionalizazio-maila. 1850. urtean, kanpo-merkataritza % 4 soilik zen BPGren barnean. Hala ere, 1900. urterako, % 20 izan zen.

Gainera, merkataritza-balantza defizitarioa izan zen mendearen urte gehienetan.

Lehengaiak (elikagaiak eta mineralak) izan ziren esportaziorako sorta edo sail nagusiak:

- Elikagaiak: ardoa (honen esportazioa, filoxera zela-eta, erori egin zen mendearen azkenaldian), olioak, fruitu lehorrak, zitrikoak (horiek, batik bat, XIX. mendearen azkenaldetik aurrera).
- Mineralak: burdina, merkurioa eta beruna.
- Beste esportazio batzuk: kortxoa eta oihalak (azken horiek 1898an koloniek independentzia lortu arte), edo kualifikaziorik gabeko eskulana.

Inportaziorako sorta nagusiak, berriz, hauek izan ziren: kolonien produktuak (kotoi gordina, kakaoa, kafea edo kanabera-azukrea), zerealak (garia, batik bat), harriak eta antzeko lehengaiak, tresneria, ekipamendu-ondasunak, teknologia, trenbideetarako materialak eta finantza-kapitalak.

Kanpo-merkataritzaren kokalekua gehien bat Mendebaldeko Europan bertan zegoen (Britainia Handian, Frantzia, Alemanian, Herbehereetan) eta Amerikan (AEBn, Kuban eta Argentinan).

### **5.2. Politika ekonomikoa eta protekzionismoa**

XIX. mendean zehar, Espainiako estatuan ere oso lehia zorrotza garatu zen protekzionismoaren eta librekanbismoaren defendatzaileen artean. Oro har, protekzionismoaren jarraitzaileen alde zegoen nagusigoa.

Hala ere, salbuespen batzuk izan ziren. Esate baterako, 1868ko Iraultzaren ondorioz librekanbismo moderatua ezarri zen. Inguru hartan, 1869. urtean, *Arancel Figuerola* delakoak protekzionismoa baztertu zuen Espainian aldi baterako. Hain zuzen ere, muga-zerga horren 5. oinarria deritzonaren bidez, muga-sari batzuen jaitziera progresiboa finkatu zen. Geroago, gobernu moderatuek berriro uko egingo zieten beherapen horiei.

Horrela, mendearen azkenaldera iritsi zen, berriro ere, politika protekzionistaren sasoia. Denek batera —nekazari lur-jabe handien presio-taldeek (Gaztelakoak eta Andaluziakoak), zein industria-empresaburuen presio-taldeek (Kataluniako oihalgintzakoak eta Euskal Herriko burdingintzakoak)— muga-zergaren bidez babes-maila altuagoa eskatu zioten gobernuari. Testuinguru hartan, *herrialde berrien* lehia goraldian zegoen nekazaritzaren eta abelazkuntzaren arloetan.

Empresaburuen presio-talde horien ondorioz, 1891. eta 1906. urteetan muga-zerga protekzionistak kaleratu ziren.

Joera horri are gehiago eutsi zioten 1907. urtean, *Espainiako Industria Babesteko Legearen* bidez. Lege horren arabera, eskari publikoa asetzeko, soilik Espainian bertan egindako produktuak eros zitezkeen. Era horretan, industriaren babes zuzenari ekin zioten eta, aldi berean, *Espainiako Ekoizpena Babesteko Batzordea* sortu zen.

Are gehiago, 1909. urtean, Mauraren legearen bidez, ildo protekzionista horri eutsi zioten, orduko hartan merkataritza-itsasontziteria eta itsasontzigintza babestuz.

Jadanik 1922. urtean, Lehen Mundu Gerraren ondoren, *Cambó* muga-zerga delakoaren bidez, berriro areagotu zen industriarentzako babes-maila Espainiako estatuan.

Azkenean, kanpo-merkataritzaren liberalizazioaren hasiera, herabeki bazen ere, oso berandu iritsi zen: 1960ko hamarkadan, hain zuzen ere.

## **6. Lehen Mundu Gerra garaiko egoera ekonomikoa**

1914. urtean, Espainia gerran sartzeko aukerari buruz izandako zalantzek mesfidantza handia eragin zuten. Mesfidantza horrek arlo ekonomikoan eta, batez ere, finantzarioan izan zuen eragina.

Dena dela, gerrari buruzko Espainiako Gobernuaren jarrera neutrala argi geratu zenean, ezohiko egoera zabalkorra ireki zen Espainiako ekonomiarentzat.

1914tik 1918ra bitartean Espainiak azaldutako neutralitatea ezinbestekoa izan zen abagune hedakor hori eskuratzeko orduan. Hala eta guztiz ere, eta aldi hura egoeraren arabera baino ez zenez, gerra amaitutakoan berriro moteldu egin zen

ekonomia-garapena; hain zuzen, 1919. urtetik aurrera, berreskuratu egin ziren Europako ekonomiaren ohiko ezaugarriak.

Halaber, aipatu beharra dago, gerrarekiko neutralitateak iraun zuen bitartean, nabariak izan zirela Espainiako ekonomiaren sektoreen arteko ezberdintasunak.

Alde batetik, zenbait arazo kaltegarri izan ziren, hala nola:

- Mineralen, zitrikoen eta zenbait jakiren esportazioak kaltetu ziren (horren arrazoiak izan ziren gatazka garaian agerturiko esportaziorako eta garraiorako zailtasunak eta, era berean, ezinbestekoak ez ziren zenbait produkturen atzerriko eskariaren jaitziera).
- Eragozpen eta oztopo ugari zeuden atzerriko tresneria, makineria eta teknologia inportatzeko.
- Soldata errearen jaitziera eta salneurrien gehiegizko igoera ere agertu ziren (horren ondorioz, adibidez, 1917. urtean greba orokorrerako deia egin zen Espainian).

Beste alde batetik, gai mesedegarriak ere izan ziren; esate baterako:

- Ohiko sektore batzuek onura atera zuten; adibidez, Asturiaseko harriatzaren meatzaritza, Kataluniako oihaingintza eta euskal burdingintza (sektore horiek garatu ziren atzerriko lehia desagertu egin zelako egoera hartan); bankua; itsasontzigintza; itsasontzi-enpresak eta aseguru-konpainiak (azken sektore horiek onura izan zuten, gerra-garaian asko igo zirelako pleitamenduen eta itsas aseguruaren prezioak).
- Sektore industrial batzuk eratu eta garatu ziren; hala nola, industria kimikoa eta farmazeutikoa. Sektore horiek larrialdi-egoera hartan eratu ziren, inportazioen presakako ordezkapen-politika baten bidez, Espainiako merkatua hornitzeko asmoz gerra aurretik zenbait herrialde beligerantek —Alemaniak, batik bat— hornitu zituzten produktuekin. Hala eta guztiz ere, gerraostean jadanik, ekonomia normalizatu eta beste abagune bat agertu zenean, presaka eraturiko industria horiek oso gaizki egokitu ziren egoera berri hartara.
- 1915etik 1919ra, merkataritza-balantzan superabita izatea lortu zen. Dena den, azken data horren ondoren, aurretik bezala, berriro defizitarioa izan zen merkataritza-balantza.
- Gerran Espainiako finantza- eta diru-sektoreentzat agertu ziren baldintza mesegarriak zirela-eta, zenbait arlotan onura atera zen; hala nola:
  - i) Kanpo-zorra Espainiako inbertitzaileen esku geratu zen.
  - ii) *Espainiako Bankuaren* urre-erreserbak gehitu ziren.
  - iii) Espainiako ekonomian, oro har, atzerriko kapitalarekiko mendekotasuna urriagoa izan zen: ekonomiaren bide edo ildo nazionalista areagotu zen, tokiko industria



suspertuz (arlo horretan, atzerriko kapitalaren munta murriztea lortu zen oinarriko sektoreetan —meatzaritza, burdingintza eta trenbideak—).

iv) Neutralitatearen ondorioz izandako kapital-pilaketari esker, banku-sektorearen beste zabalkunde bati ekin zioten.

Arestian aipatu den legez, gerraostean krisiaren sintomak agertu ziren berriro. Era horretan, sektore batzuk kaltetu egin ziren; besteak beste, oihalgintza, burdingintza, kimika (sortu berria zenez, gehiago eragin zion), meatzaritza (arlo horretan, Britainia Handiko harrikatza berriro hasi zen lehian Asturiaseko harrikatzarekin) eta bankua (Kataluniakoa kaltetu zen bereziki).

Horren guztiaren ondorioz, zenbait enpresatan zailtasunak eta porrotak izan ziren, langabezia-tasa gehitu zen, eta horren ondorengo gatazka soziala areagotu. Testuinguru hartan, arazo ekonomikoek zein politikoez egoera larritzea eragin zuten, eta *Hirurteko boltxebikea* deritzona sortu zen.

Funtsean, berehalako gerraostean, Espainian, *Berezarkuntzaren krisiaren* garaian, zenbait arazo ekonomiko, sozial eta politiko elkartu ziren (gobernuak ezegonkortzea, Marokoko Gerra, nazionalismoak, eta abar). Testuinguru hartan gertatu zen, 1923an, Primo de Rivera jeneralaren estatu-kolpea.

## **7. Primo de Riveraren diktaduraren ekonomia**

Primo de Riveraren diktadura (1923-1930), oro har, Espainiako ekonomiaren hazkundearekin batera etorri zen.

Bi arrazoik azaltzen dute egoera hartan izandako zabalkundea. Alde batetik, atzerrian zegoen egoera mesedegarria, zeinak Espainiako ekonomiari mesede egin baitzion —Espainiako ekonomiaren nazioarteko esparruan integrazio-maila baxua bazen ere—.

Bestalde, barruko esparruan egoera ekonomiko ona izatea ere mesedegarria zen. Zergatiak asko izan ziren; hala nola:

- Bake soziala, laborala eta politikoa ezarri ziren. Ezarpen hori politika-errepresio gogorraren bidez lortu zen eta, aldi berean, sindikalismoaren sektore baten laguntzarekin. Egoera hartan, zenbait iskanbila amaitu egin ziren, esaterako, Marokoko Gerra eta Katalunian patroia eta langileen arteko gatazkak.

- Barne-mailan, politika ekonomiko zabalkorra hasi zen. Politika hedakor horren ezaugarriak askotarikoak izan ziren. Esate baterako:

- a) Lan publikorako programei emandako pizgarria baliabide askoren bitartez: 1) *Sindikatu Konfederazio Hidrografikoak* eratuz (ibai-arro batzuetan garapen ekonomikorako plangintza integralak bultzatu ziren; adibidez, ureztapena, nabigazioa

edota hidroelektrizitatea suspertuz); *Ebroko Konfederazio Hidrografikoa* izan zen erakunde horien artean nabarmenena. 2) Halaber, *Bidegintzarako Zoru Berezien Espainiako Zirkuituaren Patronatua* erakundea sortu zen, errepideen arloa pizteko asmoz. 3) Era berean, *Trenbideetako Kontseilu Gorena* eratu zen, trenbidearen esparruan aritzeko asmotan; dirulaguntza ematearen truke, estatuak trenbide konpainien kontrola handitu zuen (horrela, trenbidearen esparruan, estatua parte hartzen hasi zen, eta geroago sektorearen nazionalizazioan amaitu zen). 4) Sektore horretan ere, *Urgentziaz Eraiki Beharreko Trenbideen Plana* izenekoa kaleratu zen, trenbideak eraiki eta haien elektrifikazioa bultzatzeko asmotan. Are gehiago, politika zabalkor horrekin loturik, 1920ko hamarkadaren amaieran Bartzelonako eta Sevillako erakusketa unibertsalak antolatu ziren. Hala eta guztiz ere, Espainian sektore publikoa tamaina txikikoa zen artean; errenta nazionalaren % 15etik beherakoa izan zen.

b) Aurreko lan publikorako politika zabalkorarekin loturik, nabaria zen aurrekontu publikoaren gastua gehitzea. Plan handi horien finantziazioa lau bidetatik egiten saiatu ziren: I) Presio fiskala handituz. Baina, arlo horretan bistan geratu ziren Espainiako sistema fiskalaren akatsak, eta zailtasunak agertu ziren errentaren gaineko zerga progresiboa ezartzerakoan. Berrezarkuntzaren egitura fiskala aldatzerakoan, bistan zegoen diktaduraren inpotentzia. II) Atzerriko kapitalak erabiliz. Era horretan, ITT telefonia-konpainia estatubatuarrak CTNE eratu zuen eta, aldi berean, *Standard Oil* petrolio-konpainia estatubatuarrak CAMPSA eratu zuen. III) Zor publikoaren jaulkipena erabili zen finantziazioa lortzeko ere; hala ere, agerian zegoen aurrekontu-ortodoxia klasikoaren eragina. IV) Finantzatzeko erabilitako beste era bat aurrekontuarekin loturik zegoen, are zehatzago, bi aurrekontuen lanketaren bidez: bata ohikoa, normalean superabita zuena; eta bestea ezohikoa, non lan publikoetarako gastu nagusiak sartzen baitziren.

c) Ekonomiaren esparruan, estatuaren parte-hartzea areagotu zen. Ekimen horren ondorioz, alde batetik, protekzionismoa eta ekonomiaren ildo nazionalista areagotu ziren, Espainiako enpresaburuen atsegina sortu zutenak. Beste alde batetik, estatuaren parte-hartzea, tartean sartzea eta kontrola ere areagotu ziren; horrek enpresaburuen oposizioa sortu zuen.

Abagune eta politika ekonomiko horien ondorioak izan ziren inbertsioa eta eskaria gehitzea eta ekonomia-hazkunde nabarmena. Espainiako kapitalismo handia mesedetu zen.

Hala ere, hamarkadaren azkenaldian eta 1930. urte inguruan, arazo ekonomiko eta politiko batzuk agertu ziren, diktaduraren amaiera ekarri zutenak. Besteak beste, honako hauek ziren:

- Arazo ekonomikoen artean, pezetaren jaitsiera zen behinena (1926. urtetik, Marokoko Gerra amaitutakoan, atzerriko inbestitzaileek espekulatiboki handitu zuten pezetaren erosketa, pezetaren birbalioztatzea laster izango zelakoan; birbalioztatzea heltzen ez zenez, ordea, pezetaren salmentari ekin zioten eta horrek pezetaren kotizazioaren beheraldia eragin zuen 1929an eta 1930ean).
- Arazo politiko larriena izan zen erregimenaren aurka gogorturiko zenbait talderen oposizioa: hain zuzen ere, kataluniar eta euskal abertzaleen oposizioa; intelektualena eta ikasleena; eta talde politiko demokratiko batzuen eta armadako talde baten oposizioa; diktadorearenganako konfiantza galdu zuten.

Egoera hartan, armadaren euskarria eta laguntza galduta, Primo de Rivera erbesteratu egin zen. Espainiako historian beste urrats politiko, sozial eta ekonomiko baten hasiera izan zen.

## **8. II. Errepublikaren ekonomia**

Diktaduraren erorialditik (1930) II. Errepublika aldarrikatu arte (1931ko apirila), Berenguerren eta Aznarren gobernu laburrak izan ziren.

Ikuspegi ekonomiko batetik, honako hauek izan ziren Berenguerren gobernuaren eta Argüelles haren Ogasuneko ministroaren jardueraren ezaugarriak:

- Aurreko diktaduraren politika ekonomikoaren oinarriak erabat apurtu ziren.
- Aurrekontu-politikaren esparruan norabide-aldaketa nabaritu zen; herstura ekonomikoa eta gastuaren kontrola gogortu egin ziren.
- Lan publikoetarako aurreko politika zabalkorra ere eten egin zen.
- Politika ekonomiko murriztailea eta, aldi berean, ekonomia hozteko erabakiak suspertu ziren.
- Enpresen perspektibak iluntzea eta inbertsioaren jaitsiera orokortu ziren.

Gainera, 1930eko nazioarteko krisiaren lehenengo sintomak antzematen hasi ziren Espainiako ekonomian; inbertsio eta kontsumoarekiko ondorio negatiboak agertu ziren. Egoera hartan, Berenguerren gobernuak gastu aldetik bultzaturiko politika murriztailea ez zen batere onuragarria krisiaren ondorioak biguntzeko.

1931ko hauteskundeak emaitzek II. Errepublikarako bidea atondu zuten. Horrekin batera, muturreko norabidea hartu zen ekonomiaren, politikaren zein gizartearen esparruan.

II. Errepublikaren bilakaera hiru gobernuen bidez egin zen:

- 1931tik 1933ra, *sozial-azañista* gobernuak eratu zen; ildo ezkertiarra izan zuen.
- 1933tik 1935era, joera kontserbadorea zuen gobernu *erradikal-zedista* eratu zen.
- 1936ko otsailean Fronte Popularrak eratu zen, ildo ezker muturrekoa zuena.

Azkenean, 1936ko uztailean, Gerra Zibila hasi zen jeneral atzerakoien talde batek bultzaturik, estatu-kolpe baten bidez; 1936tik 1939ra iraun zuen.

1931. urtean, II. Errepublika hasi zenean, egoera ekonomikoa oso kaltegarria zen. Nazioarte-mailan, 1930eko krisiaren ondorioak sumatzen ziren erabat, Espainiako ekonomiarentzat ere tamalgarriak izan zirenak. Barnealdean ere zenbait arazoren eragina nabarmendu zen; esate baterako:

- Arlo politiko eta sindikal ezkertiarrek itxaropen handiegia izan zuten erregimen berriarengan.
- Bai landetan bai hirietan, ezegonkortze eta gatazka soziala eta laborala hedatu ziren.
- Krisiaren ondorioz langabezia-tasa handitu egin zen; horrez gain, nazioarteko krisia zela-eta, langabetuek ez zuten emigratzeko aukerarik.
- Pezetaren balioa jaitsi egin zen.
- Esportazioen beherapena (pezetaren beheraldia izan arren) orokortu egin zen. Arazo horren zergatiak izan ziren, besteak beste, kanpoko eskariaren elastikotasuna (kanpo-eskaria ardoan, zitrikoetan eta beste produktu batzuetan oinarritzen zen, horien kontsumoa erraz ken baitzitekeen) eta nazioarteko krisialdiak berak murriztu izana Espainiako produktuen esportaziorako aukerak.
- Nabaria zen enpresaburu-munduak errepublikar erregimenarekiko zuen mesfidantza.
- Enpresaburuaren etorkizuna ahula zen eta inbertsio-tasa baxuak izan ziren.
- Nabaria zen Errepublikako gobernuaren ahultasun politikoa.

Funtsean, II. Errepublikaren hasierako egoera ekonomikoa (bai barnean, bai kanpoan), aurreko diktadurak izan zuen egoeraren parean, askoz ere okerragoa izan zen.

## **9. Bi eredu ekonomiko, aurrez aurre, Gerra Zibilean**

Ikuspegi ekonomiko batetik soilik begiratuta, Gerra Zibilak garrantzi handiko aldaketak eragin zituen. Politika ekonomikoari zegokionez, elkarren aurka egindako bi bandoek —errepublikarra, hauteskundeetan legalki eraturikoa; eta nazionalista edo faxista, kolpista izaerakoa— bakoitzak bere proiektu ekonomikoari ekin zion, beren ideologia politikoaren isla baitziren.

### **9.1. Nekazaritza-sektorea**

#### **a) Errepublikaren mendeko aldea**

Nekazaritza-jabegoaren egitura dekretu sorta batean oinarritu zen, zeinak lurrak hartzeko orduan askotariko modalitatea ezarri baitzuen; horrela, adibidez:

- Baliagarritasun sozialeko lursailak erabat hartzea bultzatu zen.
- Udal-agintariek baimena eman zuten abandonatutako edozein lursail hartzeko. Dena dela, praktikan, errepublikarren artean gehienetan ez ziren udalak lursailen okupazioaren eta kolektibizazioaren protagonistak, sindikatuak (CNT, UGT) eta langileen komiteak baizik.
- Onurarik eta kalte-ordaintzerik eman gabe, gobernuak orokortu zuen Errepublikaren aurka jo zuten jabeen lursailak desjabetzea.
- Uzta gehiago nazionalizatu ziren.

Ikuspegi geografiko batetik, kolektibizazio handienak Ciudad Real, Jaén edo Albacete probintzietan gertatu ziren.

Nekazaritza-ekoizpenari zegokionez, honako hauek ziren errepublikarren aldearen ezaugarriak:

- Zerealen, egoskarien, patataren eta abereen ekoizpenak defizitarioak ziren; hots, kontsumo zuzenerako produktuak (horren arrazoia izan zen errepublikarren aldean hasieran zeuden lurra laborerentzat egokiak ez izatea).
- Zitrikoen, arrozaren, olioaren eta fruitu lehorren oparotasuna; esportaziorako produktuak, alegia.

Gainera, hiri handiak hornitzeko orduan, garraio-arazo larriak zeuden.

#### b) Frankisten mendeko aldea

Lur-jabetzaren aldaketari zegokionez, nagusi zen immobilismoa. Are gehiago, lurra aurreko jabeen itzuli zizkieten. Hain zuzen ere, helburu horrekin eratu zen *Lurraren Erreforma Ekonomiko Sozialerako Zerbitzua*.

*Gariaren Espainiako Zerbitzua* izeneko erakundea ere eratu zen, zerealen erreserbak eta merkaturatzea kontrolatzeko.

## **9.2. Industria-politika**

#### a) Errepublikaren mendeko aldea

Honako hauek izan ziren sektore horren ezaugarri nagusiak:

- Enpresaburu eta tekniko gaituen gabezia nabaria zen; askotan, arazo politikoengatik, jabeek eta kudeatzaileek industriak bertan behera utzi zituztelako.
- Lantegiak hartu eta haietan esku hartzerakoan, aniztasuna nagusi zen. Esparru horretan, azpimarratzekoa zen sindikatuen eta langile-komiteen garrantzia. Askotariko modalitateak garatu ziren lantegietan parte hartzerakoan; hala nola, I) kolektibizazioa, CNTk bultzaturikoa, langileen kontrol-komiteen bitartez; II) nazionalizazioa, UGTk

susperturikoa, hori ere langileen kontrol-komiteen bidez; III) lantegien jabetza pribatuari eustea; kasu hori batez ere gobernu autonomoak pizturikoa zen Euskadin.

- Gerrarako ekoizpenerako, gobernuaren esku-hartzea nagusitu zen lantegietan; zenbait kasutan, gainera, nazionalizaziora ere iritsi ziren. Beste sektore batzuetan ere estatuaren parte-hartzea orokortu zen: trendibeetan, petrolioan (CAMPSA), elektrizitatean edo itsasontzigintzan, esaterako.

#### b) Frankisten mendeko aldea

Alde batetik, zabalkunde militarren bidez, industria-ekoizpena suspertu zen; batez ere, iparraldea konkistatuz industria-ahalmena gehitu zenean (batik bat, Asturias eta Euskadi hartzean, non lantegi gehienak suntsitu gabe mantendu baitziren).

Beste alde batetik, kalte egin zioten industriagintzari tresneria zaharkitzeak eta izandako inbertsio eskasek.

Banku handiek, beren aldetik, laguntza handia eman zioten industria astunari.

### **9.3. Banku-sistema eta gerratearen finantziazioa**

#### a) Errepublikaren mendeko aldea

- Bankuen desjabetzerik ez zegoen. Hala ere, zenbait bankutan estatuaren esku-hartzeari eta kontu korrante batzuk blokeatzeari ekin zioten.

- Gerra finantzatzeko orduan, hauek izan ziren gehien erabilitako prozedurak: I) barneko finantzaketa, *Espainiako Bankuak* Altxorrari emandako diruaren bidez (12.754 milioi pezeta inguru); II) kanpo-finantziazioa, Sobietar Batasunera eta Frantziara urrerreserbak bideratuz (510 urre tona inguru; 500 milioi dolar gutxi gorabehera), edo AEBra zilarra salduz.

- Finantziazio mota horren ondorioa prezioen inflazio handia izan zen.

#### b) Frankisten mendeko aldea

- 1937. urtean, dekretu baten bidez, *Espainiako Bankuaren* batzorde bat eratu zen Burgos hirian (aldi berean, bi Espainiako Banku izan ziren; bata errepublikarra, Madrilen; bestea frankista, Burgosen). Era berean, *Banku Pribatuaren Batzordea* eratu zen, balantzeen aurkezpenak eta akziodunen batzarrak deitzeko beharrik gabe.

- Gerratea finantzatzeko orduan, honako hauek ziren frankistek erabilitako prozedurak: I) barnekoa; *Espainiako Bankuak* Altxorrari emandako dirua (10.100 milioi pezeta inguru); II) kanpokoa; Alemaniarekiko zorra (1948. urtean likidatua) eta Italiarekikoa (1967. urtean likidatua), oro har, 500 milioi dolar inguru izan ziren. Halaber, Portugalgo, Suitzako edo Britainia Handiko banku batzuetan harturiko maileguak erabili ziren;

edota AEBko petrolio- eta automozio-enpresa handi batzuek kredituz emandako hornidurak.

- Finantziario mota horren ondorioz, frankisten artean ere altua zen prezioen inflazioa; hala ere, errepublikarren parean ez hain nabaria.

#### **9.4. Gerraren ondorio ekonomikoak**

Lehenengo eta behin, galera handiegiak izan ziren demografia aldetik:

- 800.000 biztanle inguru hil zituzten edo desagertu ziren, gerran bertan eta berehalako gerraostean.

- 300.000 biztanle inguru erbestera joan ziren.

- Gerraostean, agerian geratu zen preso politikoen existentzia.

- Gerra-garaian, nabarmen jaitsi zen jaiotza-tasa.

Zehatzago, ondorio ekonomikoei zegokienez:

- *Espainiako Bankuaren* urre-erreserbak galdu ziren.

- Gerrako gastuak 300.000 milioi pezeta inguruan kalkulatu dira.

- Eraikuntzen deuseztapena nabaria zen (herrialdearen ondarearen % 8 edo).

- Azpiegiturak ere nabarmen suntsitu ziren, bai trenbideetakoak, bai errepideetakoak, bai itsasontzien tona kopurua (osoaren % 30 edo).

- Nekazaritzarako lursailak murriztu ziren.

- Errenta % 28 inguru jaitsi zen; 1950eko hamarkadaren hasiera arte ez zen lortu gerra aurreko maila berreskuratzerik.

### **10. Frankismoaren ekonomia-urratsak**

#### **10.1. Kronologia**

- 1939-1950. Autarkia eta gelditasuna

- 1951-1956. Ekonomia berreskuratzearen hasiera

- 1957-1959. Egonkortze-plana

- 1960-1975. Garapen-planak

- 1975-1978. Krisialdi ekonomikoa eta trantsizio politikoa

#### **10.2. 1939-1950. Autarkia eta gelditasuna**

Aldi horretan, autarkia edo ekonomiaren muturreko bide nazionalista orokortu zen. Herrialdearen berreraikuntza tokiko baliabideekin soilik bideratu zen. Arazo politikoengatik, erregimenaren nazioarteko isolamendua finkatu zen eta atzerriko laguntza biziki murriztu zen.

Ekonomia-esparruan, estatuaren parte-hartzea eta gehiegizko kontrola areagotu ziren. Horrez gain, estatuaren interbentzionismoa nagusitu zen gizarte-mailan ere, kasu horretan sindikalismo bertikalaren bidez.

Estatuaren parte-hartzearen testuinguru hartan, 1939. urtean hain zuzen ere, INC (*Instituto Nacional de Colonización*) eratu zen, nekazaritzaren arloan arau zorrotzak ezarri zituena. Era berean, ezabatu egin ziren aurreko nekazaritza-erreforma errepublikarraren aztarnak. Oro har, nekazaritza-ekoizpenean jaitziera nabaritu zen (garia, patata, eta abar). Egoera horri aurre egiteko, Argentinarekin merkataritza-akordioak garatu ziren, haragiaren eta gariaren inportazioa ahalbidetzeko asmotan.

Estatuaren arautzearen beste adibide bat INI (Industria Institutu Nazionala) eratzea izan zen, 1941. urtean. Erakunde publiko hori defentsarako eta oinarrizko sektoreetan aritu zen. Esan behar da ekoizpen-mailak oso baxuak izan zirela, edozein motatako teknologiaren inportaziorik eza eta lehengai eta energia falta zirela-eta.

Horrela, 1940ko hamarkadan geldialdi ekonomikoa hedatu zen; era berean, inflazioa eta merkatu beltza orokortu ziren; bizi-maila erabat jaitzi zen eta hura izan zen mende osoko egoerarik traketsena. Gainera, gerra aurreko errenta-maila ez zen berreskuratu 1950eko hamarkadaren hasiera arte.

### **10.3. 1951-1956. Ekonomia berreskuratzearen hasiera**

Aldi hartan, herabeki bazen ere, kanpo-merkataritzaren esparrua irekitzeari ekin zioten, eta liberalizazio-politika ekonomikoaren hasiera heldu zen. Helburu horrekin, Europarekiko harremanak berreskuratu ziren eta AEBren laguntza eskuratu zen. Ezin dugu ahaztu Gerra Hotzaren urteak zirela, eta Espainiaren kokapena (geoestrategiaren aldetik) onuragarria zela talde kapitalistarentzat.

Espainia nazioarteko zenbait erakundetan sartzen hasi zen, hala nola NBEn (1955); eta geroago NDFn (1958), Munduko Bankuan (1958) eta EELEn (1959).

Aldi berean, aurreko autarkiaren ekonomia-mugak gainditzen hasi ziren garai hartan.

Berreskuratze nagusia industriagintzan lortu zen (burdingintza, zementugintza, eta abar), teknologiaren eta ekipamenduen inportazioak gehitu zirelako. Neurri txikiagoan bazen ere, nekazaritza-ekoizpena ere gehitu zen.

Hala eta guztiz ere, eta aurreko aldian gertatu zen antzera, goiko inflazio-ildoek jarraitu egin zuten artean. Gainera, merkataritza-balantza gero eta negatiboagoa zen. Edonola ere, ekonomia-hazkunde onuragarria lortzeko orduan, agerian geratu ziren arazo autarkiko oztopotzaileak; adibidez, artean, kanpo-merkataritza gehiegi arauturik eta kontrolaturik zegoen.



#### **10.4. 1957-1959. Egonkortze-plana**

Plan horren bitartez, Espainiako ekonomia-egituraren oreka, ordenazioa eta modernizazioa bilatu ziren. Bultzatzaileak ministro berriak izan ziren (teknokratak, batez ere); adibidez, Alberto Ullastres (Merkataritza sailean), Navarro Rubio (Ogasunean) edo Laureano López Rodó (Idazkaritza Orokorrean).

Egonkortze-plan horren arabera, gobernuak garrantzia eta kontrola galdu behar zituen ekonomian.

Hasiera batean, barneko ekonomiaren normalizazioa bilatu zen, salneurriak egonkortuz eta inflazioa eteten saiatuz. Horretarako, eskaria murrizten ahalegindu ziren.

Hurrengo helburua kanpoko ekonomiaren oreka bilatzea izan zen, esportazioa liberalizatuz, pezeta egonkortzea eta antzeko diru-neurriak hartuz (60 pezeta / 1 dolar truke-tipoa finkatuz) edo, azkenean, NDF, EELE, Munduko Bankua eta antzeko nazioarteko erakunde ekonomikoetan sartuz.

Egonkortze-plan horren bidez, ordura arteko ekonomia nazionalistaren bidetik 1960ko hamarkadaren garapen-eredura pasatu ziren. Horrela, politika ekonomikoaren arloan, norabide-aldaketa garrantzitsua gertatu zen, ekonomia liberalizatuz eta kanpo-sektoreari arreta handiagoa jarritz.

Berehala antzeman zen arrakasta ekonomikoa; dena den, zenbait arlotan kaltegarria izan zen; horrela, adibidez, langabezia-tasa biziki igo zen (edozein egonkortzetan gertatzen den gisan), eta biztanleko aktiboaren ehuneko handi bat industrializaturiko Europarantz emigratzera behartu zuten.

#### **10.5. 1960-1975. Garapen-planak**

Gobernuak ezarritako plangintza horiek zenbait helburu ekonomiko finkatu zituzten. Dena den, helburu horiek betetzea sektore publikoarentzat soilik zen nahitaezkoa; sektore pribatuarentzat, ordea, izaera adierazgarria baino ez zuten.

Plan horiek aurreko Egonkortze-planak erdietsiriko liberalizazioari esker bete ziren, lehengaien, tresneriaren eta finantza-kapitalen inportazioa ahalbidetzean, batez ere AEBtik.

Hain zuzen ere, planak —laurtekoak— hiru izan ziren: 1964-1967, 1968-1971 eta 1972-1975 urteen artean.

Kontsumoaren, barne-produktuaren eta abarren gainean izandako aurreikuspenak ez ziren erabat eskuratu; baina, dena den, inoiz ez bezalako ekonomia-hazkundera lortu zen urte horietan; aldi berean, inoiz ez bezalako aldaketa soziala ere areagotu zen.

Era berean, probintzia batzuetan martxan jarri ziren industria-garapenerako gunek; horien helburua —lorpen handirik izan gabe— geografiaren mailan industria-desorekak murriztea zen.

Sektoreari zegokionez, industriaren arloan gertatu zen hedakuntza handiena; zehatz-mehatz, automobil-industriaren esparruan.

Nekazaritza-arloari zegokionez, sektorea modernizatu ahala gero eta eskulan gutxiago enplegatu zen. Egoera hartan zabaldu ziren mekanizazioa, ongari artifizialen erabilera eta ureztapena.

Herrialdearen errenta-esparruan, nekazaritzaren ekoizpenaren ehunekoa murriztu bazen ere, nekazaritza-produktuek jarraitu zuten esportaziorako sail nagusia izaten 1960ko hamarkadaren amaierara arte. Dena den, Espainiako enpresek jada industria-produktu batzuk ere esportatzen zituzten.

Espainiaren kanpo-merkataritzako ohiko defizitari zegokionez, zerbait murriztu zen turismoak sarturiko dibisei esker eta Europarantz joandako emigranteen dibisei esker.

1975. urtean, azkenean, amaitu zen frankismoa. Alde batetik, Frankoren heriotzak ez bai eta zalantza politiko handiak eragin zituen; beste alde batetik, aldi berean, 1973. urteko nazioarteko krisialdiaren eragina zabaltzen hasi zen. Agerian zegoen aro berri baten hasiera.

## **11. Espainiako ekonomia, demokraziaren garaian**

1977ren hasieran, Espainiako datu ekonomikoek depresio-egoera bat adierazten zuten:

- Produkzio-ekintzaren geldineua (BPGren igoera 1975ean % 1,5).
- Langabeziaren igoera (800.000 langabetu).
- Inflazio-maila altua (% 20).

Egoera hartan Moncloako Hitzarmenak sinatu zituzten gobernuak, alderdi politikoek, sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek. Neurri hauek hartu zituzten: likido eskuragarrien kontrola, pezetaren devaluazioa eta soldaten kontrola. Emaitzak ez ziren izan guztiz onak.

1982tik aurrera, Felipe Gonzalezen gobernu sozialistak inflazioaren kontrolean eta soldaten moderazioan oinarritutako politika ekonomikoa eraman zuen aurrera. Erregimen demokratikoa indartzeak Europarako hurbiltasuna eragin zuen; horrela, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan (gaur egungo Europar Batasuna) sartu zen 1986an, indartze ekonomikoa bultzatuz.

Europako Ekonomia Erkidegoan sartzeak bere ekonomia zabaltzera behartu zuen Espainiako estatua, atzerriko inbertsioa asko gehitu zen, eta kanpo-lehia zela-eta Espainiako enpresak modernizatu behar izan ziren. Azpiegituretan nabarmen handitu ziren inbertsio publikoak, 1992ko Olinpiadak eta Expoa antolatzeko egin zirenak barne.

Kontsumoa gehitu egin zen, burtsaren eta ondasun higiezinaren balioa igotzeak sortutako aberastea zela-eta. Horrela, Espainiaren BPG handitu, zor publikoa murriztu, langabezia-tasa % 23tik % 15era jaitsi eta inflazioa % 3ra jaitsi zen.

Hala eta guztiz ere, 1980ko hamarkadaren amaieran izandako garapen handiaren ostean, Espainiako ekonomiaren hazkundea guztiz moteldu egin zen 1992 erdialdetik aurrera. Orduetik aurrera, Maastrichteko Itunak euroa martxan jartzeko ezarritako neurriak betetzean oinarritu zen politika ekonomikoa; inflazioaren eta defizit publikoaren kontrola zen helburua.

1995etik aurrera ekonomia errekuperatu egin zen, kontsumitzaileen konfiantzan eta kontsumo pribatuaren igoeran oinarrituta. Horri esker, 1998an Jose María Aznarren Gobernuak (PP) lortu zuen Espainiak Europako dirua hartzeko baldintza gogorak betetzea. Azken krisialdiaren aurretik langabeziak kezka sortzen zuen, egoera hobetu bazen ere (2005ean % 8,5).

1990eko hamarkadan, pezetak jasandako debaluazioak esportazioak lehiakorrago bilakatu zituen; baina euroak ezarri zenetik izan duen indarrak (2002an zirkulazioan jarri zenean, berehalako balio-galtzea izan zuen, baina ondoren indartzuz joan da dolarrarekiko; esaterako, 1 € = 1,4 \$ aldaketa-tipoa ere izan da) zalantzan jarri du esportazioen prezioak altuegiak ote diren. Hala eta guztiz ere, Eurogunean merkataritza erraztu eta handitu egin da, eta Espainiak merkataritza-harremanak indartu ditu Latinoamerika eta Asiarekin.

Oso maila altuko hazkunde ekonomikoari esker, Espainia munduko zortzigarren ekonomia bilakatu zen (munduko zortzigarren BPG 2007an, NDF eta Mundu Bankuaren datuen arabera) eta bazirudien Espainiak 2008ko nazioarteko finantza- eta ekonomia-krisialdia jasan zezakeela. Ordea, higiezinaren burbuilaren ezta biziki eragin zion Espainiako ekonomiari, eta izugarri ahuldu zen. Adibide argiena langabezia-tasa da: 2012ko abenduan % 26ra igo zen. Espainiak ezin izan dio aurre egin 2010eko Euroguneko krisiari, eta 2012an Europar Batasunak kontuan hartu du Espainiako banka-sektorea.

## XII. gaia. EUSKADIKO INDUSTRIALIZAZIOA

### 1. Bizkaiko eredia: industria-kontzentrazioa

Kronologia: Bizkaian, XIX. mendearen bigarren zatian hasi zen industrializazioa.

Industrien kokapen geografikoa:

- Batik bat, Nerbioi itsasadarraren ezker aldean kokatu ziren: Barakaldon, Sestaon eta inguruetan. Kontzentrazio-maila altua zen, alegia.
- Desoreka geografiko horren arrazoiak hauek izan ziren: a) Ezker aldeko burdingaia ustiatzeko izandako ahalbide ugariak; b) Britainia Handiko harrikatza ekartzen zuten itsasontziak amarratzeko aukera oparoa (aipaturiko bi lehengaiak —Bizkaiko burdingaia eta Britainia Handiko harrikatza— premiazkoak izan ziren Bizkaiko industria-garapena lortzeko orduan).

Sektore garrantzitsuenak:

- Kontzentrazio sektoriala ere nabaria zen; kasu hartan, burdingintza izan zen nagusia.
- Beste sektore batzuk: itsasontzigintza, papergintza, kimikoa, hidroelektrikoa, oihalgintza, eta abar.

Halaber, tamaina handiko enpresetan izandako finantza-kontzentrazioa ere altua zen. Euskal oligarkiaren protagonismo ekonomikoa agerian zegoen. Familiak eta enpresaburuen dinastia horiek ez ziren asko; hala nola, ibarratarrak, txabarritarrak, etxebarriatarrak, martinez-rivastarrak, eta abar.

Hasiera batean, bistakoa zen burdingaiaren garrantzia; haren eskaria Britainia Handian agertu zen batez ere, altzairua ekoizteko orduan, Bessemer sistema agertu zenean.

a) Burdingintza:

- Lehenengo saioa, porrota: *San Miguel de Artunduaga*.
- Mugak kostaldera aldatu ziren eta *Santa Ana de Bolueta* eratu zen.
- *Altos Hornos de Bilbao* enpresa, ibarratarrena.
- *La Vizcaya* enpresa, Víctor Txabarriren enpresa-taldearena.
- *Altos Hornos de Vizcaya* enpresaren eraketa: sektorearen kontzentrazioarako joera.

b) Metalurgia-sektorea:

Burdingintzako enpresaburuek bultzaturiko transformazio-industria garatu zen.

c) Itsasontzigintza:

- Euskal itsasertzean barrena, ohiko *carpinteros de ribera* delakoen ospea.

- XIX. mendean, sektore horren atzerapen teknologikoa nabaritu zen Euskal Herrian, ez baitziren hartu nazioartean agertutako itsasontzien eraikuntzarako ezaugarri berriak.

- Sektorearen modernizazioa eta birmoldaketa: *Astilleros del Nervión, Euskalduna* eta *La Naval*.

d) Industria hidroelektrikoa:

*Hidroeléctrica Ibérica, Hidroléctrica Española* eta *Saltos del Duero*: Bizkaiko kapitalaren partaidetzaren adibide izan ziren elektrizitatearen sektorean.

e) Banku-sektorea:

*Banco de Bilbao, Banco de Vizcaya* eta *Crédito de la Unión Minera*.

## **2. Gipuzkoako eredia: industria-sakabanaketa**

Kronologia: Gipuzkoan, XIX. mendearen bigarren zatian eta XX.aren lehen urteetan hasi zen industrializazioa.

Kokapen geografikoa: Bizkaiko kasuaren parean, kontzentrazio geografikorako joera ez zen hainbestekoa; sakabanaketa-maila, ordea, handiagoa.

Sektore nagusiak:

- Bizkaiko ereduaren aldean, aniztasun handiagokoa izan zen Gipuzkoakoa; askotariko sektoreak izan ziren protagonista; hala nola:

- Papergintza (Tolosa, Oria ibaia), kotoigintza (Bergara, Deba ibaia), armagintza (Eibar eta Soralue) edo metalurgia eta transformazio-industria (Arrasate, Legazpia, Zumarraga).

Tamainaren arabera, enpresa mota: ETE-en (Enpresa Txiki eta Ertainen) nagusigoa nabaria zen. Oro har, Bizkaikoa baino tamaina txikiagokoak izan ziren.

Enpresaburuen protagonismoari zegokionez, burgesia ertaina izan zen protagonista; kolektibo horren autofinantziaziorako ahalmena mugatua zenez, askotan, beste lurralde batzuetan eskuratu behar izan zituzten kapitalak.

Ekoizpen-jardueretan, birmoldaketarako ahalmena nabaria izan da. Horrela, adibidez, su-armen produkzioetik bizikletak eta josteko makinak ekoiztera pasatu ziren, eta, geroago, etxe-tresna elektrikoak ekoiztera.

Gipuzkoan enpresa mota berri bat sortu zen, lehena Euskal Herrian: kooperatibismoa, hain zuzen ere. 1950eko hamarkadan agertu zen, Mondragon Taldea eratu zenean.

### **3. Arabako eredia: nekazaritza eta industriaren arteko oreka**

Kronologia: bistakoa da Arabako industrializazioaren atzerapen kronologikoa; 1950eko hamarkadan finkatu zen industrializazio-prozesua Araban, garapen-plan frankisten babesean.

Geografia: lantegiak batez ere Gasteiz inguruan hasi ziren kokatzen. Funtsean, lurraldearen gainerakoa landa-eremua da —Laudio, Amurrio eta antzeko eremu batzuk izan ezik—. Desoreka horren arrazoia Gasteizko Udala bera industrializazioaren bultzatzaile izatetik dator; enpresak erakartzeko politika bati ekin zioten, industriak finkatzeko erraztasunak emanez, zergak murriztuz, edo mota askotako babes industrialia suspertuz.

### **4. Euskal Autonomia Erkidegoa**

1980ko hamarkadaren erdian, krisialdi ekonomikoaren momentu larrietan, industriaren birmoldaketa eta berrindustrializazioa gertatu zen (langabezia-tasa: % 25).

1990eko hamarkadan, garapen ekonomikoak indarra hartu zuen berriro, eta, gaur egun, Espainiako estatuko herrialderik aurreratuena da:

- Lurralde txikia bada ere, industria- eta enpresa-bolumen handia batzen du Euskadik, eta estatuko lurralderik aberatsenetakoa da: 2006an, Euskadiren BPG per capitaren batez bestekoa Europar Batasunaren batez bestekoaren % 118 zen, hau da, Espainiako estatuarena baino % 20 altuagoa.

- Ekonomia hobetzeak enpleguak egokitzea eragin zuen, industriaren arlotik zerbitzuen arlora, eta langabezia-tasa % 5era jaitsi zen 2008ko krisiaren aurretik.

- 2007an Europako I+G+B-n (gaztelaniaz, I+D+i) inbestitze-tasa erdietsi du (BPGren % 1,85).

Euskal Autonomia Erkidegoak, Espainiak ez bezala, ez du eraikuntzan oinarritutako ekonomiarik, eta higiezinaren burbuilaren eztandak ez du eragin gogorrik izan. Hala eta guztiz ere, nazioarteko finantza-krisialdiak eta, bereziki, Euroguneko krisialdiak Euskadiko hazkunde ekonomikoa geldiarazi dute.

### **5. Nafarroako Foru Erkidegoa**

Nafarroako industrializazio-prozesua Arabakoaren berdintsua izan da, bi lurraldeek ezaugarri berdintsuak dituztelako.

1960ko hamarkadan industriaren garapena gertatu zen, batez ere 1964ko Industriaren Sustapenerako Programari esker. Horren arabera, nekazaritzan

oinarritutako ekonomiatik (langileen erdiak nekazaritzan lan egiten zuen) ekonomia modernoago batera pasatu nahi zen, dinamikoagoa eta orekatuagoa izango zena.

Era horretan, Nafarroako BPG sortzean garrantzi nabaria du industriagintzak (BPGren % 34,5; estatuan % 28 da). Beraz, industria-espezializazioa da Nafarroako ekonomiaren ezaugarri nagusia.

Lan-merkatuan, langabezia mantentzen bada ere, Espainiako beste lurralde batzuetan baino askoz ere hobea da egoera: 1995ean Nafarroako langabezia-tasa % 13 zen, eta estatukoa % 23; 2008ko krisialdiaren aurretik, Nafarroako langabezia-tasa % 5 izan zen.

Datu hauetan ikus daiteke Nafarroak duen garapen-maila altua:

- Nafarroako biztanlegoa estatuko % 1,3 da, eta Nafarroako BPG estatuko % 1,6.
- Nafarroako batez besteko BPG per capita estatukoa baino % 16,5 altuagoa da; Europar Batasuneko % 115 suposatzen du horrek.

Egun, Nafarroa krisialdia jasaten ari da Euskal Autonomia Erkidegoaren modu berean.

## BIBLIOGRAFIA

Enpresa eta Ekonomia ikasketetan erabiltzen diren Historia Ekonomikoari buruzko eskuliburuak:

- ALLEN, R. (2013): *Historia económica mundial. Una breve introducción*, Anaya, Madril.
- ALONSO TAJADURA, R. (2010): *Historia Económica del siglo XX: del patrón oro a las subprimes*, Gran Vía, Burgos.
- COMÍN, F. (2012): *Historia Económica Mundial: de los orígenes a la actualidad*, Alianza, Madril.
- FRIEDEN, J.A. (2012): *Capitalismo Global. El trasfondo económico de la historia del siglo XX*, Crítica, Bartzelona.
- MARTÍN, V. (2012): *Historia de la Empresa*, Ediciones Pirámide, Madril.
- OCAMPO, J. (2011): *Manual de historia económica mundial*, Trea, Madril.
- PRIETO, E. eta DE HARO, D. (2011): *Historia económica: lecturas y prácticas*, Delta, Madril.
- SALVADORI, M. (2013): *Breve historia del siglo XX*, Anaya, Madril.
- THERBON, G. (2012): *El mundo. Una guía para principiantes*, Alianza Editorial, Madril.
- WILLIAMSON, J.G. (2012): *El desarrollo económico mundial en perspectiva histórica. Cinco siglos de revoluciones industriales, globalización y desigualdad*, Zaragozako Unibertsitatea, Zaragoza.
- ZAMAGNI, V. (2010): *Historia económica de la Europa contemporánea*, Crítica, Bartzelona.

Bibliografia gehigarria:

- ALDCROFT, D.H. (2003): *Historia de la economía europea (1914-2000)*, Crítica, Bartzelona.
- ALONSO, J.A. (2000): *Diez lecciones sobre la economía mundial*, Civitas, Madril.
- AMBROSIUS, G. eta HUBBARD, W. (1992): *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Alianza, Madril.
- ANES, G. (arg.) (1999): *Historia económica de España. Siglos XIX y XX*, Galaxia Gutenberg / Círculo de Lectores, Bartzelona.
- ARACIL, R. eta SEGURA, A. (1995): *Historia económica mundial y de España*, Teide, Bartzelona.
- ARASA, C. eta ANDREU, J.M. (1999): *Desarrollo económico*, Dykinson, Madril.
- ARRIGHI, G. (1999): *El largo siglo XX*, Akal, Madril.



- ASHWORTH, W. (1958): *Breve historia de la economía internacional (1850-1950)*, F.C.E., Mexiko.
- AYALA, J.A. (1994): *Economías desarrolladas y empresas en la historia contemporánea*, DM/PPU, Bartzelona.
- BÁÑEZ, M.P. (1998): *Economía mundial*, Pirámide, Madril.
- BARBÉ, E. (2003): *Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril.
- BARBERO, M.A. et al. (2007): *Historia Económica Mundial. Del Paleolítico a Internet*, Emcé, Buenos Aires.
- BERZOSA, C. et al. (1996): *Estructura económica mundial*, Síntesis, Madril.
- BRODER, A. (2000): *Historia económica de la España contemporánea*, Alianza / Bartzelonako Unibertsitatea.
- BULL, H. (2005): *La sociedad anárquica: un estudio sobre el orden en la política mundial*, Catarata, Madril.
- BUSTELO, F. (1996): *Introducción a la historia económica mundial y de España (siglos XIX y XX)*, Síntesis, Madril.
- BUSTELO, F. (1999): *Quince ensayos de historia económica. Del Paleolítico al siglo XXI*, Madril.
- CAMERON, R. (1994): *Historia económica mundial. Desde el Paleolítico hasta el presente*, Alianza, Madril.
- CARRERAS, A. (et al.) (2003): *Historia económica de Europa. Siglos XV-XX*, Crítica, Bartzelona.
- CARRERAS, A. (2003): *Historia económica de la España contemporánea*, Marcial Pons.
- CAZADERO, M. (1995): *Las revoluciones industriales*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- CHALIAND, G. (2004): *Atlas del Nuevo Orden Mundial*, Paidós, Bartzelona.
- CHANDLER, A.D. (1996): *Escala y diversificación. La dinámica del capitalismo industrial*, Zaragoza.
- CIOCCA, P. (2000): *La economía mundial en el siglo XX*, Crítica, Bartzelona.
- CIPOLLA, C.M. (2003): *Historia económica de la Europa preindustrial*, Crítica, Bartzelona.
- CLOUGH, S.B. eta RAPP, R.T. (1997): *Historia económica de Europa. El desarrollo económico de la civilización occidental*, 3. argit., Bartzelona.
- COMIN, F. eta MARTIN ACEÑA, P. (arg.) (1996): *La Empresa en la Historia de España*, Civitas, Madril.
- COMIN, F. et al. (2005): *Historia económica de España*, Crítica, Bartzelona.

- DEANE, Ph. (1993): *El Estado y el sistema económico. Introducción a la historia de la economía política*, Crítica, Bartzelona.
- DELFAUD, P. et al. (1980): *Nueva Historia Económica Mundial (Siglos XIX y XX)*.
- DEREK, H.A. (2003): *Historia de la economía europea. 1914-2000*, Crítica, Bartzelona.
- DOBB, M. (1972): *Estudios sobre el desarrollo del capitalismo*, Siglo XXI, Madril.
- EICHENGREEN, B. (1999): *La globalización del capital. Una historia del sistema monetario internacional*, Antoni Bosch, Bartzelona.
- FERRER, A. (1996): *Historia de la globalización. Orígenes del orden económico mundial*, Buenos Aires.
- FISCHER, W. (1986): *Historia económica mundial del siglo XX*, Crítica, Bartzelona.
- FOREMAN.PECK, J. (1995): *Historia económica mundial. Relaciones económicas internacionales desde 1850*, 2. argit., Ariel, Bartzelona.
- GALLEGO MARTÍNEZ, D. (2007): *Más allá de la economía de mercado*, Marcial Pons, Madril.
- GARCIA DELGADO, J.L. eta JIMENEZ, J.C. (1999): *Un siglo de España. La economía*, Marcial Pons, Madril/Bartzelona.
- GARCIA RUIZ, J.L. (1994): *Historia económica de la empresa moderna*, Istmo, Madril.
- GARCIA RUIZ, J.L. (koord.) (1998): *Historia de la empresa mundial y de España*, Síntesis, Madril.
- GERMAN, L. et al. (arg.) (2001): *Historia económica regional de España. Siglos XIX y XX*, Crítica, Bartzelona.
- GONZÁLEZ ENCISO, A. eta MATÉS BARCO, J.M. (koord.) (2007): *Historia económica de España*, Ariel, Bartzelona.
- GUIA PRACTICA DE HISTORIA ECONOMICA MUNDIAL (1997), Bartzelonako Unibertsitatea.
- HALPERIN, T. (et al.) (2002): *Historia económica de América Latina*, Crítica, Bartzelona.
- HAYEK, F.A. et al. (1997): *El capitalismo y los historiadores*, 2. arg., Unión Editorial, Madril.
- HERNANDEZ ANDREU, J. (koord.) (1996): *Historia monetaria y financiera de España*, Síntesis, Madril.
- JAY, P. (2002): *La riqueza del hombre. Una historia económica de la humanidad*, Crítica, Bartzelona.
- JONES, E.L. (1998): *Crecimiento recurrente. El cambio económico en la historia mundial*, Alianza, Madril.
- KENWOOD, A. eta LOUGHEED, A. (1992): *Historia del desarrollo económico internacional. Desde 1820 hasta nuestros días*, Istmo, Madril.
- KINDLEBERGER, Ch.P. (1992): *El orden económico internacional*, Crítica, Bartzelona.

- KINDLEBERGER, Ch.P. (1993): *Problemas históricos e interpretaciones económicas. Estudios de historia financiera*, Crítica, Barcelona.
- KRUGMAN, P. (1997): *Desarrollo, geografía y teoría económica*, Antoni Bosch Editor, Barcelona.
- KRUGMAN, P., WELLS, R. eta OLNEY M. L. (2011): *Introducción a la economía*, Reverté, Barcelona.
- LANDES, D.S. (1999): *La riqueza y la pobreza de las naciones*, Crítica, Barcelona.
- MADDISON, A. (1991): *Historia del desarrollo capitalista. Sus fuerzas dinámicas. Una visión comparada a largo plazo*, Ariel, Barcelona.
- MADDISON, A. (1997): *La economía mundial, 1820-1992. Análisis y estadísticas*, Perspectivas OCDE, Paris.
- MARCAIDA, E.V. (koord.) (2002): *Estudios de historia económica y social. De la revolución industrial a la globalización neoliberal*, Biblos, Buenos Aires.
- MARTÍN ACEÑA, P. (zuz.) (2011): *Pasado y presente: de la Gran Depresión del siglo XX a la Gran Recesión del siglo XXI*, Fundación BBVA, Bilbo.
- MARTÍNEZ GONÁLEZ-TABLAS, A. (2000): *Economía política de la globalización*, Ariel, Barcelona.
- MASA, P. eta VITORIO, A. di (koord.) (2003): *Historia económica de Europa. Siglos XV-XX*, Crítica, Barcelona.
- NADAL, J., CARRERAS, A. eta SUDRIA, C. (arg.) (1991): *La economía española en el siglo XX. Una perspectiva histórica*, Ariel, Barcelona.
- NUÑEZ, C.E. eta TORTELLA, G. (arg.) (1993): *La maldición divina. Ignorancia y atraso económico en perspectiva histórica*, Alianza, Madrid.
- NUÑEZ, G. eta SEGRETO, L. (arg.) (1994): *Introducción a la historia de la empresa en España*, Abacus, Madrid.
- OCAMPO SUAREZ-VALES, J. (1998): *Historia económica mundial y de España*, Oviedo Unibertsitatea.
- PALAFOX, J. (koord.) (1998): *Curso de Historia de la Economía*, Tirant lo Blanch, València.
- PALOMARES LERMA, G. (2004): *Relaciones Internacionales en el Siglo XXI*, Tecnos, Madrid.
- PEARSON, F.S. eta MARTIN ROCHESTER, J. (2000): *Relaciones Internacionales. Situación global en el siglo XXI*, McGraw Hill, Bogotá.
- PEREIRA, J.C. (2003): *Historia de las Relaciones Internacionales Contemporáneas*, Ariel, Barcelona.
- PIORE, M.J. eta SABEL, Ch.F. (1990): *La segunda ruptura industrial*, Alianza, Madrid.

- POLLARD, S. (1992): *La conquista pacífica. La industrialización de Europa, 1760-1970*, 2. argit., Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza.
- PRADOS DE LA ESCOSURA, L. (2000): *El progreso económico de España, 1850-2000*, Fundación BBVA, Madrid.
- RIBOT, L.A. eta ROSA, L. de (zuz.) (2000): *Industria y época moderna*, Actas Editorial, Madrid.
- SALA i MARTIN, X. (1999): *Apuntes de crecimiento económico*, 2. argit., Antoni Bosch Editor, Bartzelona.
- SIMON SEGURA, F. (1996): *Manual de Historia económica mundial y de España*, Ramón Areces, Madrid.
- SIMON SEGURA, F. (1997): *Historia Económica*, Madrid.
- TAMAMES, R. (1999): *Estructura económica internacional*, Alianza, Madrid.
- TORTELLA, G. (1998): *El desarrollo de la España contemporánea. Historia económica de los siglos XIX y XX*, 2. argit., Alianza, Madrid.
- TORTELLA, G. (2005): *Los orígenes del siglo XXI: un ensayo de historia social y económica contemporánea*, Gadir, Madrid.
- VALDALISO, J.M. (2007): *Historia Económica de la Empresa*, Crítica, Bartzelona.
- VAZQUEZ DE PRADA, V. (1999): *Historia económica mundial*, Eunsa, Iruñea.
- ZAMAGNI, V. (2001): *Historia económica de la Europa contemporánea*, Crítica, Bartzelona.

**Internet:**

- Asociación Española de Historia Económica, irakaskuntza atala:  
<http://www.aehe.net/docencia.html>
- Investigaciones de Historia Económica - Economic History Research (aldizkaria),  
Asociación Española de Historia Económica: [www.aehe.net](http://www.aehe.net)
- Estudios de Historia Económica, Banco de España:  
[www.bde.es/informes/be/sroja/esthisteco.htm](http://www.bde.es/informes/be/sroja/esthisteco.htm)
- Revista de Historia Económica - Journal of Iberian and Latin American Economic History: <http://turan.uc3m.es/uc3m/inst/LF/RHE/index.html>
- Revista de Historia Industrial: [www.ub.edu/rhi/](http://www.ub.edu/rhi/)
- Revistas Política Exterior y Economía Exterior: [www.politicaexterior.com](http://www.politicaexterior.com)